


eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
The University of the Basque Country

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Faculty of Social and Communication Sciences
Kazetaritza Saila / Journalism Department

***Fast* garaiaren inferentzia irakurketan: *slow* paradigmaren ifrentzua.**

Narratiba digital berriek sortutako ikuspegi azterketa

The influence of the fast era in reading: the reverse of the slow paradigm. Analysis of the perspectives generated by the new digital narratives

Udane Goikoetxea-Bilbao

Zuzendaria/Advisor: Txema Ramirez de la Piscina Martínez

Zuzendaria/Advisor: Idoia Camacho Markina

Nazioarteko doktore-tesia /International Doctoral Dissertation Leioa, 2021

(c)2021 UDANE GOIKOETXEA BILBAO



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

UPV/EHUK ‘Laguntzaile ez-doktorea’ zereginari dagozkion orduak onartu dizkio 2019ko ekainean hasita, ikerketa lan hau burutzeko.

The University of the Basque Country UPV/EHU recognizes the hours corresponding to the task of ‘Non-doctoral assistant’ since June 2020 to carry out this research work.

AEBetako George Washington Unibertsitatean ikertzaile gonbidatua izan da doktoregia, Dr. William Youmans-en ardurapean.

The Ph.D. Candidate has been visiting researcher in The George Washington University, US, with the assistance of professor Dr. William Youmans.

L'amour est comme ce qu'on appelle au ciel la voie lactée, un amas brillant formé par des milliers de petites étoiles, dont chacune est souvent une nébuleuse. Les livres ont noté quatre ou cinq cents des petits sentiments successifs et si difficiles à reconnaître qui composent cette passion, et les plus grossiers, et encore en se trompant et prenant l'accessoire pour le principal.

De l'amour, Premier essai de préface.

Cluny, 1938

Abstract

This thesis covers the information paradigm within the framework of postmodernism, with reading as the central theme.

In the fast and slow journalism controversy, the thesis attempts to reach what is known in music as *tempo giusto*. With reference to *slow journalism*, or narrative journalism, we affirm that it is an old practice with new labels.

In the presentation of our ideas, we make use of *flashbacks* and *flashforwards*, with arguments that justify why we desist from going out in search of the undemanding reader, whilst at the same time we extol quality reading, so that we can get closer to the reader.

For the development of the thesis, we had the invaluable contribution both of journalistic thinkers in the in-depth interviews and the answers from the questionnaires in the Delphi study, together with the students from the Journalism Faculty who were surveyed.

The framework of postmodernism stems from the affirmation “Postmodernism is Internet”, the breakdown of which covers not only the technological aspect but also the characteristics of the way of thinking of postmodernism in contrast to modernism.

The huge influence of the Internet on journalism entails the appearance of slow journalism in the face of the impact of the 'here and now' of information in general and of social media in particular.

The central theme of reading articulates and justifies the consultation of printed texts rather than the hegemony of brevity and speed of digital texts that lie outside the frame of narrative journalism or among the classical works with their roots in Greek philosophy, with the conviction that deep thought cannot be separated from in-depth reading.

The eyes of users are filled with an abundance and proliferation of images, but with a short-sighted vision that means we only see what is in front of us. Therefore, the

philosopher of our day must go deeper into the story in order to solve the subjectivity of postmodernism, turning to the universal concepts of Socrates.

We highlight the oft-repeated truth that a good writer must also be a good reader. Conscious that since time immemorial the best journalism business has been the telling of good stories, we have been lavish with the universal sentence that states: "A tale that is true". We deduce that the reader is digitally literate, is media literate; along with being literate in civic values in order to act in harmony with the deontological necessity of journalism. Faced with the proliferation of fake news we underline the need for maximum exigency in the *inventio* of the discourse.

For the culmination of the research, once the idea that we are not what we read but how we read has been reasoned, we turn to advances in neuroscience to affirm that future readers will possess the necessary ability to make use both of digital and printed texts. To this end, we can count on the huge contribution of bilingual citizens who are used to the continual switching between languages. Ultimately, faced with the visual ecosystem that surrounds us, we propose a journalism in which we underline the information that becomes knowledge, with the complete set of terms pertaining to it, stressing the validity of the book as a reference.

On completion of the research, we take note of the slogan: "read, read, read", these days, with the prominence of printed texts.

Aurkibidea

1	Lehen atala. Aurkezpena	7
1.1	Sarrera	9
1.2	Gaia aukeratzearen oinarria eta interes zientifikoa	11
1.3	Edukien egitura	23
1.4	Ikergaiaren egoera	33
1.5	Hipotesia eta helburuak	53
1.6	Metodologiaren aurrerapena	55
2	Bigarren atala. Marko teorikoa	61
2.1	Oinarri epistemologikoa	63
2.1.1	Kazetaritzaren garapen epistemologikoa	64
2.2	Irakurketa	69
2.2.1	Irakurketa eta hausnarketa sakona: liburuaren autoritatea	69
2.2.2	Postmodernitateko historia eta istorioak Euskal Herrian	74
2.2.3	Irakurle erreala, idazle klasikoak eta etorkizuneko irakurlea	77
2.2.4	Irakurketaren alde kognitiboa eta hizkuntzaren alde fonikoa	80
2.2.5	Irakurketa: ondo irakurtzea da ondo idazteko lehen urratsa	81
2.2.6	Irakurketaren aro digitala	85
2.2.7	Irakurketak askeago bihurtzen gaitu, digitalizazioak gizabanakoago ..	86
2.2.8	Burmuin irakurlearen eraikuntza	89
2.2.9	Irakurketan trebatzeko prozesua adinaren arabera	89
2.2.10	Irakurketarako arreta eta kontzentrazioa entretenigarrien aroan	95
2.2.11	Irakurketa metaketa da	99
2.2.12	Irakurketaren etorkizuna	101
2.2.13	Biliterate brain eraikitzeke elebidunaren baldintzak	103
2.3	Teknologia	107
2.3.1	Teknologiaren eragina kazetaritzan	107

2.3.2	Teknologiaren araberako <i>slow journalism</i>	108
2.3.3	<i>Google</i> informazio-munduko metropolia	109
2.3.4	Herritarren kazetaritza edo kazetaritza parte-hartzailea	115
2.3.5	Komunikazioaren jarioak, urrats mailakatuak	121
2.3.6	<i>Internet of Things</i> , gauzen Interneta	123
2.3.7	Kazetariaren jokabidea gaurko gizartean.....	124
2.3.8	Kazetari bikainak. Literatur kazetaritza.....	127
2.4	Kazetaritza Narratiboa	127
2.4.1	Kazetaritza narratiboaren izaera eta ezaugarriak	128
2.4.2	Alfabetatze digitala	144
2.4.3	Egitateetan oinarritutako albistegintza.....	146
2.4.4	Intimitatea salgai dago	149
2.4.5	Kazetaritza narratiboaren errentagarritasuna	151
2.4.6	Digitalizazioak dakartzan negozio ereduaren inguruko kezak	153
3	Hirugarren atala. Marko enpirikoa	157
3.1	Methodology	159
3.1.1	Semi-structured in-depth interviews.....	165
3.1.2	Surveys.....	173
3.1.3	Delphi Study	179
4	Laugarren atala. Emaizak	187
4.1	Sarrera.....	189
4.2	Sakoneko elkarrizketak.....	190
4.2.1	Kalitatezko kazetaritza: zabala, sakona, askotarikoa.....	192
4.2.2	Aro digitaleko azalergia eta arinkeria	195
4.2.3	Postmodernitatea. Sare sozialak. Indibidualismoa	198
4.2.4	Postmodernitatea. Humanitateak	201
4.2.5	Informazio-teknologiaren aroan. Umeen eta gazteen heziketako baldintzak	205
4.2.6	Liburua baliabide	212

4.2.7	Irakurketa sakona. Arnasa luzeko kazetaritza. <i>Berria</i> egunkaria.....	219
4.2.8	Irakurlea. Liburuak. Kronika	225
4.2.9	Liburu onak. Klasikoak. Grezia	229
4.2.10	Arrakala teknologikoa. Balio zibikoetan alfabetatzea.....	235
4.2.11	Etorkizunean euskarri bietan irakurriko da: era digitalean eta liburu formatuan.....	240
4.2.12	Elkarrizketa sakonetako gakoak.....	248
4.3	Delphi study.....	252
4.3.1	First round report	252
4.3.2	Second round report.....	262
4.4	Inkesta: komunikazio ikasleen irakurketa-ohiturak eta ezaugarriak.....	270
4.4.1	Irakurketarako joerarik ohikoenak.....	274
4.4.2	Irakurketa motak eta euskarriak.....	280
4.4.3	Irakurmenaren erakarmena aisialdian	286
4.4.4	Kazetaritza generoak.....	290
5	Bosgarren atala. Ondorioak eta eztabaidarako gaiak.....	295
5.1	Ondorioak eta eztabaidarako gaiak.....	297
5.2	Bilbea. Ondorioen ikuspegi sinoptikoa.....	309
6	Bibliografia.....	313
7	Eranskinak	333
	Neure esker ona zor,	345

Irudien aurkibidea

Figure 1. Editoreen Gremioen Federazioak aurkeztutako barometroa.....	15
Figure 2. Pandemia garaiko irakurketa datuak	19
Figure 3. Irakurketa datuak belaunaldien arabera	20
Figure 4. Methodology outline	165
Figure 5. <i>Berria</i> egunkariaren azala	224
Figure 6. NVivoren bidez jasotako hitz-hodeia.....	249

Taulen aurkibidea

Table 1. Key subjects of the in-depth interviews	169
Table 2. Sakoneko elkarrizketetako hitz maiztasuna.....	250
Table 3. Experts' responses to round 1 Report	263

Grafikoen aurkibidea

Graph 1. Experts' responses to round 1 Report.....	262
Graph 2. Irakurketa maiztasuna.....	275
Graph 3. Irakurketa maiztasuna generoaren arabera	275
Graph 4. Irakurtzeko arrazoiak.....	276
Graph 5. Euskal Herriko biztanleen irakurketa ohiturak.....	278
Graph 6. Estatuko irakurketa datuak	279
Graph 7. Albisteak kontsumitzeko euskarriak.....	281
Graph 8. Borondatezko irakurketa zein hizkuntza eta euskarritan	282
Graph 9. Ikasleek irakurketarako darabilten hizkuntza	283
Graph 10. Egunkariak eta euskarria	285
Graph 11. Irakurketari eta telebistari eskaintzen zaizkion orduak	288
Graph 12. Irakurketari eta sare sozialei eskaintzen zaizkion orduak	289

1 Lehen atala.

Aurkezpena

Tempo giusto

Carl Honoré

1.1 Sarrera

Nahasmen informatibo, aztoramendu soziala eta ziurgabetasuna nagusi diren pandemia-garai aldakor hauetan, esku artean duzun ikerlan honek munduaren konplexutasuna ulertzeko bide umil bezain patxadatsua izan nahiko luke; *fast* paradigma denera zabaldu den honetan *slow* filosofiaren aldeko aldarri apala, hain zuzen ere.

Ikerlan honetan sinergian dihardute irakurketak, teknologiak eta arnasa luzeko kazetaritzak. Postmodernitatearen aroan hiru ardatzok janzten dute sakonean landuriko *triptychos*-a, teknologiak bete-betean zeharkatu eta irauli duenean gizateriaren bizimoldea, beti ere paradigma kognitiboa helduleku dugularik, ezen jakintzarako bidea hezkuntzan eta ikaskuntza esanguratsuan oinarritzen baita.

Ikerketaren muinean ahozkotasuna, literatura nahiz irakurketa eta *slow* kazetaritza aurkitzen dira, *Alnilam*, *Alnitak* eta *Mintaka* bezala gerrikoa josirik, hemisferio bietara argia isuriz. Irratigintzako urte gazte, eder, bizi eta erritmo markatukoek zedarrizten dute abiapuntua; ahozkotasuna ardatz izanik, irakurketari eta literatur saioei ere ohantzea egin genielako, urteen poderioz zereginik behinena eta goiena bihurtuz. Ondoren, Mendebalde Kultura Alkartearen baitan, jalgi genituen Iñaki Gamindek sortutako ahozkotasunaren inguruko proiektuak¹; *Irakurketa ozena ebaluatzeko irizpideak Bizkaian* eta *Irakurketa ozena Bizkaian lantzeko materialak* liburuetan garatuak. Ibilbidean, izan dira asterismoa osatzen lagundu duten osterantzeko hamaika ekimen ere. Hortik gora, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasle izanik, HGH (Hedabideak, Gizartea eta Hezkuntza-Media, Society & Education)² ikerketa-taldean jardunez ikerketaren beraren eta, batez ere, *slow* mugimenduaren³ bidez erdietsi izan dut irakurketaren afonturik gabeko estalpea. Postmodernitatean aurkitzen dute elkar, beraz, irrati garaietan irakurketaren unibertsoaren altzoan sortutako saioek nahiz

¹ Besteak beste, EUDIA iker-taldearen baitan burutu ditu lan ugari. Ikerketa-talde hau euskararen bariazioa ikertzeko sortutako taldea da. Bere helburuetan euskararen aldaketa edo bariazioa ikertu, bariazio hori sortzen duten faktoreak, sozialak zein bestelakoak, zein diren zehaztu eta bariazioa ikertzeko tresnen sortze-lanak aurkitzen dira. Beraz, bariazio geolinguistiko edo diatopikoa, zein soziolinguistikoa edo diastratikoa edo bariazio diafasikoa ikertzen saiatuko da. Iker-talde honen inguruko informazioa UPV/EHUko web orrian kontsulta daiteke: www.ehu.eus/en/web/eudia/aurkezpena

² HGH iker-taldearen inguruko informazio osoa kontsulta daiteke UPV/EHUko orrian. Informazio osatuagoa nahi izanez gero, jo hurrengo web orri honetara: <https://www.ehu.eus/en/web/hgh/hasiera>

³ Ikerketa taldearen baitan arnasa luzeko kazetaritzari buruzko nazioarteko proiektua izan baitugu langai.

sasoi hartako ikerketek, kazetari —haatik, idazle— izateko bidean diren ikasleekin eskurik esku jarduteak —haiek gakartzate-eta orainaldira—, zein errotik aztertuturiko *slow journalism* mugimenduak.

Badakigu planeta erabat interkonektatua bizi garena, postmodernitatearen aroan, Internetenean, datuz beteriko ingurunean. Onartzen dugu aspaldiko gizartean, modernitatean, ematen zen segurtasuna, narrazio unibertsalaren balioa, desagertu egin dela aro digitalean. Ulertzen dugu medioen parte hartzea ezinbestekoa dena hiritarren orientabide zeregina bete dezaten, *fake news*en zibilizazioan.

Teknologiaren etorrerarekin, beronen oihartzunak noraino lausotzen ote dituen milurtekoaren helburuak eta hezkuntzarenak ere mahai gainean dagoen gaia da. Zail gerta liteke-eta teknologiaren erabileran aurreratzea aipaturiko helburuak argitzen ez badira. Hortaz, gizartearen erreproduzio material eta sinbolikoaren egiturak birpatsatzea eskatzen du (norbanakoaren) postmodernitateak. Ildo honetan, informazioaren gizarteak ezagutzaren ekonomiak jaulkiriko teoriak bere egingo balitu, egitateek zein leku hartuko luketen ere pentsa lezake batek. Informazioa eta ezagutza ez baitira sinonimo; lehena gailentzean, *know who* eta *know how* irits daitezke ipurtargiak udako belarretan diren bezala izatera, bakanak, mehatzak. Hots, urritasun horien arrakalek errealitatearen maskaratzailen (*fake* eta osterantzekoen) sunda darie, boterea eta ahulezia dikotomia azalera ekarriz. Hala bada, balio galerak dakarren anabasa nahiz artegatasunaren aurrean, balio erantsia eta (balio) eranskorra eskain ditzake ezagutzaren gizarteak, arteko forma sozial guztiek baino askatasun pertsonalerako aukera edo gama gehiago ditu-eta (Innerarity, 1996: 2)⁴.

Postmodernitatearen unibertsoan irakurketa, teknologia eta *slow* kazetaritza dira gure oraleku eta aztergai, baita kalitatea eta deontologia bera ere, kazetaritzaren ardatza baitira oinarrian. Bidelagun ditugu hona dakartzagun kontzeptuok ere: hibridazioa (dagoena —*fast* eta *slow*— edo... kontrajarria konbinatzea), kapilaritatea (gizartearen likidotasuna eta fluxu-ahalmena), eferbeszentzia (teknologiaren efimerotasuna) eta katalisia (aktibatzailea den alfabetizazioa).

Kazetaritza mintzo garenean, jakina, kazetariez ere badihardugu; kazetariak ezinbestekoak dira albisteei testuingurua, zentzua eta balioa emateko, eta eman ere, *slow journalism*ek eskaintzen duen sakontasunez, ez azalkeiaz; ezen gogoan dugu Noam

⁴ Danielinnerarity.es: El conocimiento en la sociedad del conocimiento.

Chomsky-k (2016) idatzia, alegia, *nahi dutela* [agintedunek] *ez dezagun hausnarketarik egin benetan gertatzen denari buruz*. Azken batean, Micó-k adierazi bezala, aldaketak aldaketa —teknologikoak ere bai— kazetaritzan betiko esentziek irauten dute (Pérez-Soler, 2017: 14). Etorkizunean, hiritar bialfabetatuak lehenengo irakurtzen ikasiko du, eta ostean ikasteko irakurriko, eta ikasia idatziko du gertaera errealean narrazio literarioetan.

Hortxe, literaturaren eta irakurketaren kosmosean era bitako liburuak daudela esan ohi da, unean-uneko liburuak eta une guztietako liburuak —aurrizki iteratiboa jartzen zaien horiek—. Denek ere jakintza erreflexiboa dakarkigute pantailaz beteriko itsasoan. Calvinok (2015: 15) —luma zoliz egun eta eguzki— modu ezin ederragoan deskribatzen ditu klasikoak: “Un classico è un libro che non finisce mai di dire quello che ha da dire”. Irakurketaz dihardugularik, Maryanne Wolf (2018) ikerlariak indartzen du dioguna: “We are not only *what* we read, we are *how* we read”. Honenbestez, disezcionatu beharrekotzat jo dugu gai eta kontzeptu multzoa. Kazetaritza ez baita Da Vinci-ren *sfumato*-a, ezta kazetaria ere.

Fast garaiaren inferentzia irakurketan: *slow* paradigmaren ifrentzua. Narratiba digital berriek sortutako ikuspegi azterketa’ ikerlana UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Kazetaritza Sailean gauzatutako nazioarteko Doktore Tesia da, Idoia Camacho eta Txema Ramirez de la Piscina doktoreek gidatua. Nazioarteko lana izanik, doktorego tesi hau atzerriko egonaldian ere sakondu da. Metodologiari eskainiriko atalean zehazten denez, besteak beste, ikergaiari buruzko alde metodologikoa eta *Delphi* ikerketa AEBetan (The George Washington University⁵) egikaritu dira, William Youmans doktorearen ardurapean⁶.

1.2 Gaia aukeratzearen oinarria eta interes zientifikoa

Abiadura kazetaritzaren erdigune bihurtu zaigula dirudi; arrazoi on batengatik ere izan liteke, ezen gizakiok gertaeren eta mehatxuen berri izan nahi dugu lehenbailehen;

⁵ The George Washington Unibertsitatearen orri nagusian aurki daiteke informazio osatua: <https://www.gwu.edu/about>

⁶ The George Washington Unibertsitatearekin adostu ziren 2020ko urritik 2021eko ekainera bitarteko ekintzak.

berehalakotasuna funtsezko balioztat jotzen da kazetaritzaren kulturaren. Azken bi hamarkadetan, batez ere, indar teknologiko eta komertzialek abiaduraren fenomenoaren indartu egin dute. Aldi berean, kazetaritza profesionalak monopolioa galdu du albisteen ekoizpenean; albisteak ugaritu egin dira, eta albisteen balioa murriztu egin da audientziaren arretarekin batera, batez ere, herritar gazteen artean. Kazetaritza profesionala funtsezko trantsizio-fasean aurkitzen da, eta birpentsatu (Peters eta Broersma, 2013) egin behar da edo berrasmatu (Waisbord, 2013).

Bada, kazetaritzak aurre egin beharreko arazo ugarietako bat kazetaritzak berak aro digitalean bete behar dituen funtzio sozialekiko kezka da. Batzuen ustez, digitalizazio-prozesua informazioa azkar zabaltzeko arrazoia da, funtzio nagusi gisa, esate baterako, digitalizazio-estrategia baten bidez. Beste batzuek, aldiz, testuingurua emateko eginkizunari arreta handiagoa jartzeko pizgarritzat jotzen dute. Ikuspegi bi horiek — *digital first*-ek edo *slow journalism*-ek— ez dute nahitaz elkar baztertzen, baina erreferentzia-esparru desberdinak adierazten dizkigute kazetaritzaren etorkizunari buruz hausnarketa egiteko.

Guk, azken 25 urteetan digitalizazioaren eraginez kazetaritzak ezagutu duen paradigma aldaketa aintzat harturik, beti ere, postmodernitatearen markoan, irakurketa izan dugu ikergai; irakurketa bikoitza, hala testu digitaletan garatzen dena, nola inprimatuetan. Azken batean erabaki ahal izateko, ea testu digitalak erabat hegemonikoak izango diren, eta izan ere, behin betiko, ala irakurle bialfabetatua bizitzan zehar trebaturik, gai zango den bai irakurgai digitzalez elikatzeko, baita inprimatuez baliatzeko ere.

Irakurketan, ordea, euskarri teorikoa eraikitzea ere, ikerlaneko objektutzat arakatzea, ezinbesteko eginkizuna da. Jadanik, teoriagileen artean desadostasunak beti hor direlarik, bat etortzeak ere agerikoak dira. Guk kazetaritzako esparru zabalean erreferente diren autoreak aztertzerakoan irakurketa kritikoz begiraturik, irakurketan oinarritzeko idazlerik esanguratsuenak azpimarratu ditugu. Azterketa kritikoa egiteko bidea zabaldu duten eremuak arakatu dira, beraz, Sims-ek (2009) jasotzen duen bezala.

Marko teorikoaren konkrezioan, irakurle bialfabetatua proposatzen da —hiztun elebidunaren irudira— etorkizuneko irakurletzat. Hau da, irakurlea trebe dena digitalean aritzeko nahiz liburuaren sakonean nahiz kronikan edo kazetaritza narratiboan jarduteko. Horretarako, azkarrak azala dakarrela frogaturik, kontuan hartu da *slow journalism*ek egin duen ekarpena, sakoneko irakurketa eta bat-bateko informazioa

banaturik landuz; ez, ordea, antipodetako bezala. Eta azkenik, hiritarrak era digitalean nahiz inprimatuan gaitasuna lor dezan, beharrezkotzat jotzen ditugu heziketa eta trebakuntza, bai teorikoki, baita praktikan ere.

Irakurketaren berezko balioa ukatzen ez den printzipioa den arren, konkretio mailara bihurtzen dugunean begirada, ezinbestekoa da lekuan-lekuko esparrua aintzat hartzea, herrialde edo tradizioa kontuan hartzea.

Gu bizi garen humus kulturean, berezitasun sozialak, ingurumenekoak, tradiziozkoak ez dira beti irakurzaletasunaren aldekoak. Diogunaren erakusgarri dira Anjel Lertxundi (2020) idazlearen hitzak. Dioenez, “euskararen egoera diglosikoari arreta falta erantsi behar zaio eta irakurketak zerbait behar badu arreta da. Faktore sozialak ere hor daude. Hausnarketa pedagogiko eta didaktikoa falta dira (...) eskolak eredu eman behar du, estamentu sozial guztiek”⁷.

Hari beretik, Atxaga (2014) honela mintzatuko zaigu esatean gauzei —liburuei eta irakurketari— balioa eman behar zaiela komunitatean eta gizartean, etxean hasita. Eransten du behin balioa emanda denbora ere hartuko dugula: “Irakurketaren sakoneko arazo nagusia irakurtzeko denborarik ez izatea da, hori baita irakurtzeko behar den gauza bakarra”⁸. Azken batean, pertsonaren barrua, subjektibitatea liburuetan dago; “hor dago zer den pertsona, bere milaka eta milaka aldaeretan. Hor daude milaka biografia, barne munduak eta, horrek sortzen ditu loturak”.

Beraz, ados gauden arren irakurketaren nahitaezkotasunaz, irakurleriaren jardunbidea ezagutzea ere behar-beharrezkoa dugu, postmodernitateko aro digitalak dakarren eraginaren giroan testuinguru erreala deskriba dezagun.

Atal honetan irakurketatik abiatzen garen arren, oinarria kazetaritza bera da. Beti ere, kazetaritza humanitateen jakintzaren baitan, zeren hortxe kokatu baita kulturalki. Horrekin batera, kazetaritza ondoko ikerketa eremuekin mahai gaineratzen da (Sims, 2009), hau da, psikologia, linguistika, hezkuntza nahiz filosofiarekin harremanetan jarririk.

⁷ Faktoria Saioa, 2020ko martxoa. [Lotura honetan](#) dago entzungai.

⁸ Atxagak maiz aipatzen du irakurketarekin dagoen arazoa. *El Mundo*, 2014ko ekainak 29.

Era berean, kazetaritzaz dihardugunean, gaur eguneko testuinguruan ulertzen dugu, hau da, *fake news*-en giroan⁹ (Galdón, 1994; Berkowitz & Schwartz, 2016; Zilles, 2019), gezurrak zein baieztatu gabeko zurrumurruak kontrolik gabe hedatzen ari diren sare sozialetan. Hortxe dauka lekua *slow* kazetaritzak, abiaduraren geldotzean laguntzen baitu azaletik landutako *fast* testuen eta *fake news*-en jiran eraiki den, bizi dugun errealitatean (Castro et al., 2021).

Irakurketa funtsezko faktorea da oinarrizko gaitasunak garatzeko. Beraz, komunikazio-elementua da, baina errealitatea irudikatzeko elementua ere bada.

Jakina da oso garrantzizkoa bezain konplexua dela guztiontzat irakurmena pertsona ororen prestakuntza aroan. Hala ere, ez dago estatu zein erkidego mailako curriculumean jasota irakurmena lantzeko ordutegi zehatzik derrigorrezko hezkuntza osoan zehar. Irakurmena osatzen duten trebetasunak hobetzea hizkuntzan nabaritu da, baina baita ikasi beharreko ikasgaietara heltzeko moduan ere. Irakurmenak besteen sentimenduekin, besteen esperientzia eta bizitzekin lotzen gaitu, beste munduak ulertzeko gakoak ematen dizkigu, indibidualismoa hautsi eta independente eta zuhurrak izaten lagunduz. Irakasleek, urtez urte, adierazten dituzte kezka berberak ikasleen irakurmenari dagokionez. Ardura adierazten dute PISA eta ostantzeko inkestetan lortzen duten puntuazioa tarteko. Hortaz, galdera honako hau izan liteke: irakasleok behar bezala lantzen al dugu irakurmena ikasgelan? Irakurmenari buruz ari garenean, orokorrean ari gara, hau da, ez dugu irakurmena hizkuntza jakin baten ikasgaira murrizten, alor eta gai guztietara hedatzen dugu. Gaur eguneko Oinarrizko Hezkuntza Curriculumak¹⁰ jasotzen du curriculumaren muin eta ardatza gizarte-bizitzako esparru adierazgarri guztietan hitz egiteko, idazteko, entzuteko eta irakurtzeko trebetasunak eta estrategiak lantzea dela (2015: 152).

Inkesten arabera, Irakurmenari buruzko Inkesta Nazionalaren arabera nahiz PISAren emaitzek adierazten dutenez, gazte askok gutxi irakurtzen dute, eta gutxi dira asko irakurtzen dutenak. Esan bezala, Pisak 2018an egindako inkestaren datuek ere antzeko joera erakusten dute. Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGA) batez besteko puntuazioa irakurketa-eskalako 4. mailan dago, 480 puntutik 553


⁹ Terminoa 2016ko Estatu Batuetako Presidentetzarako hauteskunderen eta urte bereko ekainean egindako Brexit-aren erreferendumaren ondorioz zabaldu da (Quandt et al., 2019).

¹⁰ 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea.

punturako tartean. Espainiaren kasuan, 477 puntura iristen da, ELGaren batez bestekoa (487) eta EBren batez bestekoa (489) baino nabarmen txikiagoa. Kolonbiak, esate baterako, 412 puntu lortu zituen eta Estoniak 523. Kanadak eta Finlandiak 520 puntu dituzte, eta Irlandak 518. Valentzia (473), Madril (474), Euskadi (475) eta Gaztela-Mantxa (478) sailkapenaren erdian daude.

Ildo berean, Editoreen Gremioen Federazioak 2018an egindako Espainiako Liburuaren Irakurketa eta Erosteko Ohituren Barometroaren arabera¹¹, 14 urtetik gorako pertsonen %67,2k irakurtzen ditu liburuak. %59,7k aisialdian eta %28,9 lanegatik edo ikasketengatik.

Figure 1. Editoreen Gremioen Federazioak aurkeztutako barometroa



Iturria: Editoreen gremioen federazioa

Euskal Herriko adierazleak, oro har, altuagoak dira. Elkar Fundazioak ere, Siadeco Ikerketa Elkartearen eskutik, Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak¹² aztertu ditu (2,6 milioi biztanleko unibertsoa). Eraitza nagusien arabera, Euskal Herriko 16 urtetik gorako 10 biztanletik 7 dira irakurleak, %58 berriz ohiko irakurleak —1.500.000 pertsona—; euskarazko ohiko irakurleak, berriz, %6 dira —160.000 lagun—, euskaldunen artean %22,9 dira ohiko irakurleak.

¹¹ Editoreen Elkartearen atarian kontsulta daitezke datu guztiak: federacioneditores.org

¹² Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta ohituren inguruko inkestak postdata.elkar.eus atarian jasotzen dira.

2020an, Editoreen Gremioen Federazioaren arabera, Espainiako biztanleen % 68,8k irakurtzen dituzte liburuak. Horietatik, gehienek, % 64k, aisialdian eta lana edo ikasketengatik %23,1ek. Hala ere, gaur egun, 14 urtetik gorako espainiar biztanleen %52,7k irakurtzen ditu liburuak astero. Beheranzko joera azpimarratzen du barometroak, herritarren % 36k libururik irakurri gabe jarraitzen baitu. Beraz, hobekuntza nabari da 2018ko datuekin alderatuta.

Gutxi irakurtzen dutenak mugikorraren, ordenagailuaren, makinaren menpeko dira; infrarrobotikoak dira, sistematizatu eta hierarkizatu gabeko informazioaren menpeko. Irakurtzeko zaletasuna dutenak, aldiz, egilearengana hurbiltzen dira; haren bizitzako ibilbidea bereganatzen dute, eta baliteke aldi hori gaztetasunaren problematikaz harago joatea. Irakurketak idazketara, ortografiara, gustu onera, erregistro idiomatikoetara hurbiltzen ditu. Gazteek ez badute irakurtzeko zaletasunik, liburuak esku artetik ihes egiten dute; ez dituzte literaturaren nondik norakoak ezagutzen, letren mundua, unibertso oso bat galtzen dute; testu idatzia eta ahozko hizkuntza parekatzen dituzte. Berez, ordea, komenigarria litzateke testu idatzia zirriborrotik, eskema batetik, estilo batetik datorrela jakitea. Aipatu berri duguna bete gabe poesia edo prosa literarioaz gozatzeko aukera galtzen dute. Irakasleen orientazioa, agian, liburuak irakurtzeko erraztasunean oinarritzen da, eta erraztasuna eta adinarentzako egokitasuna nahasten dituzte.

Arazoa da, aipaturiko horrek guztiak ikasteko adinean dauden neska-mutilei zuzenean eragiten diela, *fast food* leloa praktikatzen duen irakaskuntza metodoa da-eta. Irakurtzeko zaletasuna duten ikasleak, aldiz, miresten dituzten idazleekin bizi dira, ia garrantzitsutzat hartzeraino, eta bizitza publikoaren pertsonaia esanguratsuak irakurtzeaz harro agertzen dira. Gainera, komunitateari ideiak, pentsamenduak helarazten dizkieten norbanako gutxi horiekin lotzen dira. Halaber, ibilbide akademikoak amaitzean, irakurtzeko zaletasuna duten ikasle gutxi horiek egile klasiko eta iragankorrek ezagutu eta horien arteko ezberdintasunak ulertzeko gai izango dira. Aldiz, mugikorrean eta mugikorretik bizi diren horiek, besteen iritzien menpeko herritarrak izango dira, oinarri sendoko kulturarik ez baitute. Horientzat, makinak beren ikus-eremua mugatzen du, ez dute harago ikusteko aukerarik, pantailen aurrean hainbeste denbora iragan ostean. Nolabait, mugikorraren gizartearekin, informazioaren joan-etorriarekin liluratuta jarraitzen duten belaunaldiak dira, eta burutazioen jokoek,

originaltasunaren izenean, sare sozialetan azkartasun ikaragarriaz errepikatzen diren mezuak osatzen dituzte.

Irakurmenak ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan duen funtzioari buruzko hausnarketa egun dugun gizartea kontuan hartuta egin behar da. Egunero ari gara Interneten, irudiaren nagusitasunaren arriskuaz hitz egiten, isolamenduaren eta azalkeriaren arriskuaz hausnartzen. Egungo informazioaren gizartean, irudia testuaren gainetik dago eta, zalantzarik gabe, bizimodu horri berehalakoa dena interesatzen zaio. Multimedia formatuan bizi gara, ikaslea txikitatik dago ohituta informazioa azkar, erraz, eta ahalegin gehiegi egin gabe lortzen, hau da, arreta handiegirik eskatzen ez duten bideak erabiltzen.

Irakurketa bigarren lerroan gelditu dela dirudi, telebistaren, ordenagailuaren eta mugikorren indarraren aurrean. Ukaezina da oso esanguratsua dela gazte eta haurrengan gailu elektronikoen eta teknologia berriek duten eragina. Hala ere, gizartean zabalduta dagoen joera da dioguna. Teknologiaren etorrerak ohiturak aldatzea ekarri digu denoi, ezinbestez.

Aurrerago ikusiko dugunez, Unibertsitate aroari bagagozkio, beste hainbeste gertatzen da. Azken urteotan, irakurketa-idazleen ohiturak dibertsifikatu egin dira sare sozialen, telefono mugikorraren, web orrialdeen edo askotariko *blogen* bidez. Bitarteko digital baten bidezko irakurketak trebetasun berriak garatzea ahalbidetu badu ere, erronka handia suposatzen dute, esate baterako, Unibertsitateko heziketako testuinguruan (Lea eta Stierer, 2000).

Gaur egungo ikasleek makinetan badute burua, baliteke beste hainbat gauza ez ezagutzea, liburuak eta irakurtzea esaterako. Ezin dugu ahaztu gizartean eta ikastetxeetan hedatu daitekeen azalkeriaren arriskua ere. Hainbestekoa da egunero jasotzen dugun informazio kopurua, non ez diogun ezta segundo erdia ere eskaintzen; asko jakin nahi dugu, ahalik eta denborarik laburrenean. Hezkuntza, kasu honetan Unibertsitatea, eta irakurtzearen aldeko apustua, egoera hori iraultzeko aukera baliotsua izan daitezke.

Irakurmena umeak, Haur Hezkuntzatik hasita, bereganatzen hasten diren oinarriko gaitasunetako bat da. Horrez gain, ezinbesteko gaitasuna da ia eduki mota guztiez jabetzeko, eta ikaskuntza prozesua behar bezala garatuz joateko. Jakina da irakurtzeak

arreta, kontzentrazioa, konpromisoa eta hausnarketa eskatzen dituela (Bofarull et al., 2001: 171). Hala bada, irakurketa —idazketarekin batera— ezagutza akademikorako eta beronen produkziarako zeharkako sarbide edo iriste modua da, zeharkakoa (Giménez et al., 2017: 7). Elementu horiek guztiak ezinbestekoak dira ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan, baita horien emaitzetan ere. Egia esan, ez da gauza bera norberak nahi duelako irakurtzea, eta ikasteko edo lanerako irakurtzea. Edonola ere, irakurtzeak beti emango digu kulturako, ortografiako, hausnarketako eta xehatzen joango garen bestelako gauza askotako atea irekitzeko aukera. Irakurtzeak eskaintzen dizkigun abantailen aurrean, egun bizi dugun gizarte multimediaren desabantailak aurrez aurre ditugu. Informazioaren gizartea eta teknologia berriak oso erakargarriak eta motibagarriak dira gazteentzat. Zein da, beraz, irakurketaren lekua?

Irakaskuntzaren enfasi nagusiak ikasle guztiek oinarritzko gaitasunak, zeharkakoak eta diziplina artekoak, bereganatzea beharko luke izan. Oinarritzko gaitasun horien artean dago irakurmena. Irakurmena ikaskuntza errazteko funtsezko estrategia izan daiteke. Maiz, oso denbora gutxi eskaintzen zaio irakurtzeari, hain zuzen ere, garrantzitsuagoa delako gaitegia amaitzea edo berez osatzeko zailak diren programa sortzea. Hala, irakurketa bigarren lerroa pasatzeko arriskua egon daiteke.

XXI. mendeko erronkak, beraz, aldi berean dira oso zaharrak eta oso berriak. Oso aspaldikoak, oinarritzko ezagutzaren transmisioa ziurtatu nahi delako, irakurtzea eta idaztea; oso berriak, idazketaren alorreko eskakizun sozialak aldatu egin direlako (Chartier eta Hebrard, 2000: 23).


Atarian aipaturiko datuei erreparatuta, ikus daiteke 2020garren urtea irakurketaren aldekoa izan dela. Hala ere, Hezkuntza sisteman eta adin guztietakoongan eragina izan du. Pandemiak lehentasunak aldatu zituen, eskola emateko moduak zein eginkizunak barne. Halabaina, konfinamenduaren garairik gogorrenetan bereziki, jendeak denbora gehiago izan du irakurtzeko, *fast* edota *slow*, *digital* edo *print*. Estatistikek hala erakutsi digute.

Konfinamendu aldiko datuak erakusten ditu *Conecta Research & Consulting* enpresak, Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroaren (CEDRO) babesarekin egindako azterketak. Helburua covid garaian liburuaren eta irakurketaren eginkizuna aztertzea izanik, ondorioztatzen du liburuak eta irakurtzea oso lagungarriak izan zirela egoerari aurre egiteko. Azterlanak konfinamenduaren lehen asteetan egindako beste lan bat osatu

eta zabaldu zuen, hain zuzen, ohiko irakurleen ehuneko lau puntu igo zela adierazten zuena. Erreferentzia gisa 2019ko Liburuen Irakurketa eta Erosteko Ohituren Barometroa hartu zuen, 2020ko otsailean aurkeztua.

*Global english editing*¹³ enpresak plazaratutako infografiek (2020) datu esanguratsuak jasotzen dituzte. Jakina da, mundu osoko liburu industrian izan duena eragina pandemiak. Liburu denda askok ateak itxi edo negozioak Internetera eraman behar izan dituzte eta argitalpen-industriak kolpe handia jaso du. Ikerketa honek argitzen duenez, hala ere, jendeak gero eta gehiago jo du liburuetara errealitatetik ihes egiteko eta entretenitzeko. Munduko pandemiak, itxierak eta urruntze sozialak eragin dute munduaren % 35ek gehiago irakurtzea, eta % 14k dio dezente gehiago irakurtzen duela.

Figure 2. Pandemia garaiko irakurketa datuak




Iturria: *Global english editing*

Gehien irakurri dutenak *millennialak* izan dira. Horiei, *Z* belaunaldiak jarraitzen die. Ostean dator *x* belaunaldia. Amaitzeko, *Baby Boomersak* daude.

¹³ Global English Editing argitalpen eta zuzenketa profesionaleko enpresa bat da.

Figure 3. Irakurketa datuak belaunaldien arabera



Iturria: *Global english editing*

Esan bezala, irakurtzea norbanakoaren trebetasunik oinarritzkoenetako bat da, eta, hain zuzen ere, ikastetxeak beti eman dio irakurtzeari garrantzia. Curriculumaren historia berrikusten badugu, gure aitaita-amamek ikastetxeetan ikasten zutena ezagutuko dugu: irakurtzen eta idazten ikasi zuten, bereziki. Aritmetika ere ikasi zuten, hau da, gehitzen eta kentzen, biderkatzen eta zatitzen. Maiz entzun diegu esaten garrantzitsua zela irakurtzen eta idazten jakitea, baita gehitzen eta kentzen jakitea ere; hortik aurrera ez omen zen gehiago ikasten. Oster-en hitzak gogora ekarriz, behar bezala irakurtzea behar bezala idazteko lehen urratsa da (Alves, Limpo, Malatesha, 2020).

Isabel Solék (2018) irakurketaren inguruko gogoeta egitean, dio irakurtzen irakastearekin batera garrantzi izugarria duela kritikotasunak berak:

En la escuela hemos de enseñar a los alumnos a hacer un uso con criterio, crítico, de la información que reciben de Internet. Si los estudiantes no adquieren

critérios para navegar por la red, para elegir qué se lee, habremos fracasado como formadores (*Aula Planeta*, Isabel Solé, 2018)¹⁴.

Irakurmenaren ikaskuntza prozesuan hainbat faktorek eragiten dute, ez kognitiboek bakarrik, faktore motor, sensorial eta emozionalek ere bai (Llorens, Gil, Vidal-Abarca, Martínez, Mañá, Gilabert, 2011). Beraz, ez da prozesu erraza ezen irakurmena garatzea hainbat faktoreren menpe dago. 2003. urtean, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) hala definitzen zuen irakurmena: “Irakurmena testu idatziak ulertu, erabili eta horien inguruan hausnartzea da, xede pertsonalak lortzeko, ezaguera eta norberaren ahalmena garatzeko eta gizartean parte hartzeko” (Gaminde, Goikoetxea, 2005: 10). Ikus daitekeenez, irakurmena terminoak, ‘irakurketa’ terminoaren aldean, trebetasun, ezaguera, jarrera eta estrategia anitzei egiten die erreferentzia, eta horiek, besteak beste, kognitiboak, linguistikoak edota pragmatikoak izan daitezke.

Kontzeptuari dagokionez, irakurmenaren definizioa, gizarte jakin baten baitan ulertu behar da; gurea informazioaren gizartea da, zeinetan uneoro jasotzen ditugun iturri anitzetatik datozkigun datu eta informazioak. Baina informazioa eta ezagutza ez dira gauza bera (Millán, 2001). Informazioa kanpoko zerbait da, azkar metatu daitekeena, eta automatizatu ere bai. Aldiz, ezagutza barneratua eta egituratua da, astiro baino ezin baita hazi; ezagutza humanoa da eta ekintzara garamatza; ezagutzaren giltza irakurketa da.

Arestian aipatu dugunez, azkarrak azala dakarrela frogaturik, tesirako kontuan hartu da *slow journalismek* egin duen ekarpena, sakoneko irakurketa eta bat-bateko informazioa banaturik landu ahal izateko, beti ere, metodologikoki bereziturik arakaturik.

Zentzu honetan, arnasa luzeko kazetaritzarako, ezin egokiagoa da Barranquero-Carreteroren aipua. Bertan dio *slowtasuna* ezertan laburbiltzekotan oreka terminoan dela laburtzen:

La filosofía de la lentitud podría resumirse en una sola palabra: equilibrio. Actuar con rapidez cuando tiene sentido hacerlo y ser lento cuando la lentitud es lo más conveniente. Tratar de vivir en lo que los músicos llaman el *tempo giusto*, la velocidad apropiada (Barranquero-Carretero, 2013: 442).

¹⁴ Informazio osatua hurrengo helbidean dago eskuragarri: www.aulaplaneta.com/2018/03/21/entrevistas-a-expertos/la-lectura-es-una-capacidad-fascinante-que-nos-abre-la-puerta-a-muchos-mundos/

Tempo giusto —musika-pieza bat exekutatu behar den abiadurari dagokiona— betikoa den mugimendu baten hiztegiko izen bilakatu da¹⁵. Mugimendu horrek aholkua ematen dio modernitateko munduari, bizitza abiadura bizian jorratzeari laga eta erritmo egokian lantzen has dadin; Carl Honoré-ri (2004) erreferentzia eginez, “bizi dadin bere barne erritmoaren arabera”.

Dakigunez, mugimendu pausatua kultura-korronea da, giza-aktibitateak pausatzea proposatzen duena. Azken finean, bilatzen duena da orekaren bila aritzea denbora aurrezteko teknologiaren artean eta giza-bizitzarako ongizatearen eta sozializatzeari artean. Pentsamodu honetan, teknologiak berezkoa duen arren lana zein produkzioa eta azeleratzea, baieztatzen dena da bizitzako zereginik garrantzizkoenak ez liratekeela abiaduraren menpe jarri behar.

Guk tesian garatu izan dugun pentsamoldea informazioaren arloari loturik doa, sareen abiadurari eta plataforma teknologiko berriei atxikirik dabilena. Carr-en (2011: 162) aipamenaz baliatu izan gara esateko “informazioa formato baten baino gehiagotan batera eskaintzeak ez dakar zamarik adimenerako”¹⁶. Hau da, teknologiak eskura jartzen digun abiadurak ez dakarrela beti ezagutza oinarritua. Areago, ezagutza zatikatua, kritikotasunik gabea sorrarazten duela. Ezen, gero eta informazio uholde handiagoak inguratuta bizitzetik ez dator, berez, ezagutza, jakintza, baizik-eta interpretazio eta ulermen kritikotik (Barranquero-Carretero, 2013: 419):

De ahí que la ‘sociedad del conocimiento’ a la que apuntan muchos análisis aún diste mucho de ser realidad, puesto que el conocimiento no es sinónimo de acceso ilimitado o mayor circulación de información, sino de interpretación, comprensión crítica e incluso recreación de esa información dentro de un contexto espacial, temporal y cultural determinados.

Bestalde, denboraren kontrolari loturik, bada ikerketa sail oso hedatua informazioaren sailetik at, ekonomiari eta oro har egungo zibilizazioari erreferentzia egiten diona, nahiz-eta guk aipamen soiletik harago lantzen ez dugun. Ildo honen arabera,

¹⁵ XVII. eta XVIII. mendeetan (Barrokkoa eta Klasiko goiztiarra), *tempo giusto*-ak, metro bakoitzak bere tempo "ideala" duela esaten zen. Zenbat eta handiagoa izan metroaren konpasaren balioa, orduan eta motelagoa izango da tempo. Hororék gogorarazten du beste erabilera batzuek emanez berpiztu dela terminoa: mundu modernoari abiadura bizian bizitzei uztea eta *tempo giusto*-aren ordean bizitzen hastea aholkatzen diona, adibidez. Gizakiak bere barneko tempoaren arabera bizi behar duela esaten da hor.

¹⁶ Autoreak halaxe dio: “suministrar información en más de un formato simultáneamente no siempre le cobra un tributo al entendimiento”.

mugimendu geldo edo *slow movement* delakoa da zibilizazioen krisiaren denboradimentsioa barne hartzen duen 'ikerketa programa' bakarrenetakoa, eta 'gure denborak ezartzeko eskubidea' gisako proposamenak eraikitzen saiatzen da (ibid., 2013: 442):

Junto a alternativas como la economía ecológica, las teorías del decrecimiento, la crítica decolonial y posdesarrollista, o los saberes indígenas tradicionales -por ejemplo, buen vivir/vivir bien-, la censura de las cosmovisiones del binomio 'modernidad/colonialidad' y su extensión económica en forma de capitalismo global (Escobar, 2003) pasa por una reconstrucción del tiempo en las formaciones económicas, políticas o socioculturales (De Sousa Santos, 2006). En este contexto, el movimiento lento o *slow movement* es uno de los escasos 'programas de investigación' que contemplan la dimensión temporal de la crisis de civilizaciones e intentan edificar propuestas en torno al "derecho a establecer nuestros propios tiempos" (Honoré, 2012: 23).

Slow journalism ereduak bete-betean jotzen du egun kazetaritza hegemonikoan nagusi den *fast* eredu kapitalistarekin. Albisteak mehetu egin dira. Gero eta laburragoak dira. Ahalik eta gehien ekoitzi behar da ahalik eta tarte laburrenean (ahalik eta etekin handiena lortzeko asmoz). Dinamika hori ez da batere ezkongarria *slow* dinamikarekin. Horregatik *slow journalism* periferiara kondenatuta dago; bazterreko espazioak betetzen ditu komunkabide hegemonikoetan: asteburuetako gehigarrietan edo *prime time* at dauden ikus-entzunezko albistegietan.

1.3 Edukien egitura

Aztergaia aukeratu ondoren, hurrengo urratsa teoria eta aurreko azterlanak berrikustea izan da. Esparru teorikoa osatzen duen materiala, batez ere, gaiarekin loturiko liburuetan, aldizkari zientifikoetan, argitalpen monografikoetan eta bilketa zientifikoan ondoriozko artikuluetan aurkitu da. Azterketa teoriko honek aukera eman digu aztergaiaren izaerari buruzko gai garrantzitsu batzuk ebazteko (Wimmer eta Dominick, 1996: 23). Ikerketaren diseinuari dagokionez, metodologia mistoaren hautua egin da. Fase enpirikoan sakoneko elkarrizketaz, inkestaz, eta *Delphi* teknikaz baliatuta, datuak bildu dira ikerketa-proiektuan aurrez ezarritako urratsei jarraiturik.

Tesiak bost atal nagusi ditu, gaia bera aurkeztu ondoren, oinarri epistemologikoa, marko teorikoa, enpirikoa eta emaitzak ematen baitira. Asmoa lanari bateratasuna ematea izan

da, helburutzat edukirik jakintza zatikatu gabe marko kontzeptual zabalean ekarpena egitea, beti ere, balio pertsonala erantsiz. Premisa hori gogoan delarik, gaia aukeratzearen oinarriak azaldu dira, ikerlana justifikatzeko arrazoiak azalduz. Beraz, lehen atalean (1) gaia aukeratzearen oinarria eta interes zientifikoa ditugu abiapuntu; hipotesia eta helburuk zehazten dira jarraian edukien egitura eta metodologiarekin batera.

Bigarren (2) atala hasteko oinarri epistemologikoan murgildu gara. Horretan sakontzeko, paradigma fisikora hurreratu gara postmodernitatearen ur sakonetan igeri eginez. Marko berebean kokatzen da, geldotze postmoderno horretan, *slow* mugimendua bera ere. Gaur eguneko kazetaritzaren adar horrek bere denbora aldarrikatzen du, su geldoan prestatzean aurkituz aterpea. Hala bada, sakontasuna, benetakotasuna, eta sinesgarritasuna ezaugarri dituelarik, bere hartzaileak irakurle errealak behar du izan. Era berean, kontakizun handi eta txikiei bagagozkie, berehala etorriko zaizkigu gogora liburuak, digitalizazioa eta ondorioz burmuin irakurlearen eraikuntza, arreta, adimena eta kontzentrazioa nahiz *Biliterate brain*¹⁷ (Wolf, 2018: 204) eraikitzeke elebidunaren baldintzak. Oinarri epistemologikoarekin batera Kazetaritzaren garapen epistemologikoa ere jaso da, gogora ekarriz, besteak beste, Sokratesek sorturiko ihardespena, subjektibotasun postmodernoari erantzun objektiboa emanez; postmodernitateko iraultza teknikoak kazetaritzan izan dituen eraginetik hasi eta arnasa luzeko kazetaritzaren izaeran eta tolesduretan bukatzeko. Ostean ikergaiaren egoera aurkezten da. Behin kontzeptu nagusietan arakatuta, marko teorikoa beste hiru atal nagusik osatzen dute: ‘Irakurketa’, ‘Teknologia’ eta ‘Kazetaritza narratiboa’.

Atal honetan eman dugun bigarren urratsean irakurketa bera dugu oinarri. Ikerlana hezurmamitzerakoan, Komunikazio arloko ikasleak izan ditugu gogoan uneoro, zeren irakurmena baita bigarren Hezkuntza amaitzean, ikasle guztiek garatuta izan behar duten oinarritzko gaitasunetariko bat. Hurrengo lerroetan beheargoko mailetako kontzeptuak jaso arren, ez dira inola ere hezkuntza gaiak hausnartu gura izan, asmoa izan delako oinarria ezartzea goragoko mailetara, kontzeptuetara, hausnarketa eta ekarpenetara jo ahal izatea.

¹⁷ *Biliterate brain* dela eta, halaxe idazten du ikerlariak: “That is what I want our young nascent readers to become: expert, flexible code switchers—between print and digital mediums now and later between and among the multiple future communication médiums” (Wolf, 2018: 204).

Lan honetan zehar aipatzen den irakurketak, pentsamendu postmodernistako ertzak ukitzeaz gain, Sokrates, Buffon, Wolf, Faulkner, Axular eta, ostean garatuko den McLuhan-en (1964: 1) esaldi bisionarioa ditu bidelagun beratu ezaugarritzean:

In a culture like ours, long accustomed to splitting and dividing all things as a means of control, it is sometimes a bit of a shock to be reminded that, in operational and practical fact, the medium is the message.

Hurrengo aurkeztera gatozen atalaren bizkarrezurra hamahiru azpiatalek josten dute.

‘Irakurketa eta hausnarketa sakona: liburuaren autoritatea’ izenburupean irakurle tradizionalak liburuaren autoritatepean jarduten zuela dakargu gogora, baita liburua bera arnasa luzeko medioa dela ere. Sakontasuna, benetakotasuna eta sinesgarritasuna bezalako kontzeptuek jantzen dute azpiatala.

‘Postmodernitateko historia eta istorioak: herri-aldizkariak Euskal Herrian’ izenburuak berak argitzen digu azpiatalaren mamia. Istorio handi eta txikiak ditu ardatz, postmodernitateak alboraturik utzi dituen narrazio handiak nahiz lekuan lekuko kulturak eta dialektoak —hizkuntzak, Euskal Herriko herri-aldizkariak, pentsaera eta istorio anitzekoak—.

‘Irakurle erreala, idazle klasikoak eta etorkizuneko irakurlea’ atala Hans Küng idazle suitzarraren aipuak zabaltzen du. Argitzen digunez, teknikoki posible den guztia ez da humanoki zuzena eta etikoki arduratsua. Irakurle moten sailkapen nahiz definizioak berak jarraitzen diote aipuari eta, noski, kazetaritzako gazte unibertsitarioen irakurketaz ere badihardugu.

Jarraian, ‘Irakurketaren alde kognitiboa eta hizkuntzaren alde fonikoa’ ditugu aztergai etorkizun bialfabetatuaren soslaia irudikatuz.

Jakitun gaude hurrengo azpiatalaren izenburuak dioskunaz: ‘Irakurketa: ondo irakurtzea da ondo idazteko lehen urratsa’. Hau da, lehenengo irakurtzen ikasten dugu eta ostean ikasteko irakurtzen. Irakurketa ekintza konplexua dela baieztatzearekin batera, eta irakurle erreala zer den argitzea jomuga izanik, ahozkotasanaz ere zabal mintzo gara, gogora ekarririk hitz egiten duten bezala idazten dutenek, oso ondo hitz egiten badute ere, gaizki idazten dutela. Kazetaritzaren eta literaturaren arteko harreman historikoetara ere egiten da jauzi.

Ondoren, ‘Irakurketaren aro digitala’ izenak eramango gaitu arretaren izanera. Eginginean ere, teknologiaren erakargarritasunak lausotu egin baitezake irakurtzeak eskatzen duen arreta.

Irakurketaren atala osatzen duen hurrengo katebegiak, ‘Irakurketak askeago bihurtzen gaitu, digitalizazioak gizabanakoago’, banan-banakotzeko tresneria du mintzagai. Indibidualismoari beste aukera aberats batzuek eskainiz aurkezten da irakurketa, oinarrizko gaitasuna izatetik landa. Azken pasarteak kultura humanistikoak eta artistikoak hartzen ditu aztergai.

Behingoan jabetuko gara ‘Burmui irakurlearen eraikuntza’ testuak dioskunaz, Maryanne Wolf-ek bere *Reader, Come Home* lana begiz jota konposaturikoa baita. Luzea laburtzea lan malkartsua bezain sinplista dela jakinik, Wolf-ek esana dakargu gogora, hau da, diseinuaren printzipio ezagunena, neuroplastikotasuna, irakurketaren ia interes guztiaren azpian dagoela.

‘Irakurketan trebatzeko prozesua adinaren araberakoa’ dela jakinik ere, eta Teixidor nahiz Wolf gogoan direla, pasarte honetan argi diogu gizakiok ikasi egin behar dugula irakurtzen. Gizakia berezko eboluzioaren esku balego *slow journalismera* baino errazago ailegatuko litzateke eta *fast newsen* eraginpera.

Berbeak berbea dakar —esaten zuten gure aurrekoek—. ‘Irakurketarako arreta eta kontzentrazioa entretenigarrien aroan’ pasartera ekarri gaitu bada berbak, hitzak. Informazio uholdepeko irakurleari ito larria ekar diezaiokeen aroa da ataleko markoa. Ikerketek jaso dutenez, hiru eta bost urte bitarteko haurrek egunean lau ordu ematen dituzte, batez beste, gailu digitaletan. Bada, entretenigarrien aroan, pentsamendu kritikoa zein lekutan geratzen den hausnartzen da, adieraziz, dakiguna zein marko kontzeptualetan kokatu behar dugun ez jakiteak sortzen digun ardura.

‘Irakurketa metaketa da’ baieztatzean, gizakion kanpo eta barne iturriak elikatzearen garrantziaz dihardugu. Ez baita gauza bera pentsamenduak 140 karaktereren bitartez adieraztea edo Proust-en hirurehun berbako paragrafoak deskodetzea.

‘Irakurketaren etorkizuna’ eta ‘*Biliterate brain* eraikitzeke elebidunaren baldintzak’ ataletan *slow* mugimendura jo dugu abaro bila, eta eredutzat diglosia funtzionala hartu dugu testu digitalak eta inprimatuak nola erabil daitezkeen adierazteko.

Hirugarren atalean, teknologiak iraultako gizartea, bizimodua eta kazetaritza dira piramidearen oinarri. Nola tximeletek argira egiten duten hegan, hala egin du gizakiak teknologiarantz. Silicon Valey-ko ate osteetatik etxeko sutondoraino, dena zeharkatu du teknologiak urte laburren buruan. Zentzu honetan, ona eta txarra dikotomiatik at, ikergaiak hala eskatzen duela aintzat hartuz, erretorika eta komunikazioa, diskurtsoen krisia eta sinesgarritasun mediatikoa aipatu behar dira (informazio-ugaritasuna, azalekotetasuna, entretenimendua eta zatiketa). Beraz, teknologiak kazetaritzan izan duen —eta duen— eraginetik abiatuta heltzen gara literatur kazetaritzaraino.

Jakina da ekosistema mediatikoa aldatu egin dela, iraultza digitalaren eta sare sozialen garapenaren eraginez (Ramonet, 2011: 11). Krisi hori ez da soilik ekonomikoa edo teknologikoa, sistemikoa baizik, eta, beraz, ez da ziklokoa edo bilakaerakoa, kazetaritzaren beraren egiturazko funtzionamendukoa baizik. Kazetaritzak malgua izan behar du teknologian, eta zurruna bere balioetan dio Ramon Salaverriak¹⁸. Horixe da, hain zuzen ere, ‘Teknologiaren eragina kazetaritzan’ atalean jasotzen dena.

‘Google Informazio-munduko metropolia’ izenburupean aztertu dira bilakaera teknologikoaren hiru une adierazgarriak; lehen irudi eta testu finkoak eskaintzen zituen 1.0 kazetaritza, 2.0 izena hartzen duen noranzko biko izaeradun aroa eta geure egunetan aipatzen dugun 3.0 kazetaritza deritzana (Varela, 2005). Digitalizazioak ekarriko paradigma aldaketak harilkatzen ditu uneok.

‘Kazetaritza hiritarra edo kazetaritza parte hartzailea’ azpiatala aipatu berri dugun 3.0 kazetaritzaren baitan kokatzen dugu. Elkarrizketa birtual horretako parte hartzaileek mezuan bertan dira partaide eta, hiritarrek albisteen produkzioan eta zabalkundean duten rol aktiboa bera nahiz honek duen eragina ditugu aztergai.

Jarraian, ‘Komunikazioaren jarioak, urrats mailakatuak’ aipatzen ditugu, hau da, medioen mezua nola heltzen den hiritarrik gehienengana. Ospea hartu duten *two-step flow*-ko teoriak eta *Key Opinion Formers*-ak (KOF), Boczkowski zein Anderson¹⁹ (2017) izan ditugu bidelagun.

¹⁸ Salaverriá Kazetaritza irakaslea da Nafarroako Unibertsitatean etabaita hedabide digitalen ikertzailea ere. Salaverria.es atarian egiten du baieztapena. Atarian jasotzen ditu liburuak, argitalpen zientifiko eta dibulgaziozkoak. Kazetaritzaren oraina eta etorkizuna ulertzeko ikerketen katalogo bezala deskribatzen du autoreak. Helbide honetan dago eskuragarri: www.salaverria.es/ramon-salaverria/en-los-medios/

¹⁹ Boczkowski Northwestern Universityko irakasle eta ikerlaria da. C. W. Anderson Komunikazioan

‘Gauzen Interneta’ edo —Internet of Things (IoT)²⁰— informazioa sortzen duten datuei buruzko kontzeptua da, sistemak eta erabiltzaileak konektatzen dituen. Horixe da lerroon mamia.

‘Kazetariaren jokabidea gaurko gizartean’ azpiatalean, besteak beste, Chomsky-k (2016) esana dakargu ikerketara, hau da, nahi dutela ez dezagun hausnarketarik egin benetan gertatzen denari buruz²¹. *Fact checker*, balio zibikoak eta funtzio soziala bezalako terminoak darabiltzagu gai nagusi bezala.

‘Kazetari bikainak. Literatur kazetaritza’ azpiatalak aurkezten du hurrengo atala, berehalako informaziotik urrunduz eta lehentasunen artean kokatuz testuaren kalitatea edo eta sakontasuna.

Marko teorikoaren baitan, laugarren atalean, arnasa luzeko kazetaritzan egin gura izan dugu astraka: *slow food* mugimenduarekin hasi eta definizioa, zeregina, rola, osasuna nahiz etorkizunarekin buka.

‘Kazetaritza narratiboaren izaera eta berezitasuna’ azpiatalean gaur egun dauden korrante indartsu bi ditugu abiaburu, *Fast Journalism* eta *Slow Journalism*. Arnasa luzeko kazetaritzaren definizioa osatzeko *The Slow Media Manifestok*²² jasotzen dituen gakoez gainera, Rauch (2011), Greenberg (2012), Le-Masurier (2015), Rosique-Cedillo eta Barranquero-Carretero (2015), Albalad (2018), Herrscher (2012) edota Ramírez de la Piscinaren (2019) ekarpenak aztertu dira. *Slow* mugimenduaren erpinak zehazteko konposatutako lerroak izkiriatu dira, beti ere, ekarpen pertsonalaren haria zeruertzean izanik.

dokorea da Columbiako Unibertsitatean. Etnografoa eta historialaria; albisteak aztertzen ditu, eta teknologian, kulturen eta ekonomian gertatzen ari diren aldaketek kazetaritza nola moldatzen duten aztertzen du.

²⁰ Gauzen Interneta edo *IoT* identifikatzaile bakarrak (UID) dituzten gailu informatikoen, makina mekaniko eta digitalen, objektuen, animalien edo elkarri lotutako pertsonen sistema bat da, eta sare baten bidez datuak transferitzeko gaitasuna du, gizakien arteko edo gizakien eta ordenagailuen arteko interakziorik behar rizan gabe.

²¹ Berwickek eta Chomskyk hizkuntzaren eraginkortasun konputazionalan sakontzen dute, pentsamendu-eta ezagutza-sistema den aldetik; aldaketa mailakatuaren ideia darwinistaren eta eboluzio-aldaketa eta hizkuntza ikusteko dugun egungo moduaren arteko gatazkan; eta gizakiak ez diren animalietan lortutako ebidentzietan, bereziki hegazti kantarietan bokalak ikastearen inguruan. Eraitza mugarri bat da hizkuntzaren lanketa biolinguistikoa.

²² <http://en.slow-media.net/manifesto>: In the second decade (of the 21st century), people will not search for new technologies allowing for even easier, faster and low-priced content production. Rather, appropriate reactions to this media revolution are to be developed and integrated politically, culturally and socially.

‘Alfabetatze digitala’ izenburupean iparrorratza non kokatu beharko genukeen darabilgu gogoan. Loveless eta Williamsonek (2017) diotenez, teknologia berriek gero eta gehiago moldatzen dute ikaskuntza, ikastunak ‘konfiguratzeko’ dituzte eta bizitza bera egituratzen dute. Bada, ingurumari horretan —eta UNESCOk alfabetatzeaz²³, eskuarki, eta, xehekiago, heziketa mediatikoaz dioena hona ekarriz—, alfabetatzea ezinbesteko bidetzat hartzen da.

Norengan sinesten dugu? itaunari erantzun nahia ageri da ‘Egitateetan oinarrituriko albistegintza’ azpiatalean. Jakina da iritzi publikoa sortzeko mekanismoak aldatzen ari direla, sare sozialek, *fake news*-ek, algoritmoek, *big data*-k eta ostantzekoek medioak aldatu dituztela eta baita errealitatea hautemateko daukagun modua ere. Analfabetotasun digitalak honetan guzti honetan daukan eragina ere badugu mintzagai.

‘Intimitatea salgai dago’ diogunean, teknologiak —neurriak hartu ezik— bakoitzaren subjektua, *ni neua* irentsi egiten duela diogu, besteak beste. Teknologiek agerian utzi dute gure datuak salgai egon litezkeela kasurik gehienetan eta ondorioz, gure intimitatea inbadituta dagoela gaur egun.

‘Kazetaritza narratiboaren errentagarritasuna’ zein izan litekeen ikertzen da atala biribiltzeko. Negozio ereduak aldatu egin dira eta gaur gaurkoz, ez dago arnasa luzeko kazetaritzarentzako negozio eredu argirik. Kazetaritza narratibotik bizitzea utopia dela dioenik badago ere, badira ostantzeko teoria eta iritziak. Era berean, ‘Digitalizazioak dakartzan negozio ereduaren inguruko kezka’ ere jaso nahi izan dira.

Ikerketa lan honen hirugarren (3) atala marko enpirikoak osatzen du. Marko enpirikoan jorratu ditugu kontzeptuok triangulazioaren hautua eginez, asmoa ikergaia angelu

²³ Gazteak eta helduak alfabetatzeko UNESCOren estrategia (2020-2025): General Conference, 40th, 2019. Alfabetatzea, bizitza osoko ikaskuntzaren ikuspegitik ikasteko eta gaitasunak eskuratzeko etengabeko prozesu gisa ulertuta, honela definitzen da: irakurtzeko eta idazteko, identifikatzeko, ulertzeko, interpretatzeko, sortzeko, komunikatzeko eta kalkulatzeko gaitasuna, inprimatutako eta idatzitako materialak erabiliz, lineako materialak barne, bai eta arazoak konpontzeko gaitasuna ere, gero eta ingurune teknologikoago eta informazio-ugariago batean. UNESCOk alfabetatzeari ikuspegi hirukoitzetik ekitearen garrantzia aitortzen du: i) eskola-hezkuntzarako sarbidea handitzea eta horren kalitatea hobetzea; ii) eskolatu gabeko haurrei, gazteei eta helduei ikasteko aukera alternatiboak eskaintzea; eta iii) alfabetatutako inguruneak aberastea. Estrategia horren ardatza gazteen eta helduen alfabetatzea sustatzea eta ingurune alfabetatuak eskaintzea da; UNESCOren beste ekimen batzuk, berriz, eskolatzea hobetzen jarraitzea da, alfabetatze- eta aritmetika-maila baxuei aurrea hartzeko modurik onena baita.

guztietatik aztertzea izan delarik (Wimmer eta Dominik, 1996; Eiroa eta Barranquero, 2017). Atal honetan eraikitakoaren bidez jaso dira datuak, ikerketan aurrez ezarritako urratsei jarraituz, hau da, hautatutako ikerketa-teknikak lagina osatzen duten analisi-unitateei aplikaturik. Adituei egin zaizkien sakoneko elkarrizketak, komunikazio arloko ikasleei bideraturiko inkestak eta nazioarteko *Delphi* metodoa garatzen dira pasarte honetan. Azken batean, metodologiaren nondik norako guztiak.

Laugarren atalean (4) emaitzen sintesia azaltzen dugu. Emaitzak teknika bakoitzarekin lortutakoaren arabera antolatuta ageri dira. Atarian aditzera eman denez, emaitzon bizkarrezurra sakoneko elkarrizketetatik, inkestetatik eta *Delphi* metodoaren bidez jasotakoetatik ondorioztatuak dira.

Lehen azpiatalean, elkarrizketa erdi-egituratuaren (12) zergatia, eta nori zuzentzen zaizkion azaltzen da. Jarraian, jasotako erantzunak bildu dira, lortutako datuak aztertzeko helburuarekin. Sakoneko elkarrizketei dagokienean, lau multzo nagusitan iruzkindu dira.

Lehen multzoko gaia modu honetara laburbiltzen da: betiko kalitatezko kazetaritza *slowren* paradigmaren eta postmodernitatearen eta digitalizazioaren markoan. Honen baitan, jarraiko pasarte esanguratsuak aurkituko ditugu: ‘Kalitatezko kazetaritza: zabala, sakona, eta askotarikoa’; ‘Aro digitaleko azakeria eta arinkeria’; ‘Postmodernitatea, sare sozialak eta indibidualismoa’; ‘Postmodernitatea eta Humanitateak’; ‘Informazio-teknologiaren aroan umeen eta gazteen heziketako baldintzak’; ‘Irakurketa ikus-entzunezkoen aroan’ eta ‘Umeen eta gazteen irakurketa’.

Bigarren multzoko gakoak ondorengo perpausa honek laburbiltzen ditu: modu paradigmaticoan digitalizazioaren aroan kontrabide bezala liburuaren *slowtasuna* eta liburuaren erreferente izatea. Pasarte hauek osatzen dute: ‘Liburuaren baliabide’; ‘Irakurketa eta idazketa. Kazetariak eta literaturako konposizio-teknikak’; ‘Liburuak bigarren irakurketa eskaintzen du’; ‘Orain beste era batera irakurtzen da (*Facebook*)’; ‘Irakurketa sakona’; ‘Irakurketa sakona eta arnasa luzeko kazetaritza. *Berria* egunkaria’; ‘Irakurlea. Liburuak. Kronika’; ‘Liburu onak. Klasikoak. Grezia’.

Hirugarren multzoan, hiritarrak duen alfabetizazio etengabearen premiaz mintzo gara, bai era digitalean, baita inprimatuan ere. Kontzeptuok, bestalde, ‘Arrakala teknologikoa. Balio zibikoetan alfabetatzea’ deritzon pasartean jaso dira.

Laugarren multzoa eta azkena hurrengo hau da: ‘Etorkizunean euskarri bietan irakurriko da: hala era digitalean nola liburu formatuan’. Ondorengo pasarteak jasotzen du ideiarene gunea: digitalaren hegemonian testu inprimatuaren iraupena, zeinetan jarduteko hiritar bialfabetatuaren gaitasuna indarrean izango den.

Amaiera gisa, emaitzokin batera lortutako erantzunen iruzkinak ere jasotzen dira, agerian jarritako datuen aurrean, pentsamendu kritikoaren bidez, ekarpenak justifikatuz eta baloratuz.

Emaitzetako hurrengo azpiatalean, bigarreanean, zera azaltzen da: nazioarteko *Delphi* teknikaren aukeraketaren zergatia, nori zuzendu gatzazkion, proposatu diren galderak zeintzuk izan diren, lehen itzulian lortutako erantzunen txostena eta iruzkina. Hau atal hau *Delphi* azterketaren bigarren itzuliak emandako datuek osatzen dute, baita teknika honekin lortutako erantzunen ekarpenek ere. Lehen urratsa bertan parte hartu duten aditu, akademiko eta profesionalak hautatzea izan zen. Ikerketan parte hartu zuten adituen jatorria hauxe izan da: Europa, Txina, Latinoamerika, Amerikako Estatu Batuak eta Kanada.

Galdera-sortak ikerketako hiru gako hauek ditu ardatz: arnasa luzeko kazetaritza, teknologia eta irakurketa. Orokorrean, kazetaritzaren egoerara gerturatzea ahalbidetzen duten emaitzak aurkituko ditugu hasieran eta, zehatzago, sare sozialena eta kazetaritzako idazkerarenera. Ostean datozkigu, postmodernitateari eta kazetaritza jarduna garatzen den gizarteari erreferentzia egiten dieten ideia nahiz kontzeptuak. Jarraian, irakurketa sakonak aro digitalaren zibilizazioan duen garrantziaz egiten da hausnarketa. Azkenik, kazetaritza narratiboaren (pausatua) paradigman irakurketaren etorkizunaz dihardugu.

Hauexek dira pasarteak: 1) Kazetaritzaren egoera eta, zehatzago, sare sozialena nahiz kazetaritzako idazkerarena. 2) Postmodernitateari eta kazetaritza jarduna garatzen den gizarteari egiten zaie erreferentzia. 3) Irakurketa sakonak aro digitalaren zibilizazioan duen garrantzia azpimarratzen da. 4) Irakurketaren etorkizuna kazetaritza narratiboaren (pausatua) paradigman.

Atal honetan, haatik, *Delphi* teknikaren bidez egin diren itzuli biak eta hauetan lortutako emaitzak azaltzen dira. Lehen itzulian adituei plazaratutako itaunak eta jasotako erantzunen txostenarekin batera, bigarren itzulian jasotako *feedback*-a nahiz lorturiko

adostasun edo kontsentsu maila jasotzen dira. Atala biribiltzeko, lorturiko gakoan iruzkinak jasotzen dira.

Emaitzetako hirugarren eta azken azpiatalean komunikazio-ikasleei zuzendutako galdetegia aurkituko dugu, prestatu diren itaunen zergatia, aukeratu den lagina eta lortutako erantzunen azterketa bilduz.

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) komunikazio-ikasleen artean inkesta deskriptibo analitikoa egitearen helburua da egunero informazioa kontsumitzen duten eta laster komunikatzaile profesionalak izango diren pertsonen artean irakurketari buruzko lagin adierazgarri baten pertzepzioa zehaztea; baita horretara bultzatzen dituzten edo ez dituzten arrazoi orokorrak ezagutzea ere. Era berean, ikertu nahi izan dira: irakurketa-ohiturak, eta horretarako erabiltzen dituzten euskarriak eta aisialdiaren kudeaketa —irakurtzeari dagokionez—. Helburu horrekin, galdetegia lau atal nagusitan atondu zen: 1) irakurketarako joerarik ohikoenak; 2) irakurketa motak eta euskarriak; 3) irakurketaren erakarmena aisialdian; 4) kazetaritza generoak.

Lehen atalean jakin nahi izan da ea komunikazio-ikasleek irakurtzen duten, zer irakurtzen duten, zenbat irakurtzen duten, gogoz egiten duten eta derrigorrezkoak ez diren testuak irakurtzen dituzten. Bigarrenean, irakurtzeko ohiturei buruzko informazio zehatzagoa bildu nahi izan da, hau da, zein hizkuntzatan eta zein euskarritan irakurtzen duten, besteak beste. Galdetegiaren baitako hirugarren azpiatalean, irakurketa aisialdiarekin lotzen denean, esate baterako, telebista eta sare sozialak ere aipatzen dira bakoitzari eskaintzen dioten denbora zein den jakin nahian.

Bosgarren atalean (5) ondorioak jaso dira, sakoneko elkarrizketetan, inkestetan eta *Delphi* azterketan jasotakoak, bata bestearekin lotuz; ohi dugunez, ikerketaren emaitzak teoriarekin, gaiaren egoerarekin eta ikerketarekin erkatuz. Hauek ere, tesiaren beraren egiturari jarraikiz atondu dira, esan bezala, teoria atalaren eta emaitza nagusietatik inferitutakoen artean lotura eginez.

1.4 Ikergaiaren egoera

Atal honetan ikergaiaren ardatzarekin lotura duen literatura aztertu nahi izan da. Hurrengo lerrootan azaleratzen denez, arnasa luzeko kazetaritza, irakurketa eta teknologia hari gidari direlarik eraiki da pasartea. Behin iker-galderak zehaztuta, informazioa testuinguruan kokatzea izan da helburu, era horretara, analisi eta sistematizazio-parametroak definitzeko muga batzuk ezartzeko. Ikergaiaren inguruan argitaratuta dagoenera hurbilpena egiteko irakurketa eta analisisia izan dira giltza; batez ere aintzat hartu dira tesiak, arlo honekin lotura daukan literatura zabala, artikulua, informeak zein aldizkari eta ponentziak. Bestalde, orain artean eginda dagoen lana ezagutzea fase garrantzitsua da era honetako ikerketetan. Modu honetara, kontzeptuak, metodologiak, praxirik onenak, kasurik esanguratsuenak nahiz ereduak zeintzuk diren identifikatzea lortu da, beti ere, modu sistematizatuaren printzipioan —*systematic reviews*— oinarriturik (Booth, Sutton, Papaioannou, 2013); azken buruan, arakatze honek gaur egun zein ikuspuntu dauden ezagutarazi digu-eta.

Literaturaren berrikuspena bideratzean, bilaketak gauzatzeko hitz gakoek zerrenda egin zen lehenengo; era berean, ikerketa diseinatzeko eta hezurmamitzeko ideia eta kontzeptu gakoek zerrenda ere osatu zen. Artikuluak bilatzeko datu-base orokor eta espezializatu nagusiak identifikatzea etorri zen hurrengo. CSICen datu-basea eta nazioarteko WoS eta Scopus datu-baseak erabili dira, baita Teseo, Sage zein JSTOR ere, beste batzuen artean. Bilaketetatik eratorritako lanak, artean esan bezala, kodifikatu egin dira, izenburua, ideia gakoak, zein osterantzeko datu baliagarriak jasoz. Arestian, aipatu denez, hasieratik beretik ezaugarritu dute atal hau hiru ardatzok, —*slow* kazetaritzak, irakurketak eta teknologiak osatzen duten *tritychos*-a—, beti ere, postmodernitatearen testuinguruan, post-egia deritzagun horren egitateak ere ahuldu direnean (Innerarity, 2018: 11).

Kazetaritza narratiboaren azterketa zientifikoari buruzko ikerketak bere baitan ditu eremuan aurrera egiteko saiakerak, azterketa kritikoa behar duten gaiak identifikatuz (Sims, 2009: 9) eta loturak ezarriz ondoko ikerketa eremuekin (Gillespie, 2012: 67). Horixe da, hartan ere, ikergaiaren egoera abiatzeko darabilgun ideia, ikerketa hesitu edo zedarritu duena. Ezen kazetaritza narratiboaren eremuak ikuspegi transkultural eta

diakronikoen onura jaso dezake, generoaren meritu artistikoaren eta funtzio sozialaren ulermen globala lortzeko helburuari dagokionez (Sims, 2009).

Lan honetan humanismora (Gutiérrez Sáenz, 2019: 16) jo dugun arren, bada kazetaritza narratiboa etnografiarekin (Gillespie, 2012) harremanetan jartzen duenik ere, argudiatuz ulermen global horrek are gehiago egin lezakeela aurrera, kazetaritza narratiboko ikertzaileen eta ikertzaile etnografikoen arteko diziplinararteko lankidetzaren bidez. Hala izanik ere, badirudi ikerketa-alderdi hori nahiko isolatuta dagoela; azterlan horietan egindako deiei erantzuteko ahalegin gutxi egin dira, eta gehienak norabide desberdin eta dibergenteetan mugitzen dira (Van Krieken, Sanders, 2019: 1399).

It is a mostly qualitative methodology that develops theories through long-term fieldwork that involves “direct and sustained contact with human agents, within the context of their daily lives and (cultures), watching what happens, listening to what is said, and asking questions... (Gillespie, 2012: 68).

Humanitateen jakintzaren baitan aztertu da kazetaritza, hortxe, humanitateetako ikasketen sailean kokatzen baitira komunikazio zientziak. Konexioak ahotan harturik, esan dezagun kazetaritzak lotura zuzena duela ondoko ikerketa eremuekin; psikologiarekin (Pérez-Soler, 2017) eta neurozientziarekin (Wolf, 2018); linguistikarekin ere bai. Linguistika aipatzean, noski, hizkuntza bere kontzeptu guztietan arakatu da, ulerturik, hizkuntza baliabide oinarritzkoenetakoa dela (Lasso Tiscareno, 2014). Lotura dauka hezkuntzarekin: heziketaz dihardugunean alfabetizazio bikoitzaz mintzo gara —teknologiaren etorrerak eskatu digunaz (Carr, 2008; Levitin, 2014; Wolf, 2018) eta jakituriari dagokionaz— (Manguel, 1996; Huth, 2013); lotura dauka postmodernitatearekin (Gutiérrez Sáenz, 2019) nahiz filosofiarekin —Greziako kulturaz ere badihardugu, ezinbestez—. Beraz, azterketa kritikoa egiteko bidea zabaldu duten eremuak arakatu dira, Sims-ek (2009) jasotzen duen bezala.

Kazetaritza eta eremu kritikoez berba egitean, *slow* kazetaritza ere hartzen da aintzat. Hain zuzen ere, industria digitaleko neoliberalismoaren aurrean badirelako alternatibak eskaintzen eta aurkezten dituzten herri mugimenduak²⁴; alternatiba bezala aurkezten da *slow* kazetaritza bera ere (Albalad, 2018). Beraz, giza-zientziek sakonean dakartena abiapuntu izanik, alde pragmatikoraino etorri gara, tesian alde plastiko —forma aldatuz,

²⁴ Euskal Herrian, esate baterako, *Berria*, *Gara*, *Goiena*, *zuzeu.com*, besteak beste.

baina ez galduz— hori erakusten baita. Horrenbestez, heldu gara *fake newsetaraino* (Vosoughui, 2018; Wagner eta Boczkowski, 2019; Greene eta Murphy, 2020), han sakonean esandako subjektu/objektu jokoak nola gizarte demokratikoaren oinarriak ukitzen dituen azaleratuz:

Si el viejo Aristóteles sigue teniendo razón y es verdad aquello de que los humanos deseamos saber, no hemos cejado en nuestro combate contra la perplejidad y a ello responden algunos de nuestros inventos para recuperar la certeza, como el periodismo, el cálculo o la medición de la sociedad, en los que se refleja la grandeza de nuestro empeño y su limitación (Innerarity, 2018: 15).

Azken buruan, deontologia bera ere —etikaren adar den aldetik— pentsamenduaren historiako oinarrien artean kokatzen da. Berez, debate publikoa kalitatezkoa izateko ez da nahikoa aipatutako egitateak egiazkoak izatea, baina ziur dakiguna da erreferentzia horiek erabat faltsuak badira, ez dugula benetako eztabaida demokratikorik izango (ibid., 2018: 27). Dena den, beti izan beharko da kontuan ideien globalizazioaz dihardugunean, subjektibotasunaz eta, beraz, postmodernismoaz dihardugula.

Jean-François Lyotard (1984) da ‘Postmodernitatea’ terminoa sortu eta jendarteratzen gehien lagundu duen egileetako bat, behintzat, postmodernitatea kategoria soziohistoriko gisa definitzeko lehen saiakeretakoa egin zuen autorea. Atarian azaldu denez, postmodernitatearen testuinguruan kokatzen gara *slow* kazetaritzaz, irakurketaz eta teknologiaz mintzatzean, post-egia edo egia osteko deritzagun horren egitateak ere ahuldu direnean (Innerarity, 2018: 11).

Egoera honetan, kazetaritzaren eta egiaren arteko erlazioa —informazioaren balioaz erabakia hartzeko— ezin uler daiteke, soilik, kazetariak jarraitzen dituzten arau, erregela, albiste produkziorako baldintza-arazo bat bezala (Waisbord, 2018: 1862):

The central problem of post-truth is not journalists falsifying reality by mistake or malice, leaving out important information, or failing to check facts. Rather, truth in/and journalism is embedded in the uses of news and information produced by journalism and virtually anyone else —from intelligence services to social media users. Notions of news and truth are linked to what people do with information rather than what journalism unilaterally decides are accurate portrayals of reality.

Zientzia-ikuskeretan, badira zientzia moderno eta post-modernoarenak ere, zenbait alderditan deskriba daitezkeenak. Besteak beste, postmodernitateari dagokiona, zeinak aniztasun metodologikoa darabilen modernitatearen eta teknologien ondoriozko arazoak diskurtso zientifikoaren bidez konpontzeko (Deliberali, 2011: 3):

En un primer momento, la ciencia moderna (paradigma dominante) introduce la cuestión del método, que conduce la investigación con objetividad, neutralizando la acción del sujeto; posteriormente, comienza a aproximarse al juicio común, orientándose hacia la comprensión del mundo, dejando de lado la cuestión del control. La ciencia post-moderna (paradigma emergente) utiliza una pluralidad metodológica, cuya característica principal es resolver los problemas derivados de la modernidad y de las tecnologías a través del discurso científico.

Wersig-en (1993: 1) arabera, postmodernismo izendapena ezagutzak duen zereginaren aldaketen ondorio da, bai norbanakoengan, erakundeetan eta baita gizartean ere. Gainera, esan bezala, informazioaren eta komunikazioaren zientzia diziplinartekoa da, berez. Hau da, lotura dauka informazioaren teknologiarekin ere, besteak beste. Ez da kontu berria esatea, beste arlo batzuekin batera, informazioaren eta komunikazioaren zientziak informazioaren gizartearen eboluzioan zeregin zuzena duela (Wood, 2004; Eiroa, 2014: 255):

La trayectoria vital de la Humanidad ha sido relatada tanto por la Historia como por el Arte, la Literatura, la Antropología, la Sociología, la Economía y el Periodismo. Como han mencionado diversos autores (Heller, 2005: 79), la relación del presente con el pasado no es más que una forma de comunicación. De ahí la importancia de analizar sus interrelaciones y sus respectivas contribuciones al conocimiento científico.

Filosofia arlokoa da *Modernidad aporética: hacia una revisión del proyecto emancipatorio moderno* ikerlana (García Morán, 2016). Kant, Fichte, Hegel eta Marx arakatzearekin batera, modernitatea eta postmodernitatea jartzen ditu aurrez-aurre subjektua eta gizartea ipiniz jomugan. Ikerlanak jasotzen duenez, modernitatea beti egon da krisian, are gehiago, krisia berezko ezaugarria du. Hala ere, badirudi aipaturiko krisi hori azken urteotan heldu dela gailurrera, hain zuzen ere, pentsamendu post-modernoaren agerpenarekin (ibid., 2016: 23).

Con su radical puesta en cuestión de los fundamentos conceptuales básicos de la modernidad –más concretamente de los conceptos de razón “fuerte”, universalista y absoluta; de sujeto unitario, consciente y autónomo; y de historia unitaria, lineal y orientada hacia un fin– que inspiraron el proyecto emancipatorio moderno, no se limita a dar una vuelta de tuerca más a la tan mentada “crisis de la modernidad” sino que anuncia, tajante y terminantemente, el “fin de la modernidad” y la entrada en un tiempo nuevo: la llamada “postmodernidad”

Ildo horretan, postmodernitateak ‘egia’ eta ‘objektibotasun’ irizpideekiko, eta ustez arrazionaltasun modernoa sustatzen zuen ‘batasun’ eta ‘osotasun’ asmoekiko nolabaiteko ‘haustura kognitiboa’ ez ezik, modernitateak zekarren proiektu emantzipatzailearen amaiera ere badakar, ez dagoelako konfiantzarik arrazoiak proiektu hori artikulatzeko edo gidatzeko zuen gaitasunean (ibid., 2015: 24).

Baudrillard (1987, 2009), Rorty (1988, 1996) eta Vattimo (1987) jotzen dira postmodernitatearen analista nagusitzat. Vattimoren (1987) aburuz postmodernitateko ideiak eta ‘pentsamendu ahula’²⁵ bezala definitzen duen horretako ideiak estuki loturik daude multimedia-agertokiaren garapenarekin, medioen posizio hartzearekin, gizarte postmodernoarenean ezaugarri diren balioen eta harremanen eskema berrian.

“Errealitateak” kolpe handia hartu du mundu akademikoan XX. mendearen hasieratik; akademikoak hasi zirenetik ikuspegi desberdinak deskribatzen eta egia, errealitatea eta objektibotasuna bezalako terminoen baliozkotasuna zalantzan jartzen (Sims, 2009: 13):

All that was good, even if overdone. The study of literary journalism, however, involves the efforts of skilled writers who speak about the reality of the world as they find it, and who write about people located in time and space with real names and real lives.

Desinformazioaren gaia berria ez den arren (Burnam, 1975; Galdón, 1994), azken bost urteetan gora egin du joera honek²⁶. Sare sozialak albiste iturri bezala erabiltzearen jendarteratzeak, eta hedabide tradizionalak bitartekari eta interprete direlako susmoaren gorakadak ekarri du, besteak beste, desinformazioaren gaiak indartzea. Azken batean,

²⁵ Pentsamendu ahula pentsamendu antimetafisikoa da, beti ere, metafisikaz ulertzen dugularik izatearen ideia objektiboa existitzen dela.

²⁶ Ameriketako Estatu Batuetako 2016ko presidentetzarako hauteskundeak mugari dira.

gaur egun, sare sozialak eusten dituzten plataforma digitalen bidez desinformazioak modu esponentzian eta denbora errealean sortu, trukatu, biderkatu eta sakabanatzen dira, hausnarketarako edo zuzenketarako tarterik gabe. Silvio Waisbord-ek (2018: 5)²⁷ baieztatu da horrek ekarri duela “ur-ateak irekitzea, informazioarenak eta desinformazioarenak, egia eta gezurrarenak, jakintza zientifiko eta ez zientifikoarenak, gertaerenak eta fikzioarenak”:

Information unvetted by conventional news organizations has gained wide presence in widely popular platforms and is easily accessible. States and intelligence agencies warmed social media with misinformation aimed at generating confusion and swaying public opinion and electoral results (Bennett and Livingston, 2018). The battle for public mind gained new dimensions.

Fake news terminoaren inguruan oraindik adostasun unibertsalik ez dagoen arren —ezta kazetaritzan ere (Zhou; Zafarini, 2018)— asko dira arazoaz mintzo diren ikerlanak. Hain zuzen ere, Waisbord-ek azpimarratzen du krisi epistemologikoa onartuta dagoela postmodernismoak burua erakutsi duenean ere.

Even after an epistemological crisis is widely recognized (There is no truth!) and vulgar postmodernism rears its ugly head, legacy journalism opts to stick to philosophical realism (Waisbord, 2013).

Gaur egun, albiste faltsuak (*fake news*²⁸) (Galdón, 1994; Berkowitz eta Schwartz, 2016; Bastos eta Mercea, 2019; Zilles, 2019), gezurrak, baieztatu gabeko zurrumurruak eta teoria konspiratiboak kontrolik gabe hedatzen dira sare sozialetan, eta ondorio globalak dituzte (Ramírez de la Piscina, Peñafiel, Goikoetxea, 2020: 86).

Este fenómeno afecta hoy día a múltiples dimensiones sociales. Entre otras, al sistema político, las relaciones internacionales y las políticas públicas sobre el cambio climático. También incide en diversas cuestiones relacionadas con la salud, como ha ocurrido con el caso de los mensajes divulgados por el movimiento contrario a las vacunaciones²⁹ (Salaverría et al., 2020).

²⁷ Halaxe dio jatorrian: “the floodgates to information and misinformation, truth and lies, scientific and non-scientific knowledge, facts and fiction”.

²⁸ Terminoa 2016ko Estatu Batuetako Presidentetzarako hauteskudeeen eta urte bereko ekainean egindako Brexit-aren erreferendumaren ondorioz zabaldu da (Quandt et al., 2019).

²⁹ Covid-19-ari egiten dio erreferentzia.

Hain zuzen ere, testuinguru horren aurrean ageri da aztergai dugun kazetaritza narratiboa, kazetaritza esplikatioagoa eta analitikoagoa, kutsatu gabeko informazioa berreskuratzearen alde jokatzeko duena errealitatea den bezalakoa deskribatu nahian. Hortxe dauka oihantza guri aipatzen dugun *slow* kazetaritzak, abiaduraren geldotzean laguntzen baitu azaletik landutako *fast* testuen eta *fake news*-en jiran eraiki den, bizi dugun errealitatean (Marwick 2018; Castro et al., 2021).

Cuando todo se convierte en impredecible, inestable y sospechoso surge la nostalgia de las pasiones tranquilas y se plantea con especial inquietud el problema de en quién confiar, cómo recuperar alguna referencia que nos permita orientar nuestros conocimientos y emociones (Innerarity, 2018: 12).

Kazetaritza narratiboaren historia eta jatorriari buruzko ikerketarik gehienak XX. eta XXI. mendeetan oinarritzen dira (Bech-Karlsen, 2013; McDonald, 2014; Fitzgerald, 2017; Díaz Noci, 2017; Albalad, 2018). Marsh-en (2010) ikerketa da salbuespena, kazetaritza narratiboaren sustraiak greziar drama eta mitologian arakatzeko ditu-eta. Ikerketa honek gaur egun ezagutzen den generoa desplazamendu historikoen segidatik sortu dela dio.

Aipatzen ari garen *slow journalism*a 1986tik gizarteko beste sektore batzuetan funtzionatzen zuen *slow* mugimenduetako bat da. Sektore askok *fast* bizimoduaren alternatibak bilatzen zituzten, *slow cities* edo *slow working* kasu, eta euren denborak eskatuz erantzuten dute, bat-batekotasunetik ihes egiteko. *The Slow Media Manifestok* (Köhler, David eta Blumtritt, 2010) denbora horiek aldarrikatzen ditu; kontzeptuak ez du moteltasuna aldarrikatzen, lehengaiak ondo hautatuz eta modu kontzentratuan prestatzea baizik:

The concept “Slow”, as in “Slow Food” and not as in “Slow Down”, is a key for this. Like “Slow Food”, Slow Media are not about fast consumption but about choosing the ingredients mindfully and preparing them in a concentrated manner.

Honenbestez, arlo akademikoan argitaratutako lanetan jasotzen denaren arabera, *slow* kazetaritzak bere denbora hartzen du albistearen edukia lantzeko, ikertuz, hausnartuz, eta testuinguruan sakonduz (Rauch, 2011; Greenberg, 2012; Le Masurier, 2015).

Ikerketan zehar Le Masurier (2015: 143) irakaslearen definizioa oinarrizkoa da gaia zedarritzeko. Honen arabera, *slow journalism* orientazio kritiko gisa sortzen da, beti ere, abiadurak kazetaritza-praktikan dituen ondorioen testuinguruan.

Albaladek (2018: 25) argitzen du *Literatura Kazetaritzako Ikasketen Nazioarteko Elkarteak* (IALJS) adiera hauek ontzat emateaz gain (*Slow journalism, Literture journalism, narrative journalism*), atek zabalik uzten dizkiela beste kultura batzuetan egon daitezkeen izendapenei. Hari horri tira eginez gero azaltzen dira ezinbestez aipatu beharreko izendapen eta autoreak, hala nola, *New Journalism* (Wolfe, 1973); *Nonfiction Novel* (Capote, 1965); *Nonfiction Short Story* (Franklin, 1986); *Literary Journalism* (Sims, 1990); *Narrative Journalism* (Franklin, 1996); *Longform Journalism* (Hartsock, 2000); *New New Journalism* (Boynton, 2005).

Neveu-k (2016) kazetaritza mota hau hiru azpimultzotan sailkatzea proposatzen du: esploratzailea, narratiboa eta mobilizatzailea. Esploratzailea dela dio (ibid., 2016: 455) gai esanguratsu eta konplexu bat argitzen duelako eskura dagoen edozein kazetaritza tresna erabiliz; zentzu honetan, datu kazetaritzarekin ere badago harremanetan (Rogers, 2011; Bradshaw, 2012). Gaia menperatzea, idazketa argia eta aurkezpen argia ditu ezaugarri. *Pulitzer* sarietan mota honetako erreportajeak saritzen dira 1996garren urteaz gero. Bigarren azpitaldea, ez-fikziozko narratibena da, dimentsio narratiboarekin lotu daiteke. Hau da, literaturatik hartutako idazketa-tekniken erabilera sofistikatua egiten duten artikulu luzeekin dago harremanetan (baita liburuekin ere):

Here the core ingredients of slow journalism —deep and long investigation, selective attention to “untold” stories— are visible, as is the absence of any “participatory” dimension, or even of any explicit reference to a target “community.” But the peculiar identity of this sub-genre comes from the centrality of narrative skills, longer forms, and style. (Neveu, 2016: 455).

Azkenik, hirugarren azpimultzoa ‘mobilizatutako’ *slow* kazetaritza izan liteke, konpromiso-ideia bati lotua dagoena. Mobilizatzailea dela baieztatzeko elementuak ere zerrendatzen ditu Neveu-k (2016: 455): “The elements of definition “fair”, “community-oriented”, “participatory” are here the DNA of these slow journalism”³⁰.

³⁰ “Justua”, “komunitatera bideratua”, “parte-hartzailea”.

Era berean, *slow* kazetaritzaren ezaugarrietako bat da audientzia espezializatua merkatuzati batera erakartzeko helburua duela (Drok eta Hermans, 2016). Hain zuzen ere, honek albisteen ekoizpenean eta kontsumoan nola eragiten duen aztertu dute hainbat ikerketek (Barranquero-Carretero, 2013; Dowling, 2016). Sierra eta López-Hidalgo (2016) zein Vanoost-en (2013) arabera, kazetaritza mota honek *mass mediak* ahaztutako istorioak kontatu nahi ditu, gertakariak eta horien subjektuak protagonista bihurtuz.

Literatura zientifikoan erabili den adierarik onartuenaz mintzo da Benaissa-Pedriza (2017: 131). Saiakera-estiloa eta gertaerak kontatzeko modu zabala aintzat hartzen dituen kazetaritza-genero legez deskribatzen da:

La concepción más aceptada de *slow journalism* en la literatura científica se refiere a este como un género periodístico en el que se tiene en cuenta el estilo ensayístico y la forma extensa por la que se cuentan los hechos.

Tesian hobesten den bezala, *slow* eta *fast* kazetaritza aurrez aurre jartzen dituenik ere bada (Duman, 2020). Ikerketaren emaitza gisa, ondorioztatzen da *slow* kazetaritza-proiektu gehienak irakurleari bideratuta daudela eta beraien masak sortzen dituztela. Are gehiago, *slow* kazetaritzaren lehen garaiak ez zuen aintzat hartu *fast* kazetaritzaren etorkizuna ezta kazetaritzaren etorkizuna ere. Ondorio nagusia da *slow* kazetaritza dela berehalako albisteen espiralaren alternatiba.

Azken batean, kazetaritza narratiboa, berehalakotasunetik ihesi, hausnarketara eta azterketara bultzatzen duten testuak sortzen dituen kazetaritza-praktika da. Horretarako, literatura-irudiak erabil daitezke, baina fikzioaren mugak gainditu gabe, betiere informazio zorrotza eta kalitatezkoa ematen saiatuz (Ramírez de la Piscina, 2021: 85):

¿Quién, cómo y dónde se ejerce el periodismo narrativo? No hay soportes exclusivos ni formatos únicos. Encontramos columnas brillantes, análisis certeros, crónicas maravillosas y reportajes sugerentes tanto en medios considerados hegemónicos como en pequeños medios, especialmente digitales, medios independientes que se financian con aportaciones de sus socios y socias, ajenos a las servidumbres y podredumbres del poder ya sea éste político, económico o financiero.

Aipatutako lanetan oinarriturik, kazetaritza-fase berri baten hasieraz mintza gaitzke beraz, non *slow journalism* delakoaren printzipioak lehenesten diren berriro (Barranquero, 2013; Angulo, 2014; Llop, 2014; Benaissa-Pedriz, 2017).

Era berean, *Slow media manifestok*³¹ (Köhler, David y Blumtritt, 2010) mundu mailan izandako eraginak (David, 2015: 11) goitik behera zeharkatzen du arloa. Lan honek hausnarketarako bidea ere zabaltzen du; muinean —herrialde, kultura eta diziplina desberdinak aintzat harturik— mahai gaineratzen duena da zer parametro kultural eta ekonomiko lotzen diren *slow media* kontzeptuarekin:

Slow media claims reflection and consciousness and advocates a thoughtful progress. Further research would have to analyze which cultural and economic parameters correlate with being attracted by the slow media concept. Another interesting question would be the reverse perspective – what correlates with not needing to talk of slow media? There seem to be two options: Either those countries are not yet technologically developed enough to have this kind of problems (which would mean they will think of slow media in ten years) or they do not have to respond to Slow Media because they already (or: still) proceed gently and embrace technology in a reflective and conscious way (which would mean we could learn from that).

Ildo honetan, mundu zabaleko esperientzien artean ugari dira nabarmentzekoak. Kazetaritza narratibo digital anglosaxoiaren esparruan, aipamen berezia merezi dute, besteak beste, *Longform*³² plataforma bezalako webgune ospetsuek egindako lanek. *Delayed gratification* magazinak (2011) ere kazetaritza sakona eskaintzen du, gaur egungo eskakizunetatik ihesi. *Aeon*, bestalde, (2012) irabazi-asmorik gabeko ataria da, eta Londresen, Melbournen eta New Yorken ditu egoitzak. 2013an hasitako *Retro report* saritua (*New York Times* egunkariari lotua) ere aipatu beharrekoa da³³. *Out of Eden Walk*, *National Geographic*ek 2013an argitaratutako erreportajeak, antzeko gogoeta merezi du (Ramírez de la Piscina eta Goikoetxea, 2019: 695). Beste leku eta hizkuntza batzuetan ere aurki daitezke antzeko esperientziak. Frantziako *Revue 21* aldizkariak publizitaterik gabeko erreportaje independenteen aldizkari bezala definitzen

³¹ Adierazpena hurrengo web atarian irakur daiteke: //en.slow-media.net/manifesto

³² 2010ean sortua, formatu luzeko piezen biltzailea da.

³³ AEBetan izen handiko argitalpenek urte asko daramatzate bide horren aldeko apustua egiten (*New Yorker*, *Esquire*, *Rolling Stone* edo *The New York Times*). Azken honek 2012an *Snow Fall* ikus-entzunezko erreportajea argitaratu zuen, kazetaritza narratibo digitalaren barruan kultuko piezat hartua (*digital slow journalism*).

du bere burua. Hego Ameriketara, berriz, kazetaritza narratiboaren ‘boom’-a aipatzen dute adituek (Rodríguez eta Albalad, 2012).

Hurbilagoko esperientzietara etorrira, besteak beste, José María Albalad Aiguabellaren (2018), *Periodismo slow o cómo se cuecen las historias en los fogones de Anfibia, Narratively y FronteraD* oinarritzko lantzat jotzen da kazetaritza narratiboa ulertzeko. *Slow* kazetaritza egiten duten hiru aldizkariaren sukaldeko sutondoetan arakatzen du lanak —*Anfibia, Narratively* eta *FronteraD*—. Aldizkariok 2009tik 2012ra bitartean, Argentinan, AEBetan eta esparru hispanikoan, hurrenez hurren, “gaurkotasan bizkorrak” ezarritako zurrunbilo horretatik ihes egitea erabaki zuten formatu luzeko testuak ekoizteko, hala nola kronikak, saiakerak, erreportajeak, profilak edo elkarrizketak. Albalad-en liburua 2016an irakurritako doktorego-tesiaren dibulgaziozko bertsioa da, eta doktoregoko aparteko saria lortu zuen.

Kazetaritza iberoamerikarraren testuinguruan, (Barranquero-Carretero eta Rosique-Cedillo, 2014: 40) kazetaritza narratiboaren aldeko apustua egin duten aldizkariaren tradizio handia dago. *Slow Journalism in Spain. New magazine startups and the paradigmatic case of Jow Down* artikulua Espainiako eta Latinoamerikako kazetaritza narratiboaren historia gurutzatzen eta laburbiltzen du (Barranquero eta Jaurrieta, 2016); ostekoa da Latinoamerikako eszena zehatzago deskribatzen digun lana (Palau-Sampio, Cuartero-Naranjo, 2018). Barranquerok eta Jaurrietak (2016) ondorioztatzen dutenez, negozio-ereduaren eta haren finantzaketaren arazoak eta iraunkortasunari loturikoak dira gaiaren gakoak. Autoreok diotenez (ibid., 2016: 13), bost urte baino gutxiagoan, Espainiako kazetaritzak informazioa ekoizteko modu berri bat praktikan jartzea lortu du:

Al especializarse en campos temáticos concretos, cada publicación ha sido capaz de proporcionar una cobertura más meticulosa y comprometida de los problemas actuales y esto, finalmente, demuestra la viabilidad de la filosofía del periodismo lento.

El periodismo slow digital de Jot Down y Gatopardo (Sabaté, Micó eta Díez, 2018) lanean edukiak, teknikak eta formatuak aztertzen dira. Paperaren esentzian zentratutako kazetaritza mundu digitalean presentzia eta audientzia sendoaz gozaten ari dela ere arakatzen da. Horrelako hedabideetan kazetariaren egoera eta aintzatespena ezagutzea ere

mahai gaineratzen du proposamenak. Lan honen ondorio nagusiek erakusten dutenez, kazetaritzaren eta komunikabideen egungo egoeraren aurrean, etorkizunerako berme gisa, kalitatea berehalakotasunari lehenestea, eta tradizioa berrikuntzarekin hibridatzea funtsezkoa izan daiteke. Berriz, *Nuevas ventanas del periodismo narrativo en español: del big bang del boom a los modelos editoriales emergentes* lanean denborari ere egiten diote erreferentzia autoreek (Rodríguez, Albalad, 2012: 289):

Estas revistas son ventanas desde donde se divisan nuevas tierras de oportunidades para la información de alta calidad. Apuestas audaces que retan al mercado y luchan por la permanencia en el tiempo con el apoyo de escritores, público, editores, ilustradores, fotoperiodistas y entusiastas en general.

Kazetaritza narratiboko idazle eta azterlariak (Herrscher, 2012; Caparrós, 2017; Rincón, 2017) antzeko ardura erakusten dute adieraztean kazetariak gero eta denbora gutxiago duela istorioetan sakontzeko, kontrastatzeko eta testuinguruan kokatzeko, eta hori ez litzatekeela alde batera utzi behar (Ortíz, 2012: 2).

Una de las tablas de salvación de la profesión podría ser la de recuperar la esencia del periodista como contador de historias, una faceta que puede dar pie a alternativas laborales a pequeña escala, los llamados *nanomedios*: pequeñas empresas periodísticas que exploten ese otro periodismo de la paciencia, el periodismo *slow*, frente a la industria de los *fast media* que reina en la actualidad.

Testuinguru honetan, *Slow media manifestok* (Blumtritt, David eta Köhler, 2010) iraultza mediatiko honetako egokiak diren erreakzioek eraikitzaileak izan behar dutela dio, fenomenoaren dimentsio politiko, kultural eta soziala integratuz.

In the second decade [of the 21st century], people will not search for new technologies allowing for even easier, faster and low-priced content production. Rather, appropriate reactions to this media revolution are to be developed and integrated politically, culturally and socially.

Ingurumari mediatiko aldakorraren testuinguruan *The New York Times*eko profesionalak ere (Leonhardt et al., 2017: 16) egunkarian egin beharko lituzketen aldaketei buruzko proposamenak eta orientabideak jaso izan dituzte. Txostenak aldarrikatzen du, besteak beste, “Internet basatia dela kaskarkeriarekin”³⁴

³⁴ Kaskarkeria ingelesezko eta gaztelerazko *mediocre* bezala ulertuta.

In the past, it was acceptable for Times coverage to be merely solid in some areas, so long as the total package was better than any other publications. It no longer is acceptable. The Internet is brutal to mediocrity. When journalists make mistakes, miss nuances or lack sharpness, they're called out quickly on Twitter, Facebook and elsewhere. Free alternatives abound, often reporting the same commoditized information. As a result, the returns to expertise have risen.

Nicholas Carr-ek (2008) idatzitako *Is Google Making Us Stupid?* artikuluan gure garaiko eztabaida garrantzitsuenetako bat kondentsatu zuen. Hau da, teknologiek gizartearen pentsamoldeak eraldatu egin dituztela; kartografiaren, erlojuaren eta, azkenik, inprentaren sorkuntza izan ziren lehen eraldatzaileak. Orain, harrezkero, bostehun urte baino gehiago igaro direnean, Internet efektuaren txanda iritsi da.

The human brain is almost infinitely malleable. People used to think that our mental meshwork, the dense connections formed among the 100 billion or so neurons inside our skulls, was largely fixed by the time we reached adulthood. But brain researchers have discovered that that's not the case. James Olds, a professor of neuroscience who directs the Krasnow Institute for Advanced Study at George Mason University, says that even the adult mind "is very plastic." Nerve cells routinely break old connections and form new ones. "The brain," according to Olds, "has the ability to reprogram itself on the fly, altering the way it functions.

Ostean, *The shallows: What the Internet Is Doing to Our Brains* (2011) liburuan argudio hori garatzen du aipatu berri dugun tesi polemikoari eutsiz³⁵. Carr-ek (2011) argi diosku Internet gure burmuina aldatzen ari dela. Azken batean, pentsatzen dugun moduak gure arreta-gaitasuna zailtzen du, kontzentratzea eta sakontzea eragozten duten etengabeko distrakzio eta etenaldiekin. Hainbestera, non gizakiari gero eta gehiago kostatzen zaion liburu bat irakurtzea eta testu luzeak barneratzea, sarearen berehalakotasunera ohituta. Hau da, teknologiak eskura jartzen digun abiadurak ez dakarrela beti ezagutza oinarritua (Carr, 2011: 162).

Irakurketari bagagozkio, oro har, pentsamendu kritikoak "norbere ideien erantzukizuna, besteen hegoen tolerantzia eta ideien truke askea sendotzea bilatzen du", diosku Cassanyk (2017: 117). Hala ere, kritikotasun horren beharrianarekin batera gaur lehen baino gehiago irakurtzen da (Cassany, 2013: 41):

³⁵ *Is Google Making Us Stupid?*.

Hoy leemos más que ayer, de maneras más diferentes, textos como los de antes y otros que han surgido nuevos, multimodales e hipertextuales. Pero seguramente estamos todavía en los inicios de una transformación más radical, que va a ir llegando poco a poco, a medida que más personas se incorporan a la colmena y se pongan todas a trabajar en unas mismas orientaciones, de manera más ordenada y eficaz.

Carl Honorék idatzitako, *In Praise of Slowness: Challenging the Cult of Speed* (2004) lanak pentsamendu holistikoaz dihardu³⁶. Honoré-ren (2013) aburuz testuinguruak osotasunean ikustean dago gakoa. Gaiei modu panoramikoan heltzea proposatzen du, behar diren ikuspuntu guztiak kontuan hartuz, irteera egokia, lasaia eta presarik gabekoa izan dadin. *Slow media. Comunicación, cambio social y sostenibilidad en la era del torrente mediático* (Barranquero, 2013) artikulua ere *slow media*ren jatorriari eta oinarriari buruzko lehen hurbilketa bat eskaintzen du; klabe geldo, gogoetatsu eta jasangarrian jorratzearen alde agertzen den *slow media*. Lehenik eta behin, Mendebaldeko historiako denboraren eta abiaduraren dimentsioen genealogia laburra planteatzen da. Bigarren, *slow* mugimenduaren dimentsio eta balio nagusiak deskribatzen dira. Hain zuzen ere, testuinguru horretan kokatzen dira Honorék esanak (Barranquero, 2013: 2), ezen argudiatzen du arazoa ez dela abiadura bizkorra, baizik abiadurari egiten zaion *gurtza* bera:

Pero si la abolición progresiva de estas barreras supuso una importante conquista del ser humano, en la actualidad comenzamos a pagar un precio muy alto por someternos al ritmo vertiginoso de la técnica. La rapidez no es en sí misma negativa. El problema estriba en el ‘culto a la velocidad’, al que nos impele la cultura moderna y capitalista (Honoré, 2012: 13).

Industria digitalean nagusi diren arkitektura komunikatiboak eta negozio-ereduak ez dute etorkizun teknologiko emantzipatzaileak aurreikusten (Sampedro, 2018). Gehiegizko oparotasunaren eta asetasun edo saturazio birtualaren garaiotan gizentasun birtualari aurre egiteko liburuak, *Dietética digital* (Sampedro, 2018) izenburukoak, horixe du testuinguru. Dietetika digitalak taktika indibidualak hartzea komeni dela iradokitzen du, estrategia kolektiboetan eta politika publikoetan oinarrituak.

³⁶ *The Slow Fix: Solve Problems, Work Smarter, and Live Better in a World Addicted to Speed* lanak ere bai, beste maila baten bada ere.

Secuestran la atención y fomentan un *engagement* (compromiso) con escasa *agency* (voluntad). Minamos datos en jornadas continuas, sin festivos ni remuneración. No controlamos el ritmo ni los frutos de ese trabajo invisible, que coloniza nuestro tiempo de ocio. Ignoramos el valor de los datos y los riesgos asociados a la pérdida de anonimato, privacidad e intimidad (Sampedro, 2019)³⁷.

Susana Pérez-Soler (2017) ikerlariak *Periodismo y redes sociales: claves para la gestión de contenidos digitales* lanean jasotzen du sare sozialek kazetaritzaren estandar klasikoak aldatu egin dituztela. Eta beraz, hamar urte eskasetan, kazetariak edukien sorkuntzaren eta hedapenaren monopolioa galdu egin dute. Pérez-Soler-en aburuz sare sozialak XXI. mendeko kioskoak dira kazetaritzarentzat, non edukien zati bat erakusten den. Baieztatzen du medio askok egiten duten sareen erabilera okerra dela, entretenigarriak eskaintzen direlako, eta ez kazetaritza. Helburu laburreko edukiez mintzo da eta, masa-publizitatearen negozio-ereduak baldintzatutakoez. Honen aurrean, kazetariaren figura desagertuko ez den arren, ezinbestekotzat jotzen du hezkuntza (2017: 97): “Los blogs, las redes sociales, los proyectos colaborativos, las comunidades de contenidos, en definitiva, los medios sociales, requieren nuevas habilidades a lo largo de todo el proceso informativo”. Norabide horretan dihardu Innerarity-k (2012) dioenean boterea eta jakintzarako bidea errazten duen teknologiak emantzipazio demokratikoaren ilusioak esnatzea ekarri duela. Baina, demokrazia digitalaren eta bitartekaririk gabeko demokraziaren inguruan sortutako aukera eta itxaropena, gehiegizkoa da gaur gaurkoz. Informazioaren jarioa ez da hutsean egiten, joko-zelaia arterik zegoen eta politikak hartuta.

Carr-ek (2011) *Babelia*³⁸ aldizkariari esana da askatasunaren funtsa norbere arreta zeri eskaini nahi diogun aukeratu ahal izatea dela. Hau da, teknologia hautu horiek zehazten eta erabakitzen ari dela eta, beraz, gure pentsamenduak kontrolatzeko eta modu autonomoan pentsatzeko gaitasuna higatzen ari dela. Hainbestera, non Nomofobia — *no-mobile-phone phobia*— oso gaixotasun zabaldua bezain aktuala dela dioskunik ere baden (Patino, 2020)³⁹. Badakigu arretaren merkatuari buruzko lana dela *La civilización de la memoria de pez*; bertan jasotzen denez, pantailekiko menpekotasun hori ez da gure

³⁷ Artikulu osoa sarean irakur daiteke, [Telos](#) aldizkarian.

³⁸ Artikulua elpais.com atarian jasota dago.

³⁹ Somos pececillos cautivos en las peceras de nuestras pantallas. Bruno Patinok idatzitako lana da eta *La Vanguardia*-n kontsultatu zein irakurri daiteke osorik (2020-07-14).

konexio-ohituren bigarren mailako efektua, baizik eta gure kontsumo digitala egituratzen duten interfazeek eta zerbitzuek bilatzen duten efektua. Berresandakoak, azkenean, presentzia handiagoa ematen dio behin eta berriz errepikatutako edukiari; horrela, sinesmena egiari gailentzen zaio, gehiegikeria haztapenari, emozioa arrazionaltasunari, grina ezagutzei. Zenbat eta gutxiago jakin, orduan eta gehiago baieztatzen dugu (ibid., 2020).

Utilizan las neurociencias y el manejo de nuestros datos personales para desarrollar herramientas que manipulando las emociones producen un tipo de adicción. Los datos no solo permiten conocer nuestro comportamiento, pueden, de un cierto modo, cambiarlo.

Horrela, interes partikularrak dituzten publiko espezifikoetara iristen da (Mourão eta Robertson, 2019: 2) baieztapen-joera (Wason, 1960) eta disonantzia kognitiboa (Festinger, 1962) dituen testuinguru batean. Beraz, menpekotasunaz mintzo dira autore asko. Esposizio selektiboaren menpe gaude, ez dugulako jarri gura esposizioaren disonantzia kognitiboa geure sinesteak mehatxa ditzakeen informazio berriaren aurrean (Gutiérrez, 2018)⁴⁰.

Hori dela eta, jendeak bere alde aurretiko ikuspuntuak baieztatzen dituen informazioa baino ez du bilatzen, eta ez ditu kontuan hartzen bere aurreiritziak zalantzan jartzen dituzten datuak (Salaverría et al., 2020). Arlo honetan Negropontek (1995), Gillmor-ek (2006) nahiz Varelak (2005) kazetaritzaren faseak eta bilakaera aztertzen dituzte, kazetaritza hiritarreraino helduz, hau da, elkarrizketa birtuala ekarri duen kazetaritza 3.0 deritzonerraino.

Agertoki honetan ulertzen dugu irakurketa katalizatzaile legez, zeharkako tresna eta diziplinarteko gaitasun bezala. Gaitasun generikoak edo zeharkakoak titulazio gehienen funtsezko zati dira, eta ikuspegi aktiboa eta gogoetatsua eskatzen dute, dimentsio anitzen baitan (Pantoja, 2007). Testuinguru horretan, ezinbestekoa da irakurketa sartzea, oinarritzko gaitasun zeharkakotzat jotzen delako, baina baita irakurtzeko gaitasunak unibertsitate-tituludunek lortu beharreko beste zeharkako gaitasun batzuen lorpen-mailarekin lotura handia duelako ere (Yubero eta Larrañaga, 2015: 718):

⁴⁰ Lana lotura honetan irakur daiteke: [Manual de fake news](#)

La competencia lectora incluye la capacidad de utilizar, comprender, reflexionar e inferir información sobre los textos escritos y sólo se alcanza con la práctica lectora, con la ejecución de una lectura activa, en la que el lector se implica en el texto y lo va construyendo conforme avanza en su lectura. Es un proceso que únicamente tiene lugar cuando el sujeto interactúa con el texto, crea su propia lectura y se apropia de ella.

Irakurketaz mintzo garenean irakurketa sakonaz dihardugu, ezen ezin baita bereizi pentsamendu sakonetik (Carr, 2008). Beraz, ezin da irakurketaz hitz egin ulertu gabe, ulermenik gabe; biak dira ikaskuntza-prozesuen parte ukaezinak. Horregatik, unibertsitateko ikasleek lerro artean irakurtzeko, testu bakoitzaren atzean dagoena ulertzeko eta atzemateko gaitasuna duten irakurleak izan behar dute (Cassany, 2006).

Irakurketaren definizioetara etorrira, Jiménez eta O'Shanahan-en (2008) hitzetan, lehenengo irakurtzen ikasten da eta, ondoren, ikasteko irakurtzen da. Zalantzarik gabe, azken horrek huts egiten duenean, beharrezkoa da ezagueraren eremuan zer gertatzen ari den berrikustea. Horrek ikaskuntzaren lehenengo faseekin du lotura, etorkizuneko arazoak aurreikusi ahal izateko.

González, Barba eta González-en (2010: 2) aburuz irakurtzea hitzak ezagutzea baino gehiago da; hainbat jarduera eskatzen ditu: alde batetik, hainbat zeinu grafiko deszifratu behar dira (letrak, hitzak...). Ondoren hitzen irudikapen mentala eraiki, hitz horien esanahietara joan, hitz bakoitzari testuinguru bakoitzean balio linguistiko bat eman, esanahia eraiki, esanahi hori testuaren, esperientzien eta gaiari buruzko aurretiazko ezagueraren arabera testuinguruan txertatu. Egileek adierazten dutenez, irakurmena prozesu konplexua da eta, bertan, irakurleak aktiboki parte hartzen du. Prozesu horretan hainbat egitura, estrategia eta ezaguerak parte hartzen dute: subjektuak testu baten esanahiak jorratzen ditu, eta horien gaineko eredu mentala osatu, hipotesiak eraiki eta egiaztatzeko prozesutik hasten da; sormen prozesua eta proposamenen integrazioak jarraitzen dio, eta aurretiazko ezaguerak, estrategia eta itxaropenak edo motibazio pertsonalak aplikatzeko prozesuak jarraitzen dio. Irakurtzen ikastearen helburu bakarra ez da hurrek testu idatzi baten esanahia ulertzea. Irakurtzen heztea harago joatea da, ikasleek ipuinekin, narrazio eta istorioekin gozatzea lortzea da, eta helduaroan, ikerlan honetan aipatuko dugun testu narratiboetaraino. Machadok behar bezala deskribatzen

ditu irakurketak dituen funtzioak pertsonen garapen eta ikaskuntzan (Marchesi, 2005: 22). Haren ustez, narratibak norbere burua ezagutzen lagun dezake eta, hala, inguruneari aurre egiten lagundu.

Irakurmenaren definizioa, gizarte baten baitan ulertu behar da. Gurea informazioaren gizartea da, zeinetan uneoro jasotzen ditugun iturri anitzetatik datozkigun datu eta informazioak. Informazioa eta ezagutza bereizi egiten ditugu, ez dira gauza bera (Millán, 2001). Informazioa kanpoko zerbait da, azkar metatu daitekeena, eta automatizatu ere bai; aldiz, ezagutza barneratua eta egituratua da, astiro baino ezin da hazi; ezagutza humanoa da eta ekintzara garamatza; ezagutzaren giltza irakurketa da.

Irakurketen onura aipatzen eta ikertzen duten lanak, batez ere hezkuntza arlokoak, asko dira. Yuberok eta Larrañagak (2015) egindako ikerlanak argitzen digu eremu anglosaxoian *academic literacy* deritzona existitzen dela. Estatu Batuetako, Kanada edo Australiako unibertsitate batzuen inizatibapean, ikasleei diziplina bakoitzaren berezitasunei atak irekitzean dago ekimenaren gakoa, hots, hizkuntza zientifikoa eta testu akademikoak ulertzen laguntzen zaie ikasleei. Era horretara, irakurketa eta idazketa izango lirateke ikasketa honen oinarria. Gaztelaniaren eremuan horretarako tradizio gutxi dagoen arren terminoak badu itzulpena: alfabetizazio akademikoa (ibid., 2015: 719).

Existe poca tradición en el ámbito hispano. Este término se ha traducido en castellano como alfabetización académica (Carlino, 2004; 2006; 2013; Marucco, 2004) o literacidad académica (Cassany, 2006; Cassany, Morales, 2008).

Ezagunak dira OCDEk zein INEK (Estatistikako Institutu Nazionala) egin ohi dituen irakurtzeko ohiturei buruzko inkestak. Baita Editoreen Gremioak⁴¹ nahiz Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Espainiako kultura-ohiturei eta praktikei buruz egindako inkestak ere⁴².

⁴¹ Inkestak hizkuntzaren araberako aldea dagoela ere baieztatzen du: erdarazkoetan, aisialdian %60k irakurri du azken urtean gutxienez liburu bat papereko formatuan, eta digitalean, %20k. Hirutik bateko erlazioa, haatik. Euskaraz, berriz, aisialdian euskaldunen %33k irakurri dute azken urtean gutxienez liburu bat paperean; digitalean, %5ek. Editoreen Elkartearen atarian kontsulta daitezke datu guztiak: federacioneditores.org

⁴² PISA txostena eta Elkar/Siadecoren inkesta 2018koak dira. Editoreen Gremioak gauzatutakao 2019 eta 2020koa da. Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta ohituren inguruko inkestak postdata.elkar.eus atarian jasotzen dira.

Euskal Herrian Elkar/Siadecok egindako inkestaz gainera, badira ostantzeko lanak ere. Mari Jose Olaziregiren (2000) *Aproximación sociológica a los hábitos de lectura de la juventud vasca* edota, *Dificultades de comprensión lectora en estudiantes universitarios. Implicaciones en el diseño de programas de intervención* lana (Echevarría, Gastón, 2002).

Europa mailan *Bertelsmann* fundazioak⁴³ hainbat herrialdetan egindakoak aipa daitezke; nazioartean, berriz, Unibertsitate Irakurleen Nazioarteko Sareak⁴⁴ (RIUL) egindakoak. Nazioartean jarraituta, besteak beste, Alberto Manguelen *A History of Reading* (1996) ikerketa lana irakurketa ezagutzeko eta ulertzeko gakoetakotzat jotzen dute adituek. Sei mila urteko historia jasotzen du bertan, irakurketak gizakiaren bizitzan izan duen garrantzia azpimarratuz. Bestalde, Emili Teixidor (2007) idazleak *La lectura i la vida* lanean hausnarketa sakona egiten du irakurketaren inguruan. Ikerlari askorekin bat dator esatean, jakina dela irakurketak kritikotasunerako bidea zabaltzen duela (Carr, 2008; Le Masuerier, 2016; Wolf, 2018; Piñero, 2018).

Irakurketa sakonaz Calvinok (2015: 19) dio, esate baterako, badiruediela klasikoak irakurtzea kontraesanean egon litekeela gure bizitza erritmoarekin. Hau da, denbora luzeak ezagutzen ez dituen bizitza erritmoarekin:

(...) que no conoce los tiempos largos, la respiración del *otium* humanístico, y también en contradicción con el eclecticismo de nuestra cultura, que nunca sabría confeccionar un catálogo de los clásicos que convenga a nuestra situación.

Ikerlan hau gorpuzteko baliagarriak izan dira bai inkestak, eta baita aldagai kognitiboa eta eleaniztasuna aintzat hartzen dituzten lanak ere. Esate baterako, *Lectura, Escritura y variables cognitivas en español* (Díaz, 2019) ikerlanak proposatutako lan-ildoari dagokionez, irakurketa eta idazketa prozesu psikolinguistiko konplexutzat hartzen dira. Berriz, *Habilidades lectoras como función de la heterogeneidad lingüística en Estados Unidos* (González Otero, 2021) lanak eleaniztasunean dauka abiapuntua. Kultura eta hizkuntza-aniztasuna fenomeno unibertsal eta iraunkortzat hartzen den nean kokatzen da ikerlana. Jasotzen denez, gero eta herrialde gehiagok egin behar diote aurre

⁴³ Fundazioari buruzko informazioa fundacionbertelsmann.org orrialdean kontsulta daiteke.

⁴⁴ RIUL-en atarian jasotzen da azalpen zabalagoa: universidadeslectoras.es

hezkuntza elebiduna emateko erronka garrantzitsuari. Proposatutako ikerketaren ardatza hizkuntza-taldeen artean dagoen irakurtzeko trebetasunaren heterogeneotasuna da.

Horrez gainera, besteak beste, *Irakurketa Ozena ebaluatzeko irizpideak Bizkaian* (Gaminde, Goikoetxea, 2005) liburua ere argigarri izan da irakurketa eta hizkuntzaren arteko harreman zuzenaren teoriak aztertzeko. Ikerlanean jasotzen denez, gehienetan irakurketaren alde kognitiboa aztertu ohi da; ez, ordea, hizkuntzaren alde fonikoa. Muinean dioskuna da irakurketa desegokiak testuaren deskodetzea oztopa dezakeela (ibid., 2005: 10).

Azterlana ontzeko, Euskararen Herrian kokatzen garela aintzat harturik, elebitasuna eta diglosia kontzeptuak ere jorratu ditugu, diglosirako bereziki, Baxok (2000) gogoan harturik; hain zuzen ere, Wolf-en (2018) teoriekin harremanetan dagoen gaia delako. Arlo honetako autore nagusien artekoak dira, baita ere, Fishman (1965), Ferguson (1959), Vygotsky-k (1977, 1979), Weinreich-ek (1979) eta Cassany (1991). Arlo honetan bertan, *Elebitasuna Euskal Herrian: teoria eta egoera* (Muller, 1984) eta *Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian* (Goikoetxea Arrieta, 2003) tesiak ezinbesteko lantzat jotzen dira elebitasuna eta diglosia kontzeptuetara hurbilpena egiteko.

Honenbestez, elebitasuna (Ferguson, 1959; Weinreich, 1979), neurozientziak eta *biliterate brain* (Wolf, 2018) kontzeptuetaraino heldu gara araketa honen bidez. Maryanne Wolf (2018) ikerlariak *Reader, come home* sorlanean dio irakurketa sakona, pentsamendu sakonetik bereizi ezina dela. Bertan, kontzeptu askoren artean, *neuroplasticity*⁴⁵, *cerebral patience*⁴⁶ eta *biliterate brain* gailentzen dira.

⁴⁵ The best known design principle, neuroplasticity, underlies just about everything interesting about reading”; Indeed, there are as many connections in the reading brain’s circuitry as there are stars in the Milky Way galaxy” (Wolf, 2018: 14-18).

⁴⁶ Arretaren izaera da erantzunik gabeko galdera handien azpian dagoena, eta gizartea horiei aurre egiten hasi da. Gure arretaren kalitatea aldatuko al da berehalakotasuna, zeregin-aldaketa azkarra eta distrakzioaren etengabeko kontrola errazten duten hedabideetan irakurri ahala, gure arretaren fokalizazio deliberatiboenaren aldean?; liburuek sortutako munduetan murgiltzen garenean irabazten dugun pazientzia kognitiboa deitzen digunari ihes egiten uzten badiogu galduko dugun guztiak sakonki kezkatzen du. Hau da, gure prozesu analogiko, inferentzial, enpatiko eta ezagutza-prozesu sakonen arteko loturak etengabe indartzea irakurketatik harago doa. Prozesu horiek gure irakurketan behin eta berriz konektatzen ikasten dugunean, errazagoa egiten zaigu gure bizitzetara aplikatzea, gure motiboak eta asmoak aletuz eta zorrotasun eta, agian, jakinduria handiagoz ulertuz, beste batzuek pentsatzen eta sentitzen

Atarian aditzera eman denez, ikerketa lan hau hiru ardatzok ezaugarritu dute, —*slow* kazetaritzak, irakurketak eta teknologiak—, beti ere, postmodernitatearen testuinguruan. Aipatu den bezala, aztertzen diren hiru ildoak landuak izan dira gaur arte. Dagoen literatura zabalak ardura ematen duten gaiak direla azaleratzen badu ere, etengabeko ikerketek eta informazio fluxuak agerian uzten du garapenean dauden gaiak direla. Ikerlan honen helburua hiru ardatzak era berean edo elkarrekin harreman zuzenean jartzea da, *triptychos*-a osatuz.

1.5 Hipotesia eta helburuak

Ikerlan honek irakurtzeko ohitura eta moduen, teknologia berrien eta kazetaritza-testu narratiboen arteko lotura jorratzen du. Zer neurritan aldatu dituzte narratiba digitalek gizartearen irakurtzeko ohiturak? Eta, bereziki, komunikazioko ikasleen artean? Lanak hiru ardatz nagusi ditu: irakurketa —irakurtzeko ohiturak eta ulermena—, teknologia berriak, eta *slow journalism* edo arnasa luzeko kazetaritza.

Hipotesia

Postmodernitateko gizartean, Internet-en garaian, sortu den albiste uholdearen aurrean, irakurketa sakonaren bidez kazetaritzak pentsamendu sakon eta kritikoa sor dezake, zeren kazetaritzari baitagokio —albisteak helarazteaz batera— informazioa ezagutzarako lehengai bezala aintzat hartzea. Teknologiaren eraginaren aurrean eta kazetaritzan hegemonikoa den abiaduraren eta berehalakotasunaren nagusitasunaren aurrean (*fast journalism*) arnasa luzeko kazetaritza (*slow journalism*) paradigma kritikoa sustatzeko abiaburu ona izan daiteke; eredu egokia non irakurketa katalizatzaile den, hala transbertsaltasunean, nola sakonerako, iritzi kritikorako eta jakintzarako bidean.

Abiaburu den hipotesi nagusitik eratorritako ikerketaren helburuak eta beraiei dagozkien iker galderak hurrengoak dira:

duen bezala. Wolfek gero eta irmotasun handiagoz adierazten du ohiko antsietatea zer den: gailu digitalak denoi (ez umeei bakarrik) desafio egiten ari zaizkigula modu guztiz berrietan, bonbardaketa medio.

Helb1 Postmodernitatearen eta Interneten garaiotan, datuz beteriko ingurunean bizi gara. Datuok, ordea, ez dakarkigutenez orientabide eta irizpide nahikorik, gertaeren nondik norakoak ulertzeko interpretazio kazetaritza tresna egokia izan daitekeela aztertu nahi dugu.

Ig1 Narratiba digitalek testuen ulermen-gaitasun estandarra aldatu dute? Eta, komunikazioko ikasleen artean?

Helb2 Jakin gura da kazetari-subjektuak eta irakurle-subjektuak informazio-testuan, hau da, objektuan, topo egitean, nola, zein neurritan, lortzen duten objektibotasunari eustea, erlatibotasunean erori gabe. Kazetariak hautatu, baloratu eta birformulatzen duen albistean mezu jakin bat igortzen da. Irakurleak, bestalde, albistea irakurri ahala bere izaera, pentsaera nahiz heziketaren arabera jasotzen du informazioa.

Ig2 *Fake newsen* fenomenoak —sarritan *fast journalism* korronteari lotuta agertzen dena— postmodernitateko pentsaerako zein ideiatan aurki lezake abaroa?

Ig3 Zein motatako kalteak sortzeko arriskua dakar Google aroko *fake newsen* korronteak?

Ig4 Kazetaritzaren historian beti sortu izan dira gezurrezko albistek. Gaur egun, nolako eragina dute Internetek eta, batez ere, sare sozialek *fake newsen* indartzean?

Helb3 Teknologia berriek inposatu duten Internet bidezko informazio azkar eta berehalakoaren aitzinean, arnasa luzeko kazetaritzara, *slow journalism*era jo dugu; hain zuzen ere, informazioaren errepide arinen ibilbidetik baino urrats pausatu eta hausnartuko bideetatik aritzea *fast journalismen* alternatiba izan ote den aztertzeko.

Ig5 Kontsumo azkarreko informazioa paradigma nagusia bilakatu den honetan, arnasa luzeko kazetaritza errealitatearen pleguetara hurbiltzeko proposamen baliagarria da?

Helb4 Aztertu nahi da teknologiak gizakiok aldatu gaituen bezala (pandemian gertatu zaiguna da horren adierazle), ea kazetaritzako prosa bera ere eraldatu duen, bai formari nahiz mamiari dagokienean.

Ig6 Zer aldatu du teknologia digitalak kazetaritzako prosa eremuan?

Ig7 Zein desberdintasun aurki daiteke, kazetaritzako mamari dagokionean, digitalizazioa baino lehenagoko edukien eta ostekoen artean?aldatu du teknologia digitalak kazetaritzako prosa ereduari?

Helb5 *Fast journalism* paradigma nagusi bihurtu den garaiotan, jakin gura dugu ea arnasa luzeko kazetaritza gero eta jarraitzaile eta espazio gehiago hartzen ari den. Esparru batetik heltzen diogu gaiari, eta ikertu nahi dugu ea *fast* kazetaritza-ereduak ohiturak, jokabideak eta irakurmena baldintzatzen dituen. Horretarako, komunikazio-ikasleen inkestetako emaitzez —*slow journalism* paradigman kokatuz— ere baliatuko gara.

Ig8 Multimediako irudiak, doinuak eta testuak pakete berean iristen zaizkion hiritarrak zein arrazoi aurki lezake, medio digitalak nagusi diren aroan, irakurketa sakona jotzeko?

Helb6 Postmodernitatean historia unibertsala eraikitzeke, ikuspegi bakar eta hegemonikoz jokatzetik ez dago. Ostera, komunikazioa orokortzeari esker, interpretazio desberdintasunarekin batera, lekuan lekuko kulturak eta dialektoak —gutxiengo etnikoak, sexuzkoak edo estetikoak— indartu egiten dira. Alde horretatik jakin nahi dugu ea arnasa luzeko kazetaritza gai ote den egun gero eta konplexuagoa den mundu hau interpretatzeko edota une honetan planetan inoiz baino presenteago dauden kultur, nahiz sexu edota hizkuntza aniztasunak islatzeko.

Ig9 Egiaztagarria ote da mikro-historiak makro-historiari hartzen diola txanda, eta ondorioz, historia bateratua eraikitzea ezinezko bihurtzen ari dela?

1.6 Metodologiaren aurrerapena

Arestian aipatu dugunez, metodologia mistoa erabili da lana ontzeko, metodo kuantitatiboak eta kualitatiboak era batera. Metodo mistoen azterketek profil oso zehaztua dute, izaera kualitatibo eta kuantitatiboko elementuak (datuak, adierazleak, emaitzak...) egotea eskatzen baitute, hauen arteko erlazio sinbiotikoa, hain zuzen ere (Wimmer eta Dominik, 1996; Taylor eta Bogdan 2002; Igartua, 2006). Ikuspuntu osoagoa eta sakonagoa lortzea da metodologia mistoa erabiltzearen helburua, alde kualitatiboko datuak eta kuantitatibokoak elkarren osagarri diren heinean (Hernández,

Fernández, Baptista, 2014: 534). Egile hauei jarraitzen diegu esaten dutenean, azken 20 urteotan, gero eta metodologia eta ikertzaile-kopuru handiagoek azpimarratzen dutela posizio dikotomiko hori —kuantitatiboa versus kualitatiboa— ez dela zuzena; azpimarratzen dute banaketa hori egitea oinarri gabea dela zientziaren filosofia koherente batekin. Hala bada, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa konbinatzean, emaitzak triangelatu nahi izan dira konbergentzia behatzeko, miaketarako eta teknikak garatzeko: dokumentu-iturrien kontsulta, elkarrizketa sakonak, inkesta eta nazioarteko *Delphi* azterketa. Triangelaketa, beraz, osagarritasun-estrategia da, azken analisia aberastu nahi duena metodologia biak, kuantitatiboa eta kualitatiboa, estrategikoki konbinatuz. Ikerketa honetan gauzatzen den triangelaketa-diseinu metodologikoari esker, azterketaren xedea hainbat angelutatik aztertzeaz gainera, prozesu beraren eta emaitzen balioa aberastu daitezke.

Abiatzeko, arloko profesionalei zuzendutako sakoneko elkarrizketak burutu ziren. Horretarako, hurrengo lerroetan zehazten den ibilbidea jarraitu zen: galdetegia prestatzea; nori zuzendu erabakitzea; bidalketa egitea; erantzunak jasotzea; eta aztertzea. Atarian aurkeztutako hipotesiak oinarri harturik, ikasleei bideratutako inkestak ere gauzatu ziren. Bigarren fasean, ikasleen inkestak prestatzeari ekin genion, aurre-froga burutuaz batera behin betiko galdetegia marrazteko. Hirugarren fasean inkestetatik eta sakoneko elkarrizketetatik jasotako aspektu batzuk erabili ziren nazioarteko *Delphi* azterketa gauzatzeko, *Delphi* azterketan bertan proiektatu baitira aurreko emaitzetan irakurritakoak, gaiotan ulertuak direnen ikuspegia batzeko xedez.

Sakoneko elkarrizketak (12) arloko adituekin burutu dira, beraien bizipen eta iritzien bidez datuak biltzeko helburuarekin. Haiek dituzten pertzepzioak eta iritziak interesatzen zaizkigu, ezen era horretara, teknika honek aztergaiaren inguruko ikuspegi guztiak ikertzeko bidea eman digu. Hiru dira sakoneko elkarrizketetan agertzen diren prozesurik garrantzitsuenak (Ruiz Olabuenaga, 2009: 174): elkarrekintza prozesua, galderak egitean datzana; informazioa ateratze prozesua; jakin nahi dena jasotzea eta informazioa gordetze prozesua; esan digutenaren erregistroa eta datuen analisia burutzea.

Ikerketaren barruan, hamabi elkarrizketa sakon egin zaizkie arloko adituei: akademikoei, kazetariei eta idazleei, aurrez aurre eta online 2020ko otsailetik abendura. Elkarrizketatuekin harremanetan jartzea izan zen lehenengo pausoa, ikerketaren berri

emateko eta parte-hartzaile bakoitzarekin hitzordua jartzeko. Doktorego tesiaren gaia, muina, azaldu zitzairen sakoneko elkarrizketaren testuinguruarekin batera. Era berean, elkarrizketaren helburua, berau egiteko bidea eta prozesua nahiz irizpideak ere azaldu zitzaizkien. Grabazioaren berri ere eman zitzairen eta datuak helburu zientifikoekin ustiatutakoak zirela jakinarazi. Egoerak hala agindurik —Covid-19a hor baitzen—, elkarrizketak *online* egin ziren. Ikerlanean, elkarrizketa erdi-egituratuak erabili ditugu datuen bilketarako. Galdetegiaren diseinuari dagokionez, gidoietan lan honetarako oinarritzakoak diren hiru ardatz nagusiak bereizi ditugu, irakurketa, kazetaritza pausatua eta teknologia. Beraz, hiru ardatz nagusi horiek oinarri hartuta garatu dira gidoia eta azpi-gaiak: kazetaritzak bizi duen egoera, sare sozialak eta irakurketa, postmodernitatea eta gaurko gizartea eta irakurketaren etorkizuna kazetaritza narratiboaren paradigman. Esan bezala, horrez gainera, galdera espezifikoak prestatu ziren aukeratutako subjektuen jakintza arloa eta profila aintzat harturik. Jasotako datuen kodifikazioari dagokionez, elkarrizketa guztiak transkribatu ostean kategoriak sortzea etorri zen. Ideiak kategoriatu deskriptiboan ostean jaso genituen. Behin ideiak identifikatuta eta ordenatuta sortu genituen gaiak eta azpi-gaiak. Hauek kontzeptu teorikoekin lotu genituen egiaztatu ahal izateko eta hasierako iker galderei erantzuten zieten zietela bermatzeko. Metodologia atalean azaltzen denez, NVivo programaren bidez burutu da hitz gakoaren kodifikazioa eta harremana. Behin galderaz galdera jasotako ideia gako guztiak aletu eta atonduta, tresna honen bidez ahalbidetu da hitz gakoak zeintzuk diren aztertzea, elkarrizketa-taularen bidez hitzen maiztasuna kontsultatzeko⁴⁷.

Inkestak komunikazio ikasleen unibertsora hurreratu gaitu, horixe zen helburua-eta. Horrez gainera, talde bateko iritzi, portaera, jarrera edo joeren zenbaketa adierazgarria ere badela aitortzen dugu. Zentzu honetan, inkestaren oinarri metodologikoa ondokoa da: kanpo portaera behatuz ezin dugula gizakiek euren portaerei ematen dioten sakoneko esanahia ezagutu, eta, ondorioz, esanahi hori behar bezala eta bere sakontasunean ezagutzeko biderik onena gizakiei galdetzea dela. Inkestadun ikerketa-praktika guztietan agertzen diren teknika horien artean dauden ohikoenak (Eiroa eta Barranquero, 2017: 42) erabili dira inkesta gauzatzeko: lagina diseinatu, galdetegi eraiki, indizeak eta eskalak neurtu, inkesta gauzatu, kodifikazioa egin, antolaketa eta datuen prestatu atondu analisirako, analisi teknikak landu, erregistrarako softwarea

⁴⁷ Sakoneko elkarrizketei dagozkien emaitzetan jasotzen denez, sarrien agertzen diren 100 hitzak erakutsi dira, hitz laburrak emaitzetatik kanpo utziz, gutxieneko luzera bermatzeko eta lokailuak zein beste baztertzeko.

eta analisisia bera idatzi. Amaitzeko, emaitzak txosten egituratuan jaso ziren. Gonbidapena zabaldu ostean, lagina 143 ikaslek osatu zuten, denak ere, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Komunikazio ikasleak dira denak. Aztergaiari dagokionez, irakurtzeko ohitura duten edo ez aztertu da ikergaiaren hiru ardatzak aintzat hartuta: kazetaritza pausatua, teknologia eta irakurketa bera. Galdetegiak, identifikazio galderez gainera (sexua, adina, ikasketak), honako hiru atal hauek ditu oinarri: 1) Irakurketarako joerarik ohikoenak 2) Irakurketa motak eta euskarriak 3) Irakurmenaren erakarmena aisialdian. Amaitzeko, 4) Kazetaritzari buruzko atala ere egituratu da.

Erantzunak jasotzeko *GoogleForms*-en bidez diseinaturiko inkesta e-posta erabilia bidali zitzairen. Bidalketaren une berean aurrez aurre (ikasgelan) egin zitzairen gonbidapena eta inkestaren nondik norakoak azaldu: helburua zein den, prozesua bera, metodoa, borondatezko parte hartzea eta anonimotasunaren bermea, inplikazioak eta ikerketaren aurkikuntza posibleen erabilera nahiz aurrera begirako ikerlerroak. Era honetara, inkesta postaz banatu zen arren, testuinguruaren kontrola bermatzeaz gainera (Igartua, 2006: 291) parte hartzea eta zalantzak argitzea bideratu ahal izan zen. Amaitzeko, azpimarra dezagun galdetegiaren anonimotasuna gordetzen dela uneoro eta hala adierazten dela galdetegian bertan.

Delphi teknikak adostasuna sortzeko bitarteko bezala, eta metodo gisa balio izan digu, galdetegi bidez hautatutako subjektuen paneleko nazioarteko datuak biltzea bideratzeko (Landeta, 1999; Ruíz Olabuenaga, 2009). *Delphi* metodoa adituen panel bati gai jakinari buruz egindako galdera egituratuetan datza. Metodo honen garapen prozesua fasekako da (Eiroa eta Barranquero, 2017: 80), hots, mailakatua eta graduala. Teknika metodologiko honen bidez, kazetaritza pausatua lantzen eta ikertzen duten profesionalen nahiz teknologiari eta irakurketari buruz ikertzen eta idazten duten adituen iritziak ezagutzea ahalbidetu da ikerketan. *Delphi* azterketa hezuramitzeko lehen urratsa bertan parte hartu duten aditu, akademiko eta profesionalak hautatzea izan zen, arloko profesionalen artean bilaketa sakona egin ondoren. Hirurogei aditu eta profesionalen zerrenda osatu zen, horietako 25ek baieztatu zutelarik parte hartzeko borondatea. Ikerketako ardatzak abiaburu izanik —kazetaritza pausatua, teknologia eta irakurketa— eta egindako araketaren ostean, esperientzia, ospea, eragin profesionala nahiz akademikoa izan ziren galbahe. Laginaren hautaketan uneoro egin da genero-parekotasuna aintzat hartzeko ahalegina. Galdetegia euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez

sortu da. *Delphi* ikerketan parte hartzeko gonbidapen gutuna eta osterantzeko hartu-emanak ere hizkuntza horietan egin dira. Galdera-sortak ikerketako hiru gako hauek ditu ardatz: arnasa luzeko kazetaritza, teknologia eta irakurketa; guztira hamar galdera. Behin erantzunak jasota, bildutako iritzi guztien lapurpena burutu eta txostenean jaso zen. Bigarren txandan, *Delphi* ikerketa honetako parte-hartzaile bakoitzak aipatutako txostena jaso zuen; bertan laburbildutako elementuak berrikusteko eta sailkatzeko, ordenatzeko eta hierarkizatzeko eskatu zitzairen, lehen txandan emandako informazioa oinarri hartuta. Horrela, bigarren itzulian, desadostasunaren eta akordioaren esferak identifikatzen dira. Amaitzeko, *Delphi* teknikarekin lortutako emaitzen laburpena aurkezten da.

Egonaldia George Washington Unibertsitateko Hedabide eta Gai Publikoen Eskolan (School of Media and Public Affairs) burutu da, Unibertsitate bereko Youmans doktorearekin lankidetzan. Metodologia atala eta *Delphi* azterketa ingelesez sortuak izan dira, AEBetako George Washington Unibertsitatean egindako egonaldia tarteko.

2020ko urrian egin zen lehen bilera proiektuaren eta egonaldiaren nondik norakoak azaldu eta zehazteko. Lanerako plangintza eta egutegia adosteko balio izan zuen batzarrak. Hurrengo hilabeteetan tesi-ikerketa modu birtualean aurkeztu zitzairen George Washington Unibertsitateko Hedabide eta Gai Publikoen Eskolako (*School of Media and Public Affairs*) irakasle eta ikasleei.

2021eko urtarrilean, metodologiaren kapitulu osoa bidali eta aurkeztu zen beronen berrikusketa egiteko. Ostean, metodologiaren atzeraelikadura etorri zen. Behin berrikusketa eginda, metodologiari buruzko mintegia gauzatu zen. Metodologiari buruzko mintegian kapituluaren azalpena eman zen; metodologiari buruzko atzeraelikadura orokorra eginez lehenik eta behin, eta, jarraian, iruzkinak zein jarraibide orokorrak jasoz. Bada, jarraibide orokorrak zedarrituta, hurrengo zehazten diren aspektuak ere landu ziren era espezifikagoan: erabilitako metodologiaren inguruko iruzkin zehatzak, bibliografiaren berrikuspena eta hizkuntzaren inguruko aholkuak. Hurrengo hilabeteetarako datak eta zereginak zehazteaz gain gainontzeko kapituluaren inguruan ere jaso ziren oharrak. Mintegiaren baitan, hurrengo urratsak ere zehaztu ziren:

- 1) Tesiaren alde teorikoaren inguruko zuzenketak amaitu eta bidaltzea kapituluari

buruzko mintegia prestatzeko. 2) Nazioarteko *Delphi* azterketaren lehen eta bigarren itzuliko emaitzak jaso, osatu eta bidaltzea.

2021ean sartuta, tesiaren alde teorikoa, erabilitako metodoen azalpena eta emaitzak azaldu ziren. *Delphi* azterketaren feedbacka eta beronen inguruko mintegia zein emaitzen ingurukoa ere gauzatu ziren George Washington Unibertsitateko Hedabide eta Gai Publikoen Eskolako (School of Media and Public Affairs) irakasle eta ikasleekin.

Behin metodologiaren aurrerapena eginda, hirugarren kapituluan, marko enpirikoan, jasotzen dira osotasunean atal honetan laburbildutako ideiak eta kontzeptuak.

2 Bigarren atala.

Marko teorikoa

Alétheia (αλήθεια) eta Dasein

Martin Heidegger

2.1 Oinarri epistemologikoa

Esparru kontzeptualean —teorikoa ere baderitzonean— gure ikerketa burutzeko ezinbestean behar izan ditugun oinarriko kontzeptuak jasotzen dira.

Marko kontzeptuala diseinatzerakoan nahi duguna da langaitzat hartuko dugun jakintza ez dadila ataletan sakabanaturik geratu, baizik-eta koka dadila marko zabalagoaren esparruan aterpeturik. Helburu hori lortzeko, Harvardeko John Huth (Wolf, 2018: 78) dugu lagungarri dioskunean, ezagutza marko kontzeptual zabalagoan kokatu gabe zatikatzen dugunean, esanahia ezagutzaren zaintzaileei lagatzen diegula, eta bere balio pertsonala galdu egiten duela:

Sadly, we often atomize knowledge into pieces that don't have a home in a larger conceptual framework. When this happens, we surrender meaning to guardians of knowledge and it loses its personal value⁴⁸.

Guk, Rafael Capurroren (1985) haritik, informazio-zientzietan gailurreko diren hiru paradigma epistemologiko hartu ditugu aintzat: paradigma fisikoa, kognitiboa eta soziala. Paradigma fisikoak (Ellis, 1992)⁴⁹ dio badela objektu fisiko bat, zeina igorleak transmititzen dion hartzaileari. Teoria hau informazio-zientziarako eredutzat hartuz gero, analogia egiten da zeinu baten garraio fisikoaren artean, eta mezuaren transmisioaren artean. Informazio-zientzian jakina denez, paradigma honek kanpo uzten duena, hain zuzen ere, subjektu kognoszentearen funtzio aktiboa da. Ez da, beraz, harrizkoa pentsaera honek aurkako paradigmara eramatea, alegia, paradigma kognitibora.

Paradigma kognitiboan bilatzen dena da, ea informazio-prozesuek zein modutan aldatzen duten edo ez duten erabiltzailea, berau harturik, lehenik subjektu kognoszente bezala —“kanpo-munduko eredu mentalak” dituenaren modura—, zeinak transformatu

⁴⁸ *The New York Times* egunkarian plazaratutako iritzi artikuluan jasotzen du adierazpen hau, *Losing Our Way in the World* izenburupean (2013). Huth Harvardeko Unibertsitatekoeko fisika irakaslea da, *The Lost Art of Finding Our Way* liburuaren egilea. John Huth, Wolfek aipatua, in Reader come home, 78. or.

⁴⁹ Capurrok aipatua (1986, 2000) *Epistemology and information science*.

egiten diren informazio prozesuan. Bernd Frohmann-ek (1995) kritikatu egiten du paradigma kognitiboa, batetik, idealista delako, bestetik, asoziala delako⁵⁰.

Paradigma sozialak, bere aldetik, giza-bizitzako baldintza sozialak eta egoera materialak ditu lehenesten, horrela paradigma kognitiboaren mugak zedarriz, ezen paradigma kognitiboak informazioa erabiltzailearengandiko zerbait banatua bezala hartzen du, metafisikako mundu noumenal baten kokatua. Ondorio praktikoen artean, Capurro-k azaltzen du (1985) auresuposizio epistemologikoek ondorio nabarmenak dituztela informazio-sistemen diseinurako, bai sistema horien erabilerarako, baita ikerketa zientifikorako bertarako ere.

Lourdes Romero-k (1998: 171) dioenez, gaur egun kazetaritza ulertzeko era bi ari dira lehian, egitateen kazetaritza eta kazetaritza kritikoa. Badirudi korrante bion arteko nagusitasuna egitateen kazetaritzaren aldera doala, —guk gorago paradigma fisikoa deitu dugunaren aldera—. Hori horrela delarik, aspaldiko ideia positibista, objektibotasuna egitateetan dela dioena, berrindartu egin da. Hala ere, kazetaritza kritikoak baliabide teorikoak gero eta hornituago dauzka, hainbestean non alternatiba bihurtzeko gaitasuna lortua duen jadanik. Edonola ere, gure egunotan, korrante biek dira, egitateen kazetaritzak eta kazetaritza kritikoak. Bataren eta bestearen arteko bereizketa soil-soilik lor daiteke mezuaren hartzaileak parte hartzen duen neurrian.

2.1.1 Kazetaritzaren garapen epistemologikoa

Kazetaritzako oinarri eta metodoetara jo dugunean, ezagutzaz gainera, berbak hartu ditugu gogoan, nahiz eta badakigun berri-emaileek albistegintzan hitzez gainera medio bisualak eta grafikoak ere erabiltzen dituztela. Pentsamenduaren historian, ideien etengabeko joan-etorriak ezagutu izan dira. Sakon-sakonean, harat-honat horiek jarrera bitan banatu izan dira; jarrera errealista bata, eta subjektibista bestea, alegia, niaren

⁵⁰ Paradigma kognitiboa egokia da tesi honi dagokionean. Horren sakoneko arrazoia da alfabetatzea gure oinarritzko ikergaien artean aurkitzea, hala irakurle alfabetatuari dagokionean, nola garaun bialfabetatuaz aritzen garenean. Hau da, hiritarra -ez eskola adinekoa soilik- alfabetatu egin beharra dagoela, batetik, zibilizazio digitalaren barruan gaitua izateko, bestetik, iritzi kritikoaz jabe dadin. Bestalde, marko teorikoaren konprezioan, irakurle bialfabetatua proposatzen da -hiztun elebidunaren irudira- etorkizuneko irakurletzat. Irakurketa moduz jartzen dugun hipotesia da hezkuntza eta hazkuntza egokiaren bidez lor daitekeela etorkizuneko komunikatzaileek garun bialfabetatua garatzea, pertsona elebidunek hizkuntza bitan mintzatzen diren erara.

errealitatea eta gauzen errealitatea. García Morentek (1979: 388) esana da giza-izakiari berez dagozkiola subjektibitatea eta objektibitatea, ez subjektibitatea soilik: “El ente humano, como existente, comprende por consiguiente, no sólo estrictamente hablando la subjetividad, sino también la objetividad”⁵¹.

Gainera, orri berean arrazoia emango dio konponbidea aurkitu duen Heidegger-en perpausa errepikatuari: “Ni munduan gauzekin izatea”; beti ere, sinonimotzat harturik munduan izan, *Dasein*, eta existentzia. Gai berberaren haritik, gaur egun filosofiaz diharduela, Innerarityk zera errepikatuko digu, filosofiako aztergaiak etengabe hausnartuak izango direla, eta horien artean dela errealitatea zeri deritzogun arakatzea: “Esto es lo que la filosofía hace una y otra vez (...) volver a cargar con el peso de problemas irresolubles como qué significa que algo es real” (2017: 166).

Guk arazoa bideratu guran —irakurketa ardatz dela dihardugularik—, hauxe adierazten dugu Piñero irakasleak darabiltzan ideiak geure eginik (Piñero, 2020)⁵². Ez dugu defendatzen testu baten esanahia irakurleak soilik ematen diona dela. Sokratesek sorturiko erantzuna ematen diogu subjektibotasun postmodernoari, hots, erantzun objektiboa. Sokratesek dio kontzeptuen bidez ezagutzen dugula errealitatea, eta kontzeptu horiek unibertsalak direla, denok ditugunak —horri esker komunikatzen garela elkarren artean⁵³—. Postmodernitateko subjektibotasunari irteera aurkitzeko Sokratesekin diogu gizakiok kontzeptu unibertsalen bitartez lortzen dugula ezagutza. Beraz, dena ez da errelatiboa, testua ez da irakurlearen iritzipekoa, guztiz subjektiboa, idazleak zuen asmotik guztiz aske interpreta daitekeena; autoreak idatzitako hitz esanguratsuak kontzeptu “unibertsalak” dira, irakurle guztien adimenean daudenak.

⁵¹ Frente a toda la metafísica tradicional —la antigua, objetivista, como la moderna, subjetivista— y frente a todo existencialismo y nihilismo, el último Heidegger intenta pensar el ser mismo, del cual todo depende: el sentido del ser, su comprensibilidad, manifestabilidad, verdad: Kung, H (1979): ¿Existe Dios?, Ediciones Cristiandad, Madrid. 673 or.

⁵² Antonio Piñero Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Greziar Filologiako katedraduna da, kristautasun primitiboaren hizkuntzan eta literaturan espezializatua. Kristautasunaren eta judaismoaren arloko hainbat lanen egilea eta idazlea ere bada. Aipaturiko ideiak [audioan](#) jasota daude.

⁵³ Edonola ere, Sokrates filosofoaren berezitasunari ezinbestean argibidea eman beharrean gara. Manuel García Morentek berba hauekin adierazi zigun: “Pero la influencia de Sócrates en Platón es no menos importante que la influencia de Parménides. Sócrates enseña a Platón unas cuantas cosas de capital importancia. Sócrates es un hombre que no escribió nunca una línea, y resulta que después de veinticinco siglos hablamos todavía de él, con el mismo interés, con la misma pasión a veces (lo digo por experiencia de lecciones oídas por mí) que si estuviese viviendo hoy. Es un caso único en la historia del pensamiento humano”. García Morente Manuel: Lecciones preliminares de filosofía. Editorial Losada, S. A. Buenos Aires. Argentina, 1979, 87, or.

Bestela, Piñerok dioskunez, “triangelu” hitza idaztean irakurle bakoitzak gogoak ematen dion irudi geometrikoa ulertuko luke, baina aurretiaz inplizitoki adostutako kontzeptua dugu. Edonola ere, gure arrazoiak eta aipamen oinarrituak hor dirauten arren, María Jesús Carravillaren ustez (Gutiérrez Sanz, 2019: 13), postmodernitateak subjektibotasunaren ikuspegitik begiratzen du errealitatea, egoaren apologia eginik, errelatibotasun subjektiborako joeraz:

Dentro del subjetivismo situaríamos la posmodernidad y entre sus características destacan el ámbito del yo individual, la subjetividad en el pensamiento, es decir, la apología del ego, con la tendencia marcada hacia un relativismo subjetivista.

Nolanahi den, postmodernismoa pentsamendua baino areago bizitzarako jarrera da, beti ere, norberaren subjektibotasuna oinarritzko erreferente delarik: “Norbanakoa izan ezik, praktikan dena geratzen da zalantzan, arrazoa baliogutxiturik, postegiaren garaian”⁵⁴ (Gutiérrez Sanz, 2019: 13).

Horrela, postmodernitateak gizarte berria proposatzen du, eta kritikatzeko aurrekoen “errelato handiak”. Peter Zima irakasleak proposatutakoari jarraituz, postmodernitatea utopien amaiera gisa defini dezakegu (Kortazar, 2007: 10). Gainera, jarrera errelatibistaren alde jokatzeko du, eta *ni* emotiboari egiten dio gorazarre. Guk, dena den, ez genuke gutxietsi behar joera indibidualista horren baitako alderdi positiboa, hau da, pertsonen arteko desberdintasunak onartzea, eta aske izatearen gorazarrea postmodernitateko ikur moduan.

Kultura postmodernoko zati oso garrantzitsu bati begiratzen badiogu, hots, teknologiari, aise baiezatzeko dugu osasun oneko zeinuak ematen darraielara, ezen ekarri dizkigu erosotasuna, prosperitatea eta, jakina dena, giza-harremanetarako aldaketa sakona. Hala ere, “informazioaren gizarteak paradisu teknologikoaren atarian kokatuko gintuzkeela ziotenak ere isildu dira” (Ramírez de la Piscina 2019: 80).

Postmodernitateko iraultza teknikoa inon nabarmentzekotan komunikazioaren esparruan nabarmendu da. Nahiko da horretarako Gutiérrez Sanz-en (2019: 82) baieztapena:

⁵⁴ Autoreak horrela dio: “Prácticamente todo queda en cuestión, salvo el individuo, con devaluación de la razón, en la época de la posverdad”

“Postmodernitatea igaroko bada historiara teknikaren garapeneko aro bezala, merezimendu berberarekin izenda genezake informazioko teknologien aroa”⁵⁵.

Eta gaineratzen du, komunikabideek tresnak baino ez luketela izan behar, baina kontua dela osagai kultural izaten amaitu dutela, aurrerapenaren ageriko aurpegia. Hala emakumezkoak nola gizonezkoak mass-mediak igortzen dituen albiste uholdeen eraginpean bizi gara, eta ez dugu gaitasun nahikorik bakoitzaren jatorria edo izaera bereizteko. Behin eta berriro errepikatu ohi denez, gehiegizko informazioak ez dakar hobeto informaturik egotea. Egia esan, medio indartsu horiek galarazi egiten dute pentsaera pertsonalizatu eta kritikoa, zeren albisteak hainbeste direnean, nekez lor baitaiteke guztien hausnarketa egitea. Beraz, onartu beharrean gara, oso handia dela mass-mediaren eragina gizaki postmodernoarengan.

Gutierrezen aipamenak garamatza postmodernitatea eta Internet sinonimotzat hartzera; komunikatze birtual moduan ulertzera. Birtual terminoaz adierazi gura dugu mezua igortzeko euskarri materialik ez izatea, gutunik eza kasurako, edo igorlea eta hartzailea hurbiltasun fisikoan ez aurkitzea, eta garaiaz, XX. mendeko aurrerakuntza teknologikoen aroan kokatzea, tresneria digitalarenean. Beraz, Internetik eza izango litzateke gure garaia ez izatea gaur dena.

La posmodernidad habrá de ser recordada, sobre todo, como la época de la comunicación virtual. Posmodernidad e Internet en muchos aspectos se corresponden y sin duda alguna nuestro mundo no sería lo que es si faltara Internet. En expresión de Juan Urrutia: “la posmodernidad es Internet” (Gutiérrez Sanz, 2019: 84).

Hala ere, kazetaritzaren ikuspuntutik ez da adierazgarriena Internet, baizik, eta Susana Pérez-Soler-en aburuz, sare sozialak, kontsumorako ohiturak nahiz pertsonen arteko harremanak irauli dituelako; baita, albisteen sorkuntzan eta banaketan, jadanik ez direlako izango subjektu bakarrak. Kontua da teknologiak abiada bizian inbaditu dituela gure bizitzak. Kazetaritzaren industria Interneterako egokitzapena aztertzen ari zen oraindik, hedabide sozialak agertu eta dena lehertu zutenean.

La verdadera revolución en el ámbito del periodismo digital no llega con la aparición de Internet, sino con la de las redes sociales, que alteran los hábitos de consumo y las relaciones entre personas, al tiempo que certifican la defunción de

⁵⁵ Autoreak era honetara jasotzen du ideia: “Si la posmodernidad va a pasar a la historia como la era del desarrollo de la técnica, con el mismo merecimiento podríamos denominarla la era de las tecnologías de la información”

los periodistas como actores únicos en el proceso de elaborar y distribuir noticias (Pérez-Soler, 2017: 16).

Baliteke gure sare birtualen bidezko komunikazioa bera ere izatea bizitza errealean bizi dugun presaren eta berehalakotasunaren presioaren isla. Zeren, daramagun astirik gabeko bizimoduak hausnarketa lasairako edo erabaki sakonagoetarako aukerarik ez baitigute lagatzen. Ondorioz, gairik sakonenak bertan behera uzteko joera dugu.

Kazetaritzan berehala eta laster jarduteari erantzunez, *slow journalism*, arnasa luzeko kazetaritza sortu da. Innerarityk (2018: 172) dio gizateriaren historia aldatzeko aldarriz beteta dagoela:

Todos han estado empeñados en que trasformáramos el mundo: imperativos modernos (avanzar, cambiar, adaptarse, resistir, ser competitivos, innovar) y posmodernos (estar en forma, despreocuparse, singularizarse, desacelerar, cuidar).

Aitortzen du, hala ere, oso zaila dela ezarritako praktikak alde batera uztea. Ere mu sozialean inertzia kolektibo bat dago, aldaketaren aurkako erresistentzia gisa agertzen dena.

Geldotze postmoderno horretan, kazetaritzak ere *slow* mugimendura jo du abaro bila, ezen pausazko pausoak eta hausnarketa kritikoa beharrezko ditu. Rosique-Cedillo eta Barranquero-Carretero-ren (2015) aburuz, *slow journalism* da berehalakotasunerako eta primiziarako joera nagusiaren erreakzio gisa sortzen dena, eta informazio zorrotza, sortzailea eta kalitatezkoa ekoizteko eta kontsumitzeko behar diren denborak birpentsatzera bultzatzen duena:

Aquel que emerge como reacción a la tendencia dominante a la inmediatez y la primicia y que invita a repensar los tiempos necesarios para producir y consumir una información rigurosa, creativa y de calidad (2015: 453).

Aipatu berri duguna dela-eta, Hartsock (2000), Boynton (2005) eta Conover (Boynton, 2012) honetantxe datozela bat esaten da, kazetaritzan ohikoa izan den joerari jarraipena ematean, nahiz eta garai honetan indarrean den berehalakotasunari erantzunez. Beraz, izaeraz etiketa berria den arren, praktika zahar bati buruzkoa da, alegia, sakontasunez ikertzen duen kazetaritzakoa izanik ere, asmo estilistikoz narratzen duena: “Praktika

zahar bat izendatzen duen etiketa berria da, sakon ikertzen duen kazetaritzari dagokiona”⁵⁶ (Rosique-Cedillo, Barranquero-Carretero, 2015: 24).

Beraz, *Slow Journalism* orientabide kritiko legez sortzen da, hots, kazetaritzako praktikan abiadurak dakartzan ondorioen aurrean hartzen den jarrera kritiko bezala.

2.2 Irakurketa

Irakurketa prozesua da, sinbolo idatzien multzoa aztertuz beraien esanahia lortzeko. Euskaltzaindiaren arabera “irakurtzea testu idatzi bateko ikurrak, ezagutuz, jarraitzea da; horrela arituz, idazlan baten mamiaz jabetzea”⁵⁷. Dena den, esan berri duguna halaxe den arren, tesiko hariaz bat letorke adieraztea, ez dela jakituriaz jabetzea soilik, zeren jabetze horrek eraldatu egiten baitu irakurlea. Ez da, beraz, lehen begiradan uste izan daitekeen bezain soila. Euskaltzaindiko *Literatura Terminoen Hiztegiak* (Euskaltzaindia, 2008) dakarrenez, irakurketa prozesu kognitibo konplexutzat jo daiteke: “Irakurtzean, hizkuntza idatzia interpretatu egiten du irakurleak; hau da, lehendik dituen ezagupen eta esperientziekin kontrajartzen du”⁵⁸.

2.2.1 Irakurketa eta hausnarketa sakona: liburuaren autoritatea

Badakigu irakurketaren praktika informazioaren eta ezagutzaren zabalkunderako kultura-teknika zaharra dena. Izan ere, irakurmena testu idatziak ulertu, erabili eta horien inguruan hausnartzea da, xede pertsonalak lortzeko, ezaguera eta norberaren ahalmena garatzeko eta gizartean parte hartzeko (Gaminde eta Goikoetxea 2005: 10)⁵⁹.

⁵⁶ Autoreak hala adierazten du jatorrizko hizkuntzan: “Coinciden en que se trata de una nueva etiqueta que designa una vieja práctica: la del periodismo que investiga en profundidad”

⁵⁷ Euskaltzaindiaren Hiztegia, 2016.

⁵⁸ Euskaltzaindia, *Literatura Terminoen Hiztegia*, 2008.

⁵⁹ Gaminde eta Goikoetxeak jaso: Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) 2003an emandako kontzeptua da. Erakundearen helburua partaideen politika ekonomiko eta sozialak koordinatzea da.

Horrez gain, arnasa luzeko kazetaritzan garelarik, irakurketa betikotik gaurkora zer den aldatu jakiteko Nicholas Carr-engana (2008) jo dugu. Egile horrek galdetuko du, ea zibernauten adimena gertatuta aurkitzen den sakoneko irakurketan eta pentsamenduan jarduteko. Ezetz erantzunez, ohartu egingo gaitu sakonean ez aritzearen ondorio intelektual eta kultural kezkarriez, hain zuzen ere, pentsaera linealerako dakartzanez. Carr-ek aitortzen du lehen ematen zituen orduak prosa luzeak irakurtzen, orain nekezago ematen dituela. Aitortzen du, orain, bere kontzentrazio-ahalmena ere txikiagoa dela eta errazago galtzen duela haria. Eredu moduan bere burua harturik, hauxe dio:

Over the past few years I've had an uncomfortable sense that someone, or something, has been tinkering with my brain, remapping the neural circuitry, reprogramming the memory. My mind isn't going —so far as I can tell— but it's changing. I'm not thinking the way I used to think. I can feel it most strongly when I'm reading. Immersing myself in a book or a lengthy article used to be easy (Carr, 2008: 2).

Edonola ere, Carr-ek irakurketaz duen esperientzia hori ez da berea soilik, zeren kide eta adiskideek ere antzerako sentipenak baitituzte. Hau da, zenbat eta Internet erabiliago, hainbat behartuago irakurtze sakonak arretaz segitzeko. “The more they use the web, the more they have to fight to stay focused on long pieces of writing” — idazten du geroxeago Carr-ek. Geurera bihurturik, badakigu ezinbesteko duguna Carr-en pentsamoldea irakurketa eta hausnarketa sakona behar den legez oinarritzeko. Jakitun gaude, gainera, hausnarketa hauek orain hamarkada bat pasatxo jaulki zituela, eta jadanik 2008 hartan Maryanne Wolf-ek ere argitaratua zuela *Proust and the Squid: The Story and Science of the Reading Brain*, non Wolf-ek dioen sareak promozionatzen duen irakurketa estiloak, makaldu egiten duela geure irakurketa modu sakona. Bere aldetik, Carr-ek baieztatuko digu, sarean irakurtzen dugunean, adimen-loturak harilkatzeko dugun gaitasuna deslotuta mantentzen dugula. Alderantziz gertatzen dela, ordea, sakon eta arretaz lantzen dugun irakurketan. Carr-ek, beraz, zera baieztatuko du:

We are how we read. Wolf worries that the style of reading promoted by the Net, a style that puts “efficiency” and “immediacy” above all else, may be weakening our capacity for the kind of deep reading that emerged when an earlier technology, the printing press, made long and complex works of prose commonplace. When we read online, she says, we tend to become “mere decoders of information.” Our ability to interpret text, to make the rich mental connections that form when we read deeply and without distraction, remains largely disengaged (Carr, 2008: 3).

Beharbada, gizartean gertaera hedatua da behinola berez-berezkoa zen irakurketa sakona, gaur egun burruka bilakatzea. Besterik da joera hori etorkizunean hala joango den edo aldatu egingo den; ez, nonbait, berez-berez. Tesian zehar baieztatu dugunez, bai Carr-ek nahiz Wolf-ek diote, nork bere esperientziaren arabera, frogatu ahal izan dutela, batez ere, liburu sakon eta zabalak irakurtzeko nagia, digitalizazioaren hegemonikotasunaren aurretik gertatzen ez zitzaiena.

Irakurle digitalak ez bezala, irakurle tradizionalak liburuaren autoritatepean jarduten zuen, Gainera, ohituraz zetorkion kulturak bultzatzen zuen liburu amaieraraino irakurtzera, era jarraituan eta kontzentrazio osoz.

Bestalde, ez da interpretaziorik gabeko informaziorik. Norberak jasotzen duen informazioa iragazi egin behar du. Sarean aurkitzen dugun informazio multzo handia berregin beharra dago. Liburuek horrexetan lagundu ohi dute, hain zuzen ere.

Innerarityk gogorarazten digu liburuaren irakurketa beti dela ordenaren eta logikaren esperientzia izatea, nahiz eta oso desberdinak izan norberak irakurtzen dituen egitura narratiboak. Horregatik du merezi lekua hemen Flaubert-en (1854) esaera eginak: “Mais c'est atroce! l'ordre des idées, voilà le difficile”.

Arrazoi horregatik da liburuaren irakurketa logikaren eta ordenaren esperientzia, nahiz eta irakurtzen diren liburuaren narrazio-egiturak era askotakoak izan. Horretan du indarra Flaubert-en aipuak, alegia, ideien antolaketak duen zailtasunean.

Literaturako idazlanik eredugarrienak irakurtzea, norberaganatzea, beste ezer baino bitarteko egokiagoa eta emankorragoa gerta daiteke *slow journalismen* paradigmaren. Liburuaren eragin hori bikain biltzen du Gabriel María Otaloraren (2019) perpausa honek, zeinek irakurtzea beste batek pentsatutakoa ulertzea dela esan ostean honela idatzi duen: “Y por ese poder transformador que tiene la lectura, cuando alguien está enfrascado con un libro, más que leyendo lo que hace es aprender, descubrir, es decir está madurando”⁶⁰.

Irakurketaren analisten artean —Nicholas Carr (2008) aurrelaria ere tarteko dela—, adierazten da Internet gure garaunen berreziketa gauzatzen ari daitekeela. Hau da, gure burmuinak trebatzen informazioa azkar eta zatikaturik jaso dezagun. Ondorioz, epe luzeagoetarako kontzentrazioa gal genezakeela:

⁶⁰ Otalora, Gabriel María: Leer y escribir. *Deia* egunkaria. Iritzia. 2019-06-22.

Mientras Internet se convierte en nuestro medio universal, podría estar radiestrando nuestros cerebros para recibir información de manera muy rápida y en pequeñas porciones. Lo que perdemos es nuestra capacidad para mantener una línea de pensamiento sostenida durante un periodo largo⁶¹.

Beraz, onartzen bada ordenagailuek moldatu egiten dituztela irakurketa-praktikak, ez da kontua izango, soilik, gutxiago irakurtzen dela, baizik eta, beste era batera irakurtzen dela: labur, tarteka, urduri, etenez, egonezinean; ez, dena den, hausnarketa giroan murgilduta.

Testuinguru horretan ulertu behar da irakurketaren ezinbestekotasuna *slow journalismek* bereganatu dituen berezitasunak bururaino eraman ahal izateko: sakontasuna, benetakotasuna, eta sinesgarritasuna. Xede hori gauza dadin, bada, ezinbestekoa da berehalakotasunari ihes eginik, astia izatea, kazetaritza pausatu hori istorio luzeetan lantzeko. Ordea, istorioen aipamenak oinarrizko hausnarketa eskatzen du, ezen modernitatetik postmodernitaterako aldaketan, makroerrelatoak, errelato globalizatzaileak desagertzean —kristautasuna edo marxismoa, adibidez—, mikroerrelatoak baino ez zaizkigu geratzen. Era horretara, existitzen dena zure errelatoa da, edo nirea, edo besteena, baina ez denontzako balio unibertsala duena (Gutiérrez Sanz, 2019: 62): “El microrelato, como el minidiscurso característico de la posmodernidad, responde a un cierto perspectivismo que rompe con el metadiscurso ideologizado, tal como lo viera Lyotard”.

Bestalde, arnasa luzeko kazetaritzan, era honetakoak dira istorioak, eskainitakoak narrazio pertsonalei, zaindutako kontakizunei, xehetasunei, eta adjektiboei. Mercedes Ortíz ikertzaileak argiro azaltzen digu aipatu berri duguna (Albalad, 2018: 20): “Istorio pertsonalei, zaindutako kontakizunei, xehetasunei, adjektiboei... eskainitako kazetaritza geldoa”⁶².

Ohartzen garenez, kazetaritza betikoan ere, badira horrelako errelato onak, zainduak, txukunak. Horrexegatik Albaladen *Periodismo Slow* liburuaren aitzinsolasean Jorge M. Rodríguez Rodríguez-ek adieraziko digu nola kazetaritzaren negozioirik onena beti izan den istorio bikainak kontatzea: “El mejor negocio del periodismo siempre ha sido contar buenas historias”. Hau da, kazetaritzaren negozioirik onena istorio onak lantzea izan dela

⁶¹ Nicholas Carr: *El País*, 2008-10-10.

⁶² Egilearen hitzak hauek dira: “Un periodismo lento dedicado a las historias personales, a los relatos cuidados, a los detalles, a los adjetivos...”

(ibid., 2018: 18). Beraz, muga likidoek bereizten dituzte *longform journalismeko* “textos de largo recorrido”, ibilbide luzeko testuak, eta arestian aipaturiko “historias personales” mikroerrelatoetakoak. Hala ere, tesian defendatzen dugun irakurketaren sakontasuna dela-eta Alarcón-ek dio errealiatega errealitate izan arren, maiz digitalak gainezka egiten digula. Ordea, horrek ez du esan gura kronikak idatz daitezela astia hartzea eta pertsonaiak lantzea merezi ez duenik:

La realidad es la realidad y la verdad es que nos pasa por encima lo digital. Eso no significa que no haya temas, personajes y situaciones que merezcan ese tiempo (para escribir crónicas) pero para eso están los libros (Albalad, 2018: 84).

Hala ere, horretarako liburuak direla baieztatu arren, jarraian diogunez, John Brunch-ek kroniken kategorian jaso zuen Pulitzer saria. Gainera, artean ere aipamena jaso zuen kategoria berean erreportajea luze batekin.

The New York Times-en argudioa izan zen, ezen erreportajeak kazetarien sailean zirrara eragin zuela kontara teknikarengatik; baita, ondorioz, aro digitalerako historia luzeen etorkizuna zalantzan zeukatenei, geroaren erantzuna presentean iritsi zitzaizela, eta iritsi ere bat-batean eta modu ikusgarrian.

En la carta de presentación de la candidatura de “Snow Fall” a los Pulitzer, *The New York Times* argumentó que el reportaje había causado una profunda sensación en el sector periodístico por su innovadora fórmula narrativa para contar una historia, y afirmó que “para aquellos que habían temido por el futuro de las historias largas en la era digital, el futuro había llegado, de manera repentina y espectacular (Nafría, 2017)⁶³”.

Behin baino gehiagotan aipatu ohi dugu ikerlanean zehar, liburuetan ez garela aurkitzen ideia isolatu edo deskribapen edo gertaera sakabanatuekin soilik, baizik-eta, elementu guztien arteko logikaz eta koherentzia narratiboaz. Horregatik, bada, baieztatu egin dugu arestian, nola liburua medio pausatua eta egokia den arreta luzeko garaietarako. Egia esateko —idazten du Albalad-ek (2018: 47)— “formatu digitala, beraz, ez da oztopo luze eta zabal irakurtzeko”. Hala ere, praktikak erakusten duenetik, testu inprimatuak ideia finkoaren eta koherentziaren erakusgarri diren bitartean, hipertestuak

⁶³ ismaelnafria.com atarian jasotzen da ideia. Atari honetan jaso daiteke informazio osatua: <https://www.ismaelnafria.com/wp-content/uploads/2017/04/La-reinveni%C3%B3n-de-The-New-York-Times-Ismael-Nafr%C3%ADa.pdf>

-testuen, grafikoen eta gainerakoen multzoak, lotura logikoen bidez lotuak- noraezerako bidegurutzean laga gaitzake.

Dena den, gauza jakina da Albalad-ek (2018: 23) sare sozialen balioaz idazten duena, alegia, batez ere, sare sozialetan badirela mugikorrek eta tabletak zeinek laguntzen diguten ezin irakurri ditugun artikulua gordetzen: “Aplicaciones (móviles y tabletas) que ayudan a almacenar los artículos que no podemos leer sobre la marcha cuando tropezamos con ellos, casi siempre en las redes sociales”. Alegia, astia izatean irakurriko dugula berehala ezin leitu duguna. Ordea, errealitatean, Axularrek (1976: 6) idatzia gertatu ohi da: “Eta hartan, gero dioenak bego dioela erakustea”. Boyntonek (2011), gaia biribilduz, adierazten du etorkizuneko kazetaritza laburra edo luzea izango dela, tarterako lekurik gabe: “in the future, journalism will be either very short, or very long”. Edozein kasutan, orain arte azalduko dena egia izanik ere, ezin parekatuko ditugu Interneteko kazetaritza eta berehalakotasuna, Salaverriari jarraikiz:

La ecuación que equiparaba periodismo en Internet con instantaneidad se ha demostrado, en efecto, falsa. En los últimos tiempos –especialmente, desde que *NYTimes.com* publicara en diciembre de 2012 su conocido reportaje “Snow Fall”–, cada vez más medios se han apuntado a la moda de contar informaciones con calma y espacio generoso (Salaverria, 2014: 18).

Finean eta buruan, guk, sakona, kritikoa eta oinarrituaren bila liburueta jo dugu, hain zuzen ere, paperean idatzitako liburu klasikoetara, literaturako maisu edo maistra idazlanetara, hala koherentziako ekarpenegatik, nola narrazioko logikagatik. Zentzu honetan *slow journalism*eko Megan Le Masurierrek (2016) deituriko “a new research paradigm” ez da urrun tesian adierazten dugun irakurketako gaitasun kritikotik eta sakontasunetik.

2.2.2 Postmodernitateko historia eta istorioak Euskal Herrian

Internetek ekarri digun abiadura eta berehalakotasuna aztertu ondoren, bada zer hausnartu postmodernitateak alde batera laga dituen errelato handien, teleologia guztien gainean, zeren historia jorratzerakoan, errelato txikietara jo baitu, hain zuzen ere, ia garrantzi historikorik gabeko direnetara.

Bestalde, errelato txikietara jotzea, istorioak kontatzeko arteaz baliatzea, antidoto baliagarritzat hartu da pentsaera linealaren hausturagatik ere. Javier Otazu Ojerrek (*Deia*, 2020-01-30) dioskuna gogoan harturik, baieztatu dezagun gure burmuinak linealki pentsatzeko joera duela; errealitatean, ordea, aldaketak esponentzialak direla: “Vivimos en una realidad de cambios exponenciales con un cerebro preparado, tan solo, para pensar linealmente”⁶⁴. Aipatu dugun pentsamendu linealaren haustearen harira, Hartsock-ek ere hau iritzi hau, istorio laburren bidez adieraztea aspaldian plazaratu zuen, zeren kontaera onak garun-zirkuitu asko jartzen baititu indarrean (Hartsock, 2000):

Ante esta situación el arte de contar historias se ha convertido en un antídoto, porque “la buena narración involucra, activa, numerosos circuitos cerebrales y ayuda a atrapar a la gente.

Badakigu, istorio bat entzun edo irakurtzen dugunean, garuneko gune asko aktibatzen direla, istorioek adimeneko atal asko ukitzen dituztela, gune horietan eraginez. Zerbaitegatik utzi zuen idatzirik Jean-Paul Sartrek, beraren *Náusea* eleberrian gizakia beti dela ipuin kontalari. Hartsock-ek dioskun garun-zirkuitu anitz abian jartzea, Maryanne Wolf neurozientifikoak lantzen duen garun irakurleaz lotuko dugu geroago ere tesiko ildoari jarraikiz.

Errelato txikioi, biografia mailakooi, ia balio partikularrekotzat hartzen direnoi, Vattimok “pentsaera malguko errelatoak” deritze (Gutiérrez Sanz, 2019: 101). Pentsaera malguko errelatoekin, bestalde, Lyotard-ek (1984) izendatzen duen gizarte-aniztasun interkonektura iristen gara, dogmatismotik ihes eginik mundu plural batera irekiz. Testuinguru horretan tradizio historikoen galdu egiten dute indarra. Hala ere, interpretazio berean, Vattimoren (1989: 2) *Posmodernidad y fin de la historia* artikuluan autoreak bide ematen dio historia begiratzeari. Historia berraztertzean, lekuan lekuko kulturak sortzearen ikuspegitik, etnien eta dialektoenetik, egiten du so, Mendebaldeko kulturaren barruan delarik. Deserroketa deritze emanzipatzeari, desberdintasunen desagertzeari, lekuan lekuko berezitasunak ezabatzeari, hots, modu laburrean esanik, dialekto dei genitzakeenei. Behin desagertu denean historiako arrazoitze zentral baten ideia, komunikazio orokortu baten mundua lehertu egiten da tokian tokiko hamaika arrazionalizatzeko motatan —gutiengo hetnikoetan, seksuzkoetan, erlijiosoetan, kulturakoetan edo estetikoetan—. Hauek hitza hartuz, mutu izateari, erreprimituak

⁶⁴ Otazu in *Deia*, 2020-01-30.

izateari, lagatzen diote, menpeko izan diren ideiatik aske. Ideia horrek adierazten zuen gauzatzea merezi duen egiatzko humanitatea bakarra dela, eta ondorioz, bazterrean uzten zituen berezitasun guztiak, indibidualtasun guztiak, mugatuak, efimeroak eta kontingenteak.

Como surgimiento de culturas locales, de etnias y dialectos, en el interior de la cultura occidental. Aquí, la emancipación consiste más bien en el desarraigo (dépaysement) que es también, y al mismo tiempo, liberación de las diferencias, de los elementos locales, de lo que podríamos llamar en síntesis el dialecto. Una vez desaparecida la idea de una racionalidad central de la historia, el mundo de la comunicación generalizada estalla como una multiplicidad de racionalidades «locales» —minorías étnicas, sexuales, religiosas, culturales o estéticas (como los punk, por ejemplo) —, que toman la palabra y dejan de ser finalmente acallados y reprimidos por la idea de que sólo existe una forma de humanidad verdadera digna de realizarse, con menoscabo de todas las peculiaridades, de todas las individualidades limitadas, efímeras, contingentes.

Guk, euskal mundura jauzi eginda, *Berrria* egunkaria nahiz herri-aldizkariak ulerkeraren honen humusean kokatuko genituzke, baita kazetaritza horretako historia nahiz istorioak ere. Historia unibertsala eraikitzean, ikuspegi bakar eta hegemonikorik eraikitzerik ez dago Vattimoren arabera, aurreko aipuan aipatu dugunez. Ostera, komunikazioa orokortzeari esker, interpretazio desberdintasunarekin batera, lekuan lekuko kulturak eta dialektoak —hizkuntzak— indartu egiten dira. Adibiderako, aukeran ditugu Euskal Herriko herri-aldizkariak, pentsaera eta istorio anitzekoak. Ondorioz, historia baino historiak aipatzen dira, ez errealitate bakarra. Areago, Txema Ramírez de la Piscina argitaratuaren arabera (2019), globalizazioak printzipio eztabaida ezina dirudien honetan, Nieman Lab-ek⁶⁵ bere webgunean ikerketa interesgarri baten berri ematen du 2019an. Hain zuzen, aipatu atari digitalean egindako iruzkinean izenburuak honela zioen: “Polarizazio politikoa murriztu nahi duzu? Babestu zure kazeta lokala”. (...) Zenbat-eta kazeta lokal gehiago izan, partehartze politikoaren maila eta aniztasun politikoa ere aberastu egiten dira” (Ramírez de la Piscina 2019: 79). Pentsaera hau osatuz, Vattimok zera dio (Gutiérrez, 2019: 100-102): “Beraz, ez dago interpretazio

⁶⁵ Nieman Journalism Lab-ek Interneten aroan kazetaritzari bere etorkizuna aurkitzen laguntzeko saiakera bezala aurkezten du bere burua niemanlab.org atarian: The Internet has brought forth an unprecedented flowering of news and information. But it has also destabilized the old business models that have supported quality journalism for decades. Good journalists across the country are losing their jobs or adjusting to a radically new news environment online. We want to highlight attempts at innovation and figure out what makes them succeed or fail. We want to find good ideas for others to steal. We want to help reporters and editors adjust to their online labors; we want to help traditional news organizations find a way to survive; we want to help the new crop of startups that will complement — or supplant — them.

bakarra, interpretazioak baizik”. Beste ikuspegi batetik so eginik, mikrohistoriak makrohistoriari hartzen dio txanda. Ondorioz, historia bateratua eraikitzea ezinezko bihurtzen da. Esandakoa ulertarazteko, Vattimok hizkuntzetara jotzen du eta adierazten —hizkuntzekin erkatuz— hori izango litzatekeela, denontzako berbeta unibertsal baten orde z dialektoak izango bagenitu bezala, dialekto sakabanatuak birmoldatzea legez: “Hori da denontzat hizkuntza unibertsal bat edukitzearen orde z edukiko bagenitu bezala askotariko dialektoak, zeinek ezin lehengoratu daitezkeen”⁶⁶. Ezin ahaztuko dugu histori az mintzo garenean, Gutiérrez-ek (2019: 102) dioena, alegia, historialariak gertakariak interpretatu ostean berreraikitzen dituela. Orduan, ez lirateke etorriko bat gertaera historikoak eta eraikitzen den narrazio antolatu eta koherentea: “Historialariak ez ditu erabiltzen gertaerak, baizik eta gertaeren oroimenak, beraz, ez gaitu kokatzen gertatutako egitateen aurrean, baizik berak gogoratu, interpretatu eta berreraiki egiten duen zerbaiten aurrean”⁶⁷.

Horrela balitz, iritzi publikoan benetan eragina izan dutenak kontakizunak dira.

2.2.3 Irakurle erreala, idazle klasikoak eta etorkizuneko irakurlea

Beharbada, kazetaritzako ikasleek ez dute egundaino liburu elektronikorik irakurri; ostera, agian, egun osoa emango dute pantailaren aurrean irakurtzen. Zertan oinarrituko genuke jarrera horren zergatia? Berez, kazetarigai gazteek, ederto baten dakite teknologiararen baliagarritasuna edo eragina zein handia den. Baina, era berean, gutxietsi egin dezakete kulturaren balioa. Ondorioz, gizarte desorekatuan jarduteko arriskuan leudeke. Testuinguru horretan, agerikoa da praktikan ematen den orekarik eza euforia teknologikoaren eta balio zibikoetako analfabetismoaren artean. Era horretara, hiritarra iritzi erabat kontraesanekoen artean bizitzera behartua aurkitzen da. Batetik, Hans Küng-ek (2000: 251) argitzen diguna ezinbestekoa delako, hau da, teknikoki posible den guztia ez dela humanoki zuzena eta etikoki arduratsua⁶⁸.

⁶⁶ Jatorrizko hitzak hurrengoak dira: “Es como si en lugar de una lengua universal para todos, lo que tuvieramos fueran dialectos dispersos que no se pueden reconvertir”.

⁶⁷ Honela dio autoreak: “El historiador no maneja hechos sino recuerdos de los mismos, por lo tanto no nos coloca ante los hechos sucedidos, sino ante algo tal como él los recuerda, los interpreta y reconstruye”

⁶⁸ “Pues no todo lo técnicamente posible es humanamente correcto y éticamente responsable”.

Bestetik, kulturaz jantzia izatea nahitaezko dugulako garapen kritikorako; kulturaz ulerturik Espainiako Erret Akademiak bere hiztegian kulturaz dioskuna: “Ezagutza multzoa norbaiti aukera ematen diona bere iritzi kritikoa garatzeko”⁶⁹. Iritzi kritiko hori lortzeko, ordea, irakurtzea premiazkoa dugu. Hain zuzen ere, norberaren iritzia lortzeko irakurketa kritikoa praktikatzea eta idazle jakin batek kontatzen duena ulertzeaz gainera, berak baieztatzen duena galbahe kritikotik iragaziz. Hara hor irakurtzearen eta, batez ere, irakurlearen garrantzia euforia tekno-zientifikoaren artean eta balioen analfabetismoaren artean desorekarik gerta ez dadin. Balioak aipatzean, moral eta etika-printzipioak ditugu gogoan, egoera konkretuetan balorazioak egiteko eta erabakiak hartzeko erabiltzen direnak. Gure jardunean, informazioaren etika ezinbestekoa dugu hedatuz doan sinesgarririk ezaren aurrean.

Azken batean, egoera konkretuen balorazioak egitea erabat loturik dago tesian garatzen ditugun postmodernitateko parametroekin, zeren Hargreaves-ek (1996) azpimarratu zuenez, kaos eta desorden izatera heldu den mundu honetan ez baita geratzen norberaren abaroa baizik, egiaren eta benetakotasunaren azken babesleku legez (Blivar, 2008).

Gauzak horrela, irakurle bakoitzarengana jotzen badugu Koldo Mitxelena (1981: 259) ondorengo aipuak hartzen du balioa:

Literatura ez da literatura —kazetaritza literarioko testua diogu guk— liburuak eta gainerako paperak apal apainetan jasoak eta bilduak dauden bitartean. Bestela esan, norbaitek hartu eta irakurtzen ez dituen bitartean.

Postmodernitatearen begiradak eraginik, Mitxelena jakitunaren egiaztapenari egin beharreko iruzkin erabakigarriak sortzen dira, batik bat, irakurlearen gainekoak. Antonio Piñero irakasleak ez du lagatzen testuaren esanahia irakurlearen ulermenaren pentzudan soilik. Horrela balitz, erabateko subjektibotasunean eroriko ginateke, eta ez ginateke izango gai testuak dakarrenaz egia objektibora iristeko.

El pensamiento postmodernista (estamos en el postmodernismo, pero no es una cuestión moderna) sobre la teoría que el significado de un texto (y más si es antiguo) lo otorga solo el lector; que no es posible alcanzar una verdad objetiva a través de lo que aparentemente dice el texto; que su significado depende de las coordenadas mentales del lector; que este dictamina en último término qué

⁶⁹ Real Academia Española-ren (RAE) Hiztegia.

significa el texto para él son proposiciones que conducen a un subjetivismo absoluto, lo cual es un aparente callejón sin salida⁷⁰.

Pentsaera horren aurrean, Piñeroren erantzuna da —esan bezala, Sokratesenganaino joanik—, ezagutu kontzeptuen bidez egiten dugula; kontzeptuok unibertsalak direla —arestian idatzi dugunez—; guztiok dauzkagula, eta beraiei esker komunika gaitzkeela. Beraz, postmodernitatean dena dela erlatiboa baieztatzea mito hutsa da, zeren egon baitaude gizakiok partekatzen ditugun kontzeptu unibertsalak. Era berean, mitoa da testua erabat autonomoa dela, autoreak idatzi zuenean zeukan asmotik libre dena. Zeren testu-sortzaileak gura duena baita berak sortua irakurleak ulertzea, idazleak komunikatu nahi duena jaso, ez ordea, irakurleak gogo duena adituz.

La idea de que el texto (un documento antiguo, por ejemplo) es totalmente autónomo y no depende de lo que pretendió el autor que lo escribió es un mito. El texto no es autónomo⁷¹.

Testua idatzi duen autoreari galdetuz gero holako erantzuna-edo emango luke; nik neuk autore izanik, gura dudana da irakurleak ulertzea idatzi dudana, eta testutik atera dezala neuk komunikarazi nahi dudana, ez irakurleak nahi duena. Besterik eta bestela da guk psikologia kognitibotik erantsi genezakeena. Hau da, irakurle bakoitzak daukan ezagutzatik, dakienaren arabera eraikitzen duela testu horren ulermena.

Irakurketarekin sokatiran ari garenean, berez ohartzen gara nola ugariak diren irakurle moten sailkapen nahiz definizioak. Hainbesteren artean, guk irakurle motarik gaur egun erabilienak eta onartuenak baino ez ditugu gogoan hartuko, eta hauen artean errazena dena, *irakurle erreala* deritzana. Irakurle hori guk —arauen gaintetik— idazle jeniala bilatzera gidatuko genuke; historiara pasatuko diren ondo idatziriko liburuak irakurtzera, testu sublimeez goza dezan; azken finean, sakona bezain landua den testua bereganatzeko. Jaso, jenioa, aipatu dugularik, aise iritsi gara Buffon-engana (1938: 28), zeren honela mintzatu baitzen: “Les regles, (...) ne peuvent suppléer au genie; s’il manque elles seron inútiles”⁷². Arauek ezin ordezka dezaketa jenioa; jeniorik eza bada, arauk alperriko baitira.

⁷⁰ Antonio Piñeroren *bloga*: www.tendencias21.es/crist/archives/2020/06/.

⁷¹ Antonio Piñero, *Religión Digital: Cristianismo e Historia*. Blog sobre la Cristiandad de Tendencias 21. Síntesis y aplicación de la teoría socrática sobre el conocimiento y su aplicación a los Evangelios (25-6-22. 1129). Jueves 25 de Junio de 2020. https://www.tendencias21.es/crist/Sintesis-y-aplicacion-de-la-teoria-socratica-sobre-el-conocimiento-y-su-aplicacion-a-los-Evangelios-25-6-22-1129_a2690.html

⁷² (...) arauk ezin dute jenioa ordezkatu; hori falta bada, alferrikoak izango dira.

Aurrekoaz gain, kazetaritzako gazte unibertsitarioen irakurketaz jardunik, nahitaezko da narratiba literario ez fikziozkoa eta fikziozkoa, elkarren artean lotzea edota bereiztea. Honetan, kazetaritzako ikasketek erabateko indarra dute, batez ere zentzu honetan, zeren gauza bat baita ondo idatzitako testua, eta beste bat literatur testua. Seguru asko albistegintzako profesional handien testuak lantzean eredu apartak topatuko dira. Hala ere, literatura beste zerbaiti dagokiola ikastea mesederako da. Dioguna ulertzeko ez da urrunera jo beharrik, bertoko idazleak dira bide erakusle-eta. Hona hemen Jon Kortazarren (2007: 51) aipua:

Idazleen irudia asko aldatu da —euskal idazleena— lehen hizkuntza irakasleak eta filologoak ziren batik bat, eta orain batez ere kazetariak dira, edo komunikabideekin zerikusia duen arloren batekoa.

Horrenbestez, kazetariak eurak dira gaia konprenitzeko nor. Halandaze, esateko moduan gara Gabriel García Márquez-en adibidea eredutzat hartuz, kazetari narratiboak maiz elikatzen direla literaturako konposizio-teknikez eta estilistikoek. Denean dela, ez genuke aiantzi beharko nolako ekarpena egin behar duen unibertsitateko ikasketa aroak ondo bereizten ikasteko. Kortazarrek (2007: 45) dioen bezala, “arriskua dago lan literario bat eta ondo idatzitako lan bat nahasteko”.

Agerikoa denez, irakurketaren gaineko hausnarketari jarraitzen gatzazkiola, *slow journalismeko* testugintzarako —medio digitalek beti hor dirautelarik—, testu inprimatuetan egiten dugu indar, zeren, arnasa luzeko kazetaritzak erreportaje sakonera eta kalitate estetiko handiko idazketara jotzen baitu (Albalad, 2018: 22).

2.2.4 Irakurketaren alde kognitiboa eta hizkuntzaren alde fonikoa

Tesiko ikerlanean arakutzen dugun irakurketak, bere barnean biltzen ditu, izaera bat, prozesu didaktiko ebolutiboa eta etorkizun bialfabetatua, ezen kazetariarentzat etengabeko ikuspuntua da ondo idazteko ondo irakurtzea dela pasabide. Ondo irakurtzeak baditu zehaztu gabeko atazak ere. Beraietarik bat ozen irakurtzearena da, batez ere, ikerlanaren ardatzean bertan duelako gunea elebidunaren ereduaren araberrako bialfabetotasunak.

Gamindek eta Goikoetxeak (2005: 10) honela adierazi dute egoera: “Irakurketa gaitasuna ebaluatzeko saioretan, bazter uzten da irakurketa ozena. OECD/PISA (2003) txostenak 43 herrialdetan egin diren ebaluazioetan isilean gauzatutako irakurketa baino ez du kontuan hartu. Bertan ematen den definizioan honako hau agertzen da:

Irakurketarako gaitasuna testu idatzien gaineko ulermena, erabilera eta hausnarketa da, lor daitezten helburu pertsonalak, gara dadin norberaren ezagutza eta gaitasunak, baita gizartean partaide izan dadin ere.

Definizioan islatzen den moduan, ebaluatu dena irakurketaren alde kognitiboari baino ez dagokio. Irakurketa ozenaren kasuan ezinbestekoa da hizkuntzaren alde fonikoa kontuan hartzea, bai irakurlearen ikuspuntutik, bai jasotzailearen ikuspuntutik. Izan ere, irakurketa desegokiak testuaren dekodifikazioa oztapa dezake. Baieztapen honek euskararen irakurketa ozenaren ezaugarriak gaztelaniaren ezaugarrien menpeko morrontzara kondentzen ditu betiko. Esatariak (kazetariak zein aktoreak), irakasleak, ikasleak zein beste esparru batzuetako profesionalak dira irakurketa ozena gehien erabiltzen duten taldeak.

Gaur eguneko gure gizartean idatziak garrantzi handia dauka, eta talde honen eragin sozialagatik irakurketa ozenak bat-bateko mintzaeraren fonologiari eragiten dio. Egoera normalizatuan dauden hizkuntzetan erregistro ez-formalek irakurketa ozena praktikatzen den erregistro neutro jasoari eragiten dio. Gurean, ostera, alderantziz gertatzen da. Eredu formalek eragiten diete ez-formalei. Irakurketa ozena euskaraz eta euskararen sistema fonologikoaren arabera landu eta ebaluatu ezean, idatzia gailentzen da eta beronen bidez beste hizkuntza baten arauak ezartzen zaizkio euskal letra idatzi horri (Gaminde eta Goikoetxea, 2005: 10).

2.2.5 Irakurketa: ondo irakurtzea da ondo idazteko lehen urratsa

Thomas Hukakuk (2018) aipatzen duenez, —the need to read well to write well came to me in an interesting way—, behar bezala irakurtzea, behar bezala idazteko lehen urratsa da. Gehitu genezake esaldi hau ere, irakurtzen irakurrita ikasten da (Lasso Tiscareno,

2014)⁷³. Emili Teixidorrek dioenez, ia idazle guztiak izan ohi dira irakurle, eta, hartan ere, irakurle amorratu:

El que sí que he descubiert és que quasi tots els escriptors han estat lectors, bons o dolents, però lectors, ebris de literatura, i que encara que cada lector també és un món a part, i tots s'han enganxat a la lectura amb les obres que han escollit o que els han seduït (2007)⁷⁴.

Idaztea, pentsatzen dena garbira pasatzea da, eta irakurtzea beste batek pentsatutakoa ulertzea, beste hori norbait delarik, ahal dela idazle jenioa, zeren —jadanik azaldua dugunez—, Buffon-ek idatzi zuenaren arabera, arauak ezin ordezkatu baitezakete jenioa; talentorik gabe arauak gutxi lor baitezakete. Horrez gain, berbalizatzea, beste norbaitekin partekatzea da.

Edonola ere, ahozkoa idatzizkotik bereiztea nahitaezkoa da: “C'est par cette raison que ceux qui écrivent comme ils parlent, quoiqu'ils parlent très bien, écrivent mal”⁷⁵ (Buffon, 1938: 18).

Irakurketaz ari garenean, nahitaez onartu behar izaten dugun baieztapena da, arazo konplexuei erantzun sinpleak aurkitu behar zaizkiela; gauza konplexuetan berba errazak behar direla. Berez, irakurketa irakurtzearen ekintza eta ondorioa dena badakigu. Hala ere, berehala ohartzen gara nola ugariak diren irakurle moten sailkapen nahiz definizioak. Hainbesteren artean, guk —zenbait pasarte gorago adierazi dugunez— irakurle motarik gaur egun erabilienak eta onartuenak baino ez ditugu gogoan hartuko, eta hauen artean errazena dena, *irakurle erreala* deritzana, alegia, liburua edo euskarri elektronikodun gailuak esku artean dauzkan pertsona, beti ere, medio inprimatuak eta digitalak elkarren artean berezitu. Postmodernitateko euskal irakurlearen inguruan baieztatu daiteke, nobelagintzaz mintzaturik, Jon Kortazarren (2007: 76) iritzia: “Jolasa eta gozamina helburu dituen lan literarioak, arrazoi utopikoaren bilaketa eta metafisika alde batera utzirik, irakurlea bereganatu nahi du, kontraera tradizionalaren eskemaren bidea”.

⁷³ “El aprender a leer solo se consigue leyendo. No hay otra vía” (Rigoberto Lasso Tiscareno).

⁷⁴ *La lectura i la vida* liburuaz idatzitako *Llegir i escriure* zutabearen autoreak berak jasoa. Cornabou aldizkaria: www.andreusotorra.com/cornabou/dossiers/articles/teixidorcol.html.

⁷⁵ Horregatik, hitz egiten duten bezala idazten dutenek, oso ondo hitz egiten badute ere, gaizki idazten dute.

Gure irakurleak —*slow journalism*ekoak—, gainera, ez luke bilatuko testuetan denek dakitena eta edonork ezagun duena, ezpada ze, ideien ekarpena lekarkeena. Horrela, jenioa arauen gainetik darabilen idazlea bilatuko litzateke; historiara pasatuko diren ondo idatziriko liburuak, testu sublimateak; azken finean, sakona bezain landua den testua, ederto dakigu-eta pentsamendu kritikorako irakurketa kritikoa behar dela.

Irakurketa horretan jarduteko, ordea, irakurketa bera zertan datzan argitu behar da. Honela idazten du Mari Jose Olaziregik (2008: 419):

Prozesu kognitibo konplexutzat jo daiteke irakurketa. Irakurtzean, hizkuntza idatzia interpretatu egiten du irakurleak; hau da, lehendik dituen ezagupen eta esperientziekin kontrajartzen du. Izan ere, irakurketa, ezer baino lehen, jarduera dinamikoa, sortzailea baita, irakurlearen jakituria, sineste eta aurreikusteak berregituratzen dituena. Horregatik azpimarratu da hainbestetan, irakurlearen garrantzia literatur testuetan, irakurri ezean, testurik ez dagoela.

Hortik landa, orain eta hemen sakonduko ez dugun arren, esan beharrekoa da, irakurketa alderdi askotatik azter daitekeela, dela soziologiaren ikuspuntutik, dela irakaskuntzaren begiradatik, dela irakurketa lantzen duten historialarien aztergunetik. Edonola ere, egungo garaiaz lotura egiteko, egokia da agertaraztea XX. mendea dela, batetik, hedatu izan dituen, oro har, irakurketaren onuren nahiz premien inguruko ikerlanak; bestetik, mende bukaerako Internetek eta sare sozialek piztu eta sutu dituzten irakurketaren inguruko zalantzak eta eztabaidak.

Kazetaritzako gazte unibertsitarioen irakurketaz jardunik, nahitaezko da narratiba literario ez fikziozkoa eta fikziozkoa, bitzuak lotu edota bereiztea. Abiatuko bagina lehen-lehenik Gabriel García Márquezengana, zer nabarmenduko ote genuke? Azpimarragarri bezala, haren *Relato de un naufrago* edo artikuluen artean *El palacio de La Moneda*, 1983ko Chilen izan zen Estatu kolpeaz. Bigarrenik, aipatuko genuke, baita ere, nola García Márquezek irakurri zituen aldi batean Virginia Wolf-en eta William Faulkner-en obrak, eta ondorioz, zenbaterainoko eragina jaso zuen haien narrazio-tekniketarik. Hau da, García Márquez goien graduko kazetaria zen, eta nobela ez fikziozkoak idaztean ere eragin indartsua zuen, zeren berak, García Márquez-ek, bere burua baitzuen idazle handi bilakatu *Cien Años de Soledad* klasikoarekin.

Gabriel García Márquez-en adibidea eredutzat hartuz, esateko bidean gara kazetari narratiboak maiz elikatzen direla literaturako konposizio-teknikez eta estilistikoez. Beste hitz batzuek adierazirik, kazetaritza estilistikoki dela literarioa, forman dela

literarioa, ez testuinguruan, Gabriel García Márquez-ek hain goien-moldez zioenez, alegia, gertaera errealean narrazio literarioa dela: “Un cuento que es verdad”. Beraz, *slow*-aren barruan, pausatua eta sakona izateaz gain, oso idazkera zaindukua ere bai. Kazetaritzaren eta literaturaren arteko harreman historikoetara joz gero, ohartuko ginatke, batetik, bien arteko polemikarik ez dela falta izan (Ramos, 1989; Rotker, 2005; Rodríguez eta Angulo, 2010), eta bestetik, jadanik XVIII. mende hasierarako, prentsa leku pribilejiatua izan dela literaturarako, hala argitaratzeko (Cruz Seoane, 2008: 28), nola kazetaritzako obrak idazteko, berez literaturako tresnaz baliaturik, beti ere, informazioaren benetakotasuna eta fideltasuna saihesti gabe, gertaera errealak baliabide literarioz kontaturik. Ezagun ditugu, arestian aipaturiko Gabriel García Márquez-ek gain, Ernest Hemingway, Truman Capote, Oriana Fallaci eta Svetlana Aleksiévitx edo Manuel Vázquez Montalban edo Rodolfo Walsh, besteak beste.

Honenbestez, Mitxelenak (1981) esandakora itzulirik, baieztatuko genuke, literatura ez dela literatura norbaitek testuak hartu eta irakurtzen ez dituen bitartean. Beraz, gomendatu beharreko suertatuko zaigu irakurketaren bilakaera historikoa aintzat hartzea, klasikoak hautu honetara ekartzea, badakigu-eta ADren —Anno Domini-ren— osteko II. mendean Aulo Gelio idazleak *classicus* hitzari beste zentzu bat eman ziona. Honela dakar Jon Kortazarrek (2008: 453) klasiko berba: “Bere dohainengatik eredugarritzat aukera zitekeen idazlea kalifikatzeko erabili zuen”.

Orduan, klasikoen artean kanon epikoko *Homero* irakurri ez bada; idazle latindarren artean Ovidio irakurri ez bada —latinez edo euskaraz— edo M. Cervantes gaztelaniakoen artean edo Shakespeare-en testuren bat ez bada ezagun, zer idatz lezake kazetari pausatua sakonean edo arnasa luzez? Zein motatako euskal testua idatz liteke euskal klasiko edo idazle eredugarritzat hartzen diren Bernat Etxepare edo Axularren *Gero*, Frai Bartolomereren idazlanak ezagutu barik nahiz Lauaxeta eta Lizardi edo geure aldiko *Obabakoak* irakurri ez badira? Azken batean, sakonean idazteko sustraira jo beharko da, Mendebaldeko kulturaren Greziara, eta gerkeraren eraginpeko klasikoetara. Kazetari zailduak, oinarri sendoko kulturadunek, idazle klasikoen eta iragangaitzen arteko jakintzaz jabetu beharra dute.

Egunerokotasunean eta aktualitatearen aginduetara ari den kazetariari mesede galanta egin diezaioke *carpe diem* horretatik urrunagora begiratzen ikasteak. Gogoan izatekoa da nola, jadanik, erromatarrek klasikotzat hartzen zituzten grekoen lanak,

Mendebaldeko klasikorik antzinakoenenak. Zentzu honetan, klasikoak ezaktualak izatea da baliozkoena: kontatzen dituzten gauzak presente eziraunkorretik haragokoak dira, eta beste zeruertz batzuk irakitzen dituzte, eta eskaintzen dituzten ideiak egunerokotasunetik eta aktualitatetik askoz urrunago doazenak dira. Gainera, kritiko bihurtzen gaituzte, eszeptikoago, baita irudimentsuago ere, Carlos García Gual-ek (*El País*, 2016) dioskunez:

Los clásicos son inactuales: justamente eso es lo más valioso: hablan de cosas que están más allá del presente efímero, y abren otros horizontes y ofrecen ideas sobre el mundo que van mucho más allá de lo actual y cotidiano. Y nos hacen críticos, escépticos y más imaginativos⁷⁶.

Edonola ere, klasikoetara eta literaturara soilik lerratu ez gaitezen, esan dezagun, ikasgai guztiek dituztela ulertu beharreko testuak, hau da, ez da nahikoa hizkuntzaren ikasgai irakurtzen eta ulertzen dena jakitea, testu mota askotarikoak irakurtzen jakin behar da, dela zientzietakoak, dela filosofiakoak. Zeren egia errepikatua baita “testu orok duela bere kontestua” (Muro, 2019).

2.2.6 Irakurketaren aro digitala

XXI. mende hasieran, irakurketa bigarren lerroan gelditu dela dirudi, telebistaren, ordenagailuaren eta mugikorren indarraren ondoren. Ukaezina da gazte eta haurren gailu elektronikoek eta teknologia berriek duten eragina. Irakurtzeak eskaintzen dizkigun abantailen aurrean dauzkagu desabantailak ere, egun bizi dugun gizarteko multimedienak. Informazioaren gizartea eta teknologia berriak oso erakargarriak eta motibagarriak dira gazte eta ez hain gazteentzat: ukipen-pantailekin, ikonoak ukituz, emotikonoak eta giftak —animazioak— bidaliz, agian, ez da premiarik, ez irakurtzeko, ezta idazteko ere. Eta orain gertatzen dena da, teknologiaz baliaturik, gaitasunak irabazi baino, galdu egitea (Sampedro, 2018: 48). Teknologiaren erakargarritasunak lausotu egin dezake irakurtzeak eskatzen duen arreta, kontzentrazioa, hausnarketa ahalegina. Irakurmena prozesu konplexua da eta, irakurleak aktiboki parte hartzen du. Gaur egun, ordea, irakurketa sakona modu naturalean gertatzen zena, esfortzu bilakatu da (Carr,

⁷⁶ Ideia osoa hemen: elpais.com/cultura/2016/10/20/actualidad/1476978146_824729.html

2019: sn)⁷⁷. Kulturak eta irakurketak eskatzen duten jarrera erraz ulertarazten da baldin liburua eta telebista erkatzen baditugu. Telebistaren aurrean jesartzen garenean, apatz eta nagi jarri ohi gara; liburua irakurtzeko, ordea, arreta nahiz astia hartu ohi ditugu, batez ere, liburu hori ideia-iturri eta iritzi-sortzaile bada.

Azken buruan, aipamen gehiagotara jo gabe ere, onartu beharrea gara Ángel Gutiérrezek (2019: 63) postmodernitatean kokaturik idazten diguna, ezen irakurketako ohiturak aldatu eta moldatu egin baitira digitalizazioaren aroan garenez gero. Mezuak telegrafikoak izan ohi dira, dela *whatsapp*etan edo dela *Twitter*-en:

Los hábitos de lectura se han alterado y hasta cierto punto han quedado reducidos a mensajes telegráficos, tal como podemos ver en los medios digitales y electrónicos a modo de *Whatsapp*, *Twitter*, mensajes, etc.

Jadanik, beraz, ez da astirik paragrafo luzeetarako, liburu mamitsueterako; errelato txikietako tankera gailendu egin da, bizitza estilo baten oihartzun bezala.

2.2.7 Irakurketak askeago bihurtzen gaitu, digitalizazioak gizabanakoago

Ikaslearen figura aipatzen dugun orotan, errepikatu ohi dugu irakurketa oinarriko gaitasunetako bat dela; beste gizaki batzuen esperientziekin eta bizimoduekin lotzen gaituela, eta, bereziki, Interneten eta sare sozialen aroan, independenteago bihurtzen laguntzen gaituela. Irakurketarik ezak, aldiz, makinaren menpeko bilakatzen gaitu, sistematizatu eta hierakizatu gabeko informazioaren menpeko. Edonola ere, gizakion eta makinaren arteko gatazka dramatizatu barik, arrazoizkoago dirudi errealitate bi direla onartzea, eta elkarren artean eragina dutela aintzat hartzea.

Bestalde, sistematizatu eta hierarkizatu gabeko informazioa diogunean, sare sozialei ere egiten diegu erreferentzia, zeren era guztietako iritziak eta usteak hedatzea errazten baitute, baina inolako kriteriorik edo mailaketarik gabeak (Zuazua, 2017: 81).

De ahí que leer, pensar, estudiar, conversar, debatir, escribir sea útil, con el objeto de aportar al cerebro todos esos detalles, con frecuencia contradictorios,

⁷⁷ Carr-en hitzak hemen dira: elpais.com/retina/2019/03/13/tendencias/1552475304_151069.html

que necesita para refinar su limitada percepción de la realidad y desarrollar la imprescindible capacidad de pensamiento crítico.

Ángel Gutiérrez-ek (2019: 85) aipatu bezala, gero eta bakartiago eta indibidualistago bihurtu gara, hain zuzen ere, etxetik alde egin barik ditugulako eskura geure astia asetzeko denbora-pasagarriak:

Sin salir de casa ya tenemos todo lo que necesitamos para ocupar nuestro tiempo, distraernos, divertirnos, jugar y estar informados de todo lo que está pasando fuera (...), por lo que nos hemos vuelto más individualistas y retraídos.

Gainera, pertsonaren intimotasuna merkatura atera denetik, irakurketak nori bere nortasunean irautea nahiz lantzea eskaintzen dio Paloma Sánchez Garnica-k (*On*, 2019) idazten digunaren arabera:

La lectura es un acto íntimo entre lector y personajes, una relación única y exclusiva. No hay dos lecturas iguales, pero esa relación no se puede sustituir ni con una gran serie ni con una gran película⁷⁸.

Euskarazko liburuei bagagozkie, onartu beharko dugu unibertitate aroan ere ikasleek erraztasuna —*fast food*— dutela irizpide erabakigarria testuak aukeratzeko unean. Baina horrela, nekez eta oztaz dute irakurriko Axularrik, ez beste klasikorik. Eta ez bada irakurtzen, libururik ederrenak ere, Aita Luis Villasanteren (1974: 36) hitzekin mintzaturik: “Ez balira bezala dira”. Zergatik? Guzti honen erantzuna gure Axular (1976: 10) idazleak bere *Gero* liburuan ematen digu esaten duenean “euskaldunek —kazetariak kasu honetan— berek dute falta eta ez euskarak —testuek, liburuek—”.

Irakurmenak ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan duen funtzioari buruzko hausnarketa, egun dugun gizartea kontuan hartuta egin behar da. Egunero ari gara Interneten, irudiaren nagusitasunaren arriskuaz hitz egiten, isolamenduaren eta azalkeriaren arriskua hausnartzen. Egungo informazioaren gizartean, irudia testuaren gainetik dago eta, zalantzarik gabe, bizimodu horri berehalakoa dena interesatzen zaio. Multimedia formatuan bizi gara, ikaslea txikitatik dago ohituta informazioa azkar, erraz, eta ahalegin gehiegi egin gabe lortzen, hau da, *arreta* handiegirik eskatzen ez duten bideak erabiltzen. Irudiak berez hitz egiten du bere buruaz, eta mila hitzek baino gehiago balio du. Irakurketa antidotoa da telebistan katerik kate, kalterik kalte, egunero hiruzpalau ordu galtzen dituen pertsonarentzat.

⁷⁸ [ON](#) aldizkarian kontsulta daiteke Paloma Sánchez Garnicaren (2019) adierazpena.

Telebistaren argiak, mugikorraren distirak lausotu egiten ditu liburu eta aldizkarietako ideiak. Azken buruan, irudiaren irudiaz lausoturik Sampedro-k (2018: 133) dioena gertatzen zaigu: “Aurrean daukaguna baino ez dugu ikusten”. Ez, beraz, harago, ezta sakonago ere. Gainera, ezin ahantziko dugu Marshall McLuhan-en (1964: 1) esaldi bisionarioa:

In a culture like ours, long accustomed to splitting and dividing all things as a means of control, it is sometimes a bit of a shock to be reminded that, in operational and practical fact, the medium is the message⁷⁹.

Idea horretatik abiatutik, haren ikasle Neil Postman-ek (2012) deitoratu zuen bere liburuan kontsumo errazeko kulturak unibertsitateko ikasleengan eragiten zuen kaltea. Berarentzat, kultura da liburuetan eta irakurketa nahiz ikasketa isilean oinarritzen dena, ez telebista zalapartatsuan. Telebistari begiratzen dihardutenak ez dira egoten kontzentratuta, ikasten ari dena bezala; ezta egunkariari gainbegirada ematen dionaren moduan ere, edo zine-aretoan pelikula ikusten dagoenaren eran. Telebistako programatzaileen arabera, ikusleak ez du ahaleginik egin behar pantailako mezua ulertzeko. Beraz, mezuak ez du izan behar, ez trinkoak, ezta sakonegiak ere.

Honainoko adierazia nahiko izan liteke, onar dezagun unibertsitate aroan, bizitza osoan, funtsezkoa dela literatura lanak irakurri, interpretatu eta balioestea, zeren kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna garatzen laguntzen baitute. Alta, *smartphone* txikikoa soilik irakurritz gero, plano bakarreko errealitatean baizik ez gara bizi, sakona eta azala bereizi gabe, hiper eta hipo ez balira bezala. Ondorioz, dimentsio bakarreko diskurtsora lerratzen gara, ia beti ahozko hizkera eta idatzia plano berean nahasirik, erregistrorik ere ez balitz bezala; idazle onak eta txarrak baino errazak eta zailak baizik ez balira legez; kazetaritza narratiboan, ez gailurrik, ez gune abisalik, ez balego moduan.

⁷⁹ McLuhanen 1964ko aipua da, [Understanding Media](#): The Extensions of Man-en jaso. Herbert Marshall McLuhan (1911ko uztailaren 21a, Edmonton, Alberta - 1980ko abenduaren 31, Toronto, Ontario) kanadar ingeles irakaslea, filosofoa, literatur kritikaria eta intelektuala izan zen. McLuhan hedabideei buruzko ikerketen sortzaileetako bat izan zen, gaur egungo eta etorkizuneko informazioaren gizartearen gertakizun ugari aurreikusi zituen. 1960ko hamarkadaren amaieran eta 1970eko hamarkadaren hasieran hedabide elektronikoen bidez sortutako maila globaleko gizakien elkarlotura deskibatzeneko herrixka globala izendapena sortu zuen. Berea da “hedabidea mezua da” esaldi ospetsua.

2.2.8 Burmuin irakurlearen eraikuntza

Maryanne Wolf-ek bere *Reader, Come Home* liburuko bigarren ataleko azpiatal bati *Building a Reading Brain* izenburua jartzen dio. Hasieratik aipatzen du nola den ahozko berbeta gure giza-funtzioen artean oinarritzkoa, irakurketa, ostera, ez. Emakumeok eta gizonok ikasi egin beharrekoa dugu irakurketa. Baliabideak behar ditugu, beraz, garaun gaztearekin abiatu nork bere irakurketa zirkuitua osa dezan. Horretarako oinarria *neuroplasticity*⁸⁰ jartzen du eta perpausa laburrez iragarriko digu neuro-zientziak gaur ezagun duen mundu kontzeptuala:

The best known design principle, neuroplasticity, underlies just about everything interesting about reading”; indeed, there are as many connections in the reading brain's circuitry as there are stars in the Milky Way galaxy” (Wolf, 2018: 14-18).

Guk irakurketaren gainean aintzat hartuko duguna zera da: nolako irakurketan dihardugun, halako prozesu konplexuak aktibatuko zaizkigula irakurketa zirkuituan.

2.2.9 Irakurketan trebatzeko prozesua adinaren arabera

Arrancaba el siglo XXI en un pueblo de la Ribera navarra famoso por sus pimientos. (...). Abumado por las hortalizas gigantes, mientras ella daba clase, me encerraba a trabajar en la biblioteca. Estaba desierta, hasta que al salir del colegio los niños venían a usar Internet. (...). Literal: veían y comentaban telebasura. Nativos digitales, miembros de la “like generation”, impulsados a expresar en tiempo real lo que les gustaba, a grabarse y exhibirse (Sampedro, 2018: 17).

Hara aro digitalean jaiotako umeen gaineko lekukotasun pertsonala. Sampedrok (2018) erakusten digu irakurketaz gauzatzen ditugun azterlanak zein girotan koka ditzakegun. Egoerak era nabarmenean erakusten digu umeek tresna digitalak neurritz erabili behar dituztela. Bestalde, ez genuke ahaztu behar pertsonok haurren munduan indar handiagoa dugula gailu digitalek baino. Aise ulertzen da, beraz, gurasoak badirela nor seme-alabei

⁸⁰ Garunaren plastikotasuna gure garunak bere burua aldatzeko, konexio berriak sortzeko edo neurona berriak sortzeko duen gaitasunari esaten zaio. Jaiotzen garenean, dagoeneko eraturako konexio neuronalak ditugu; baina gure bizitzan zehar aldatu egiten dira berriak sortzen diren aldi berean, gure esperientzien eta bizi dugunaren arabera.

irakurtzen irakasteko, zeren ipuina irakurtzen diegunean, berben fonemek eta doinuek ipuina girotu egiten baitute.

Teixidorrek (2012: 27) informazioko gizarte berriari hezkuntzako ikuspegitik begiraturik, hauxe azaltzen du: pedagogia onak badaki irakurketa, praktikotasunaz gainera, bitarteko bakarra dela —hala eskolan, nola eskolatik at— lor dezagun gizakion arteko komunikazio desinteresatua, behar-beharrezkoa duguna bizitza osoago eta gizatiarragorako.

Una bona pedagogía sap que en la nova societat de la informació, dos de cada tres estudiants treballarà en activitats dedicades a la comunicació, pero també és conscient que aquesta és una visió pràctica i utilitària de la lectura. Una bona pedagogia sap, també, que la lectura és una altra cosa. És l'únic instrument de que disposem a l'escola i fora de l'escola per traslladar-nos més enllà del mon de la mera utilitat, l'única eina per conseguir aquesta comunicació desinteressada que intuïm que és necessària per a una vida més completa i més humana (Ib. 2012: 29).

Maryanne Wolf-ek (2018: 18) esango digu gizakiok ikasi egin behar dugula irakurtzen. Horrekin adierazi gura duena da, ezinbestekoa zaigula irakurketa gaitasuna garatzea, eta horretarako inguru egokia behar dugula, burmuin gazteak bere irakurle-zirkuitua gara dezan:

We human beings have to learn to read. That means we must have an environment that helps us to develop and connect a complex assortment of basic and not-so-basic processes, so that every young brain can form its own brand-new reading circuit.

Beraz, uste erabat ustela dela, hala irakasleek nola gurasoek pentsatzea irakurketa berezkoa duela gizakiak, alegia, hizketaren moduan berez sortuko zaiola haurrari adinez dagokiokeenean; garapena landuz baino ezin bururatu daitekeela. Guk irakurketa sakonari begira adiraziko genuke Wolf-ekin (2018: 38) urteen poderioz lortzen dela gaitasuna:

It takes years for deep-reading processes to be formed, and as a society we need to be sure that we are vigilant about their development in our young from a very early age.

Prozesu kognitiboak gara daitezen, euskarri bietan trebatu behar da pertsona hasiera-hasieratik, gerora pantailako irakurketak oztopa ez dezan irakurketa inprimatua.

Amak edo aitak, irakurri egin beharko litzioke umeari ipuinak egunero, gauero. Horrela, bizitza osorako irudimena, pertsonaiak, istorioak gordeko lituzke. Edonola ere, gurasoek seme-alabei ipuinak bozgoraz irakurtzea komeni dela diogunean, haur elebidunez ari garenez, ezin onartuko dugu, Gamindek eta Goikoetxeak (2005: 10) argitzen dutenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak 1992ko Oinarrizko Curriculum Diseinuan (OCD) dioena, hau da, grafia-fonema korrespondentziak euskaraz eta gazteleraz nahiko hurbilak direnez, ikasleek hizkuntza bateko jakintza balia lezaketela besterako:

Las correspondencias grafía-fonema en euskara y castellano son lo suficientemente próximas, salvo algunas excepciones, como para que los alumnos puedan trasvasar el conocimiento que tienen dichas correspondencias, de una lengua a otra⁸¹.

Gaur egun, gizarte multimedia batean bizi gara, eta, gizarte horretan, komunikazio modu berri eta oso indartsuak sortu ditu lengoaien integrazioak. Egungo gizartean eraginkortasunez parte hartzeko, modu konpetentean erabili behar dira hitzezko lengoaiaren adierazpide guztiak, ikus-entzunezko lengoaiak eta hitzik gabekoak.

Europako Kontseiluak emandako definizioa aintzat hartuta, komunikaziorako konpetentzia izateko, alfabetatze anitza izan behar da, eta alfabetatze horrek «...bere baitan hartu behar ditu irakurtzeko eta idazteko konpetentziak, askotariko informazio-moldeak —testuak eta irudiak, idazkiak, inprimakiak eta horien bertsio elektronikoak barne— ulertu, erabili eta ikuspegi kritikoz ebaluatzeko». Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumak⁸² (2015: 152) jasotzen duenez, gizarte-bizitzako esparru adierazgarri guztietan hitz egiteko, idazteko, entzuteko eta irakurtzeko trebetasunak eta estrategiak lantzea da curriculumaren muin eta ardatza.

Hezkuntzarako helburu hori kontraesanean dago ‘Irakurle erreala, idazle klasikoak eta etorkizuneko irakurlea’ atalean esaten genuenarekin. Han genioen, euskararen irakurketa ozenaren ezaugarriek gaztelaniaren ezaugarrien menpeko morrontzara kondentzen dutela betiko. Batetik, elebitasuna bera jotzen delako muinean, eta bestetik, amak euskaraz eta aitak gaztelaniaz ipuinak irakurtzearen balioa ezerezten delako, zeren guraso bakoitzak jatorrizko fonemak erabiliko baititu irakurtzean, hala aitak euskaraz, nola amak erdaraz.

⁸¹ Eusko Jaurlaritzak 1992ko Oinarrizko Curriculum Diseinuan (OCD), 203 or.

⁸² 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea.

Irakurketako abiapuntutik beretik baieztatu izan dugu umeek tresna digitalak era neurtuan erabili behar dituztela, baita pertsonok haurren munduan indar handiagoa dugula gailu digitalek baino. Aise ulertzen da, beraz, azaltzea gurasoak badirela nor seme-alabei irakurtzen irakasteko, zeren ipuina irakurtzen diegunean, berba mintzatuen fonemak eta doinuek ipuina girotu egiten baitute. Eguneroko solasaldietan alaba-semeekin maiztasun handiko hiztegiak baliatzen gara. Ostera, ipuinaren irakurketan inoiz entzun gabeko hitzetara eta ohikoak ez diren esamoldeetara igarotzen dira. Beste hainbeste, errimetarako, onomatopeietarako nahiz esamolde tradizionaletarako. Alderantziz gertatzen da tabletarekin bakarkako harremanean, zeinetan ez elerik luzatzen den, ez inonaziaz markatzen den hitzik alabaren edo semearen arreta pizkortu ahal izateko.

Teixidorrek (2012: 66) azpimarratzen duen irakurketako lehen aroa sei urtera artekoa da. Dioenez, irakurketa jokoaren giroari lotzen zaio: “La primera etapa de lectura la podriem situar fins als sis anys”⁸³. Ondoren, Teixidorrek (2012: 67) 7 urtetik 12ra kokatzen du ume aroa. Haurrak bere burua irakurketetako heroi edo heroinatzat hartzen du. Aro honetan narrazioa ametsekin loturik doa, adineko gurariekin: “La narració és inseparable del desig, d'alló que és somiat o desitjat”⁸⁴. Gainera, umea ohartuz doa irakurleari munduan dagokion rolaz.

Wolf-ek aipatu bezala, arreta hurbilekoa jarri behar zaio txikiek irakurtzen dutenari. Garrantzi itzela ematen dio neurozientifika honek sakon eta arretaz irakurtzeari. Horixe da arrazoia *iPad*-etatik umeak askatuz liburuaren irakurketan jartzeko, zeren hobea baita pantailak galaraztea baino liburuaren kontzentratuak honenbeste denbora iraun dezaten. Bere burua adibidetzat jarriz, kontatzen digu gurasoek eta Notre Dame-ko lekaimiek nola sorrarazi zioten zaletasuna —neskatxo zela— ‘literatura handia’ irakur zezan. Harrezkero, adierazi digu —Alberto Manguel aipatuz— bere ezagutzen biltegia hornituz joan dela liburuaren ekarpenei esker; “everything proceeds in geometric progression based on what is known and what is remembered every time we read something new (Wolf, 2018: 88).

Bere buruaren esperientziarekin jarraiturik argitzen du Wolfek (2018: 127) zelan aldi baten irakurketan *Google* eta *Google Scholar*-aren pentsudan, eta online albisteetan

⁸³ Irakurketako lehen aroa sei urte bete arte finkatuko genuke.

⁸⁴ Narrazioa ezin bana daiteke desiretatik, nahietatik, amestua eta desiatua den gauzatik.

aritu ondoren ohartu zen zenbateraino baztertu izan zituen liburuak, edo hobeto nola irakurtzen zituen informatzeko, ez sakonean irakurtzeko.

Ondorioz, sakonean irakurtzeko ohitura galdu egin zuela: alegia, galdu egin daitekeela. Kultura inprimatuaren eta digitalaren artean ibili ostean, irakurtzeko era desberdin bietan jardun eta gero, abiaduraz eta berehalakotasunez aritu ondoren, estilo bietan nagusitu zitzaiola modu digitala; pantailetakoa liburuetara transferitu zitzaiola. Eta gero ahalegin handiz erdietsi zuela, bere burua behartuz, behinolako irakurketa pausatuz jabetzea, etxera itzultzea; “I simply felt, at last, that I was home again, returned to my former reading self” (Ibid., 2018: 101)⁸⁵.

13tik 17ra nerabearoa dator Teixidorren arabera. Nerabeek ezagutzen dituzten esperientziak liburuetan aurkitu ohi dituztenak baino biziagoak izan ohi dira. Orduan, literatura osoago eta konplexuago baten bila abiatzen dira, ez datoz-eta bat bereziki adin horietakoentzat idatzitako narrazioekin. Bada garaia, beraz, irakurle helduaren arora aldatzeko.

Dena den, irakurle jenderik gehiena behin betiko geratzen da geldi aro honetan, irakurketa erosoan, testu gardenetan, zailtasunik gabekoetan, gozamenezkoetan. Ondorioz, irakurleriarik gehiena —hamabostetik laurogeita hamarrerakoa— gaztarokotzat jotzen du Teixidor-ek (2012: 67):

És el moment de passar a una altra etapa com a lector adult. De seguida direm qué entenem per lector adult, però comentem abans que bona part del públic lector es queda immobilitzat en aquesta etapa, o sigui, que llegeix només textos transparents, sense dificultats de cap tipus, i smb la finalitat primera d’informar-se o de passar-ho bé. Per aixó opinem que una majoria del públic és públic juvenil, dels quinze als noranta anys, un públic que llegeix els llibres que solen ser els més venuts a les llistes de best-sellers.

Ordea, irakurlea ahalegina egiteko prest, zailtasunak konpontzeko gogoz ari bada, irakurle hori irakurle heldua izatera igaroko da, literaturaren ederra aintzat hartuko du aurrerantzean. Gure errealitatea, baina, ezin ahantziko dugu, zeren gazteek —20 urte ingurukoek— telefono mugikorra egunaren barruan 150 edo 190 bider kontsultatzen baitute.

⁸⁵ Azkenean etxean zela sentitu zuela, lehengo irakurketara itzuli zela.

Honaino iritsiz gero, gure galdera berriz ere hari berera dator, alegia, irakurketa-zirkuitura, zeren haur bakoitzak bere ibilbidea eraiki behar baitu. Esan dugun bezala, gazteriak oraindik formatu gabe duenean ibilbide hori, heziketaren premia du. Bestela, zenbat eta denbora gehiago eskaini kultura digitalari, hura nagusituko baitzaio inprimatuari.

Irakurketan trebatzeko prozesua jagon egin behar den arloa da. Hiritarra berezko eboluzioaren esku lagaez gero, *slow journalismera* baino errazago ailegatuko da *fast newsen* eraginpera. Hiritarraren eskura erraz eta lehenengo telefono adimenduna iristen da; eskuan duenean, berehala informazioa jasotzeko aukera du, bai egunkarietako aplikazioekin, baita *whatsappekin* ere. Interneten etorrerarekin gehitutako abiadura kroniko bilakatzean gizartearen, smartphonen erabiltzaileek joera finkatutzat hartu ohi dute liburuak edo kronika luzeak tuitetan laburbiltzea. Telebistan bertan ere berehala ohitu izan da gaztetarik *breaking newsetara*. Ondorioz, gizarteratu den edozein pertsonak naturalizat hartu du medio digitalak kantitateaz lotzen kalitateaz baino errazago. Horri lotzen badizkiogu Internetek ekarriko abantailak, aise ulertzen da hiritarra berez antzera hurbiltzea *fast journalismera*. Bestalde, belaunaldi berriek badutenez behar-beharrezko den teknologia berrietarako iaotasuna, *fasterako* joera lehenestea ulergarri gertatzen da.

Fast joeraren hegemonia agerian jarriarik, itzultzeko moduan gara goragotik garatuz gatozen irakurketara. Prozesua jaiotetxetik beretik abiatzen da. Arestian baieztatu legez, sendian berba egiten dugunean, termino ezagunak, ohiturazkoak erabiltzen ditugu. Baina gurasoren batek seme-alabei irakurtzen diegunean, maiztasun gutxiagoko hitzak ere entzuten dituzte, baita beraien adinkideek ez darabiltzatenak ere. Azken batean, beste inon jaso ez dituzten istorioak, anekdotak, ipuinak, bertsoak, barneratzen dituzte, eta jaso ere giro zainduan. Jokabide hori, irakurle-bizitza idealaren abiapuntua gertatuko litzateke.

2.2.10 Irakurketarako arreta eta kontzentrazioa entretenigarrien aroan

Gorputza jagotea postmodernitateko hiritarren izaeran sartzen dela dakielarik, adimena lantzeaz kezkatuta, Emili Teixidor idazle katalanak adierazten du egunero ordu erdi eskaini beharko geniokeela irakurketari. Agian, erromatarren *nulla dies sine linea* gogoan harturik aipatzen du irakurketa tarte hori. Izatez, hogeita hamar minutu bitarte laburra da, baina ez ezereza, ze, irakurtze unea eta gunea zaintzeak ohitura eta emaitza mesedegarriak ekartzen ditu, bai endekatze neuronalak geraraziz, baita kontzentrazioa landuz ere. “Irakurketaren bidez burmuina lantzeak kontzentrazioa errazten du”—dio Teixidorrek berak (2007: 57)⁸⁶. Antipodetan aurkitzen dira enpresak Nicholas Carr-ek (2008: 8) dioskunez: “The last thing these companies want is to encourage leisurely reading or slow, concentrated thought. It’s in their economic interest to drive us to distraction”.

Gu irakurtzen ari garenean, burmuinak prozesu konplexua garatzen dihardu. Horrez gainera, irudimena aberasten du, mesedea dakarkio kontzentrazioari eta enpatia hobetzen laguntzen du. Emili Teixidorrek dio: “Está más dispuesto a abrirse a otras vidas”⁸⁷.

Hiperarreta, aldikako arreta eten gabea, eta Edward Hallowell-ek (Wolf, 2018: 72) arreta “defizita” deitzen duena, inguruneak eragindakoa da, denok jotzen gaituena. Goizerik gauera tramankulu digitalen eraginpean dihardugu; entretenigarritz inguratutik bazi gara. Era horretara, ez irakurketa sakona, ezta pentsamendu sakona ere ezin hobetu daitezke.

Ez da harritzekoa, orduan, gauden moduan gaudelarik, informazio uholdepeko irakurlea itotzear aurkitzea. Hainbestean, non Jame Smiley-ek beldurra dion eleberrien irakurketa bazterturik geratzeari (Wolf, 2008: 73). Horren arrazoia da eleberriak dauzkan

⁸⁶ “Ejercitar la mente mediante la lectura favorece la concentración”. Teixidorrek *La lectura i la vida*, *Retrat d'un assassí d'ocells* eta *Sic transit Gloria Swanson* ere ondu zituen, azken bi hauetako elementuak *Pa negre* filmean jasotzen dira. La lectura i la vida liburuaren atarikoan galdera hau egiten digu: Imajina dezakezue mundua libururik gabe?

⁸⁷ Irakurketen onurez zabal mintzo da autorea *La Vanguardia*k laburbildutako artikuluan. Emili Teixidor autore katalanarekin bat egiten du *La lectura y la vida* lanari ere erreferentzia eginez.

bezainbeste berba irakurtzen dituela Amerikako Estatu Batuetako hiritarrak. Edonola ere, ez dugu ahantziko informazio uholde hori entretenigarri bihurtua dela.

Mark Edmundson (2004: 16) literaturako katedradunaren iritziz, bere ikasleentzat neurtezinezko galera dakar uste izateak informazioa entretenigarri modu bat dela. Preprofesionalismoan murgilduta, entretenimenduan igeri eginez, bere ikasleek alde batera utzi dituztela baloratu duten guztia zalantzan jartzeko, bizimodu berriak bilatzeko, eta dena arriskatzeko aukerak. Ikasleentzat heziketa dela ezagutza, eta jaun- andere-begirale izatea, inoiz ez bizitza bizitzeko moduari buruzko elkarrizketa sokratikoa:

Immersed in preprofessionalism, swimming in entertainment, my students have been sealed off from the chance to call everything they've valued in to question, to look at new ways of life and to risk everything. For them education is "knowing and lordly spectatorship, never the Socratic dialogue about how one ought to live one's life"⁸⁸.

Portaera horretan, pentsamendu kritikoaren galera nahiz Proust-ek deritzon "bakartasuneko komunikazioa" dira galtzaile (Cornellier, 2017)⁸⁹. Entreenigarrien zibilizazioan ahalaginik eta esfortzurik ez badago, irakurlearen jarrera pasiboarekin, erabiltzen dabilena, soil-soilik, da ahalmen kognitiboetako gainazal hutsa.

Txiki-denboretara bihurturik —aldi orotakoa den arren—, distrakzioz gainezka bizi den jendartean kontzentratzen ikastea erronka nagusi bilakatu da. 2014ko RAND⁹⁰

⁸⁸ Mark Edmundson (2004) literaturako katedradunak esanak hurrengo helbidean jasotzen dira: <https://tuminoeng101.files.wordpress.com/2016/08/edmundson-why-read.pdf>, 16.

⁸⁹ "Irakurketa bakardadearen erdian dagoen komunikazio baten mirari emankor hori da": La notion de « conversation », nuance-t-il, n'est peut-être pas la plus appropriée pour « aller au coeur même de l'idée de lecture ». Nous pouvons, en effet, avoir des amis précieux et brillants avec qui converser. Toutefois, la différence principale « entre un livre et un ami, ce n'est pas leur plus ou moins grande sagesse, mais la manière dont on communique avec eux, la lecture, au rebours de la conversation, consistant pour chacun de nous à recevoir communication d'une autre pensée, mais tout en restant seul, c'est-à-dire en continuant à jouir de la puissance intellectuelle qu'on a dans la solitude et que la conversation dissipe immédiatement, en continuant à pouvoir être inspiré, à rester en plein travail fécond de l'esprit sur lui-même ». Proust parle donc du « miracle fécond d'une communication au sein de la solitude », tout en précisant, étonnamment, que cette grandeur de la lecture est aussi ce qui fixe son incomplétude et ce qui devrait nous faire prendre conscience du « rôle à la fois essentiel et limité que la lecture peut jouer dans notre vie spirituelle ». Louis Cornellier; (*Ledevoir*, 2017-05-13): [La littérature et la vérité, selon Marcel Proust](#).

⁹⁰ RAND (Research ANd Development) irabazi asmorik gabeko erakundea da, ideien laborategiaeta politikak aztertzen eta formulatzen adituak diren akademiko taldea.

txostenean⁹¹ esaten da hiru eta bost urte arteko umeak eurak ere, orduetan egoten direla pantaila aurrean: “The average amount of time spent by three- to five-year-old children on digital devices was four hours a day”. Txosten berak aipatzen duenez, ume helduagoen artean ordu kopurua hiru aldiz gehiago izaten da.

Daniel Levitin-ek (Wolf, 2018: 109), epe luzerako helburuaz jokatzeko trebatu beharra azpimarratzen du gazteriak gailu digitaletan hara hona mugitzean lortzen duen bat bateko sariaren eta poztasunaren aurrean. Hau da, epe luzerako sariaren bila joan behar dugula diosku eta epe laburreko sariari uko egin.⁹²

Beraien fortunaren esku utziaz gero, umeak eta gazteak zentzuen estimulazioko adikto bilakatuko dira betiko. Garapen kognitiboan kalte itzela bereganatuko du gazteak, eta birtualki entretenituta eta gainestimulatuta dagoelarik, ez da egongo deskonektatzeko prest, zeren hala entzun baitugu sarri aginduari erantzunez gailua aldendu duenean: “Aspertu egiten naiz!”. Paisaia digital hori normaltze bidean, era programatuan lan egin beharra dago, lor dadin irakurketa sakonerako gaitasuna, batez ere, gaztearen irakurle-zirkuitua hezi ahal izateko periodoan.

Ziming Liu-k (2005: 705) idatzi duenez, gure irakurtze digitalerako molde berria, gainetik so eginez irakurtzea da, irakurketa digitalean diagonalean edo bertikalean irakurririk berbak berehala topatzea. Dioenez, egitera ohituta gauden pantailetak irakurketak, aldaketak dakartza irakurketan, hau da, mota horretako irakurketaren eraginez, gure irakurketaren izaera bera aldatzen ari da.

Gain-gainetik irakurtzearen inguruko gaietariko bat da, ea desberdintasunik baden, paperean irakurriez gero edo pantailan. Gai horrek azala bezainbat abisala ukitzen du. Susana Pérez-Solerek hala aitortzen du Nicholas Carr-en aipamenaz baliaturik:

⁹¹ RAND erakundeak argitaratutako Using Early Childhood Education to Bridge the Digital Divide artikularen baitan kokatzen da ekarpen hau: Ikerketa hau alfabetizazio teknologikoari buruzko eztabaidaren baitan kokatzen da, eta haur-hezkuntzak eten digitala murrizteko duen eginkizuna aztertzen du besteak beste. Haur hezkuntzan teknologia txertatzeari buruzko eztabaidan kontuan hartu beharreko funtsezko bost gai nabarmentzen ditu. Ondorio nagusiak honako hauek dira (1) Lehen haurtzaroko hezkuntzak haurrak eskolarako prestatzen ditu eta desberdintasunei heltzeko aukera ematen du; (2) Alfabetizazio teknologikoak atek irekitzen dizkie bizitzako aukera askori; (3) Teknologia ere atek ireki diezazkieke haur txikiei ikasteko aukera berriei; eta (4) Laguntzak behar dira teknologiaren onurak errealitate bihurtzeko (2014: 14).

⁹² *The Organized Mind: Thinking Straight in the Age of Information Overload* Daniel J. Levitin McGill Unibertsitateko neurozientzialariak idatzitako lan itzel saldua da. Jatorrizko aipuak halaxe dio: “We need to train ourselves to go for the long reward, and forgo the short one” (2014). Wolfek behin baino gehiagotan jasotzen ditu bere esanak (Daniel Levitin, in Wolf, 2018: 109).

Un medio no es sólo un canal de información. Además de ofrecer la materia del pensamiento, también modela el proceso del pensamiento. Y la web debilita la capacidad de concentración y contemplación. Esté online o no, mi mente espera ahora absorber información en la manera en la que la distribuye la web: en un flujo veloz de partículas. En el pasado fui un buzo en un mar de palabras, Ahora me deslizo por la superficie como un tipo sobre una moto acuática (2017: 52).

Anne Mangen Norvegiako akademikoak eta bere kideak egindako ikerketetan - irakurketa pantaila bidez eta irakurketa liburuetan-, ondorioztatu du liburua irakurri zuten estudianteeek gain hartzen zietela pantailan irakurritakoei liburuko trama berregiterako unean. Mangen-en (2015: 229) hipotesia da, ondorioz, batetik pantailan irakurtzeak azaleko irakurketa indartzen duela, selekzioa; bestetik, ezin eskaini duela liburuak berea duen dimentsio espaziala, zeinek erakusten digun gauzak non aurkitzen diren. Gutariko bakoitzak dakiena da, behin irakurri dugun liburu sakonak edo interesgarriak guregan lagatzen duen arrastoa bezain erabilgarriak direla geuk oharrez paperean bertan uzten ditugun zeinuak eta oharrak, geroago baten haietara itzul gaitezen. Hala ere, hori baino arduragarriago da inork ez erakustea dakizkigun gauzak zein marko kontzeptualetan kokatu edo txertatu, gaurko joera delako Harvard John Huth-ek (2013: sn) dioenez: “Sadly, we often atomize knowledge into pieces that didn’t have a home in a larger conceptual framework”⁹³.

Alderantziz gertatzen da edozein pertsonak irakurketa ordu guztiak Interneten esparruan egiten baditu. Orduan, testuek entretenigarritz beteriko testuinguruak edukiko dituzte. Horretara ohituz gero, geu bihurtuko ginateke ordenagailuaren moldepeko, gai konplexuetarako arreta murriztuz. Hortaz, menpekotasunetik askatzeko, haurtzarotik beretik abiatzea da gomendagarriena, umeek pantailarekin topo egin dezaten baino lehen liburua esku-apaletan ukitzera ohitu daitezen.

⁹³ Dioenez, zoritxarrez, askotan ezagutza atomizatzen dugu, esparru kontzeptual zabalago batean tokirik ez duten piezetan, hain zuzen. Gaineratzen du hau gertatzen denean, esanahia ezagutzaren zaindariai ematen diegu eta honek bere balio pertsonala galtzen duela. *The New York Times* egunkarian plazaratutako iritzi artikuluan jasotzen du adierazpen hau, *Losing Our Way in the World* izenburupean (2013). Huth Harvardeko Unibertsitatekoeko fisika irakaslea da, *The Lost Art of Finding Our Way* liburuaren egilea.

2.2.11 Irakurketa metaketa da

Alberto Mangelek bere jakintzaren biltegiak arrazoitzean, zera dio, azkar ohartu zela nola irakurketa metaketa den:

Everything proceeds in geometric progression based on what is known and what is remembered every time we read something new (Wolf, 2018: 88)

Edozein pertsonak irakurriz eta irakurria eta jakitatea gogoan gordeirik oinarrituko du bere etorkizuna. Bestalde, ikasitako jakintza guztia, *slow journalismi* loturik aipatzen dugunez, idazteko eran ere islatuko litzateke, beti irakurketaren sakontasuna pentsamendu sakonetan azalduz; azken finean, irakurketa sakoneko burmuin zirkuitua osatuz. Hara heldu artean, irakurtzen dugunaren arteko eta dakigunaren arteko lotura erabat desorekatuko da, baldin kanpo-ezagutzako iturrietara makurturik ari bagara, geure ezagutzen funtsa saihesturik. Abiapuntuko umeen bilakaerara bihurturik, geure esperientziaz baieztatu genezake, hizkera aberatseko familietan haurrak berez aberasten direla, eta berbeta txirodunak berez txirotzen. Beraz, pertsonaren gordailua betez joan ohi da. Hala gerta dadin, baina, etengabe elikatu behar da, ezen zenbat eta gehiago dakigun, orduan eta errazago egin ahalko ditugu analisiak, ebaluazioak eta dedukzioak. Azken batean, sakoneko irakurketa bidez erdietsiko genukeenak osatuko luke gutariko bakoitzaren oroimenerako kanpo iturria eta barne iturria.

Guzti hori *cerebral patience-ek*⁹⁴ (Wolf, 2018: 98) baldintzatzen du, pazientzia kognitiboak, edozein artikulu luzeri edo libururi aurre egiteko. Zeren XXI. mendean, Interneten eta *Twitter* aroan, hiritarra pentsamenduak 140 karaktereren bitartez

⁹⁴ Arretaren izaera da erantzunik gabeko galdera handien azpian dagoena, eta gizartea horiei aurre egiten hasi da. Gure arretaren kalitatea aldatuko al da berehalakotasuna, zeregin-aldaketa azkarra eta distrakzioaren etengabeko kontrola errazten duten hedabideetan irakurri ahala, gure arretaren fokalizazio deliberatiboenaren aldean?; liburuek sortutako munduetan murgiltzen garenean irabazten dugun pazientzia kognitiboa deitzen digunari ihes egiten uzten badiogu galduko dugun guztiak sakonki kezkatzen du. Hau da, gure prozesu analogiko, inferentzial, enpatiko eta ezagutza-prozesu sakonen arteko loturak etengabe indartzea irakurketatik harago doa. Prozesu horiek gure irakurketan behin eta berriz konektatzen ikasten dugunean, errazagoa egiten zaigu gure bizitzetara aplikatzea, gure motiboak eta asmoak aletuz eta zorroztasun eta, agian, jakinduria handiagoz ulertuz, beste batzuek pentsatzen eta sentitzen duten bezala. Wolfek gero eta irmotasun handiagoz adierazten du ohiko antsietatea zer den: gailu digitalak denoi (ez umeei bakarrik) desafio egiten ari zaizkigula modu guztiz berrietan, bonbardaketa medio.

adieraztera ohitua baitago. Ondorioz, nekez ahalegintzen da Proust-en hirurehun berbako paragrafoak deskodifikatzen, bizi den moduan bizirik arreta aldaketa amaigabeetan murgildurik.

Kazetaritzaz jardunik, tesi honetako ‘Irakurketa eta hausnarketa sakona liburuaren autoritatea’ deritzon atalean esana dugu modernitatetik postmodernitaterako aldaketan, makroerrelatoak, hots, errelato globalizataileak desagertzean, mikroerrelatoak baino ez zaizkigula geratzen. Baita, kazetaritzaren negoziarik onena beti izan dela istorio onak kontatzea. Orain, inkesten bidez badakigularik unibertsitateko ikasleek ere testu luze eta konplexuetatik —arnasa luzekoetatik— ihes egiten dutela, joera horretan eraginkor izateko, irakasle asko errelato laburretako liburuak, ipuinak, gomendatu beharrean aurkitzen da. Beraz, azaldutakoarekin lotura eginik, iraunkortasun ezaren aurrean pazientzia kognitiboaren balioa azpimarratzeko, Maryanne Wolf-en aipua ekarriko dugu hona (2018: 93): “The intrinsic value of the short-story genre is not in question. (...) Rather, it may come back to a lack of cognitive patience with demanding critical analytic thinking”.

Ondorioz, gabeziadun heziketak, gaitasun intelektual konplexuetan trebatu gabe egoteak, ekar lezake abileziarik eza, hala irakurketan, nola idazketan.

Areago, *fake news*-en generoa dela-eta, Jennifer Howard-ek idatzi zuen *The Washington Post*-en, jendea gero eta leloagoa dela. Bata-besteari materiala pasatzera mugatzen direla, ezertxo ere konprobatu barik (Howard, 2016):

Separating truth from fiction takes time, information literacy, and an open mind, all of which seem in short supply in a distracted, polarized culture. We love to share instantly, and that makes us easy to manipulate⁹⁵.

Atalaren amaierak oharra eskatzen du irakurle onari dagozkion bigarren eta hirugarren bizimoduaz. Bigarreanean sartuko genituzke: entretenitzeko irakurtzea, biografietan murgilduriko irakurketak, edo poema liluragarriak nahiz eleberri erromantikoak. Hirugarren bizimolde batean, hausnarketa pertsonalerako irakurketak, geure subjektuagandik haragoko unibertsoa ikertzekoak.

⁹⁵ Howard-ek gehitzen du geure buruari galdetu behar diogula zergatik tematzen diren herritarrak kontsumitzaileak diren aldetik alaiki ezagutzen ez duten eremu pribatu batean: “In this post-factual, truth-averse era, many of the destinations that draw us online have become unsafe spaces, hostile and treacherous, where hatefulness and fake news prevail and surveillance is omnipresent. The web has changed, and it has changed us” ([Data Love and Internet Hell](#), 2016).

2.2.12 Irakurketaren etorkizuna

Digitalki azkartutako mundu honetan, *slow* mugimendura jo ohi dugu abaro bila, zeren pausazko pausuak eta hausnarketa behar izan baititu gure arteko lehen belaunaldi digitalak dispositibo berrien erabilera normaldu dadin. Arnasa luzeko mugimendu horretan bilatzen duguna da burmuin bialfabetatuak lortzea, gai direnak euskarri moten artean batarekin nahiz bestearekin baliatzeko, alegia, pentsamendu sakonen jabe ere badirelarik, arreta, trebetasuna nahiz denbora eskain diezaioten irakurketa sakonari ere. Gaur berton frogatutzat eman daitekeena da, datorkigun informazio eta denbora-pasagarriak ez direla sekula bilakatuko jakintza. Helburua, beraz, gure gizarteko kide guztiek ondo eta sakontasunez irakur eta idatz dezaten da; jakina, kazetariak ere bai.

Horretarako, Wolf-engana jo dugu, bere ikerlanei esker ohartu baitzen esperientzia bidezko aurkikuntzez nola eskaintzen diogun irakurketa geldoari gero eta denbora laburragoa. Joera horren aurrean erabaki zuen ikertzea, ea benetan ari garen galtzen sakonean irakurtzeko trebetasuna teknologia berrien eraginez.

Maryanne Wolf-ek (2018) *Reader, Come Home* liburua irakurleari zuzentzen dio eta azpтитulu adierazgarrian zehazten du gaia: ‘garun irakurlea mundu digitalean’. Ikertzaileak proposamen integrala eskaintzen du irakurle bialfabetatuaren garunaren garapenerako —*able to read and write in two languages*—, hots, medioaren arabera modu desberdinean irakurtzen duen garunerako. Zeren etorkizuneko irakurketarako proposamenaren bidez lortu gurako bailuke irakurleak bilaka daitezten kodigotrukagailutzan trebeak, hiztun elebidunek hizkuntza bateko kodigotik bestera aldatzeko duten gaitasun berberaz. Gaitasun hori soberan erakutsiak dira elebidunak urteetan hizkuntza batetik bestera jauzi egiten ohituak izanik. Horrela, beraren proposamenaren arabera, irakurleak bihurtuko lirateke kode-trukatzaile malguak, medio inprimatuen artean eta medio digitalen artean. “Building a biliterate brain” dela-eta dio Wolfek:

I have little doubt that the next generation will go beyond us in ways we cannot imagine at this moment. (...) They will need the most sophisticated armamentarium of abilities that humans have ever acquired to date: vastly elaborated deep-reading processes that are shared with and expanded through coding, designing, and programming skills (...) that none of us can now predict.

That's why, I propose the development of a biliterate reading brain (Wolf, 2018: 168)⁹⁶.

Eta horretarako, Euskal Herrian ere hain ezaguna dugun hizkuntza bi mintzo diren familietako gurasoen ume elebidunen esperientzia hartzen du aintzat, alegia, amak ingelesa eta aitak euskara —Wolf-ek espainola dio guk euskara jartzen dugun tokian— darabiltenena. Maryanne Wolf-ek aitortzen duenez, berak jartzen duen hipotesia Lev Vigotsky-rengan oinarritzen da, eta oinarritu ere, Vigotsky-k ume txikiaren pentsamenduaren eta hizkuntzaren garapena dela-eta ikertu izan duen gaian, ondorioz baieztatzeko pentsamendua eta hizkuntza nola garatzen diren: lehenengo banaturik, ondoren gero eta konektatuago⁹⁷.

Bestalde, aintzat hartzekoa da oinarrizko gai honetan nola Piaget eta Vigotsky ez datozen bat. Piaget-en arabera, hizkuntzaren garapena pentsamenduaren pentsudan dago, hots, pentsamendua da lehen eta hizkuntza ondoren. Vigotskyrentzat, ordea, pentsamendua eta hizkuntza hasieran sistema banatuak dira —bizitzaren hastapenetik beretik— eta hirugarren urte aldera, batu egiten dira pentsamendu berbala sortuz —barne hizkera—. Guk, bai Piaget-ek dioenaren aurrean, baita Vigotskyrean baiezta dezakeguna da haurrak behin berbaz hasten denean, inoiz entzun ez dituen perpausak sortzeko gaitasuna duela, eta gaitasun hori ama-hizkuntzari lotua dagoela, ez era ohartuan ikasitakoari. Edonola ere, gurako lukeela dio Maryanne Wof-ek (2018: 171) umeak edukitzea medio bietan euskara eta gaztelera —berak espainiera eta ingelesa dio— erabiltzeko daukan jarioasuna: “The child to have parallel levels of fluency, if you will, in each medium, just as if he or she were similarly fluent in speaking Spanish and English”.

Helburu horretarako, hizkuntza bien ikasketan zehar, kodigo-trukatzaile trebatuak izatea lortu behar dute ikasleek. Eta horixe da Maryanne Wolf-ek bilatzen duena, medio inprimatu eta digitalen arteko kodigo-trukatzaile malgu trebatuak bilaka daitezen gaurko ume, biharko adinekoak⁹⁸.

⁹⁶ Gizakiek orain arte eskuratutako trebetasunen armarik sofistikuena beharko dute: irakurketa sakoneko prozesu oso landuak, kodetze-, diseinu- eta programazio-trebetasunen bidez partekatzen eta zabaltzen direnak (...), gutako inork ezin dituenak orain aurreikusitak. Horregatik proposatzen du irakurketa-garun bialfabetatua garatzea.

⁹⁷ “First separated and then increasingly connected” (Wolf, 2018: 171).

⁹⁸ “That is what I want our young nascent readers to become: expert, flexible code switchers -between print and digital mediums now and later” (Wolf, 2018: 171).

Gainera, frogatutzat ematen du hizkuntza bi ikasitako ikasleek hizkera-malgutasun handiagoa dutela elebkarrek baino: “Dual language learners had acquired far more verbal flexibility than single-language learners had” (ibid., 2018: 171).

Horri esker, haurrek hasieratik ikasiko lukete, zeren medio bakoitzak, hizkuntza bakoitzak bezala, bere arauak eta berezitasunak baititu. Horrez gain, medio bakoitzak perfektionatutako prozesu kognitiboen tasuna, abiapuntutik beretik aurkituko litzateke presente.

Bukaeran baieztatzen duenaren arabera, gizarteak eraiki lezake garun biliteratua sustatzen duten ikaskuntza inguruneak: “Learning environments that promote a biliterate brain” (Wolf, 2018: 170).

Ondorioz, Maryanne Wolf-en hipotesia hauxe da, aipaturiko kodearen garapenak aurrez konpon lezakeela pertsona helduengan gertatzen den atrofia, pantaila irakurtzeko prozesuak inprimatutako irakurketara isurtzen direnean eta inprimatzeko irakurketa prozesuak motelagoak direnean: “When screen-reading processes bleed over into print reading and eclipses the slower print-reading processes” (ibid., 2018: 172).

2.2.13 Biliterate brain eraikitzeke elebidunaren baldintzak

Zein dira Wolf ikerlariaren arabera *print and digital medium* setan etorkizuneko gazteak kode-aldatzaile edo *code-switchers* trebeak izan daitezten sortu behar diren baldintzak, bitartekoak, beti ere, ume elebidunen jokabidea aintzat hartuz?

Elebakarrentzat, agian, amets ezina da elebidun natiboaren kode-aldagarritasuna jadestea, orain euskaraz, orain erdaraz arituz, jarraian gazteleraz mintzatzeko edo euskaraz abiatutako perpausan, erdal sintagma osoa tartekatu ondoren, euskaraz jarraitzea. Berez, hizkuntza biren artean kode bitaz mintzo garen modu berean, aipatu behar da ahozko kodigoaren eta idatzizkoaren arteko desbedintasuna ere. Marta García Aller-ek (2018, *El Independiente*)⁹⁹ diosku, ezen sare sozialak eta egunkarietako iruzkin sailak konparagarriagoak direla ahozkotasanarekin liburuekin edo kazetaritza

⁹⁹ El_independiente.com atarian kontsulta daiteke informazio osoa (2018-11-10).

inprimatuarekin baino: “Las redes sociales y las secciones de comentarios de los diarios son más comparables con la oralidad que con libros o periodismo impreso”.

Eta jarraian, Lasén-ek baieztatzen duenez, bidaltzen dituzun *whatsapp*-ekin idazkera molde laburragoak eta ahozkoagoak lantzen dihardugu; Internetekin irakurketa mota berria sortu da, alegia, online egunkariak komentatzean egiten duguna, hots, lehenago ozen egiten genuen iruzkinen ahozkotasuna nahasten duena.

Los *whatsapp* que mandas están sustituyendo a conversaciones orales más que a otros ratos de lectura afirma Lasén. Estamos cultivando nuevas formas de escritura más breves y más orales. Con Internet ha surgido un nuevo tipo de lectura, la que hacemos al comentar los periódicos online, que es una mezcla de oralidad de comentarios que antes hacíamos en alto (García Aller, 2018).

Ondorioz, Vigner-en esanetan, ahozko kodigoaren eta idatzizkoaren autonomia hasieratik beretik hartu behar da aintzat, hizkuntzen ikasketan kodigo bien autonomia zainduz, parekotasunez eta banan aztertuta lantzeko:

Según Vigner, estos argumentos justifican la autonomía de los dos códigos — ahozkoa eta idatzia— y la conveniencia de tratarlos de forma equitativa y por separado en el aprendizaje de las lenguas (Cassany, 1991: 42).

Artekoaz gainera, hizkuntzen ukipena kontuan hartzea ere ezinbestekoa da. Uriel Weinreich-ek (1979) dioskunez, hizkuntzak ukipenean dira pertsona berberak biak behin banan darabiltzanean. Beraz, berbeten kontaktuari buruzko teoria ere beharrezkoa da Maryanne Wolf-ek proposatzen digun ingelesaren eta euskararen edo espainolaren arteko loturak ikertzeko. Weinreich-ek diosku berbeta bi edo gehiago kontaktuan daudela, pertsona berberak txandaka erabiltzen baditu. Beraz, hizkuntza erabiltzen duen norbanakoa da ukipen lekua:

In the present study, two or more languages will be said to be in contact if they are used alternately by the same persons. The language-using individuals are thus the locus of the contact (Weinreich, 1979: 1)¹⁰⁰.

Gainera, hizkuntza biren arteko erlazioa argitzeko, aukeratze premian topatuko gara, teorikoki argitzeko ea elebitasunaz ala diglosiaz berba egitea egokiago den. Honetan

¹⁰⁰ In Euskalkia eta Hezkuntza, 14.or. Azterlan honetan esango da bi hizkuntza edo gehiago harremanetan daudela, baldin eta pertsona berberak txandaka erabiltzen badituzte. Hizkuntzak erabiltzen dituzten pertsonak, beraz, kontaktuaren lekua dira.

guk Charles A. Ferguson-i (1959: 15) egingo genioke jaramon. Honela mintzatzen da: “Hizkuntza bi gertatzen direnean, diglosia ere ematen da”¹⁰¹.

Bestalde, Wolf-en hipotesiak bidea egingo badu, ezin ahantziko ditugu elebitasunak dituen mugak ere. Trudgill-ek (1974) adieraziko digu elebitasunaren mugetariko bat hizkuntza terminoa bera dela. Hori ulertarazteko, berak Holandaren eta Alemaniaren mugara jo zuen. Jakina dela zioen neerlandera eta alemana hizkuntza desberdinak direna. Hala ere, Alemania eta Holandako mugako zenbait unetan mintzatzen diren alde bietako dialektoak antz-antzekoak direla. Hautatzen badugu esatea mugaren alde bateko pertsonak alemanez hitz egiten dutela, eta beste aldekoak neerlandera, egin dugun aukera faktore linguistikoetan baino sozial eta politikoetan egin dugu.

The same sort problem arises with the term language. For example, Dutch and German are known to be two distinct languages. However, at some places along the Dutch-German frontier the dialects spoken on either side of the border are extremely similar. If we choose to say that people on one side of the border speak German and those on the other Dutch, our choice is again based on social and political rather than linguistic factors (Trudgill, 1974: 14).

Beraz, nekez bana daitezke diafanoki *print and digital mediums* horiek.

Elebitasunen barruan, Wolf bidegileak jartzen digun ingelesaren eta espainolaren adibidera jotzen badugu, baieztatu beharko dugu, printzipioz ezin berma daitekeela erkidego elebidunak badirenik, bai, ostera, norbanako elebidunak. Hau da, kode aldatzaile edo *code switchers* —*between print and digital mediums*— bilakatzea norbanakoari dagokiola, eta, beste kontu bat dela, gizarte osorako lortzea. Bestalde, Charles A. Ferguson-engana (1959) jo dugu arestian diglosia aipatzeko. Diglosia definitu zuen barietate linguistiko biren arteko harreman egonkor bezala, bata ‘gora’ (*high*) eta bestea ‘behera’ (*low*), hizkuntza bietarik bat edo aldaki linguistiko bat besteari gainjarriz. Jakin biak dakizkitez herritarrek, baina bereziturik, bata barietate ‘gora’ legez, literatura, erlijio, irakaskuntzarako, eta bestea ‘behe’ legez, elkarrizketa ez formaletarako, edo familiartekorako, beti ere, gutxi landua izanik. Maryanne Wolf-en elebidunen kodigo bietarako gaitasunak diglosiarako eredurako balioko ote luke? Hala balitz, medio inprimatuko eta digitaleko kodeak erabiliko lirateke, bata gora zereginetarako, bestea behekoetarako; ez lirateke izango biak harreman formaletarako, eta, era berean, biak erlazio ez formaletarako, elebitasunean gertatzen den bezala.

¹⁰¹ In Appel, 1996: 40.

Irakurketari lotuko bagintzaizkio, baieztatuko genuke, A barietatea, jaso dena, estandarizatuta dagoela, baita nazioartean ere, egonkorra dela, eta ez dela haurtzaroan lehen berbeta moduan ikasten dena, geroago baino. Hara eredia medio inprimatuko eta digitaleko kodeak programatzeko, umezarotik abiatuak landuz joateko. Erramon Baxoek (2000: 4) ederto baten deskribatzen digu aipatuz gatozen diglosia funtzionalaren izaera:

Bagenekien euskara plazan, merkatuan, elizan eta pilota partidetan zela. Frantsesa, kasu, eskolan, jendarmerian eta postan zen. Diglosia funtzionala deitu horretan bi hizkuntzak bizi ahal dira, bi funtzio ezberdinak betetzen dituztelarik.

Era honetara ulertu nahiko luke Wolf ikerlariak irakurketarako *print and digital mediums*-etako (medio inprimatu eta digitaletako) kodeen arteko erlazioa? Guk hala ulertzen dugu tesian burmuin edo garun bialfabetatua. Edozelan ere, ez da zalantzazko izango medio inprimatuko eta digitalekoaren arteko irakurketa trebetasunetan etengabeko transferentzia gauzatuko dela, zeren pertsona berberak ukipenezko txandaketan baitarabiltza kode biak.

Orain artean azaldu dugun Ferguson-en (1959) eta Fishman-en (1965) obran baieztatu da, ezen elebitasun egonkorra diglosia egoeretan baino ez dela posible, hau da, berbeta bi —Wolf-en adibidean ingelesa eta espainiera— funtzio argi bezain garbiz bereizturik daudenean. Ondorioz, inprimatuko medioetan eta digitaleko kodeetan ere modu berean jokatu beharko litzateke.

Teknologia berrietako hiritarra noiz eta nola trebatu irakurketan aztertzen badugu, biderik finkatuena Vygotsky-k (1977, 1979) eskaintzen digu bere *Garapen Hurbileko Guneaz* ari denean. Dioskunez, hasieran besteen laguntzaz baino egin eta ikasteko gauza ez den ikaslea, gai izango da geroago bakarrean egin eta ikasteko. Horixe izango litzateke irakurketan ere bi kodigoez baliatzen ikasteko metodoa.

Honaino adierazia bide zuzenetik gidatzeko, eskolako hezkuntzaren helbururik bikainena ‘ikasten ikasi’ eslogana da, inongo zalantza barik, eta eslogan hori, Jiménez eta O’Shanahanen (2008: 1) hitzez bizitza guztirako da, ezen, “lehenengo irakurtzen ikasten da eta, ondoren, ikasteko irakurtzen”.

Beraz, Wolf-ek hauxe diosku: pantailan irakurtzeko prozesuak, —*screen-reading processes*-ak— inprimatu geldoagoa irakurtzeko prozesua, —*the slower print-reading*

processes-a— oztopa ez dezan, haurrak eskolatik beretik hezi daitezkeela. Era horretara, helduengan gertatzen den atrofia ez litzateke gertatuko. Ondorioz, ideia bera beste era batera adieraziz, esango genuke Bersteinek (2000: 59) azaltzen duenez, etengabeko heziketa eskatzen duela gai honek. Berak “pedagogia totala” deitzen du; etengabeko ikasketan egiten du indar Bersteinek, hots, “pedagogia osoa” deritzon. Ideia horren arabera, subjektuak bizitza osoan behar du prestakuntza jasotzeko jarrera, unean uneko eskakizunen arabera (Loveless eta Williamson, 2017: 95):

El énfasis en la formación continuada queda recogido en la idea de Berstein de la “pedagogia total”, que significa una “disposición continua del sujeto a formarse durante toda la vida en función de las exigencias existentes” dentro de un proceso “permanentemente abierto” (Bonal y Rambla, 2003: 174).

2.3 Teknologia

Gizarte oso teknologizatuan bizi gara —milioika pertsona marko horretatik at dauden arren¹⁰²—; gizarte digitalizatuan, batik bat, informazioari dagokionean.

2.3.1 Teknologiaren eragina kazetaritzan

XXI. mendean ezaugarri nagusietarikoa da faktore teknologikoa. Teknologia berriak agertzeak kazetaritza osoa alerta egoeran jarri du, berraztertze premian, zeren kazetaritzak menpekoegi aurkitzen baitu bere burua teknologiaren aroan. Teknologiek administratu, transmititu eta partekatu egiten dute informazioa, baina aldatu ere bai. Teknologia berrien aurrerapenarekin kazetaritza klasikoak eta kazetaritza digitalak erronka ugari dituzte begien aurrean, baita aukerak ere.

¹⁰² UNESCOren arabera (2017), gaur egun, munduan 750 milioi helduk ez dute irakurketarako, idazketarako eta aritmetikarako gaitasun oinarrikoenik ere. 264 milioi haur eta gaztek ez dute eskola-hezkuntzarik jasotzen. Gainera, nazioarteko inkesten arabera, mundu osoko helduen eta gazteen ehuneko handi batek, are herrialde garatuetan ere, ez du gaur egungo gizarteetan eta lanetan erabat funtzionatzeko oinarriko gaitasun digitalik.

Bestalde, informazioaren gizartea eta teknologia berriak oso erakargarriak eta motibagarriak dira, batik bat, gazteentzat. Multimedia formatuan bizi gara, ikaslea txikitatik dago ohituta informazioa azkar, erraz, eta ahalegin gehiegirik egin gabe lortzen, hau da, *arreta* handiegirik eskatzen ez duten bideak erabiltzen. Joera horretan, espiritu kritikorik ezak, ordenagailuaren, makinaren menpeko bihurtzen gaitu, sistematizatu eta hierakizatu gabeko informazioaren menpeko.

Dena den, gizateriaren artean eta makinaren artean gertatzen den lehia gatazkatzat hartzea baino onura handiagokoa da errealitate eraginkortzat onartzea, elkarren artean duten eragina eta aldarazteko gaitasuna emankorra izan dadin.

2.3.2 Teknologiaren arabera *slow journalism*

Berez, Euskaltzaindiko hiztegiaren arabera, Internet “mundu guztian hedatua den informatika-sarea da, ordenagailuen arteko lotura zuzenaren bidez eratua, informazioa trukatzeko eta zerbitzuak eskaintzeko edo jasotzeko erabiltzen dena”. Bere garapenari edo eraginari esker, ordea, gure zibilizazioaren ezaugarri nagusi bilakatu da.

Informazioari buruz dihardugula, teknologia berrien agertzeak —ez Internetekoak soilik, ezpada ze, telefono mugikorrek eta kamera digitalak ere bai— eragin itzela dauka profesioa bera definitzerakoan, baita kazetariaren produkzio zereginetan ere. Eragin horrek indar egiten dio industria mediatikoari, baita albistearen izaerari ere, eta, azken batean, gizarte osoari. IKTak —TICak— Informazio eta Komunikazioko Teknologiek administratu, transmititu eta partekatu egiten dute informazioa, baita Casinik (2008: 110) idatzi digunez, aldatu ere. Hau da, historikoki, teknologia berrien etorrerak kazetaritza berrikuste eta alerta egoeran jartzen du, ekoizpen-errutinetan eta kazetariaren rol berean aldaketak eginez; era berean, presio egiten du industria mediatikoan nahiz albiste-kategorian, eta, jakina, gizartean orohar: “Ante las posibilidades que brinda el desarrollo de la tecnología digital y el satélite, el campo de la comunicación se ha visto alterado, tanto cualitativa como cuantitativamente”.

Jakina denez, komunikabide tradizionalak euskarri digital berrietara eta haien interfazera egokitzeak, doikuntza tekniko hutsa izan beharrean, bitartekoak eta haien audientziak pixkanaka eraldatzen lagundu du. Jakina da informazioaren bat-

batekotasunaren ondorioz, aldaketak ezarri direla informatzeko moduan, publizitatea eskaintzeko eran, merkatuan oro har (ondasunak eta zerbitzuak Internet bidez saldu eta trukitzea) eta baita gizarte-arteko komunikazio-moduetan ere (txatak, korreoak, etab.). Publikoen pertzepzioan ere aldaketak erregistratu dira, hipertextuala eta berehalakoa baita, eta ohiturak eta gaitasunak eraldatzen dituen abiadura baitu. Bada, euskarri digitalek eta mugikorrek kontsumo-ohitura berriak agertzea ere ekarri dute, erabiltzaileek noizbehinka eta azaletik irakurtzea dakartenak, edo audientzia bat konfiguratu dute, non, kasu askotan, euskarri anitzeko audientzia konfiguratu duten hedabide askori irakurleak hurbilduz euskarrion bidez (Peña, Lazkano, García, 2016: 27-28):

Tal y como la define Rodríguez-de-las-Heras (1991), la pantalla —a diferencia del papel— no es sólo una superficie, sino una «interficie», un lugar de contacto entre los dos espacios donde la forma de trabajar da como resultado la interfaz.

Atzerago jo gabe, hamarkada bitako aldaketa teknologikoak laburtuz gero, 1998ko *Google*-en sorreratik abia gaitzke bilakaera bizkorraz jabetzeko.

2.3.3 *Google* informazio-munduko metropolia

Bide guztiek garamatzate Erromara —*Omnes viae Romam ducunt*— esaera da *Google*-i buruz adieraz daitekeena XXI. mendean. Aldi hartan, behin abiatuez gero, heldu egiten ziren helmugara. Gaur, ordea, bilaketa egin ostean, *Google* bera dator guregana, nora iritsi gura dugun dakigunean. Zerbaitegatik da existitzen den bilatzailezik ezagunena, Interneten mundu zabalean ibilbidea errazteko baliabidea; erabiltzaileei web orrien eta mota askotariko erreferentzien zerrendak eskuratzeko aukera ematea helburu duena. Egunero 1.000 milioi bilaketa-eskaera baino gehiagori erantzuten die, eta ia planeta osoko enpresei erantzuten die.

Google Larry Page eta Sergey Brin-ek sortu zuten —lehen bertsioa— 1996an, Stanforderko Unibertsitatean graduondoko ikasketak egin zituztenean. Hurrengo urtean *Google* berrizendatzea erabaki zuten, *Gúgol* (10100en baliokidea) matematikari terminoarekin jokatu, haren programak izan behar zuen informazio kopuru handia dela-eta. Hortik aurrera, arina da hedapena. *Google+*, edo *G+ Google Inc.*ek eskaintzen duen sare soziala 2011n agertu zen, sare sozialen irakinaldi betean. Munduan

erabiltzaile gehien dituen hirugarren gizarte-sarea da, ez hainbeste ezaguna delako, baizik eta *Google* erabiltzailearen kontuekin, eta, batez ere, *YouTube* bideo-orriarekin duen interakzioagatik. *Google+*ek hainbat zerbitzu integratu nahi izan ditu sare sozial berean, esate baterako, lagunen eta ezagunen zirkuluak eta haiekin solasaldi birtualak denbora errealean. Horrela, *facebookekin*, munduan gehien erabiltzen den sare sozialarekin, lehiatzeko modua lortu izan duela onartzen da.

Dena den, horren aurretik aurkitzen ditugu beste data garrantzitsu batzuk. 2001ean, *Wikipedia* agertzen da; 2004an, *Facebook* jarri ohi da eta *Google*-eko *Gmaila*, baita web 2.0 terminoa ere; 2005ean *Youtube* hasten da beharrean; 2012an dator Interneten hazkundera: jadanik 2.400 milioi erabiltzaile dituelarik.

Garapen teknologikoaz dihardugularik, bilakaera teknologikoaren hiru une adierazgarri aipatu behar dira eta, Varelak dioenez (2005), hiru urrats edo fasetatik igaro gara: 1.0 kazetaritza, zein izan zen edukia medio tradizioaletatik sarera garraiatu zuena —hor erabiltzailea webgunean irakurtzera mugatzen da—; 2.0 kazetaritza, zeinek suposatu zuen edukia sortzea sarean eta sarerako, hipertestualitateaz, interaktibitateaz, multimediaz-eta baliaturik; eta 3.0 kazetaritza, elkarrizketa birtuala garatu zuena, hots, parte hartzaileek mezu berean partaide direna.

1.0 kazetaritza izan zen medio tradizioaletako edukiak sarera eramane zituena. 1.0 fasea Internet da, bere zentzu klasikoan, alegia, bata bestearekin loturiko ordenagailuen sare deszentralizatua. Kazetaritza 1.0ko adibidea izango litzateke, kasurako, egunkari bateko webgunera sartzea. Informazioa konputagailu baten gordeta egonik erabiltzaileek beste ekipo baten bidez informazio horren kopiara sarrera izatea, irakurri ahal izateko. Teknologia-birmoldaketa honetan ordezkatu egin ziren tipografiako sistema tradizionalak, konposizioko teknika berriak ezarriz. Ondoren, errotatiba zaharren ordezkariak *offset* prozedurak jarri ziren. Berriztaketa horiek kazetariari ez zioten aldaketarik ekarri eguneroko jardunean; bai, aldiz, egunkariko lantokian bertan. Ostera, erredakzio elektronikoak ezartzeak erabat moldarazi zuen profesionalen rola, zeren kazetariak albisteetako edukia betetzeaz gain, egunkaria fisikoki ere atondu behar baitzuen. Zeren, idazmakinen ordezkari ordenagailuez baliatzeak gehitu egiten baitzion profesionalari azken produktuaren gaineko erantzukizuna. Nolabait esateko, kazetaria autore ez eze tipografo ere bihurtzen da. Honetan, *Detroit News* izan zen lehen egunkaria 1972an, 72

ordenagailuko erredakzioa atondu zuena (Pérez-Soler, 2017: 2)¹⁰³. Berrikuntza hau Internet agertu aurreko urratsa izan zen. Berez, 1980ko hamarkadan, bideo-testuak, teletestuak, audio-testuak eta faxak jarri ziren indarrean, inprimategi aldetik erakar zezaketen irabaztea bilatzeko.

Edonola ere, 1985ean Internet jadanik indarrean jarritako teknologia izan zen, nahiz-eta gutxi batzuek baino ez ezagutu. Denboraren joanean, ziberespazio hitza Internet — sareen sarea— berbaren sinonimo izatera iritsi zen. Izan ere, Internet *INTER*connected *NET*works-en akronimoa da. 1996an, *world wide web* garatzeaz batera finkatu zen sarera konektatzea —egunkariak webgunea paperaren alternatibatzat hartu zutenean—, eta ondorioz Internet popularizatzea, ze kazetaririk gehienek bereganatua zuten sarearen erabilera, batez ere, zeregin bitarako: posta elektronikorako eta informazio bilaketetarako. Sistema honek berehala erdietsi zuen arrakasta. Halandaze, XXI. mendeko hastapenetan, sendotutzat eman behar da Internet.

Gertaera datagarriak gainbegiratzerakoan, aipagarria da *Yahoo* ere, 1994an jaioa; baita 1996an zerbitzuan sartzan den *Hotmail* posta elektronikoa ere; eta 1997an abian ipini zen wifia; hau da, gailu elektronikoen interkonexioa ahalbidetzen duen haririk gabeko teknologia. Baina denen gailurrean, 1998a jarri beharra dago, zeren data horretan sortzen baita *Google* Interneteko bilatzailea. Harrezkero, historialari askoren ustez, historia zati bitan bana daiteke, bata, *Google*-era artekoa, bestea, *Google*-en ostekoa. 2.0 hau da sarean eta sarerako edukia sorrarazi zuena, hipertestualitateaz, interaktibitateaz, multimediaz, eta abarren bidez. 2.0 webari buruz ari garenean, zerbitzuez ari gara, datuak elkarbanatzea zilegiztatzan duten zerbitzuez, baita elkar-eragitea erraztu dadin ere. Sare sozialak eta lankidetzarako plataformak dira Interneten eboluzioko oinarria. 2004an agertzen da terminoa, web orri-eredu berriak adierazteko erabiltzailearentzat askoz interaktiboagoak direnak. 2.0 web honen barruan aurkitzen dira sare sozialak eta blogak. Eta, artean iradoki dugunez, atal honetako lehen urteetan agertzen dira Interneteko giganteetarikoz batzuk: *Google* 1998an eta *Facebook* 2004an. Bestalde, multimediako informazioa ere gora doa, hala audioak nola irudiak edo bideoak.

1995etik hogeitigarterako, kazetaritzako enpresek onartu egin dituzte sare sozialak informazioaren banaketarako¹⁰⁴. Medio digitalek —makinek irakurri ahal izateko medio kodifikatuek— betiko kazetaritza, manera berri baten garatzeko moldera eraman dute. Boczkowsky-k (2004) erkatu egiten ditu gaur eguneko medioak eta tradizionalak, erakusteko asmoz, zein eboluzio handia ezagutu izan duten mediook epe hain laburrean. Boczkowsky-ren arabera, zer nahi duen kontsumitzaileak hura eskaintzeko aukera ematen du egungo egunkariak. Inprimaturiko egunkarien muga espazialak nahiz irrati-telebisten denbora-mugak desagertu egiten dira Interneten. Egunkari, irrati eta telebistak lekuan lekuko zirenak, aldi berean dira lekuan lekukoak eta globalak.

Horrela, egunkaria produktu multimedia bilakatu da. Lehen irudi eta testu finkoak eskaintzen zituen. Kazetaria ez da informazio iturri bakarra. Orain, kontsumitzaileak koproduzitzaile ere badira. Sareak, beraz, espazio sozialago baterantz eboluzionatu izan du, eta espazio horretan internauten lankidetzak eta kolaborazioa beharrezkoak dira. Une hartan 1.0 webak 2.0 webari eman zion txanda. Txanda horretakoa da, esate baterako, *Wikipedia*. Hor, enpresek beraien plataforma eskaintzen die internautei, eta uzten die edukia beraien artean sor dezaten lankidetzan. 2.0ko aldirian, informazioa elkarbanatu egiten da, eta erabiltzaileen arteko lankidetzak normaldu. Hortaz, egunkarietako erredakzioetan fenomeno honi ateak ireki beharrezkoak aurkitu ziren. Arrazoi horregatik, 2.0ko internautek edukia sortzeaz gain, bazeukaten posibilitatea jadanik existitzen zen informazioa aldatzeko nahiz birmoldatzeko. 2.0 aroan informazioa moldatzeko ahalmena —1.0koan, soilik, informatikoen esku zegoena— interaktiboa eta soziala da.

Komunikazioa deritzonari dagokion paradigma aldaketak —digitalizazioari esker gertatuak— zilegiztatu egiten du erabiltzaileek edukia sortzeaz gain elkarri trukitzea. Horregatik, gaur egun, ez gara mintzo masa-komunikabideez, baizik eta medio sozialez (*social media*). 2.0 weba diogunean, bestalde, ez dugu *world wide web* dela eta inolako eguneratze teknologikorik aipatzen. Egiten duguna da, Adobe Flash bezalako oinarritzko zenbait funtzionalitate kontuan hartu, zeren beharrezko baitira hark funtziona dezan. Azken finean, 2.0 aplikazioek indartu egiten dute interakzioa, informazioa partekatzea, eta lankidetzak.

¹⁰⁴ Sarean irakurri ahal izan zen lehen egunkaria *The Chicago Tribune* izan zen, 1992an. Espainiko estatuan, Kataluniako *Avui* egunkaria gertatu zen aurrelari.

2.0 webak izentzen dituenak oinarri teknologikoa eta ideologikoa dira, eta *UGC*-k, *User-Generated Content*-ek izentzen ditu pertsonak era guztietara erabiltzen dituzten medio sozialak.

User-generated content (UGC), alternatively known as user-created content (UCC), is any form of content, such as images, videos, text and audio, that have been posted by users on online platforms such as social media and wikis (Berthon, Pitt, Kietzmann, McCarthy, 2015: 43-62).

UGC honek —Erabiltzaileak Garaturiko Edukiak— ezartzen du galbahea media erakundeetan online edukiak sortzea errazteko amateurrek beraien edukiak argitara ditzaten. 2005ean hedatu zen kontzeptu hau erabiltzen da deskribatzeko publiko orokorrarentzako direnak eta azken erabiltzaileak sorturiko askotariko eduki formak. Solas-komunikazioko edo noranzko biko izaera klabea dira 2.0 webean, hain zuzen ere, indartzen duenean, batetik, edukia bera, eta bestetik, beste pertsona batzuen edukia.

Bestalde, medio sozialen tipologiari begiratuz gero, batetik blogak dira norbanakoaren presentziarik handiena dutenak; lankidetzaproiektuetan *Wikipedia* dugu ezagun.

3.0 kazetaritza da elkarrizketa birtuala gauzatu zuena. Elkarrizketa birtual horretako “parte hartzaileek mezuan bertan dira partaide” (Varela, 2005: 2). 3.0 webaren definizio bakarra ez izatearen arrazoia da pertsona asko ari dela etorkizuneko Interneten gaineko ikuspegi pertsonalari buruz lanean, eta bakoitzak aldaketa eta hobekuntza desberdinak espero dituela sarean nabigatzeaz. 3.0 webak eraitsi nahi duen oztopoetariko bat da giza-operadoreen premia Interneteko edukia ebaluatu eta administratzeko. Helburu hau ez da berria, ezen zenbait konpainiak -zeinetan *Google* gailurrean ipini behar denurteak daramatza ikertzen eta garatzen adimen artifizialeko teknologiak, era horretara nabigatzea jariakorragoa eta aberasgarriagoa suerta dadin.

3.0 kazetaritza honen barruan kazetaritza parte hartzailea edo kazetaritza hiritarra kontzeptua hartu behar dugu aintzat. Izendatze hau darabiltenek honela definitzen dute “hiritarrek duten rol aktiboa albisteen produkzioan eta zabalkundean” (Bowan eta Willis, 2005; Varela, 2005; Cerezo eta Zafra, 2003; McLeary, 2007). Varelak (2005), bere aldetik, 3.0 kazetaritza deitzen du, eta honela azaldu du: “kazetaritza-informazioaren sozializazioa eta kazetaritza digitaleko ziberkazetaritzako hirugarren bertsioa”. 3.0ko kazetaritza honetan —Varelak berak aipatzen duenez—, badira hiru gune nagusi: bata, botere aldaketa medioetatik entzuleengana doana; bigarrena,

kazetarien jabetza edo erabateko kontrola galtzea, eta hirugarrenik, horrek guztiorrek dakarkion erronka kazetari-objektibotasunari. Askotariko analistek egiten diote erreferentzia 3.0 kazetaritzari eragile sozial eta politiko den aldetik (Varela, 2005, Martínez Mahugo, 2006).

Kontua da, albisteak azkar eta berehalako bilakatu direla, eduki eta albiste lasterrei erantzun ahal izateko. Bat-batekotasuna balio-giltza legez ikusten da kazetaritzakulturaren, eta sare sozialen etorreraz edukia tximista-abiaduraz sortzen da. Ondorioa da, behin eta berriz aipatzen denez, sormen-prozesua azkartu beharra, eta horren eraginez kalitatearen jaistea. Hori dela-eta, bestalde, *slow journalism*eko aukera praktikoa gorako bidea hartzen ari da. Pérez-Solerrek (2017: 36) dioskunez, orain 15 urte inor ez zen telefono inteligentearen jabe, eta orain hamarkada bat, sare sozialak ez ziren gure bizitzako epizentro. Beraz, inor ez zen iristen albisteetara *Facebook*en bidez. Gaur egun, ordea, sare sozialak badira informaziorako sarbide. Medioek galdu egin dute albisteak banatzerakoan zuten hegemonia. Kontua da, aise ohartzen garenez, informazioa jasotzeko modua erabat aldatu dela azken bi hamarkadetan.

Dena dela, aipatzen dugunean *Facebook*en bidez albisteetara iristen garela, aintzat hartu behar dugu nola, jadanik, 2018an, *Facebook* atzera gelditu zen, nola itzalia zen, eta nola hemen dena *Instagram* zen, nahiz-eta jakin *Instagram*en jabea *Facebook* zela. Edozelan ere, *Instagram* da orain ere gehien hasten den sare soziala; gazteriarik gehiena bereganatzen duena. Iker Merodiok (2018) aipatu duen bezala: “sare sozialez aldatzen ari gara, eta aldatze hori izan liteke planetaz aldatzea bezalakoa”¹⁰⁵.

Medioek orain arte zeukaten hegemonia galdu ondoren, adieraz genezake, behin honezkero, medioak ez direla albisteen jabe. Arlo publikoa Silicon Valley-ko enpresa kopuru txiki batek kudeatuta dago. Ia edukin guztia plataforma sozialetan publikatzen da. Medio tradizionalak —gaitasuna baduten arren—, edukien gaineko kontrol neurtua dute. Beraz, kazetaritzak menpekoegi aurkitzen du bere burua teknologiaren aurrean.

Hala eta guztiz ere —estatistikak zorrotz mintzatzen baitira— *Berria* (2019) egunkariak dakarrenez, telebista da oraindik albisteen berri izateko hedabiderik gogokoena. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, herritarren %64k egunero ikusten dituzte telebistako

¹⁰⁵ Iker Merodio: Bag@ando por la red. *Deia* egunkaria, 2018ko azaroaren 25a, domeka. [//blogs.deia.eus/bogandoporlared/2018/11/25/quien-quiere-ser-influencer/](http://blogs.deia.eus/bogandoporlared/2018/11/25/quien-quiere-ser-influencer/)

albisteak”. Hori hola delarik ere, 18-29 urte artekoen artean %58k aukeratzen dute Internet (*Berría*, 2019)¹⁰⁶.

Bide berberetik dator Merodiok (2018)¹⁰⁷ idatzi duena, aipatzen duenean, informazio iturririk kontsultatuenak ez direla egunkariak, zeren sare sozialek gainditu egin baitituzte:

Según un informe de hábitos de consumo mediáticos en 2019, en EE.UU., por primera vez, las redes sociales superan a los periódicos como fuente de información. Los estadounidenses se informan sobre todo por la televisión, después (y a gran distancia) por los medios digitales, tras ellos aparecen la radio, las redes sociales y, finalmente, los periódicos.

Berez, *slow mediaren* jatorria XXIgarren medearen lehen hamarkadan kokatzen du Rauchek (2011: 9) eta argitzen duenez, diskurtso horien maiztasuna areagotu egin zen 2009an, hedabide geldoek kazetaritza-irudimena bereganatu eta agenda publikoan sartu zirenean.

Several people writing autonomously for newspapers, newsletters, Facebook, books and blogs proposed the concepts of Slow Media during the first decade of the 21st century. The frequency of such discourses escalated in 2009, when Slow Media captured the journalistic imagination and entered the public agenda.

Hala ere, Internet multimedia den arren, bertan leku harrigarria dagokio testu idatziari, ze, irudiek eta soinuek ere testua behar dute erabiltzaileek identifika eta erlaziona ditzaten. Hori horrela, zenbait txokotan sareak bira narratibora jo du. Espazio honen berezitasunetako bat testu iraunkor bati berehalakotasuna ematea da, idatzizko eta ahozko kulturak nahasteko modua, hots, —Walter Ongek ‘bigarren mailako ahozkototasuna’ deitzen duena— (Greenberg, 2011: 156).

2.3.4 Herritarren kazetaritza edo kazetaritza parte-hartzailea

Ikertzailearen funtzioarekin batera, funtzio mobilizatzaileak ere merezi du bere lekua kontzeptualizazio honetan, Estatu Batuetako kazetaritza hiritarrarekin oso lotua baitago (Weaver et al., 2007: 174). XXI. mendearen ezaugarri nagusiak faktore teknologikoa eta

¹⁰⁶ *Berría* egunkaria, 2019ko urtarrilaren 18a.

¹⁰⁷ Iker Merodio, *Deia*, 2018ko abenduaren 17a. //blogs.deia.eus/bogandoporlared/

aldaketa sozial berriak dira; komunikazioaren mundua jada ez da lehen zena, sareko gizarte batean bizi gara. Historikoki, teknologia berrien agerpenak alerta egoeran jarri izan du kazetaritza, eta berrikusteko eta portaerak aldatzeko beharra planteatu izan du, baita kazetariaren zeregina bera ere. Azken finean, gizarte osoari eragiten dionez, are indar handiagoa du industria mediatikoan, baita albisteen eraikuntzan ere. Komunikabideak aldatu egin dira, bai kualitatiboki bai kuantitatiboki, Lasswellen eredu edo paradigma ezaguna zalantzan jarriz.

Herritarrek zeregin aktiboa hartu dute gizarte-komunikazioan, eta, horrela, indarrez sortu da herritarren kazetaritza, 'Publikoa', 'Parte-hartzailea', 'Zibikoa', 'Demokratikoa' edo 'kalekoa' ere deitua. Herritarren kazetaritza honela definitzen da: interes publikoko informazioa prozesatzen parte hartzen duten gizarte-eragileen parte-hartze aktiboa ahalbidetzen duena (Meso, 2005: 7). Gero eta garrantzitsuagoa da herritarrek sortutako informazioa eta Internet bidezko banaketa globala. Badira fenomeno horretaz hitz egiten dutenak: 'Bosgarren boterea', kazetariak, hedabide handiak, enpresak, politikariak, erakundeak zaintzen dituen eta irizpide soziala sortzen duena.

Definizioz, kazetaritza hiritarra esaten zaio edozein hiritarrek daukan posibilitateari eragile izateko albisteak sortzean eta hedatzean nahiz agenda eraikitzean (Bowman eta Willis, 2005; Varela, 2005; Cerezo eta Zafra, 2003). Esan bezala, Varelak (2005) 3.0 kazetaritza deitzen du, eta azaltzen du hori dela “kazetaritzako informazioaren sozializazioa”, kazetaritza digitaleko edo ziberkazetaritzaren hirugarren bertsioa”. Beraz, XXI. mendean, lehenengo 2.0 kazetaritza dugu, eta ondoren 3.0. Azken hau blog fenomenoaren bidez forma hartuz doa, eta gero eta sendotasun handiagoa irabaziz sare sozialetan. Berez, *free software* du jatorria —edukia sortzeko tresnerian—, zeinetan oinarria duen kazetaritza hiritarrak. Tresneria digital hauen demokratizazioari esker, *software* askearen bitartezko teknologia merketzeari esker, erraztu egin da herritarrek beraien edukia sortzea, eta elkarren artean informatzea. Hori horrela, megaenpresa mediatikoen finantzatze beharrianik gabe iraun dezake kazetaritza hiritarrak.

Teorian, nahitaez aipatu behar dira Negropontek (1995) eta Dan Gillmorek (2006) gaian aitzindari gisa egindako definizioak edo planteamenduak. Kazetaritza mota hau 'esplorazio garai sinestezina’ bezala deskribatzen du Gillmorek (2006: 18) eta, honakoa gehitzen du: "Nire irakurleek nik baino gehiago baldin badakite, kazetaritza hobe egiteko prozesuan sar ditzaket".

Pierre Bourdieu-k (1972) idatzia da “J'ai bien voulu dire que l'opinion publique n'existe pas”¹⁰⁸. Aspaldiko baieztapen honek gordinegi dirudi lehen begiradan. Hala ere, inguratzen gaituen mundura begiratzen badugu, aise ohartuko gara Jesús González Pazos-i (2019) jarraituz, nola oraintsura arte, lau komunikazio-talde aritu diren, ia erabat kontrolatzen izan dutenak transmititzen den informazioa, entretenigarriak, eta komunikazioa. Lau taldeok komunikazioko benetako holdingak direla dio: *Time Warner Inc.*, *Walt Disney*, *Viacom/CBS*, eta *News Corporation* —oraintsuago, *21st Century Fox* eta *News Corp.*—. Taldeokatik dio, kontrolatzen dutela planetako komunikazioaren arloko negozioaren %70a. Gainera, ez dute erabakitzen soilik zer ikusi behar dugun edo zein den albiste interesgarria, baizik eta zer pentsatu behar dugun, zer iritzi eman behar dugun, eta zer sentipen izan behar dugun iradokitzen ere iristen dira. Beraz, jabetza eraiki eta zentralizatzek diskurtsoa homogeneizatzea dakar, eta, era berean, gizarte-talde batzuk besteen gainean duten nagusitasuna sendotzea, ekonomia, politika eta kultura-botere-harremanak sendotuz (González, 2019). Ondorioz, kontzentrazio oligopoliko honek dakarrena da elite ekonomikoek hiritarrak kontrolatzea.

Kazetarien nazioarteko Federazioak¹⁰⁹ (FIP) kontzentrazio mediatiko horren arriskuez ohartarazi gaitu:

La concentración de la propiedad de los medios de comunicación es una amenaza a la libertad de medios, porque da un poder de control excesivo a particulares, corporaciones, gobiernos o autoridades políticas. A pesar de la creciente proliferación de plataformas online y redes sociales, el poder y la influencia sobre la información sigue en manos de unos pocos. La FIP defiende el pluralismo en los medios, lucha para limitar su propiedad y defiende los valores de servicio público en todos los tipos de medios.

Hau da, komunikabideen jabetza kontzentratzea hedabideen askatasunaren aurkako mehatxua da. Azken batean, online plataformak eta sare sozialak gero eta gehiago diren arren, gutxi batzuen esku dago oraindik informazioaren gaineko boterea eta eragina. Hari beretik, UNESCOk berak medioen kontzentrazioa dela-eta hauxe dio:

¹⁰⁸ 1972an aurkeztutako ideiak dira: Exposé fait à *Noroit* (Arras) en janvier 1972 et paru dans *Les temps modernes*, 318, janvier 1973, pp. 1292-1309. Repris in *Questions de sociologie*, Paris, Les Éditions de Minuit, 1984, pp. 222-235. Lan osoa dago kontsultagai hurrengo helbide elektroniko honetan: <http://www.homme-moderne.org/societe/socio/bourdieu/questions/opinionpub.html>

¹⁰⁹ FIPek pluralismoa defendatzen du hedabideetan, bere jabetza mugatzeko borrokatzen du eta zerbitzu publikoaren balioak defendatzen ditu hedabide mota guztietan: www.ifj.org/es/que/libertad-de-prensa/concentracion-de-medios.html

Hace peligrar la capacidad que posee el sistema de medios para reflejar todo el arco de ideas, perspectivas y opiniones que existen en la sociedad, y para representar a todos los grupos políticos, culturales y sociales (Mendel, García, Gómez, 2017: 11).

Lau taldeok —*Walt Disney* eta gainerakoak—, azken batean, eragile ekonomiko eta finantzario izateaz gain, agente ideologikoak ere badira aldi digitalean. Era berean, lau taldeontzat helburuen artean sartzen da kontsumismoa, indibidualismoa (Moraes et al., 2013: 25); baita gizartean iritzia sorraraztea ere, gogoan hartuz Bourdieu-ren esana, alegia, iritzi publikorik ez dela existitzen, medioen oihartzuna dela. Herritarren artean telebistak duen eragina norainokoa den ohar gaitezen, Salvador Gómezen (2020: 12) aipamenera joko dugu:

Cuando un programa de televisión generalista obtiene un gran éxito continuado en el tiempo, llega a influir en el comportamiento general de la población, puede influir de manera notable incluso en la percepción de la realidad, hasta el punto de contribuir a cambiarla u ocultarla la que hasta entonces se tenía. (...) al modelar parcialmente la opinión pública.

Botere-egoera horren aurrean, herritarrak hainbat gai sozial, kultural, politiko, ekonomiko edo lokalen inguruan duten ikuspegia azaltzen hasi dira. Informazioari buruzko erantzukizuna eta boterea beraien gain hartzean, kazetari hiritarrek zalantzan jartzen dute informazioaren zentralizazioa, eta albiste sortzaile eta zabaltzaile bihurtzen dira. Honela mintzatzen da Varela:

Ante esta situación de poder la ciudadanía comienza a exponer su visión de diversos asuntos sociales, culturales, políticos, económicos o locales. Al asumir la responsabilidad y el poder sobre la información, los periodistas ciudadanos cuestionan la centralización de la información, y crean y difunden sus propias noticias (Varela, 2005).

*OhMyNews*¹¹⁰ argitalpen korearraren¹¹¹ esperientzaitik abiatuta, zeinek herritar guztiak kazetariak direla uste duen, *Qué* aipatu behar da, bere irakurleek egindako lehen egunkari espainiarra eta baita *Bottup.com*¹¹² web orria ere. Dan Gillmor-en arabera (2006), irailaren 11aren ostean, gizarte estatubatuarra blogen garrantziaz jabetu zen, eta herritarren kazetaritza berehala zabaldu zen Latinoamerikara eta Europara.

¹¹⁰ OhMyNews.com

¹¹¹ Seulen jaio zen 2000. urtean

¹¹² Atari honetan dago kontsultagai informazio osoa: paullop.es/proyectos/bottup-periodismo-abierto

Sare sozialez gain, foroak, txatak eta posta-zerrendak edo weblogak aurkitzen ditugu (Meso, 2004), gizarte-komunikazioan hainbeste eragin dutenak, milaka herri-hedabide eta mota guztietako gizarte-erakunde, ikuspegi hegemonikotik ihesi komunikazio alternatibo bat eraikitzen dutenak: auzokoak, feministak, indigenak, ekologistak edo nekazariak (González, 2019: 103).

Euskal Herriko jokabideetara bagatoz, kazetaritza parte-hartzaileko adibide ugari¹¹³ aurkituko dugu. Izatez, tokiko komunikabideak dira, tradizio luzea dutenak, hedabide komunitario, alternatibo edo eta oinarri sozial zabalekoak. Tankera horretako komunikazio-esperientzien jokamoldeak arakatzeko, Txema Ramírez de la Piscinaren (2019) hitzetan oinarritu gara, ‘*Berría* egunkaria, herri-aldizkariak, postmodernitateko historian eta istorioetan’ atala osatzeko. Esan bezala, bertatik jaso dugun aipuak hauxe dio:

Globalizazioak printzipio eztabaida ezina dirudien honetan, Nieman Lab-ek¹¹⁴ bere web-orrian ikerketa interesgarri baten berri ematen du 2019an. Aipatu web-orrian egindako iruzkinean tituluak honela zioen: “Polarizazio politikoa murriztu nahi duzu? Babestu zure kazeta lokala.

Bertan, herri-aldizkarietako pentsaera eta istorioetako aniztasuna azpimarratzen dira. Beraz, zentzu horretan, Nieman Lab-ek bere webgunean idazten zituen hitzek indarrean jarraitzen dutela dirudi.

Atal honetako teoriatik eguneroko praktikara etorririk, erraz konturatzen gara zein den errealitatea. Batetik, sortu egiten dira medioa kontrolatzen duenaren aldeko egiak; bestetik, jendarteratzen diren albisteak testuingurua argitu gabe argitaratzen dira, hartzaillea zergatiak ezagutzeko erarik gabe lagata. Gainera, mezuaren forma bera ere, tankerarik soilenean plazaratzen da, den-dena dikotomiarik sinpleenera murriztuz. Horrela, zuria edo beltza, ona edo txarra aukeratzera behartzen da hartzaillea, inongo ñabarduratarako aukerarik eman gabe.

Berez, XVIII. mende amaieraz gero, masa-komunikabideak “laugarren botere” kalifikatiboa hartu izan dute. Botere horrek gaur egun nonahi eta noiznahi edukitzen du gizakia informaturik; entretenigarriak ere eskaintzen ditu; pertsonak eguneroko

¹¹³ *Berría*, *Gara*, *Goiena*, *zuzeu.com*, *EITB*ren bloga (Azken hau ez da ez komunitarioa ez eta alternatiboa ere. Hala ere, interesgarria da azken 36 urteetan euskararen erabileraren normalizazioari egindako ekarpenagatik).

¹¹⁴ www.niemanlab.org/2019/02/want-to-reduce-political-polarization-save-your-local-newspaper/

errutinatik askatzen ere laguntzen du. Denarekin ere, ordea, laugarren botere hori beste hiru botereak kontrolatzeko sortua —exekutiboa, legegilea eta judiziala—, besterik eta bestela ari da, zeren sistema hegemonikoko elite politiko-ekonomikoen alde jokatzeko ari baita.

Behin hona iritsi garenez gero, ezinbestekoa da megaenpresa hauei komunikazioan eskaintzen zaien alternatiba aipatzea. Alternatiba horretan sartzen dira mundu zabaleko hamaika erakunde sozial eta medio herritar, etengabe lanean ari direnak, hala ekologistak, feministak nahiz herri indigenak eta sare sozialen bidez, herri-irratien bitartez edo bideo sozialetan edo egunkarietan. Elkarte eta erakunde hauetan, medio boteretsuen begirada hegemoniko eta homogenizatzailearen antipodetan, ikuspegi heterogeneo, despatriarkalizatzaileak, demokratizatzaileak indartzen dira, gizateriarenganako beste era bateko bizi-moldeak sortuz. Adierazgarria da zentzu honetan Ginebran egindako 2003ko “Gizarte zibilaren adierazpena Informazioaren Gizarteari buruzko Munduko Gailurrean jasotakoa”¹¹⁵. “Giza beharrei erantzun dieten informazio-gizarteak eraikitzea” izenburupean egin zen Gailurreko debate honetan jasotzen da mamia. Gizarte zibilaren dokumentuan giza-eskubideen osotasuna berresten da, eta informazioaren gizarterako eskubide espezifikoaren garrantzi berezia zehazten da, eskubide horiek benetan gauzatzeko deituz:

Mientras la declaración de la Cumbre se refiere a los derechos humanos simplemente citando la Declaración Universal, el documento de la sociedad civil va más allá, reafirmando la integralidad plena de los derechos humanos, detallando la particular relevancia de derechos específicos para la sociedad de la información, y llamando para su ejecución efectiva (...) Nuestra declaración subraya que la diversidad lingüística y cultural, libertad de prensa y el dominio público del conocimiento global son esenciales para las sociedades de la información así como la biodiversidad lo es para nuestro medio ambiente. Pedimos se legisle para evitar la excesiva concentración de los medios de comunicación y subrayamos la importancia de promover tanto medios de comunicación de servicio público como medios de comunicación comunitarios (...). (Presentación para el Debate General en la Cumbre Mundial de la Sociedad de la Información, realizada por Sally Burch (ALAI) el 11 de diciembre de 2003). (ALAI, 2003)¹¹⁶

¹¹⁵ Dokumentuak atari honetan kontsulta daitezke: www.itu.int/net/wsis/index-es.html

¹¹⁶ “Declaración de la sociedad civil en la Cumbre Mundial sobre la Sociedad de la Información”, in “Construir sociedades de la información que atiendan a las necesidades humanas”. ALAI-Agencia Latinoamericana de Información, 11/12/2003, www.alainet.org/es/active/5145. Goi-bileraren adierazpena giza eskubideei buruz mintzatzen da, soili-soilik Adierazpen Unibertsala aipatuz. Gizarte zibilaren

Esparru horretan, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (Unescok) deskribatuta dauzka kazetari herritarrak. Erakundearen arabera, bere homologo profesionalek bezala, kazetari herritarrek sinesgarritasun, zehaztasun, iturri, ikerketa, informazio eta aukera kontuekin lotutako printzipioak eta kazetaritza-arauak erabiltzen dituzte (Sánchez eta Espiritusanto, 2014).

Beraz, informazio eskasiaren arotik saturazioa gailentzen den arora igaro gara, informazioaren banaketan oinarritutako sistema batetik informazio horretara dugun sarrerak definitutako sistemara igaro gara: “Hemos pasado de un sistema basado en la distribución de la información a otro definido por el acceso a ésta” (Pérez-Soler, 2017: 80).

2.3.5 Komunikazioaren jarioak, urrats mailakatuak

Urrats bitako komunikazio-ereduak hauxe dio: herritar askok euren iritzia iritzi-liderren eraginpean jasotzen dute. Hau da, medioen mezua ez da modu zuzenean heltzen hiritarrik gehienengana, baizik-eta, gai eta une horretan erreferente diren norbanakoen bitartez. Ideia horren jatorrirako 1955era jo behar dugu. Orduan, Lazarsfeld-ek Elihu Katz-ekin batera argitaratu zuen *Personal Influence: The part played by people in the flow of man communications*. Ikerlan honen aurkikuntzarik garrantzitsuenak da talde primarioa dela iritzi publikoaren garapenean espazio erabakigarria. Medioek ez dute eragin zuzena publikoan; eragina talde primario bakoitzeko iritzi-leaderren bitartez jasotzen du. Gero, talde bakoitzean bigarren bitartekaritza edo eragin-prozesua ematen da, iritzi-sortzaileengandik gainerako taldekideengana doana. Talde bakoitzak iritzi-leaderra dauka gai bakoitzerako, dela politikarako edo dela ekonomiarako. Aldi horretan dute jatorria lehen *influencer*-ak.

Gaur egun, Interneteko sare sozialen garapenez, *two-step flow*-ko teoriak eta *Key Opinion Formers*-ek (*KOF*), ospea hartu dute. Horren arrazoia *Google*, *Twitter* eta *Facebook* plazaratzean bilatu behar dugu, banaketa-kanal diren heinean. Horregatik

dokumentua, berriz, harago doa, giza-eskubideen osotasuna berretsiz; informazioaren gizarterako eskubide espezifikoaren garrantzi berezia zehaztuz, eta eskubide horiek benetan gauzatzeko deituz. Gure adierazpenak azpimarratzen du hizkuntza eta kultura aniztasuna, prentsa askatasuna eta ezagutza globalaren domeinu publikoa funtsezkoak direla informazioaren gizarterako, eta biodibertsitatea, berriz, funtsezkoa gure ingurumenarentzat. Legeak egitea eskatzen dugu, komunikabideen gehiegizko kontzentrazioa saihesteko, eta zerbitzu publikoko komunikabideak zein komunikabide komunitarioak sustatzearen garrantzia azpimarratzen dugu (Sally Burchek 2003ko abenduaren 11n egindako Informazio Gizartearen Munduko Gailurraren Eztabaida Orokorretarako aurkezpena).

diote zenbait autorek, pentsatzen hasi beharko genukeela biko baino hiru urratseko prozesuan (Boczkowski eta Anderson, 2017).

Duela zenbait hamarraldi, herritarrek jasotzen zituzten albisteak hurbileko ezagunen bitartez, alegia, *mavens*-en bidez jasotzen zituztela dio Malcolm Gladwell-ek (2000)¹¹⁷. Orain, kate-begi bat gehiago ipini behar zaio jasotze horri, hau da, sare sozialetakoa. Sare sozialen bidez informaziora iristeko modu berri honek esan nahi du, edo erabiltzaileak ez duela zertan jardun informazio bila, zeren beste barik aurkitzen baitu sare sozialetan zehar nabigatzen diharduela, edo ezagun nahiz adiskideen mezu bidez hartzen dituela. Ez dezagun ahantz hirutarik batek baino ez diola jarraipena egiten *Facebook*-en komunikabide edo kazetari bati.

Arestian azaldu dugu teknologia berriak agertzean kazetaritza osoa erne jarri dela, berraztertze premian, jokamoldeak aldarazteko egoeran, baita kazetariaren rola bera ere. Finean eta buruan, gizarte osoarengan duenez eragina, are indar zuzenagoa du industria mediatikoaren gainean, eta albistegintzan bertan ere. Perpaua laburretan adieraziz, komunikabideen arloa buruz behera jarria izan da, hala kualitatiboki nola kuantitatiboki. Jadanik, informazioaren berehalakotasuna dela-eta, ohiko bihurtu dira aldaketak, bai informatze moduan, bai publizitateak eskaintzerakoan, baita orokorrean Interneteko eta gizarteko komunikazioetan, txatetan, posta mezuetan edo *spam* baztergarrietan.

Teknologiaren eta informazioaren eraginak, paradigma berrien sorrerek, kazetaritza klasikoa eta kazetaritza digitala erronka ugariaren aurrean jarri badituzte, aukera zabalak aurrean ere bai, zeren komunikatzeko beste modu batzuk planteatzen baitituzte, narrazio inklusiboagoak, formatu sortzaileagoak, batez ere, konpromiso sozial eta politiko handiagodunak. Kazetaritzaren funtzioak, inoiz baino sendoagoak izan behar du; kazetaritzak funtzio soziala betetzen jarraitu behar du, herritarrei beharrezko tresnak emanaz inguratzen gaituen mundua interpretatzeko, beti ere, iturriak, egiaztapena eta

¹¹⁷ Kazetari, idazle eta soziologo kanadarrak konektoreak era honetara deskribatzen ditu: Arrazoiren batengatik pertsona asko ezagutzen dituzten pertsonak dira. Lagun berriak egiteko erraztasuna dute eta beren ezagunen artean lotura berriak sortzen gozatzen dute. Konektore bat, funtsean, sare informatikoko kontzentratzaile baten baliokide soziala da. Oro har, jendea ezagutzen dute hainbat zirkulu sozial, kultural, profesional eta ekonomikoren bidez. "Munduarekin batzen gaituzten pertsonak dira [...] mundua batzeko dohain berezia duten pertsonak". "Lagunak eta ezagunak egiteko benetako dohaina [...] duen pertsona taldea" da. Gladwellen ustez, lokailuen arrakasta soziala "mundu ezberdin asko hartzeko duten gaitasuna nortasunaren berezko zerbaiten, jakin-minaren, konfiantzaren, soziabilitatearen eta energiaren konbinazioaren ondorio da".

kontrastea printzipio ezinbestekotzat hartuz, eta ahantzi gabe, ikuspegi oinarritu eta zorrotza funtsezko dela. Denbora ondasun preziatua da eta aro digitalean *timing*-ak desberdinak dira. Internetekin irakurketaren sintesia gailentzen da eta erabiltzaileek berehala kontsumitu nahi dituzte datuak eta informazioak. Irudiaren eta bideoaren kultura irakurle gehiago erakartzeko, eta berriak testu luzeetara jo beharrik gabe testuinguruan kokatzeko estrategiak dira. Inkestek erakusten dutenez, bideoekin batera egiten diren albisteek testuak baino bisita-ratio handiagoa lortzen dute (Peñafiel, Goikoetxea, 2021: 183).

Omar Rincónek egiten duen hausnarketaren arabera, sareak ezin dira albiste izan. Suminduta egoteak ez du ezertarako balio; emozio engainagarria da, egin egiten dugula sentiarazten digu, baina benetako ekintzarik ez du sortzen; sortzen duena emozio hutsa da, eten gutxi, politikarik eza. Kazetaritzak testuingurua berreskuratu behar du, datuetara itzuli, sareak gelditu, herrialde gisa zer gertatzen ari zaigun aztertu. Rincón-ek kazetaritzaren sustraietara itzultzea proposatzen du, dioenean XXI. mendeko kazetaritzak balio behar duela pausatzeko eta bizi dugun informazio-abiadura ulertzen laguntzeko. Hau da, Kazetaritzak izan beharko luke albistea, eta ez sareak (Rincón, 2017: 4).

2.3.6 *Internet of Things*, gauzen Interneta

Interneten “ezer ez”etik “dena ere ez” aldarrikatzera igaro gara ezerezeko urteetan. Behin honezkero, badirudi Interneten sare barruan baino ezin gaitezkeela higitu. Kazetaria ere halaxe aurkitzen da sare barnetik sarekideentzako albistegintzan. Baina kazetari profesionalak badaki informazio teknifikatuenean ere, sortzaile izan gura badu, azaleko berrietatik ur sakonagoetako espazio libreetara —sarea iristen ez den guneetara— jo beharra duela, estandarizazioari artisautzaz erantzuna emateko, kopiari jatorrizko informazioaz erantzuteko.

Gauzen Internet —*Internet of Things* (IoT)— informazioa sortzen duten datuei buruzko kontzeptua da, sistemak eta erabiltzaileak konektatuz. *Cisco* Amerikako Estatu Batuetako enpresak gizarteratu du, Interneteko lotura pertsonekin baino objektuekin eginik. Horrela, lotu egiten ditu mundu errealeko objektuak lineako munduarekin,

mundu erreala mundu birtualarekin. Badirudi etorkizun horretan mundu errealaren eta mundu birtualaren arteko mugak ezabatuz joango direla.

Gauzen Internetak eragin zuzena du eta izango du bihar-etzi kazetaritzan, sentsore-kazetaritzaz baliatuz edo istorio baterako *leada* eskainiz. Gaurkoz oraindik informazioko teknologia pertsonak ordenagailuetan idatzitako datu idatzien menpe dago, geroan, ostera, ordenagailuek eurek dituzte datuak jasoko, beti ere, 2.0 planetan berehalakotasuna eta automatismoak nagusi direla. Horrenbestez, nekez ukatuko da gauzen Internetak aldatu egingo duela mundua, artean iraultza digitalak egin zuen bezala. Bestalde, orain arteko oztopoak geroan ere hor izango dira, dela pribatutasunaren galera, direla eragin handiko lege-hutsuneak edo segurtasunik eza, hain zuzen ere, *smartphon*-ak eskuan direla hamaika mila informazioz eta loturaz balia gaitzkeenean.

Gehiegizko informazioaren edo informazio zaparradaren aroan, non albisteak uneoro sortzen diren eta berauen berri atoan ematen den, eguneratzearen lasterketan, bada *slow* kazetaritza begi bistatik aldentzen ez duenik, astiro, sakonean landuz edukiak, artisautza lana eginez kazetaritzan. Generoek eta formatuek hibridazioa bizi eta jasan dute; medioek eta euskarriek teknologiaren konbergentzia baliatu dute. Testuinguru horreketan sortzen da kazetaritza narratiboa, edukiei analisisa eta sakontasuna eskaintzeko bere denbora propioa aldarrikatzen duen kazetaritza, hau da, berehalakotasunetik, laburtasunetik eta informazioen fragmentaziotik/zatikatzetik aldentzen den korrontea. Kalitateak eta sorkuntzak ezaugarritzen dute eta ez kantitateak eta albisten estandarizazioak.

2.3.7 Kazetariaren jokabidea gaurko gizartean

Onartu beharrean gara, aspaldiko gizartean ematen zen segurtasuna, tradizioaren eragina desagertu egin dela aro digitalean. Hartan urriagoa zen informazioan, aldiz, ez zuten pairatzen gure egunotako informazioaren konplexutasuna. Gaurko zibilizazioan erabat nekeza da errealtatearen ikuspegi koherenteaz jabetzea. Zentzu honetan, medioen parte hartzea ezinbestekoa da, orientabide zeregina bete dezaten, hain zuzen ere, gezurrezko ingurumariak eraginik bizi baikara. Horretan datza arnasa luzeko kazetariaren betebeharra, zeren, oinarrizkoa eta anekdotikoa bereizteko astia eta gaitasuna duten

bitartekariak behar baitira. Eta errealtatearen interpretazio honetan, kazetariak ezinbestekoak dira albisteei testuingurua, zentzua eta balioa emateko, eta eman ere, *slow journalismek* eskatzen duen sakontasunez, ez azalderiaz. Jakitun gaude, bestalde, nola abiadura informatiboak ez digun balio izan gertatzen denaren gainean ideia koherentearen jabe egin gaitezten. Dioguna ulertaraztea erraza da, ahanzten ez badugu, planeta erabat interkonektatua aritzen garela; ez dugula munduaren benetako kontrolik. Noam Chomsky-k (2016) idatzi duenez, “nahi dute [agintedunak] ez dezazuen hausnartu benetan gertatzen denari buruz”, hots, mundu digitalak bere-berea duen indibidualizazioak iritzien sakabanatzea ekarri duela.

Berez, ingurumen teknologikoa ez da zertan garrantzitsuagoa izan kazetaritzako arloan, zeren gainontzeko industrian ere eragin zuzena baitauka. Hala ere, kazetaritzari jartzen zaizkion eskakizun etiko nahiz deontologikoak hain zorrotzak izatean, erantzukizunak ere maila handikoak dira, hain zuzen ere, kazetaritzako lehengaia aktualitateaz gain, funtzio soziala betetzea baita, demokrazia sostengatzea. Azken finean, iritzi publikoa moldatzeko erantzukizuna bizkarreratzen zaio. Beraz, informazio egiazko eta kontrastatuaz baliatu beharrean da kazetaritza. Desinformatzeko arrisku horren aurrean albisteak egiaztatzeko plataformak sortu dira, erakunde nagusia *International Fact-Checking Network*¹¹⁸ (IFCN) da, 2015ean sortua. Zerbaitegatik idatzi du Innerarityk (2018: 27) *fact-checker* kazetariak sortu direla. “ (...) que hayan surgido últimamente un tipo de periodistas a los que se ha bautizado con el nombre de fact-checkers, los profesionales que se encargan de verificar las afirmaciones de los políticos. Zeren Micó-k (Pérez-Soler, 2017: 14) dioenez, aldaketak aldaketa —teknologikoak ere bai— kazetaritzan betiko esentziek irauten baitute, nahiz-eta, sare sozialen kasuan demokratizatzen duten bezainbat desorientatu ere egiten duten.

Teorian ez eze praktikan ere frogatu ahal izan dugunetik dakigu, Internetek handiagotu egin dituela kapitalismo digitaleko monopolioak. Bizi dugun sistema ekonomiko eta politikoa, mesede egiten die aberastasunen eta boterearen kontzentrazioari, herritarren gehiengoari onurarik ekarri gabe. Innerarityk (2018: 136) dioenez, kazetariak

¹¹⁸ *International Fact-Checking Network*-ek, besteak beste, *fact-checking*-aren garrantziaz eta erakundearen lan egiteko moduz dihardu: The code of principles of the International Fact-Checking Network at Poynter is a series of commitments organizations abide by to promote excellence in fact-checking. We believe nonpartisan and transparent fact-checking can be a powerful instrument of accountability journalism: ifcncodeofprinciples.poynter.org/

ezinbesteko du jakitun egotea kapitalismo berriaren eboluzioaz: “Forma parte de esa creciente virtualización del mundo que mucha gente no llega a entender”.

Bestalde, gizarte deskompensatuan bizi gara. Batetik, euforia teknozientifikoa dugularik, eta bestetik, balio zibikoen analfabetismoa edo berrikuntzarik eza. Balio zibikoak bertan behera lagatzearen aurrean, irakurketaren hariari heldu behar zaio berriz, Paulo Slachevsky eta Silvia Aguilera (2019: 28), adibidez, erabat ziur mintzo baitira paperezko irakurketaz, baieztatzean teknologiak ez duela hilko liburua esatean “liburuak komentatzeko topaguneak beharrezkoak dira, zeinetan irakurketa kolektiboa izango den”. Beraz, baliagarriak dira egungo logika indibidualista eta hedonistari aurre egiteko¹¹⁹. Alex Rayón-ek (*Deia*, 2019-12) ere, sare sozialak eta irakurketa aipatzerakoan idatzi du:

En sus primeros años, las redes sociales crecieron rápido y bien. (...). Pero según se va llenando algunos espacios de contenidos cuestionables, los que apreciamos el placer de la lectura y la experiencia de la concentración, creo que podríamos ir gradualmente volviendo a nuestros entornos originales¹²⁰.

Horrela berba egiteko —bere iritziez gain— eskura dituen datuak ere ezinbestekoak dira: 2018an AEBetan tapadun liburuak %6,9an hazi dira-eta. Ostera, liburu digitalak %3,6an jatsi dira.

Europari dagokionean, dena den, Interneten munduko 30 enpresa handien artean, hiru baizik ez dira AEBetakoak: *Zalando* alemaniarra, *Spotify* suediarra eta *Asos* britainiarra. Garrantzi handikoak dira, bestalde, *Nokia* finlandiarra eta *Ericson* suediarra, zeinek *Huawei* txinatarraren lehiakide nagusiak diren gauzen Internet deitutakoan. 5Gan gizarteko desberdintasunak, nartzisismoa eta kontrola direla-eta, ez da adostasunik kazetaritzaren funtzioaz eta zereginaz. Kontuak kontu, Casinik (2008: 121) dio, gure azterketa-eremutik, ezinbestekoa dela kazetariaren lanean —testuinguru sozial eta historiko jakin batean— pentsatzea.

Desde nuestro campo de estudio es indispensable pensar el trabajo del periodista -cualquiera sea el soporte- dentro de un contexto social e histórico, centrándonos en tópicos como la obligación y la responsabilidad de los medios hacia la sociedad, la relación entre la prensa y la teoría y la práctica democrática, y las

¹¹⁹ *Berria* egunkaria, 2019ko abenduaren 31, 28.or.

¹²⁰ Rayón, Alex. *Deia* egunkaria, 2019ko abendua.

ramificaciones sociales de las nuevas tecnologías y sus nuevas estructuras económicas.

2.3.8 Kazetari bikainak. Literatur kazetaritza

Lehenago aipatu dugunez, kazetaritza pausatua korrontekoek geldotu egiten dute medioen azelerazioa eta gaindosia, kontakizuna idazteko astia hartuz. Narratzen dituzten istorioetako subjektuak pertsona arruntak dira, arketipo mailara jasoak. Existentziako atazek, berriz, balio unibertsala dute; humanitatez blaiturik agertzen dira; hausnarketa luzearen emaitza dira. Paperezko argitalpenetan formatu luzeak bere-bereak ditu ikerketa-kazetaritza, murgiltzekoa, narratiboa eta litararioa.

Formatu luzeko kazetaritzaren oina etorkizuneko kazetarien hezkuntzan finkatzen da. Harvard-eko unibertsitateak badu 2001 ezkerreko kazetaritza narratiboko laborategia. Idazle eta kazetari ospedunek sinposiumak eta mintegiak antolatu ohi dituzte.

Badakigu literatur kazetaritzan —beste edozein kazetaritzatan legez— narrazioak errealitateaz mintzo direna, eta baieztatutako gertaerak zuzenak direla, zorrotz-zorrotz egiaztatuak. Idazketa literarioko tresneriaz baliatzeak ez du esan gura informazioa fikziozkoa denik, ezta errealitatea fikziozkoa denik ere. Tradizionalki genero honetako ereduak *The New Yorker* izan da.

Teknologia berriei eta aldizkariari esker, formatu luzea askotarikoa bilakatzen da, eta bere burua birsortu egiten du. Berehalako informaziotik urruntzean, eta erraz zabaltzean, lehentasunen artean kokatzen ditu testuaren kalitatea, gaia sakon aztertzea, eta irakurlea aintzat hartzea.

2.4 Kazetaritza Narratiboa

Kazetaritza pausatua berehalakotasunaren eta primiziaren joera nagusiarekiko erreakzioa da, eta informazio zorrotza, sortzailea eta kalitatezkoa ekoizteko eta kontsumitzeko behar den denborari buruz hausnartzera gonbidatzen gaituena.

2.4.1 Kazetaritza narratiboaren izaera eta ezaugarriak

Hasieratik beretik hartu beharko genuke aintzat non oinarritzen den *Slow Journalism*, alegia, zeri zaion atxikitzen, zeren definizioz, bederen, bi korrante indartsu baitaude gaur egun indarrean, *Fast Journalism* eta *Slow Journalism*. Kazetaritza pausatua berehalakotasunaren aurrean sortzen den mugimendua da, eta informazio zehatza, testuinguruduna eta kalitatezkoa ekoizteko eta, esan bezala, kontsumitzeko behar den denborari buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu. Hain zuzen ere, halaxe definitzen du Albaladek (2018: 22):

El periodismo lento es aquel que emerge como reacción a la tendencia dominante a la inmediatez y la primicia y que invita a repensar los tiempos necesarios para producir y consumir una información rigurosa, creativa y de calidad.

Sektore askok *fast* bizimoduaren alternatibak bilatzen zituen —*slow cities*-ek edo *slow working*-ek kasurako—, eta alternatibok izan dira dagokien denbora eskatzea, bat-batekotasunetik ihes egiteko. Beraz, aipatzen ari garen *slow journalism* hau 1986tik gizarteko beste sektore batzuetan funtzionatzen zuen *slow* mugimenduetariko bat baino ez da.

Not so fast: A manifesto for slow communication (Freeman, 2009) manifestuan geldotzeko beharrezana azpimarratzen da. Dioskunez, gure egunak mugatuak eta gure orduak preziatuak direnez, erabaki behar dugu zer egin nahi dugun, zer esan nahi dugun, zer eta nor axola zaigun, eta nola eman nahi diegun gure denbora gauza horiei, aldatzen ez diren eta aldatu ezin daitezkeen mugen barruan. Laburbilduz, astiroago joan behar dugu —*we need to slow down*— (*The Wall Street Journal*).

In the past two decades, we have witnessed one of the greatest breakdowns of the barrier between our work and personal lives since the notion of leisure time emerged in Victorian Britain as a result of the Industrial Age. (...) It has made it more difficult to read slowly and enjoy it, hastening the already declining rates of literacy. It has made it harder to listen and mean it, to be idle and not fidget¹²¹.

¹²¹ *Not so fast, A manifesto for slow communication* John Freeman-ek idatzia da. Hurrengo loturan jaso daiteke lan osoa: www.wsj.com/articles/SB10001424052970203550604574358643117407778

*The Slow Media Manifestok*¹²² (Blumtritt, David eta Köhler, 2010) denbora horiek erreklamatzeko, kontzeptua ez mantsoago edo geldoago bezala ulertuz, baizik eta lehengaiak ondo hautatzeko gai bezala, modu kontzentratuan prestatuz:

The concept “Slow”, as in “Slow Food” and not as in “Slow Down”, is a key for this. Like “Slow Food”, Slow Media are not about fast consumption but about choosing the ingredients mindfully and preparing them in a concentrated manner.

Testuinguru horretan, arnasa luzeko mugimendua edo *slow movement* zibilizazioen krisiaren denbora-dimentsioa kontuan hartzen duten eta ‘geure denborak ezartzeko eskubidearen’ inguruko proposamenak eraikitzen saiatzen diren ‘ikerketaprograma’ urrietako bat da (Barranquero, 2013: 429). Barranquerok gaineratzen du, planeta bizitzen ari den aldaketa sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalen konplexutasunak egungo eredu desarrollistaren kausak eta ondorioak sakon aztertzea eskatzen duela.

Dokumentu horiek zabaltzearekin batera, bertan jasotzen diren ideiak lantzen dituzten ikerketa arloak zabaltzen dira *slow* mugimenduaren inguruan: dieta informazionala aldarrikatzen dutenak (Whitworth, 2009; Brabazon, 2013) alfabetatze mediatikoa, desazelerazioa eta deskonexio digitala aipatzen dizkigute kontsumo orekatuagoarekin batera. Rosique-Cedillo eta Barranquero-Carreteroren (2015: 453) arabera, beste lan-ildo batek teknologien eta bitartekoen izaera material eta ekologikoa berriz aztertzea bultzatzen du, komunikazioaren azterketan nagusi izan diren ikuspegi teorikoen aurrean, haien izaera sinboliko eta immaterialean arreta handiagoa jarrita: erretorika, semiotika, fenomenologia, zibernetika edo eta soziologia (Craig, 1999). Hirugarren ikerketa ildoak kazetaritzaren kantitatea baino kalitatearen balioa handitzea eskatzen du, eta hausnarketa sakonaren aldeko apustua egiten du azalkeriaren aurka (Greenberg, 2012; Le-Masurier, 2015; Rauch, 2011).

Beraz, azken ildoari jarraikiz, arnasa luzeko kazetaritza deitzen diogu gertakarien testuinguruan eta protagonisten inguruabarretan sakontzen duen kazetaritza-narrazioari; hain zuzen ere, horretarako era guztietako generoak baliatzen dituen kazetaritzari. Kazetaritza horrek zirrara sortu nahi duen narrazioa eskaintzeko xedea du, argigarria izango dena, eta irakurlearen buruan istorio eta pertsonaia ahaztezinak txertatuko

¹²² <http://en.slow-media.net/manifesto>.

dituena. Ofizioa ulertzeko era narratiboagoa da, jakina, fikzioaren alorrean murgildu gabea.

Azken finean, *New Journalism* fenomenoaren bertsio post-industrial da (Goikoetxea, Murua eta Ramírez de la Piscina, 2019: 49). Praktika hau, labur esanik, gaur egun kazetaritza idatzian ia baztertutako generoak berreskuratu dituen praktika da, hala nola analisi sakona, kronika, saiakera, ikerketa-erreportajea edo arnasa luzeko elkarrizketa. Lehendik kazetaritza-generoen arteko mugak lausoak baziren, are eta gandutuagoak dira orain kazetaritza mota honetan. Hibridazioa da nagusi arnasa luzeko kazetaritzan eta *nola* eta *zergatik* dira kontaketa-ardatz-galderak. Megan Le Masurier-ek (2015) hiru hitzetan laburtu ditu kazetaritza mota honen nortasun agiriak: ona, garbia eta justua; hau da, kalitate onekoa, etikoki garbi erdietsia eta herritarrei begira justua (hartzaileari bizitza demokratikoan parte hartzeko tresnak helarazten saiatzen baita).

Beraz, kazetaritza narratibo digitala *slow media* mugimenduaren zati bat da. Terminoa bera 2009an agertu zen lehen aldiz. Gero Jennifer Rauch irakasleak jaso zuen, 2011an, artikulu akademiko batean. Ostean, Susan Greenberg-ek, 2012an argitaratutako lan kolektibo bati egindako ekarpenean, *slow mediatik slow journalism*-era egin zuen jauzi. Azken urteetan etiketa biak erabili dira eremu angloasoian (Goikoetxea, Ramírez de la Piscina, 2019); lehenengoa mugimendua bere osotasunean izendatzeko eta bigarrena praktika zehatzaren ezaugarriak zehazteko.

Roberto Herrscher-en aburuz (2012: 32), gakoetako bat informazio-iturriak pertsonaia bihurtu eta adierazpenak antzerki-eszena bilakatzea da; hots, kontakizun bat marraztu, eta protagonistek istorio bat kontatzea, beti ere fikzioaren muga zeharkatu gabe. Herrscherrek argitzen digu gaia, adieraziz, ‘nola’ den gakoa: “La base del periodismo narrativo, como la de cualquier narración, es el *cómo*” (2012: 51). Caparrósek gaineratzen du (2017: 57) edozein errelato idazteko ezinbestekoa dela, zer kontatuko dugun deskubritzea, ebaztea eta definitzea. Antzera mintzo da Ortíz (2012: 2) aipatzen duenean, lanbidearen salbazio-bide bat kazetariaren esentzia berreskuratzea izan daitekeela, istorioen kontalari gisa: “El periodista tiene cada vez menos tiempo de ahondar en las historias, de contrastar y contextualizar, algo de lo que no se debería prescindir”.

Kazetari narratibo ona definitzen duten bost alderdi ere jaso beharrekoak dira Herrscher-i jarraituz: ahotsa, *besteen* ikuspegia, ahotsek bizia hartzeko duten modua, xehetasun adierazgarriak eta istorioen eta ikuspegiaren hautaketa (Herrscher, 2012: 28).

Aipuak aipu, ordea, kazetaritza pausatua berezitasunak doitzea konplexua bezain korapilatsua da, zeren gaur arte plazaraturiko ikerlanek ez baitigute —lehen begiradan, amaieran bai— erantzun bateraturik eskaintzen kazetaritzako geldotasuna zertan datzan jakiteko. Dakiguna da, praktikaren tradizioa joan dela espekulazio akademikoaren aurretik. Dena den, zalantzak balantzan direlarik —beti saio eran garatuko dugun teorizazioari loturik— guk onartutzat emango dugu hurrengo baieztapena:

El término *slow journalism* es una etiqueta empleada en la era de Internet para referirse —por lo general— al periodismo narrativo/literario clásico que se publica, sobre todo, en la red o se sirve de ella” (Albalad, 2018: 33).

Beraz, onartu egiten dugu pausatutzat kalifika daitekeen kazetaritza orain mendeak ere bazela, ez, ordea, egungo mundu globalizatuan.

Slow erantzunak sareko kazetaritza narratiboaren aldeko apustua egiten ari diren gero eta plataforma gehiago sortu ditu. Horren adibide bereizgarriak dira —maila globalean— *The New York Times*, *New Yorker*, *Esquire*, *Rolling Stone* edo *Le Monde*. Aipaturikoez gain, ekarpen garrantzitsuak dira hurrengoek egindakoak: *Delayed Gratification* (2011garren urtetik *Slow Journalism Company*k editatzen duena), *Longform* plataforma (2010), *Aeon* pentsamendu aldizkaria (irabazi-asmorik gabeko aldizkari digitala, Paul eta Brigid Hainsek 2012an Londresen sortua) edo *Retro Report* (2013).

Iberoamerikako kazetaritzari dagokionez, Barranquero-Carretero eta Rosique-Cedillo (2014: 40) autoreek diote “formatu geldoko aldizkarien tradizio luzea” dagoela bertan. Batzuk aipatzearen, *El Cultural*, *ABCD de las Artes y las Letras* edo *Babelia* gailentzen dira. 2005etik aurrera sortuak dira *FronteraD*, *Libero*, *Periodismo Humano*, *La Marea* edo *Via52*. Hauek ere sakoneko erreportajeak, kronikak eta, oro har, formatu literarioak eta narratiboak darabiltzate. Esate baterako, *Jotdown*, *Contexto*, *5W*, *Yorokobu* eta *Panenka*-ren moduko esperientziek adierazten dutenez, Espainian narratiba berrientzako guneak eta merkatuak egon badaudela.

Hego Ameriketan ere gorakada nabarmena izan du Kazetaritza narratiboak (Palau-Sampio, Cuartero-Naranjo, 2018). *La silla vacía* (Kolonbia) hamar urte bete ditu boterearen atzean zer dagoen azaltzeko asmoarekin jardunez. *Arkadia* (Kolonbia) 2005ean sortu zen eta kulturaren esparruan erreferentziatzeko argitalpena da, nortasun eta erronka propioak dituen proiektu independentea. Mexikoko *Gatopardo* eta *Letras Libres* aldizkariak tradizioa eta berrikuntza hibridatzen dituen ereduari jarraitzen diete. *Anfibia* aldizkariak kalitatezko kazetaritza narratiboa lantzen du, eta abangoardia aurrerakoiaren erreferentzia da Argentinan, bereziki emakume gazteen artean eta unibertsitate giroetan.

2005ean *New New Journalism* (Boynton, 2005) izeneko agertu zen. Irakasle iparramerikarrak dioenez, *New Journalism* oinarri hartuta elkarrizketa nagusia kazetaritzaren eta literaturaren artekoa baldin bazen, *New New Journalism*-i elkarrizketa berri bat gehitzen zaio: kazetaritza literarioaren eta Gizarte Zientzien artekoa.

Guk tesian, “arin eta erraz usoak hegaz” atsotitza berehalako albisteetarako laga dugu; *Slow* mugimendua, berriz, geldoa edo pausatua indartzeko. Horrez gain, *Slow Journalism* pentsamoldeak informaziorako kausak eta iritzi kritikoa lantzen dituela erakutsiko dugu, irakurketa bide eta helburu delarik; beti ere, kazetaria izanik kontrolatzen dituen abiadura eta erritmoa, menpekotasunean erori gabe. Edonola ere, herritarra informatuta eduki ahal izatearen alde, *fast-slow* bikotearen oreka dela esango dugu kazetaritzarako jokabiderik desiragarriena.

Badakigu eduki teknologiko berriek aldaketak sorrarazten dituztena, bai informazioaren produkzioan, baita banaketan nahiz kontsumoan ere. Aldaketa horietan sartzen ditugu generoen eta formatu diskurtsiboen transformazioak, hala idazkera arloan, nola irudiarenean.

Gaur eguneko kazetariari medio digitalek *transliteracya* eskatzen diote, komunikaziorako trebetasun multzo berria, bai ulermenerako baita komunikatzeko ere¹²³. Trebetasunok -alfabetizazio tradizionalaz gain-, Internetez nabigatzeko ahala eskatzen diote, baita albisteen jatorria ebaluatzeko gaitasuna eta eduki digitalak sortzeko ere.

¹²³ Bobbi L. Newman: www.librarianbyday.net.

Bestalde, —euskararen unibertsoan murgilduak garelarik— badakigu edozein hizkuntza, hiztegiko ele bakoitzaz, mundu oso bat margotzeko gauza dela; gurea ere bai, ezen euskaraz bizi diren hiztunen unibertsoa bere txikitasunean irekia da, eta bertako kazetaria hartzailea bezainbat igorlea, sortzailea den heinean. Guk, dena den, mundu txiki bezain konplexu hau hitz errazez nahi dugu adierazi.

XXI. mendean, pentsaera askearen mezulari den kazetaria, gizarte pluralean bizi da, gizarte konplexuan, pluralismoa printzipioen artean duenean. Gainera, Internet agertzearekin, eta sare sozialekin, eta igorle diren iturri anonimoen konkurrentziarekin, komunikabideak behartuta sentitzen dira informazio berezitua, argitua, eta sarritan iritizkoa ematera. Zerbaitegatik iritzi emate hau kazetaritzako giltza-kontzeptu bihurtu da.

Gaurko kazetariak, badaki zibilizazio horri erantzun ahal izateko elkarrizketa beharko dela, paradigma holistikoan jokatu, gertaerak ikuspuntu anitzen arteko interakzioz aztertuz, zeren, holismoan sistema osoa ez baita portatzen atalen batuketa portatzen den bezala; osotasunean begiratzean, konplexutasuna, berezitasunak eta prozesuak ere ikusten baitira.

Konturatzen da paradigma ekologikoa doala indartuz, ez antropologikoa; baita berdintasunezko paradigma doala gora, eta paradigma patriarkalak arkaiko kutsua ematen diola kazetaritzari. Hori horrela, gizartea konplexua bada, dagokion paradigma ere pluralista izango da, ez eskusibista (Arregi, 2015: 23).

Euskal gizartearen jokaeretara hurbildurik, bestalde, “norbanakoa eta indibidualismoa barik, etxea, auzoa, eta komunitatea oinarriztat hartu dituen euskal senari jarraitzea” proposatzen du Josu Naberan idazleak (*Berria*, 2019)¹²⁴. Horretarako, hedabide hegemonikoen mezuari zuhur begiratzeko aholkatzen du.

Paradigma horren barruan onartzen dugu, kazetariari so, idatziaren mugak gainditu egiten dituela irakurleak:

Idazkia ez dela idatzian agortzen, irakurtzen dudanean, idatziaren mugak mugagabera eraman nazakeela, entzuten dudan doinuak edo ikusten dudan

¹²⁴ Josu Naberan. Iraultzaz, *Berria*, 2019-01-24.

formak doinuaz haratago, forma guztiez haratago, eraman nazakeen bezala. Alegia, testua itxia dagoela, irakurketa ez (Arregi, 2015: 23)¹²⁵

Gauza bera gertatzen da margoetan:

Muchos de los que se acercan a las pinturas de Isabel tienen en el rostro esa expresión de estar viendo algo más allá de la obra. Es esa luz que llama a la puerta para que abramos los ojos a esa otra dimensión de las cosas (Guerra eta Lasala, 2018).

Dakiguna da, *Slow Journalism* deituaren gainean “*speed is the disease of the digital age*”¹²⁶ (Norman, 2017) esaldiak sorturiko kazetaritzari erantzunez agertu dela, gehiegizko informazioaren ingurumarian, *infoxikazioaren* makalaldian. Online munduko abiadurak eragin duen testugintza laburra, lasterketakoa, eta ondorioz ez hain zainduari erantzunez doa aitzinera eduki pausatuen idazketa:

La brevedad e instantaneidad impuestas por la vigente transición digital han provocado cierto deterioro de la calidad de la información, según lo demuestran diferentes investigaciones (González Gorosarri, 2011; Ramírez de la Piscina et al., 2015; Gómez Mompart, 2009 eta 2013).

Mugimendu geldoak industria periodistikora iritsi aurretik —indar kultural legez 2009an— beste gizarte-sail batzuetan izan zuen eragina. *Slow movement* 1986an sortu zen *fast foodeko* jatetxeen hedapenaren aurka, eta harrezkerokoak dira: *slow cities*; *slow schooling*; *slow working* eta beste batzuk. Baina, *The Slow Media Manifestok* (Blumtritt, David eta Köhler, 2010) dioskunez, geldotzearen kontzeptua bere adiera zuzenean ulertuta, ez geldoago baizik eta lehengaiak ondo aukeratuta eta hauek era kontzentratuan prestatuta.

The concept “Slow”, as in “Slow Food” and not as in “Slow Down”, is a key for this. Like “Slow Food”, Slow Media are not about fast consumption but about choosing the ingredients mindfully and preparing them in a concentrated manner.

¹²⁵ Joxe Arregi. *Hemen* aldizkaria 47, 2015.

¹²⁶ “It’s important to note that the principles at stake in this form of reporting are not as simple as the fast-slow dichotomy might suggest. There’s more to the mechanics of digitalization, globalization, and speed than merely working faster, and there’s more to slow journalism than just slowing everything down again (...). Geoffrey Craig, of the Auckland University of Technology, points out that the metaphor of “acceleration” is an oversimplification of the sociopolitical trends we’re experiencing in our modern, global, digital world (...).” Norman, M.: What Is ‘Slow Journalism’? February 20, 2017. <https://www.nationalgeographic.org/projects/out-of-eden-walk/blogs/lab-talk/2017-02-what-slow-journalism/>

Badakigu *slow* mugimendutiko kazetaritzak —24/7, hogeita lau orduz, zazpi egunez asteen, informazio-zikloaren ondorengo ordenagailuak, tabletak, eta, batez ere, mugikor inteligenteak indarrean direlarik—, behingoan informatzeko ahalmenaren aurrean, zorroztasuna eta zehaztasuna hobesten dituela; berehalakotasuneko albistegintzari, analisiarekin, ikerketarekin, erantzuten diotela, kontakizun narratiboak eta *longform* istorioak sortuz (Greenberg, 2012; Le Masurier, 2015).

Honen harira, Llopek (2014: 5) adierazten du ez dela nahikoa istorio luzeak idaztea *longform* izateko, pieza luzeek beraien luzera irabazi egin behar baitute:

¿Pero basta con escribir un ‘tocho’ para subirnos a la ola del *longform*? ¿Basta con montar una web, decir que somos editores y pedir manuscritos a nuestra audiencia para montar un negocio en torno al periodismo longform? Como dice claramente Anna Hiatt en las conclusiones de su trabajo de investigación: “Las piezas largas han de ganarse su extensión”.

Kazetaritza pausatuko albistegileak astia hartzen du; gauzen kausak bilatzen ditu; sakona astindu eta arakatzen du; garrantzirik gabea zokoratzen; kontaktu gabea argi bezain garbi deskribatuz. Ordea, ez du gertakariaren berri soila ematen, baizik gertaeren zergatiak eta ondorioak argitara ekartzen ditu, eta beste gertaera batzuekin duten erlazioa azaltzen du.

Adierazitakoari jarraikiz, ez dezagun azaldu gabe laga, nola kazetaritza pausatua bere barnean daramatzen benetako arriskuak ere. Beste zenbaiten artean, aipamena merezi duena da: batetik, informazioa bera urri eskaintzea, eta bestetik, iritziak leku gehiegi hartzea.

Anthony Smith-ek (2010) baieztatzen du baldin irakurleek ordaintzea onartzen balute, kalitateko kazetaritza aurkituko lezaketela, enpresak sortzea ere lor lezaketela, eta irakurleengan eragina edukiko luketela. Ordea, amaieran bukatzen du adieraziz, inprimategirako papera gelditu egingo dela, baina autoekin nahiz bultziarekin erkatuez gero, testu inprimatuak zaldiairen tokia bereganatuko lukeela (Smith, 2010: 14).

Si los lectores aceptan pagar por su lectura, esperarán también encontrar material de alta calidad en las páginas de Internet de sus periódicos favoritos. Para ello, los periodistas tendrán que adquirir formación y quizá, mientras tanto, se pueda contratar de nuevo a los despedidos. Si la idea de cobrar a los ciberlectores tiene éxito, quizá los periodistas, individualmente o en grupos, creen empresas de sus blogs. Las nuevas tecnologías evolucionarán de las especulaciones de los

directores a algo más sólido y funcional e influirán en los esquemas de toda la vida de los lectores. Hay grandes fortunas por ganar y por perder en el proceso. Al final, uno no puede evitar tener la sensación de que quedará papel para la imprenta, pero puede que éste sea tan especializado como el del caballo tras la llegada del tren y de los coches.

Arestian azaldu bezala, gaur egun pausatua deitzen dugun kazetaritzaren izaera aspaldikoa den arren, terminoa bera geure aldian doa gorputza hartuz. Le Masurier-ek (2016: 143) dioenez orientazio kritiko bezala ulertu behar da *slow* kazetaritza:

As I wrote, this journalism does not require a checklist of key characteristics to qualify as Slow. The term, like the Slow movement itself, is more a critical orientation to the effects of speed on the practice of journalism.

Diogunez, *Slow Journalism* orientabide kritiko legez sortzen da, hots, kazetaritzako praktikan abiadurak dakartzan ondorioen aurrean hartzen den jarrera kritiko moduan. Esan ohi dute albiste-agentzien eta prentsa-oharren bidezko berriek kalitate gutxiko informazioa gizarteratzen dutela, eta joera horren aurrean proposatzen dutena da — berehalakotasunetik ihes eginik— kalitate handiagoko kazetaritza indartzea, alegia, ikertzeko astia eta gai propioak sortzeko gaitasuna duena.

Geroak baieztatuko edo ezeztatuko badu ere, gaurkoz suposatutzat eman beharko dugu, batetik, istorioak nahiz gertaerak gero eta azkarrago kontatuko direla egunkarietan, eta, bestetik, arnasa luzeko kazetaritzaren esparrua handiagotuz joango dela, batez ere, bizi dugun mundu-giro konplexuari koherentziaz erantzun ahal izateko. Horrek behartu lezake kazetaria edo oinarrizko informazio etereora mugatzera edo kazetaritza pausatua kasuan sakonetik eta arretaz jokatzea.

Honaino iritsita, mereziko luke astiro-azkar antonimoen bikotea aintzat hartzea, zeren slow kontzeptua polisemikoagoa baita, bai digitalizazioari dagokionean, baita globalizazioari edo abiadurari dagokionean ere. Arrazoi horregatik, arnasa luzeko kazetaritza azkar-astiro kontzeptuen talkari erantzun beharrean aurkitzen da.

Abiadura beti izan da kazetaritzaren erdigunea (Rosique-Cedillo, Barranquero-Carretero, 2015: 452; Drok eta Hermans, 2016). Basora onddotan abiatu, lehenengo begiztatzen duenarentzat da alea. Ondoren datorrenak bigarren eskuko albistea jasotzen du. Lastertasuna azkar bezain kaxkar bilakatzen bada, jarrera kritikoa indarra hartuz joango da kazetaritza pausatua inguruan. Kazetaritza mota honetan, albisteez edozein unetan, eta edonon egon behar dutela eskura pentsatzen duen gazte-jendearen

aurrean —eta ez hain gazte—, bada beste multzo bat —beraietarik asko gazteak— zeinek gurago duen kazetaritzak eduki dezan ikerketa gehiago, eta izan dadin inklusiboagoa, kooperatiboagoa, eta konstruktiboagoa. Hala ere, azken hamarkadan indar teknologikoek eta merkataritzakoek sendotu egin dute abiaduraren eragina, Internet interaktiboaren etorreraz eta mugikorraren nonahikotasunaz. Gailu horiek, bestalde, epe finkoko albisteen ziklo tradizionaleko kazetaritza, eten bako albiste-produkzioa igaroarazi dute, eta, ondorioz, kazetariaren betiko sinesgarritasuna —hausnarketarako tartea berea zuena— azkartasunaren mesedetan sakrifikatu dute. Jakina denez informazioak munduan darabilen abiada izugarria da, baina egia da halaber, horrenbeste informazioren erdian zaila dela formazioa lortzea; baso horren barruan zaila dela zuhaitza ikustea (Kortazar, 2007: 37).

Internet agertzearekin, sare sozialengatik, eta igorle bihurtzen diren iturri anonimoen konkurrentzia dela-eta, komunikabideek behartuta sentitzen dira informazio berezitua, azaldua eta iritzizkoa ematera, ezen gertaera konplexu asko —egunerokoan azalez emanak— sakonean ere landu behar dira. Horregatik doa sendotuz kazetaritza pausatua, *slow journalism* deritzona. Azkenean, kazetaritza interpretatiboa albistetik harago doa eta testuingurua eskaintzearekin batera aktualitatea sakonago aztertzeke beta hartzen eta eskaintzen du (Parratt, Panigua, Abejón, 2017: 17):

El periodismo interpretativo va un paso más allá que la noticia. (De esta forma logrará que el lector/lectora) conozca la actualidad más a fondo y comprenda mejor muchos hechos complejos que las noticias no han abordado o lo han hecho más superficialmente.

Dakigunez, erredakzio-geletako presioak ere lasterketa girora behartzen ditu erreportajegileak. Ondorioz, oinarrizko datuetara, eta azaleko analisisietara mugaturik geratzen dira. Era horretako kazetaritzak nekez eman diezaioke erantzuna errealitateari, zeren kazetaria erredaktore ez ezik, bitartekari ere baita errealitate sozialaren eta publikoaren artean: “Publikoak jasotzen duena irudi partziala da; areago, errealitate eraikia, zeren medioek boterea baitute erabakitzeke zein gertaera sartzen den informazio-aktualitatean eta zein ez” (Parratt et al., 2017: 18).

Hala ere, albiste-emailea beti aurkituko da —teknologiak teknologia— espazio eta denboraren mugek mugatuta. Alabaina, mugaturik nahiz baldintzatuta dauden arren, komunikabideek ezin laga dezakete bete gabe dagokien oinarrizko funtzio soziala, hots, herritarrei zor zaien informatuta egoteko eskubidea asetzea.

Kazetaritza lasterraren beste akatsetariko bat sinpletasuna eta estereotipoa izan litezke, ezen, “informatuago egotea ez da hobeto informatuta egotea”¹²⁷ (Magallón, 2019: 21), dakigun moduan jakinik, *post-truth* aroan bizi garela. Termino hau Steve Tesich-ek sortu zuen 1992an. Harrezkero, post-egiaren aroan bizi gara, zeinetan gertaera konkretuek baino eragin handiagoa duten iritzi publikoa gorpuztean, emozioek eta sinesteek. Ondorioz, Amerikako Estatu Batuetan, kazetaritzako erakundeei buruzko sinesgarritasuna %30ekoa zen 2016an, *Digital News Report*-ek argitaratu zuenez (Magallón, 2019). Giro horretan ulertu behar dira *slow journalism*ek bereganatu dituen berezitasunak: sakontasuna, benetakotasuna, eta sinesgarritasuna. Xede hori gauza dadin, ezinbestekoa da berehalakotasunari ihes eginik, astia izatea, kazetaritza pausatua istorio luzeetan lantzeko. Bestalde, arintasunean eta azaleko informazioan oinarrituriko kazetaritza azkarraren balioa zalantzazko balantzan jartzen da. Beste era batera esanik, zientziak merkaturatutako tresneria ona dela ziurtatzen da, erabilera, ordea, desegokia. Boynton-ek, Conover-ek, Hartsock-ek (Albalad, 2018: 24) adostasunez errepikatzen dutenez, praktika zahar bati erantsi zaion etiketa da *slow*. *Slow* honek sakonetik ikertzen du kazetaritza; xede estilistikoz idatzia da, eta kultura bakoitzaren arabera modu askotara izendatzen da.

Terminologian ageri den adostasunik eza saihesteko asmorik gabe, aipatu egingo ditugu ohiko bilakatu diren izendapenak: *New Journalism* (Wolfe, 1973); *Nonfiction Novel* (Capote, 1965); *Nonfiction Short Story* (Franklin, 1986, 1996); *Literary Journalism* (Sims, 1996); *Narrative Journalism* (Franklin, 1996); *Longform Journalism* (Hartsock, 2000); *New New Journalism* (Boynton, 2005). Izendapen bakoitzak bere ñabardurak ere baditu, jakina, *Literary Journalism*en eta *Periodismo Narratibo*aren parekotasunaren ingurukoak, kasurako. Horiek horrela, geuk ere, kazetaritza narratiboa, *Literary journalism* eta *narrative journalism* sinonimo bezala erabili ditugu.

Azken hamarkadako terminologia argitze aldera, nahitaezko aipua da kazetaritza narratibo digitalaren gainean Jennifer Rauch-i dagokiona:

El periodismo narrativo digital es parte del movimiento slow media, término que apareció por primera vez en 2009, aunque la profesora Jennifer Rauch le dio carta de naturaleza académica en un artículo publicado en 2011 (Goikoetxea, Ramírez de la Piscina, 2019: 3).

¹²⁷ Magallón-ek hala dio jatorrizko testuan: “Estar más informado no significa estar mejor informado”.

Susan Greenberg-ek dio etiketa biak erabili izan direla azken urteetan:

El salto del slow media al slow journalism en su aportación a una obra colectiva publicada en 2012. Ambas etiquetas se han utilizado en los últimos años en el ámbito anglosajón; la primera para designar el movimiento en su amplitud y la segunda para caracterizar la práctica concreta (ibid. 2019: 3).

Horrela, bi terminoek aurreko beste izendapen historiko batzuen erreleboa hartu zuten, hala nola *literature journalism*, *narrative journalism*, 1973an Tom Wolfe-k hilezkortu zuen *new journalism* delakoaz ahaztu gabe (Goikoetxea, Ramírez de la Piscina, 2019). Esandakoa osaturik, baieza dezagun nola kazetaritza literarioa deituriko izendatze klasikoari autore, etiketa edo ñabardura gehiago ere joan zaizkion gehituz azken urteotan: *Literary news writing* (Parrat, 2003: 96); *kazetaritza berria* (Boynton, 2005) edo abiapuntutik beretik darabilgun *slow journalism* (Greenberg, 2012: 381; Rosique-Cedillo eta Barranquero-Carretero, 2015: 453), eta inguru anglosaxoietan *literary journalism* (Sims, 1984; Roiland, 2015). Bestalde, Palau-Sampio-k eta Cuarterok (2018: 963) kazetaritza narratiboaren alde jotzen dute; Vanoost-ek (2013: 147) ere bai, karga sinboliko txikiagoa daukala argudiatuta errekonozimendua du, zein Espainian (Herrscher, 2012) zein eremu frankofonoan (Lallemant, 2011; Vanoost, 2013; Pélissier eta Eyrès, 2014).

Hausnarketa teorikoen ekarpenari begira jarraituz gero, gardentasuna eta lankidetzaren aipatzen dira kazetaritza pausatuen berezitasunen artean. Hala ere, osotasunaren bila aritzean, behar bada, aitortu egin beharko litzateke arnasa luzeko kazetaritza ezin izan daitekeela mota guztiak ordezkatzeko eredu, ezta genero ere, ezpada ze, fokatze bat, eredu zuzentzaile bat, azeleraziorako joeraren aurrean. Zeren, azken urteotan, teknologiak abiadura ikaragarrian inbaditu baititu gure bizitzak (Pérez-Soler, 2017: 15).

Beraz, kazetaritza pausatua istorioa kontatzeko estiloaz eta formaz ere ari da, alegia, fokatze estilistiko narratiboaz, saiakeraz eta erreportajeaz; ez fikziozko genero luzeagoez (Greenberg, 2012: 381). Asko dira autoreak azpimarratzen dutenak kazetaritza literarioaren eta kazetaritza pausatuen arteko lotura (Berkey-Gerard, 2009; Donat-Trinidad, 2012: 101; Greenberg, 2007: 16; Keeble eta Wheeler, 2007). Bestalde, postmodernitatea aintzat harturik, kontuan har dezagun hausnarketarako mikro-istorioak asteguneko pertsonaienak —arketipo mailara jasoak— direla, eta aztertzen dituzten gai existentzialak balio unibertsalekoak. Narraziook, erakargarri dira soinean daramaten

humanotasun sakonagatik eta arnasa luzeko narrazioagatik. Medio inprimatuetan, formatu luzearen barneko dira ikerketa-kazetaritza, murgiltze-kazetaritza, narratiboa, eta literarioa. Edukiak, garaiak nahiz teknologia, ezinbesteko aldagai aldakorrak diren arren, istorioek beti izango dute kontalari onaren premia; hizkuntzaren erabilera, erritmoa, giroa, kontatuko den istorioa bera bezain garrantzitsuak dira.

Hizkuntza arruntean, istorio bat kontatzen duenari kontalari esaten zaio, narratzaile. Kritikari gehienen aburuz, kontalariak ematen die narraziozko testuei euren ezaugarririk berezkoena; egon ere, kontalaririk gabeko narraziozko testurik ez dago-eta.

Euskaltzaindiaren literatur terminoen hiztegiak (2008: 591) hala jasotzen du: “Teknika edo estilo narratiboa deiturikoa erabiliz eraikitako testuei ere narrazio deritze. Literatura generoa (fabula, ipuina, eleberria...) nahiz literaturaz kanpoko testuen (kazetaritza, diskurtso historikoa...) estilo ezaugarri bat adierazteko erabiltzen da, bada, gertaeren jarraipenaren harilkatzea”.

Bestalde, Fontcubertak *Berria* egunkarian esanari jarraikirik, onar dezagun egungo informazioaren gizartean, irudia testuaren gainetik dagoela, eta multimedia formatuan bizi garelarik irudietako estruktura narratiboez berba egiteko beharrezanean ere bagarela eta, “emotikono eta irudien bidez komunikatzen hasi gara. Hitzezko adierazpenak ikusizko adierazpenekin ordezkatzeko ari gara, nolabait” (*Berria*, 2019-04-30).

Berez, kazetaritzan —sare sozialetan— maiz topatu ohi ditugu irudi bidez kontaturiko benetako narrazioak, hala komikietan, nola tenpluren bateko frisoan. Gai honetan azpimarratu beharrekoa da, argazkia irakurtzen irakatsi egin behar dela eskola adinean, edo erakutsi adinekoen eskolan, bestela, azaleko mezua baizik ez da jasoko, eta orduan, sakonekoa antzemanen ez bagenu, ez ginateke *slow journalismean* murgilduko. Honela mintzo da Marcolongo andrea (2017: 20):

Gure garai hauetan, zeinetan denok gauden zerbaiti konektatuta eta ia inoiz ez gauden inori konektatuta, zeinetan berbak bertan behera geratu diren, emotikonoek eta beste piktograma moderno batzuek ordezkatu dituztelako: mundu gero eta azkarragoan, eta errealtate hain birtual honetan (...), egia ziurra da —hitzekin— jadanik ez dugula elkar ulertzen.

Berez, letradun testuak irakurtzean ere, irakurri egin genezake funtzionalki, testuak sakonean zer dioen ulertu gabe bada ere. Ezin ahaztuko dugu *Twitter*-eko txio laburrek nekez lortuko dituztela hiritar benetan informatuak. Edonola ere txioetan indar handiagoa daukate ikus-entzunezkoek albisteez baino: “En *Twitter* tienen muchísimo más alcance los videos o fotos que un enlace sobre una noticia que pueda ser muy interesante” (Etxebarria, *Deia*, 2018)¹²⁸. Zenbat bider errepikatzea komeni ote da medio digitaletako mezuek albiste gosea, begien asea bete ohi dutela, baina ez XXI. mendeko gizarte konplexuaren azterketa, araketa. Zeren gizarteko arazo konplexu horien aurrean, ez markorik, ez testuingururik eskaintzen ez bada, erabiltzaileak, herritarrak bere kabuz osatu beharko baitu albiste sakabanatuzko puzzle polikromoa.

Ohar gaitezen, onar dezagun, industria digitalak ez duela helbururik gure heziketan, ikuspegi kulturala zabal dakigun edo gure pentsamoldeak aberats daitezen, nahiz eta iragartzen duen beraien bitartez noranahi irits gaitezkeela:

La industria digital juzga los contenidos por el dinero que proporcionan. No consideran la credibilidad de las fuentes, su rigor y la autoridad moral. Eran los estándares que el periodismo al menos decía que aplicaba antes de publicar una noticia” (Sampedro, 2018: 198).

Hala ere, *kazetaritza pausatuaren* aldeko jarrera erabat lotuta dago lanbide horrek gizartean bete behar dituen funtzioekin, alegia, ikertzaile funtzioarekin eta mobilizatzaile funtzioarekin. Izatez, ikerlari funtzioa arrunt onartua da *slow journalism*a (Albalad, 2018). Funtzio mobilizatzailea, oster, nekez aipatzen da literaturan. Deigarria da, ze horixe funtziori dago lotuen kazetaritza pausatuarekin. Ikerlariaren funtzioarekin batera, mobilizatzailearen funtzioak leku jasoagoa merezi du kazetaritza pausatuaren kontzeptualizazioan; dakigunez, oso loturik dago AEBetako kazetaritza hiritarrarekin (Weaver, Beam, Brownlee, Voakes, Cleveland, 2007: 174). Kazetaritza mota horretan publikoak parte hartu behar du, bai agenda ezartzeko nahiz herritarren intereseko gaietan iritzia emateko. Gainera, gizarteko sektore zabaletan, teknologia interaktiboak laguntza itzela eskain diezaiotke kazetaritza zibiko horri herritarrak komunitate baten edo gizartean partaide sentitu daitezen.

Zenbateraino da funtzio mobilizatzailea kazetaritza pausatuko parte? Parte bada, osotasun zentzuan, kazetaritza pausatua osatu egiten duen neurrian; ikuspuntuen

¹²⁸ Javi Etxebarria: “En Twitter notas cómo llegas a la gente y eso te anima a seguir”. *Deia*, 26-11-2018.

ugaritasuna dakarren heinean; askotariko ikuspuntua eskaintzen duen bezain bestean. Bistan da, ikerkuntza-kazetaritzak lanbidea mugiarazteko ere balio duela. Horretarako, erabiltzaileek parte hartu behar dute prozesuan eta, esan bezala, agendaren jabe izan. Berez, medio sozialak gizartearen beraren interesak ditu helburu irabazien aurretik:

Un medio social, propiamente dicho, antepone los intereses de la ciudadanía que representa. La pone por delante del beneficio que pueda sacarle. (...) Quieren ser sostenibles: ganar lo justo y necesario para ser útiles a la comunidad a la que sirven. Y, no menos importante, buscan asegurarse la independencia de gobiernos y empresas. (Sampedro, 2018: 196).

Era honetara, Internetek erreportaje handien eta kroniken akabua ekarri ordez, edukia gailenduko litzaioke abiadurari, Zygmunt Bauman-en epoka likidoa solido bihurtuz. Beti ere, ordea, kontuan harturik garai likidoetan bizi garenez, sortu bezain azkar desegiten direla paradigmatik. Azken finean, 60.eko hamarkadan abiatutako praktika baten bertsio gaurkotu honek, abiadura bitako kazetaritza sorraraz lezake etorkizunean, azkarra batetik, pausatua bestetik; pausatua, baina, ikerlari izateaz gainera, jasangarria, inklusiboa izan beharko du, kooperatiboa, baita konstruktiboa ere.

Abiadura bitako kazetaritza dela-eta, *Barren* aldizkarikoek diote: *trial and error* metodoaz baliatzen direla, gerokoari geroan erantzuteko asmoz (*Barren*, 2018):

Pentsatu izan dugu papererako beste modu batean lantzea informazioa. Paperean joaten dira erreportaje eta elkarrizketa luzeak, adibidez. Albiste laburrak paperetik kentzea planteatu izan dugu. Kazetaritza pausatua egin nahi izan dugu paperean, baina irakurleek berri motzak eskatzen dituzte oraindik ere. Beraz, atzera egin izan dugu, eta laburrak paperean ere agertzen dira gaur egun. Hurrengo diseinu aldaketan agian ausartagoak izango gara¹²⁹.

Aipatu berri dugun teknologia interaktiboak laguntza itzela eskain diezaiotke kazetaritza zibiko horri herritarrak komunitate baten edo gizartean partaide sentitu daitezen. Partaidetzaz dihardugularik, ez da baztertzekoa irakurketaren atalean esana, lehenago irakurtzen ikasten dugula, eta gero ikasteko irakurtzen. Ikasteko irakurtze horretan sartzen da neurri handian komunitatean edo gizartean nola parte hartu eta zer esan, alegia, arnasa luzeko kazetaritzak zein ekarpen egin diezaguken. Eszenatoki klasikoa gogoan dela jokatzeko badugu, geu geutara ibiliko gara *smartphon*-ean irakurtzen nahiz idazten, geure espazioan eta denboran. Interneten mugitzen garenean, oster, ezer ez da

¹²⁹ *Barren* aldizkaria. 25. urteurrena. Elgoibar. 2018, 1.058 zenbakia.

ezkutukoa, isilpekoa, gordea. *Facebook*-ek badaki zein irakurketa gustatzen zaigun, zein ordutan idazten dugun. Bost axola dio diozuna egia den edo gezurra. Areago, eskandalua gurago izango luke, *Facebook*en abiadurarako erregai hobe baia. Víctor Sampedrok (2018: 187) dio ez dela sinesgarria Zuckenberg-ek esaten diguna:

Zuckerberg afirma que *Facebook* no se mete en cuestiones de contenido, porque respeta la libertad de expresión. El argumento merece respuesta porque es mentira. Ni él puede ser tan simple, ni nosotros tan bobos. Claro que a las redes les interesan el contenido de nuestras comunicaciones, pero solo por los datos que generan. Consideran el debate social, igual que a los usuarios: materia prima para hacer publicidad. Y la plataforma no es neutra: viraliza los contenidos que la hacen crecer en extensión y densidad.

Beraz, datuak Interneteko hodeietan abian ezartzerakoan, aintzat hartu beharko dugu “ahantzurarako eskubidea”, pribatutasuna eta borondatea datuak sareratze unean. Erabilerak berak digu ikasgarri inozotasuna saihestuz Interneteko arriskuei aurrez aurre begiratu behar diegula. Internet informazio-emaile da, batetik, baina berri-hartzaile ere bai, bestetik, harreman bakoitzarekin, jana ematen diogulako. Ordea, erabileran, nahitaez uzten ditugu bertan gure aztarnak eta oinatzak, zeinen bitartez ekarpenak egiten ditugun —nahita edo nahi gabe— datuen trafikoko globalerako. Daniel Inneratyk (2013) hurrengo pasartean baieztatzen digu, Internet ágora baino bazarra dela argituz, enpresek erabiltzaileen datuak beraien jabegora eramaten dituztelako:

Internet es más un bazar que un ágora. El negocio del profiling lo atestigua. La red es un gran mercado de información acerca de los hábitos de los consumidores, un continuo sondeo de marketing. Las opiniones, los gustos, los deseos y la propia localización geográfica de los usuarios son recopilados pacientemente por una serie de empresas que hacen de esos datos su propiedad privada. Al nutrir las bases de datos, el usuario aumenta el valor de las empresas que le ofrecen sus servicios de forma aparentemente gratuita, les permite conocerle mejor y suministrarle aquello que (cree que) necesita (*El País*, 2013)¹³⁰.

¹³⁰ Daniel Innerarity Filosofia Politikoko katedraduna da, Ikerbasque ikertzailea Euskal Herriko Unibertsitatean eta gaur egun *London School of Economics*-eko irakasle bisitaria (*El País*, 2013).

2.4.2 Alfabetatze digitala

Kazetaritza pausatuan jardun gura badugu —Internet behin honezkero erabili egiten dugunez—, erabiltzaileok alfabetatu beharrean gaude. *A posteriori* bada ere, konturatu gara nola informatikaren ezti gozoak eztena ere baduen, eta zorrotza; zelan zaratotsik gabe funtzionatzen duen, ohi duenez, internautak kate estuan loturik; baita, zenbateraino errazten digun itsaso zabalean nabiga gaitzen, beti ere, brujula inoren esku dagokeelarik. Beraz, XXI. mendeko gizartekook, abiadura zerbait mantsoturik bada ere, eskuratu egin beharko genituzke Ipar Orratza eta timoia, ekaitzetarako portuaz nahiz kaiaz baliatu ahal izan gaitzen.

Kazetaritza pausatuko itsasontzia pilotatzeko, nabigazioko mapak behar dituzte kazetariak eta erabiltzaileak. Hauek mapok irakurtzen, interpretatzen jakiteko alfabetatze digitala behar da, *hardware*ren eta *software*ren ezagutza, hots, Internetena, telefono mugikorrena, eta beste dispositibo batzuen: “Las nuevas tecnologías moldean cada vez más el aprendizaje, ‘configuran’ a los aprendices y estructuran la vida misma...” (Loveless eta Williamson, 2017: 78).

Ingurugiro horretan, Alfabetatzea ezinbesteko bidetzat hartzen da. Euskaltzaindiko hiztegiari jotzen badugu (2016), hauxe irakurriko dugu: Alfabetatzea irakurtzen eta idazten irakastea da. Hasiera batean, alfabetatze kontzeptua irakurtzeari eta idazteari lotuta egon arren, komunikazio hizkuntza berrien sorrerarekin, eta medio berrientzako sarbidearekin —Internetera esaterako—, konpetentzia berrien eskurapena lortzea beharrezko bilakatu da. Izan ere, alfabetatze kontzeptua zabaldu egin zen, esaterako, hizkuntza audiobisualak bereganatuz.

Horrela, alfabetatze mediatikorako hezkuntzak pertsonari mezuak kritikoki aztertzen laguntzeko tresnak ematen ditu; ikasleek komunikabideekin duten esperientzia zabaltzeko aukerak eskaintzen ditu eta ikasleei beren mezu mediatikoak egiteko trebetasun sortzaileak garatzen laguntzen die.

Education for media literacy often uses an inquiry-based pedagogic model that encourages people to ask questions about what they watch, hear, and read. Media literacy education provides tools to help people critically analyze

messages, offers opportunities for learners to broaden their experience of media, and helps them develop creative skills in making their own media messages¹³¹.

Alfabetatze mediatikoari esker, hiritarra ohartu egiten da medioen oinarrian diren botere egiturez, bazterrera laga gabe aipatu ohi diren ikerketarako eta kritikarako trebetasunak. Hau da, alfabetatze mediatikoaren hezkuntza aktiboki zentratzen da alfabetatze mediatikoaren heziketan eta pedagogian, ikaskuntza konstruktibistaren teoriatik, ikasketa mediatikoetatik eta ikasketa kulturaletatik sortzen diren marko teoriko eta kritikoak integratuz. Alfabetizazio mediatikorako zentrua (*Center of media literacy*) antzera mintzo da dioenean XXI. mendeko kultura mediatikoan erabat bizitzeko beharrezkoak diren pentsamendu kritikoa eta ekoizpen mediatikoko trebetasunak garatzen laguntzeko lan egiten duela:

Media literacy education is actively focused on the instructional methods and pedagogy of media literacy, integrating theoretical and critical frameworks rising from constructivist learning theory, media studies, and cultural studies scholarship. This work has arisen from a legacy of media and technology use in education throughout the 20th century and the emergence of cross-disciplinary work at the intersections of media studies and education¹³².

Bestalde, UNESCOk ere Alfabetizazioaren inguruko hausnarketa plazaratzen du bere atarian¹³³:

Tradicionalmente se ha considerado la alfabetización como un conjunto de competencias relacionadas con la lectura, la escritura y la aritmética aplicadas en un contexto determinado. Las sociedades del conocimiento por medios digitales están transformando lo que significa estar alfabetizado y exigen un nuevo nivel, más elevado, de esas competencias. Al mismo tiempo, la tecnología puede contribuir, a cambio, a mejorar el desarrollo de la alfabetización.

UNESCOk urteetako esperientzia izan du alfabetatzeaz eta heziketa mediatikoaz; funtzio garrantzitsua jokatu du estatuetako alfabetatze mediatikoa eta informaziozkoa

¹³¹ Euromedialiteracy.eu.

¹³² Alfabetizazio mediatikorako Zentroak(CML) lidergoa, hezkuntza publikoa, garapen profesionala eta nazioko eta nazioarteko probetan oinarritutako hezkuntza-baliabideak eskaintzen ditu. Hedabideen edukia eskuratzeko, aztertzeko, ebaluatzeko, sortzeko eta parte hartzeko esparru gisa alfabetatze mediatikoaren hezkuntza sustatu eta babesteari buruzkoa, CMLk herritarrei, bereziki gazteei, XXI. mendeko kultura mediatikoan erabat bizitzeko beharrezkoak diren pentsamendu kritikoa eta ekoizpen mediatikoko trebetasunak garatzen laguntzeko lan egiten du. Azken helburua erabaki egokiak hartzea ahalbidetzea izanik. Medialit.org atarian kontsulta daitezke baliabideok.

¹³³ Irina Bokova andreak, UNESCOko zuzendari nagusiak, Alfabetatzearen Nazioarteko Eguna dela-eta bidalitako mezuan jasotzen dira datuak, baita unesco.org atarian kontsulta daitekeen txostenean ere: <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000257808>.

sustatuz eta bultzatuz. Ondorioz, Europako herrialdeetan komunikabideetako heziketak egoera eta askotariko moduak bizi izan ditu. Finlandian, esate baterako, 600 hezitzaile dira NAMLE-ko¹³⁴ kide, alegia, alfabetatze mediatikorako Elkarte Nazionaleko kide.

Digitalki alfabetaturiko pertsonak, teknologiaz baliatzen jakiteaz gainera, dakiena aplikatu egiten du eguneroko bizitzan, hala etxean, nola lantokian nahiz eskolan. Horrez gainera, erabili egiten du teknologia interakzio eta sozializazio gune berriak sor daitezzen, esaterako, sare sozialetan.

Ondoren eta ondorioz, *e-Learning* —*electronic learning*— bidezko heziketa premiazkoa dela errepikatzen da, hala umeentzat —natibo digitalentzat—, nola *millennials*-entzat ere, eta, oro har, pertsona helduentzat ere bai —arestian esan bezala behar-beharrezko dute-eta—, zeren gaur egunean teknologia digitalak etengabe transformatzen direnez, ondorioak ia berberak izango baitira Network Society honetan bizi den edonorentzat. Egoera honetan, kazetaritzak aro digitalaren asimetrien aurka borrokatzen du. Asko dira sortu diren kezkak: informazioa hedatzen den abiaduraren arriskua, planteamenduen laburtasuna, informazioa estandarizatzea eta zatitzea, kazetaritza etikoa eta arduratsua informazio egiazko, zorrotz eta kontrastatuekin.

2.4.3 Egitateetan oinarritutako albistegintza

Behin honezkero, badakigu Internet geure arteko dena, baita informazioa ez dela *per se* formazioa. Ilustrazioko pentsalarien ustez, giza ezagutzak borroka egin zezakeen ezjakintasunaren aurka, sineskeriaren aurka, tiraniaren kontra, era horretara mundu hobe eraikitzeko. Gaur ere, agian, paradigma kritikotik at jarduten denean, uste okerretarikoa da pentsatzea teknologia aseptikoa dela, ahazturik, indarrean dagoena sistema kapitalista dela; industria digitaleko ideologia neoliberalismoan estaltzen dela (Sampedro, 2018: 197)

Los dispositivos y los programas de las cuatro grandes compañías tecnológicas conocidas como GAFA (*Google, Amazon, Facebook y Apple*) son de código

¹³⁴ Komunikabideen arloko hezkuntzarako deialdia eta baliabidea egiten duen NAMLEren helburua da alfabetatze mediatikoa oso balioetsia eta oso praktikatua izatea bizitzarako funtsezko trebetasun gisa: namle.net

cerrado y tienen la estructura de una red centralizada. Protegen sus algoritmos y la información mercantil que recaban con leyes de propiedad privada.

Horra hor arrazoia ulertzeko nola dituen industria digitalak erabakitzen edukiak diruagatik —ahazturik “dirua irabazle, egia galtzaile”—. Jokabide horrekin, alde batera lagatzen dira kazetaritzako estandarrak irakatsi ohi zuen iturrien sinesgarritasuna, fideltasuna eta autoritate morala. *Smartphone*-etan eta telebista aitzinean ibili ohi dena, edukietan *infotainment* ereduaren menpean bizi da, ia formatu eta herrialde guztietan. Formatu honetan audientzia irabaztea da xede. Horretarako, nahasi egiten ditu informazioa eta entretenigarriak. Aise ulertzen denez, edukiak espektakulu giroan hedatzeak kaltea dakarkio kazetaritzari. Victor Sampedrok (2018: 196) dioenez argitu egin behar da zer diren sare sozialak, bestela, sozialak direla esatean, beraien gainean ez dugun kontrola dugula baieztatzen ari gara, eta mediotzat hartzen ditugunean, nahastu egiten ditugu publizitatea eta informazioa:

Si no precisamos que son redes digitales, publicitarias, comerciales o corporativas, confundimos sus objetivos. Al llamarles sociales, nos atribuimos un protagonismo y un control que no tenemos. Y al considerarlas medios, identificamos publicidad e información.

Albistea eta zurrumurrua edo gezurrezko berria bata bestearengandik bereizteko, ikerketa behar da, erkaketa. Hori ematen ez denean, berriz, kazetaritza ez da fidagarria, dena geratzen da interesen eta subjektibitatearen menpe. Panorama horren aitzinean, estrategia probetxugarria litzateke geure buruak alfabetatzea —arestian esan bezala— gai izan gaitezen sareen funtzionamenduaz jabetzeko, eta benetako albistea sortzeko, nahiz irakurtzeko. Alegia, nola behar da ulertu harako urtxintxaz Zuckerberg-ek kazetariari —*Facebook*-eko Albiste Zerbitzuaz— adierazia? Hurrekoak arduratu digu eta ez hainbeste urrunekoak: “A squirrel dying in front of your house may be more relevant to your interests right now than people dying in Africa” (Ibid., 2018: 183).

Kazetariak, berezko, nahitaezko, du egiazko informazioa erabiltzea, alegia, informazio kontrastatuaz baliatzea. Bestela, nekez parte hartuko du iritzi publikoaren hobekuntzan. Gainera, albistegintzaren arloan exigentzia etikoa eta deontologikoa mailarik gorenekoa da, zeren azken batean, demokraziari berari eustea baita betebeharra.

Dena den, *fake news*-en fenomenoak nahitaez aipatu beharrekoa da ‘Egitateetan oinarritutako kazetaritza’ atal honetan. Badakigu informazioaren kutsadura gertaera konplexua dela, eta poliki-poliki gezurraren kultura gizarteratzeraino hedatu dena. Giro

horretan, kazetaritza duina, egitateetan oinarritutako albistegintza, desinformazioaren aurrean lehian diharduena ere deseroso aurkitzen da, hiritarren artean mesfidati jokatzera behartuta aurkitzen baita, informazio bakoitzaren aurrean hautua egin behar nekagarrian, hareago sare sozialek zabaldu egiten dutelako, egiazko informazioa nahiz asmakizuna dena.

Era honetara defini genitzake *fake news*ak (Ramírez de la Piscina, Peñafiel eta Goikoetxea, 2020: 86):

Entendemos como *fake news* aquellas desinformaciones que imitan el contenido y las formas de la noticia, pero sin garantizar los estándares de precisión y credibilidad exigibles a cualquier producto periodístico profesional.

Guk *fake news*en kontzeptuaz gainera, haren itzelezko erabilera agerian jartzeko, Make Wendling-ek BBCn 2018ko urtarrilaren 22an argitaratu zuen artikulu jakingarriaren aipamena ekarri dugu atal honetara¹³⁵. Azaltzen da bertan, *Google News* bidez gauzatutako bilaketaren arabera *fake news* hitza 5 milioi bider agertzen zela, eta soilik 2018ko urte hasieran milioi bi inguruko erabilera izan zuela *Twitter*-en.

Albiste faltsuen bidezko mezu desitxuratuak edo testuingurutik kanpo jarriak kontrolik gabe zabaltzen dira sare sozialetan, eta ikaragarri dena, egiazko albisteak nahiz faltsuak pareko eragina dute gizartean (ibid., 2020: 86):

Estudios realizados entre otros/as por Spring (2017), Vosoughi 2018, Wagner y Boczkowski (2019), Greene y Murphy (2020), Pérez-Dasilva, Meso y Mendiguren (2020), libros como los de Brittany Kayser (2019) y Christooher Wylie (2020) o documentales como El gran hackeo (2019) o El dilema de las redes (2020) ponen en evidencia la gravedad de un fenómeno que amenaza seriamente la democracia.

Etengabeko informazioaren aurrean, eta horrenbesteko azpijokoren artean, herritarrak egitateak eurak ere zalantzan jartzen ditu, eta jarrera eszeptikoaz hurreratzen da edo berehala azalduko dugunez, ondo datorkion mezua hartzen du egiaztat, zalantzen jarrerak alde batera lagarik behin betiko aukera pertsonala eginik korronte baten alde, horrek dakarren auzokoarekiko jarrera mesfidatia nahiz harremanetarako atmosfera gaiztoa ondorio delarik, pertsonak biltzeko sortu ziren sare sozialak etsaigorako tresna bilakaturik:

¹³⁵ The (almost) complete history of 'fake news': <https://www.bbc.com/news/blogs-trending-42724320>.

Gero eta sentsazio handiagoa baitute komunikabide gehienek gai berberei modu erlatiboan heltzen dietela eta alderdi garrantzitsuak alde batera uzten dituztela”. Irtenbideen bilaketan, Urteagak berak adierazten du konponbidea askotariko ikuspegiz baliatzea eta gai sakonak aurkitu eta sakontzea dela. Hara hemen *slow journalism*eko ikuspegitik sakoneko elkarrizketekin lotura egiteko ideia.

Beti ere kazetaritzan eman den jokamoldea izan arren, *slow journalism* gaur jartzen zaion etiketa dela irakurri ohi dugu testu inprimatu nahiz digitaletan. Hala ere, ez genuke aserik geratu beharko etiketa berria kalifikatze sinplifikatua dela baieztatuz.

4.2.2 Aro digitaleko azakeria eta arinkeria

Lehen galderan baieztatu dugu ez dela informaziorik interpretaziorik gabe. Interpretazioak, ordea, sakontasuna eskatzen du, ze interpretaziorako, kritikarako gaitasuna ere beharrezkoa da tesian zehar azaltzen dugunez.

Alex Rayónek azakeriari emateko dituen erantzunen artean jartzen ditu, gezurrezko paradigmak indarrean izatea gizartean, eta kontsumismoaren boterea, beti ere, informazioaren eragina tarteko dela.

Algunos síntomas de superficialidad, es decir, de inmadurez, son las estructuras consumistas insolidarias que nos están llevando a una decadencia social; la emulación de la eterna juventud, belleza y otros paradigmas falsos; el exceso de

¹⁴⁵ Urteagak *Garako* (2020-09-07) “Homogeneización del tratamiento informativo” lanean dioskunez, informazioaren hautaketan eta tratamenduan aniztasun txikia dagoenez, komunikabideek desberdintasun formalak areagotzen dituztela eta testuinguru horretan, garrantzitsuena ez dela esaten dena, nola esaten den baizik.

telebasura tan bien aceptado por las audiencias; la sobre exposición del deporte y de las desgracias y los trapos sucios de los famosos, la indiferencia bestial sobre lo que somos, para qué vivimos...

Rayónen erantzunetan kazetariak dira aipagai. Lanbide horretako profesionalak zuzenezuzenean lotzen ditu telebistarekin. Bere ustez, gazteriak heldutasuna behar du eduki ikasketetan kazetari izatea hautatzeko, dakiten moduan jakinik askoz diru gutxiago irabaziko dutela ezelako ikasketarik ez duten pantailetakoa pertsona horiek baino. Koplarik barik diosku: “Telebistak oso eredu indibidualista masifikatu du eta kulturarako oso zitala sartu du; niretzat telebista ez da kultura”¹⁴⁶. Inolako zalantzarik gera ez dadin, perpausa honekin bukatzen du: “Nik ez daukat telebistarik etxean”.

Herrscher superfizialitate pentsaeraz Rayon-ekin-eta bat datorren arren, telebistari dagokionean, ez dago ados. Batetik, gure gizarteko arinkeriaz dio oso loturik dagoela ezjakintasunarekin eta pertsona asko halaxe bizi direla, beharbada mundu konplexua ulertzeko ahalegina egiten dugunok baino gutxiago suminduz:

La superficialidad se emparenta con la ignorancia, la soberbia, el miedo, la falta de empatía, el pasar por esta tierra sin entender qué estamos haciendo aquí y por qué. Por supuesto, muchos viven así y muchos se hacen menos mala sangre que los que tratamos de entender lo complejo del mundo.

Bestetik, telebistaren alde onak azpimarratzen ditu. Baieztatzen du bera kalitateko telebistaren aldeko dela; ezin esan litekeela telebista guztia denik telezaborra. Telebista publikoetan badirela balioko programak, eta inoiz pribatuetan ere bai.

En algunos casos parte de un compromiso general de cuidar lo público, como los ejemplos europeos de la *BBC*, la *Deutsche Welle*, *Radio France* o *Canal Encuentro* en Argentina. Hubo programas en *Televisión Española*, en *TV3* de Catalunya (los que conozco del ámbito español) sin los cuales sus sociedades hubieran sido más pobres en memoria colectiva, en pensar los grandes temas del momento.

Ana Urkizak diosku —Rayónen ikuspegi ukatzaitetik Herrscherren kalitateko telebistaren aldeotasuna aurrean dela—, beharbada, orain urte batzuk idatzizkoak eduki zezakeela gainerako medioekin erkatuta sinesgarritasunik handiena:

¹⁴⁶ “La televisión ha masificado un modelo muy individualista y ha introducido un modelo muy perverso para la cultura; para mí la televisión no es cultura”.

Irratia izan da guretzat bat batekoena. Gero telebistak bat-batekotasuna zekarren irudiarekin jantzita, hau da, sinesgarritasuna edo legitimitatea ematen zuena albistea non gertatzen zen ere erakusten zuen; sinesgarritasuna ematen zuen lekutzeak edo kokatzeak. Sakonera edo sinesgarritasunik handiena idatziak ematen zuen pentsatuena zelako, kontrastatuena seguru asko eta sakonena.

Telebistaren alde onak Aurelia Arkotxa euskaltzainak ere azpimarratzen ditu, beti ere, telebista-ikusteak bete beharko lituzkeen baldintza garrantzitsuak kontuan hartuz. Horien artean, telebista familian ikustea nabarmentzen du. Ondorik, galdetu zaionean ea zerk dirauen geroan txiki-denboretako istorio, ipuin, pertsonaia haietatik, honela erantzuten du:

Aipamen horiek —*Zortzi Unibertso* liburukoak— haurtzaroko eta nerabezaroko garaiei lotuak dira. Zehatzago mintzatuz, zazpi-zortzi urtetatik hamar-hamalau urtetara doan garaia lotuak. Sekulan ez dezakegu asmatu aurretik zerk duen gero garai horietatik iraunen. Bakoitzaren historia pertsonala da. Halere, iruditzen zait arras inportantea dela programak —telebistakoez ari da— familian ikustea, edo helduak presente diren leku irekietan ikustea (Fontellaseko bar hartan denek momentu berean ikus zezaketen El Santo, haurrek, gazteek, helduek...). Haurrak eta nerabeak ez ziren isolatuak. Garrantzitsua da oso jenerazioak nahasiak izan daitezen, dialogo zabal irekian beti.

Edonola ere, telebistaren ekarpen historikoa balio handikotzat jo arren, ezin ahantziko dugu —gaurko *smartphonetako* giroaren kontrara— berak agertzen digun naturarekiko atxikipena eta irakurketarako zaletasuna, bitzuak baitira penduluaren kontrapisua:

Egia erran, telebista oso guti ikusten nuen. Haurtzaroan eta nerabezaroan nituen gune libreetan beti kanpoan nintzen, bizikletaz jolasten, edo lasterka, edo zaldiz, edo errekan arrantzan edo itsas-bazterrean geroago. Eskolatik kanpo, natura zen ene ibilgune zentrala. Kanpoan ez nindabilelarik, non nahi eta beti irakurtzen ari nintzen. Pasio absolutua zen. Irakurtzen ahal izateko isiltasun-guneak beharrezkoak dira. Isiltasun hori da preziatuki zaindu behar dena.

Laburbildurik, dela sare-sozialengatik, dela telebistagatik, gure egunotan azalergia nahiz arinkeria fenomeno hedatuak dira gizartean. Ondorioz, oztupoak oztupo, indarrean den kazetaritza pausatua arakutzen jarraitu beharrean gara, arin eta azalari sakonaren eta pausatuaren ikuspegitik begiratzeko.

4.2.3 Postmodernitatea. Sare sozialak. Indibidualismoa

Bizi dugun postmodernitatean egiten dugun galdera da —arrazionalismoaren aurkako mugimenduan— ea informazioko teknologiek zenbaterainoko eragina duten indibidualtasunean, zeren pertsonaren askatasuna bideratzearekin batera, teknologiako enpresa handiak gizarteko kide bakoitzaren izaera zein nortasun ezkutuz jabetzen baitira.

Guk galdekatutako pentsalarien artean, badira indibidualismoa azaltzeko hiru arrazoi. Lehena Chomsky-rena (2020)¹⁴⁷:

Vivimos 40 años de una economía debilitante y dañida, marcada por los principios defendidos e impulsados por Margaret Thatcher y Ronald Reagan, de que no hay sociedad sino individuos y que el estado es el problema, no la solución, que ha provocado la destrucción del planeta y de toda vivencia comunitaria, fruto de la codicia de unos pocos.

Beraz, jadanik, ez da gizarterik, soilik norbanakoak. Iritzi hau, Iñaki Gaminde ikerlariak era honetara adierazten du:

Gizakia izaki soziala izan da eta da oraindino. Uste dut indibidualaren eta taldekoaren artoko orekari eustea zaila izan dela beti, baina premiak eraginda sozialaren beharra sentitu dela; gaur sistemari komeni zaio geroago eta bakarrago egotea, eta bakartze horrek ekarri du humanotasunaren pobrezia. Gero eta gutxiago hitz egiten da besteekin, taldeak egiten direnean taldearen barruan baizik ez dira gertatzen erlazioak, orduan jakitatea murriztuz doa, jakitate hori endogamikoa da eta endogamiak atzeratasuna baizik ez dakar. Hau ere denean ikusten da, politikan, zientzian, giza harremanetan, (...) Honek ere badakartza norberaren baitarik kanpo dagoenarekin aurre iritziak, beldurrak, susmoak, (...) Eta dena botere erlazioekin lotuta dagoela uste dut.

Bigarren arrazoia, postmodernitatearekin lotua, ‘Kazetaritzaren garapen epistemologikoa’ deritzan atalean azaldu dugu, Carravilla (Gutiérrez Sanz, 2019: 13) aipatuz. Subjektibismoaren barruan postmodernitatea kokatuko genuke, bere ezaugarrien artean *ni* indibidualaren eremua nabarmenduz:

Prácticamente todo queda en cuestión, salvo el individuo, con devaluación de la razón, en la época de la posverdad.

¹⁴⁷ *Religión Digital*, 2020-09-19.

Horrez gainera, Otolara idazleak dioskuna kontuan hartuz, postmoderno indibidualista da: “Postmoderno indibidualista da, zatikatzailea, ziniko eta hedonista samarra, azalekoa eta giza balio handietatik kanpokoak”¹⁴⁸.

Hirugarrena, informazioaren teknologien aroak eragina da. Gamindek era honetara arrazoitzen du:

Ados egon ninteke, teknologiak bakartze sozialari ekarri diona izan da bakartze fisikoa ere. Honek arazo itzelak ekarriko ditu luze barik, psikologikoak, sozialak, politikoak; faxismoak hau baliatzen du ezin hobeto, baina baita botereari eutsi eta inposatu nahi duten guztiek ere.

Rayónek informazioaren teknologian adituak, hauxe eransten du gure teknologiaren garaiaz; hein baten, aro honek desberdintasun handiagoa ekarri duela beharrian batzuk agerian utziz, besteak beste aniztasunarekiko tolerantzia. Adierazten du, gainera, indibidualismoaren ereduak ez daukala ibilbiderik:

Esta era ha traído una mayor desigualdad, pero una mayor necesidad por la tolerancia a la diversidad. Es decir, esa abundancia de información... tenemos que respetar más que nunca. Ese modelo del individualismo no tiene recorrido. Existe un choque de modelos, algunos avalan el individualismo y otros que deberían acabar con ese individualismo. Estamos en un momento de transición, en un momento de *neandertalismo digital* y es muy pronto para concluir algunas cuestiones.

Postmodernitateko gizartea beste era batera antolatuta aurkitzen du Herrscherrek. Aliantzak eta identitateak hazi, hazi direla diosku baina, era berean, indibidualismorako joera gehiagora joateko arriskuaz ere mintzo zaigu:

Creo que por un lado crecieron las alianzas, identidades y creencias no basadas en lugares geográficos sino en aficiones y gustos e identificaciones supranacionales, por el impulso de las redes sociales como sitios privilegiados de socialización. Nuestro barrio son los seguidores de tal líder o tal ídolo musical, no los vecinos. Y, por otro lado, el peligro de que crezca el individualismo y el egoísmo.

Barranquero kazetari ikertzaileak ea sare sozialak demokratizatzaile diren galdetuta erantzuten du —tekno eszeptikotzat joz bere burua— teknologiak ez direla neutroak, eta dena dagoela sistema kapitalistak aurre-programaturik:

¹⁴⁸ Egindako elkarrizketan, honela esan zuen berak: “lo posmoderno es individualista, fragmentario, un tanto cínico y hedonista, superficial y ajeno a los grandes valores, humanos”.

En este sentido soy un poco tecno-escéptico. Creo que las tecnologías no son neutras y menos las redes sociales. Esto de la neutralidad de las tecnologías es un mito absoluto del capitalismo que nos hace ver las redes sociales como si fuera algo inevitable, como creadora de vínculos sociales, creadora de una aldea global donde pese a que nuestros vínculos están en una cierta lejanía física, en realidad, son vínculos cercanos...yo creo que todo esto es un mito. Las redes sociales directamente como todas las tecnologías y sobre todo las últimas tecnologías, los últimos diseños tecnológicos son tecnologías en las que el uso es pre programado. Y uso pre programado que incorpora la lógica del sistema capitalista y que en definitiva predisponen al hiperconsumo, a un único consumo acelerado, a un consumo constante, a un consumo individualista que no tienen nada que ver con tecnologías más cooperativas como puede ser el cine o la disposición de un escenario para teatro si consideramos esto también como técnica.

Salaverriak, bere aldetik, ea mundu digitalaren eraginez gertatu den indibidualizatzea itaunduta, baietz erantzuten du. Ordea, horrekin batera, gregarismoaren fenomenoak aipatzen du, hurrengo hau adieraziz:

Egia da, pertsona bakoitza gai da bere ahotsa agerian jartzeko, baina errealitateak dio indibidualizazio horren aurrean gregarismo handiko fenomeno bat gertatzen dela,¹⁴⁹. Horren arrazoia gizarteak inposatzen duen dinamikan bilatu behar da: “Pertsonen izugarri zaila egiten zaie iritzi-korronteak indargabetzea, esan dezagun, politikoki zuzena dena”¹⁵⁰.

Beraz, baieztatzen du indibidualismoari atxikirik gregarismoa ere badatorrela:

Por lo tanto, sí me parece que hay una tendencia mayor al individualismo, a la individualización de las comunicaciones pero al mismo tiempo me parece que existe un comportamiento gregario que está fortalecido por estas dinámicas que penalizan al que se sale del redil, de lo políticamente correcto.

Edonola ere, sare sozialek dakarzkiguten ustezko demokratizazioaz, Salaverriak aintzat hartzeko ohar parez seinalatzen du. Batetik, egia da aske garena geure ahotsa sareratzeko. Baina, ezin eduki dezake eragin bera AEBetako presidentearen txio batek

¹⁴⁹ Egindako elkarrizketan honela esan zuen berak: “Sí que es verdad que cada persona es capaz de hacer presente su voz pero la realidad es que frente a esa individualización se da un fenómeno también de enorme gregarismo”.

¹⁵⁰ Egindako elkarrizketan hauxe adierazi zuen: “A las personas se les hace enormemente difícil contrarrestar corrientes de opinión, digamos lo políticamente correcto”.

eta gureak. Bestetik, makina bidez anonimotzen den azpijoko ideologia ere agerian jartzen du:

Pero segundo, y más importante, es que tenemos la impresión de que todos los usuarios que están interviniendo lo están haciendo de buena fe y no es así porque un gran número de cuentas están artificialmente creadas precisamente para generar una percepción artificial de una determinada postura. Se han creado bots, perfiles artificiales que pretenden dar visibilidad a determinados postulados ideológicos y amplificarlos como si fuera un altavoz musical. Y realmente no es así porque no hay nadie detrás, son máquinas que están generando una amplificación artificial.

Azken batean, dena den, bada zer zaindu sare sozialen iturrien inguruan, Barranquerok ohartarazten gaituenaren arabera. Bere ustez, sare sozialik gehienak medio handien bozgorailua dira:

No todas pero por ejemplo *Twitter* me parece una auténtica extensión de los medios tradicionales. De hecho se utiliza fundamentalmente para el ámbito político y el ámbito periodístico actualmente más allá de que también haya otros usos. Y al final buena parte de la información que se produce, se consume en redes sociales es información emergida de los grandes medios, fundamentalmente de la televisión y también de otros medios tradicionales como la prensa, la prensa digital.

Azken buruan, sare sozialen helburua kontsumitzea dela dio Barranquerok, gogobetetze azkarrak lortzea dopamina sortuz. Eta, denbora asko behar izan dugula konturatzeko sare sozialek, benetan demokratizatzen dituzte, zatikatu egiten dituela:

Nos sumían en filtros burbuja, atomizaban la sociedad, en vez de crear vínculos sociales los rompían y hacían que cada vez estuviéramos más polarizados y que nos cueste encontrar relatos comunes.

4.2.4 Postmodernitatea. Humanitateak

Zientzien hegemonian bizi den gizarteak utilitarismoari ematen dio balioa, humanismoaren zeregina aldamenean utziz. Gizarte mota horretan, zein izan liteke humanismoaren betebeharra, jadanik onartu dugunean munduak mugak dituela? Kazetaritzan adituak diren profesionalei galderak zuzentzean, bestalde, galdetu beharrean gara, baita ere, ea euforia tekno-zientifikoak dakarkigun baikortasunak eta

lilurak, agian, hainbesteko indarra hartu duenean, kazetaritzaren deontologiaren arabera aritzeko, premiazkoa izango den balio zibikoetan alfabetatzea.

Izatez, humanitateak dira giza eta gizarte jakintzei, arteari eta literaturari dagozkien ikasketak eta ikasgaien multzoa, hain zuzen ere, atal honetan sakoneko elkarrizketetako erantzunak gogoan direla aztertuko duguna.

Postmodernitatea teknikaren garapeneko aroa da edo, gura bada, informazioko teknologien aroa. Aro horretako humanitatez Innerarityk zera diosku, utilitaristei aurre egiteko proposamena mahaigaineratzen duela:

Estamos acostumbrados a que nos recriminen nuestra supuesta falta de utilidad y yo propongo que nos enfrentemos a los utilitaristas con el siguiente argumento: nos dedicamos, sin complejos, al cultivo de aquellos problemas que consideramos definitivamente irresolubles, a custodiarlos frente a quienes desearían poner punto final a nuestras discusiones y cuestionamientos, protegemos el derecho a reabrir cualquier debate en torno a ellos en cualquier momento.

Humanitateetan errealtate konkretuari orokorrari baino gehiago lotzen zaion ezagutzak dimentsio intuitibo handia, intuizio interpretatibo sakona, praktikatzen duela aipatzen du Innerarityk eta azaltzen du jakintza modu hori ezinbestekoa dela, ez dela zuhurra bazter uztea:

Desde el imperialismo de las ciencias de la universalidad la intuición interpretativa ha sido presentada como una forma menor de conocimiento, cuando no algo completamente irracional. Pero la experiencia nos muestra que no es sensato prescindir de estos modos de conocimiento, especialmente en contextos de gran complejidad.

Ramón Salaverriak gizarte modernoaren eta postmodernoaren arteko talka kazetaritzari dagokion ikuspuntutik begiratzen du. Zertan behar dute sartu komunikabideek eztabaida honetan? Erantzuna berak eskaintzen digu esatean “hauen zeregina eztabaida, debatea bera erakustea dela”¹⁵¹. Ez, ordea, hori bakarrik, zeren proposamena ere egiten baitu kazetaritza sakonari erreferentzia eginez: “interpretazio-kazetaritza, kazetaritza sakona”. Hau da, informazio testuinguratua, agerrarazten dituen albistearen kausak eta ondorioak. Ez, beraz, norbaitek esana berresatera mugatzen den kazetaritza, informazioaren zergatietan sakondu gabe. Bere hitzetan, “gizarte postmoderno honetan,

¹⁵¹ Elkarrizketan honela zioen: “Su papel tal vez es precisamente mostrar que existe ese debate”. Hala adierazten zuen elkarrizketan: “El periodismo interpretativo, el periodismo profundo”.

kazetaritzak kontzientziazioan sakondu behar du”¹⁵². Ondoren, Salaverriak modernitatearen krisia eta postmodernitatearen irtenbidea aztertuz hauxe dio, printzipio materialek ondoan behar dituztela, adibidez, printzipio moralak:

Los dos son un reconocimiento implícito de que la modernidad no puede llevarse a cabo completamente y que hay que poner una serie de principios de tipo moral, de tipo social como un poco contrapesos de esos principios puramente materiales.

Modernitateko printzipio materialak aipatzean, ulertarazten duena etengabeko garapena da, hazkunde amaibakoa, desarrollismoa. Orain postmodernitatean adierazten du Salaverriak: “Kontzeptu horiek krisian sartzen dira edo, behintzat, zalantzan jartzen dira, munduak mugak dituela konturatzen garelako”¹⁵³.

Herrscherrek, bestalde, postmodernitatea Interneti dagokiola ukatu barik, zera dio, postmodernitateak bazter utzi dituela aurreko mendeko burruka kolektibo handiak:

Siguiendo a Touraine, efectivamente la posmodernidad dejó de lado las grandes luchas colectivas de la primera mitad del siglo XX y se enfocó en las razones sectoriales y las individualidades: la liberación sexual y étnica, el medio ambiente, las tribus relacionadas con modas y músicas.

Herrscher ados ageri da, Touraine-ri jarraituz, postmodernitatean borroka kolektiboak eta alboratu egin direla baieztatzean. Barranquerok, bestalde, gaurko egunera bihurturik, desadostasuna erakusten du Jean-François Lyotard-ek (1984) postmodernitatearen formulazioan ez dela kontkizun handirik esan duela-eta: jendeak errelato txikiak behar ditu baina baita handiak ere:

Yo no creo que la gente solamente necesite de pequeños relatos, creo que también en los últimos tiempos la gente ha vuelto a necesitar de los grandes relatos. Es que, yo no creo que vivamos en el panorama que nos describió Lyotard en los años 90. Precisamente la religión ofrece grandes relatos, ciertos partidos políticos están ofreciendo grandes relatos. Pero también los propios entretenimientos de masas como los espectáculos de fútbol o los personajes de la televisión en realidad lo que están es configurando grandes relatos. Lo que está faltando es un gran relato político, que aún no hay voluntades. No sé si el gran relato de los próximos tiempos será el feminismo, el antirracismo o la ecología

¹⁵² Honelaxe zioen egindako elkarrizketan: “Es esa labor de concienciación, de conciencia social me parece que es lo que corresponde a los medios de comunicación en esta sociedad postmoderna”.

¹⁵³ Egindako elkarrizketan honela esan zuen: “Esos conceptos entran en crisis o por lo menos en cuestión porque nos damos cuenta de que el mundo tiene límites”.

profunda pero creo que estamos necesitados de grandes relatos que permitan unir voluntades en vez de fragmentarlas.

Herrscher-ek adierazitako bidetik, badirudi begirada zeregin apaletan jarri dela, bigarren mundu-gerra eta handiusteko ideologiek porrot egin ostean. Itxura baten pertsona bakoitzari galdetu beharko zaio munduaren gainbeherako joeran zein neurritako erantzukizuna duen. Innerarityk deskribatu dugun testuinguru honetan idazten du hurrengo aipamena:

Las luchas reivindicativas no se inscriben en un contexto de esperanza revolucionaria; lo que se combate es la modernización desconsiderada con todo su cortejo de cambios devastadores y la incertidumbre que provoca. El deber de los individuos no es entonces defenderse contra la sociedad, sino defenderla, cuidar un tejido social fuera del cual no es realizable su identidad. Se podría definir el espíritu de estos últimos años como la creciente toma de conciencia de la fragilidad del mundo civilizado.

Beraz, bakoitzaren erantzukizuna aipatuko genuke berriro ere. Bernardo Atxagak humanitateei Euskal Herriak duen kokapenetik erantzuten dio, gibelean Espainiako eragina eta Frantziakoa bereiztuta:

Gure inguruan humanitateak oso daude kaskar, abailduta eta abar. Guk hemen egin behar dugu borroka. Nik ez daukat ezer erabakitzeko aukerarik. Nire azken liburua, orain aterako dudana irratian astelehenero egiten nituen irakurketak, horren bildumari deituko diot *Kilker bat autopistan*. Nire ustez pentsamendu kritikoa eta gizartearen masa mugimendutik apur bat aparte bizi dena, hitz egiten duenean edo hitz egiten duenean horixe da: kilker bat trafiko handiko autopistan kantari bezala. Ez dauka inolako eraginik, oihartzunik.

Kazetaritzaren deontologiaren arabera aritzeko, premiazkoa izango da balio zibikoetan alfabetatzea, zientzietako hegemoniari erantzuna eman ahal izateko, postmodernitatean humanismoaren rola garatzeko.

Sakoneko elkarrizketetan itauntzen genuen, ea errelato handiak ahantzirik, hots, modernismoko ideologia handiak, ez zaizkigun geratzen errelato txikiak baizik, istorio txikerrak. Erantzunen artean, Salaverriak esango digu fenomeno hedatua dela historia txikien agerpena, lekukotasun txikiena, gertaera partikularrena, zeinek erakusten diguten ekintzak gauzatzeko jokamolde alternatiboak badirela.

Berak, Salaverriak, Soluzioetarako Kazetaritza deritzo honi, konponketarakoa. Gaur egun honela deitzen den arren, argitzen du orain mende laurden kazetaritza hiritarra

izentatu ohi zela: “Es el desarrollo de lo que en su día, hace 25 años, hablaba de periodismo cívico. Bueno, pues ahora es periodismo de soluciones”.

Badira hiritarrak lekukotza txikiak edo ekimen soilak eskaini ohi dituztenak: “Hara zer otu zaidan”, egoeraren bati irtenbidea eskaintzeko. Badakigu halako jokabideak ez direla aski diskurtso handiustekoak edo informazio-agentziek hedatzen dutenaren aurrean gauza handirik egiteko. Hala ere, Ramón Salaverriaren hitzetara joz gero, hauxe topatzen dugu, diskurtso hegemonikoen aurreko erantzunek presentzia gehiago izan beharko luketela:

Y a mí todo lo que suponga un poco de contestación a esos discursos hegemónicos me parece algo muy recomendable y sería algo que sería muy deseable que estuviera más presente en los medios de comunicación.

4.2.5 Informazio-teknologiaren aroan. Umeen eta gazteen heziketako baldintzak

Ezinbestekoa da gaien adituei itauntzea albisteen ugaritasunak eta abiadurak ez ote duten kalitatea apaldu, esaten ari garen objektibotasunari nahiz erredakzioari dagokionean, edo plataforma digitalak izan litezkeen aldaketaren kausa. Erantzuna testuinguruan kokatzeko kontuan hartzen dugu nola sare sozialek demokratizatzea dakarten hein berean dutela erabiltzailea desbideratzen.

Elkarrizketetan egindako galdera hau dela-eta —luzaroegi konpondu gabeko arazo bilakatu diren baliabide digitalen gainean—, Barranquerok alfabetatze-premia azpimarratzen du:

Yo creo que nos está faltando una educación y una alfabetización en materia de medios digital que de cuenta verdaderamente las próximas generaciones acerca de cuáles son las verdaderas potencialidades pero también y sobre todo cuáles son los riesgos de las redes sociales, cómo de alguna manera el panorama periodístico se ha desintermediado a partir de la existencia de plataformas, de grandes corporaciones tecnológicas que también se ha inmiscuido dentro del campo del periodismo y quieren hacernos llegar sus informaciones sin mediación ni siquiera de los periodistas.

Ulertzen dugu plataforma digitalak direla Interneteko erraldoiak, informazioa kudeatzen dutenak, hala bilatzaileen ingurumarietatik nola sare sozialekin zerikusia duen edozerekin. Sail horretan kokatu ohi dira *Facebook*, *Google*, edo *Twitter*. Salaverriak honela azaltzen du:

A las plataformas de Internet, en principio, les resulta absolutamente irrelevante si el contenido que se publica es verdad o es mentira. Siempre y cuando aquello genere tráfico ya les vale.

Gaur, ordea, Amerikako Estatu Batuetako hauteskundeetan zabaldu den *fake news* giroak, 13 urtez hartu gabeko erabakia gauzatuz, itxi egin dio Presidente ohiari *Twitter* eta *Facebookeko* atea. Dena den, ohikoa plataforma edukiaren erantzule ez egitea da. Hala delarik, Salaverriá bada nor jarraikoa idazteko: “Eta ikuspegi horretatik, iruditzen zait komunikabideen jardun profesionala askoz ere arduratsuagoa dela”¹⁵⁴.

Otalorak, bere erantzunean, alde pragmatikoa ere indartzen du, ondorengoa agerraraziz: “gaur eguneko gizarte-arduradunek, irakasleek, gurasoek, berehala abiatu beharko lukete erantzun alternatiboren baten bila”. Abiatuko balira, “aberatsak teknologian, txiroak gizatasunean” perpausa aldatu egingo litzateke, teknologiaren ikuspegi merkantilista gehiegizkoa da-eta.

Creo que, si fuera así es por el excesivo enfoque mercantilista de lo tecnológico al crearnos necesidades que no lo son. El ejemplo mejor es el teléfono móvil, lleno de utilidades pero vendido agresivamente hasta generar dependencia y consumo.

Beste berba batzuekin adierazirik kontsumismoa eta adikzioa mehatxu dira. Salaverriak Otalorarekin bat datorrelarik, teknologiaren enfoke merkatalistari dagokionean, haragoko dimentsio batera ere badarama gaur eguneko gizartearen ikuspegi materialista. Berez, humanitateak definizioz ez produktiboak direla baieztatu arren, premiazko badirela ere adierazten du.

La sociedad actual es una sociedad orientada hacia la producción. Es una sociedad, desde ese punto de vista, muy materialista, muy consumista, muy, basada en un modelo donde todo lo que no produce, en principio, no sirve. Las humanidades por su propia naturaleza son improductivas, no generan un

¹⁵⁴ Jatorrizko hitzak hauek dira: “Y desde ese punto de vista me parece que el desempeño profesional de los medios de comunicación es mucho más responsable”.

resultado a corto plazo, no tienen un producto evidente derivado. Ahora bien, sin las humanidades es imposible expandir las ideas, generar mundos posibles.

Kontua da, esanak esan, bizi garen zibilizazio honetan teknologia digitalaren lilura gailendu egiten zaigula, eta komunikazio-jario amaigabeak etengabe gurutzatzen gaituela. Orduan, gizarte horretako jarioak, iragazkiak, galbaheak behar ditu zentzu gabeko informazioak gainezka eginik ez bizitzeko. Innerarityk zera dio:

La verdadera soberanía epistemológica consiste en interrumpir, no reaccionar mecánicamente, no responder rápidamente al mail, resistir contra la aceleración, escapar del esquema estímulo-respuesta, no contribuir ni al pánico ni a la euforia, establecer una distancia, una dilación, posponer la respuesta y posibilitar incluso algo nuevo e imprevisible.

Gertatzen dena da, ordea, teknologia digital horren lilurapean bizi garela, ondoegi jakin barik zenbateraino laguntzen digun edo zer kalte eragiten duen. Rayón irakasleak erantzun hau ematen digu, paperean baino digitalean irakurrita informazio gutxiago geureganatzen dugula: “une honetan, ebidentzia eskuragarriarekin, badakigu testua pantaila digitaletan irakurtzeak paperean irakurtzen denean baino informazio gutxiago xurgatzea ahalbidetzen duela”¹⁵⁵.

Honaino azaldutakoaz dikotomia garbia jarri dugu geure aurrean: papereko irakurketa ala formato digitalekoa? Otorak erantzuten digunez, digitala barneratu du belaunaldi batek; hala ere, non eta Silicon Valleyn paperari ematen diote lehentasuna:

Lo digital, forma parte de la cultura de una generación. Pero no me olvido de que en Silicon Valley así como en alguna universidad de estudios digitales (videojuegos, etc.), a los alumnos se les introduce en la escritura y lectura espacial del papel antes de hacerlo en lo digital. Son dos maneras de trabajar el cerebro, y no podemos anular la visión espacial de papel.

Ildo berberari jarraitzen dio Rayónek, beti ere, formato digitala eta paperekoa erkatzean. Dioskunez, testua pantaila digitaletan irakurtzean, informazio urriagoa jasotzen dugu:

Es un proceso neurológico —la lectura de texto en lo digital conlleva a recoger menos información— de cómo el cerebro representa la información y las pantallas digitales, tanto por el tacto —nuestro cerebro lleva siglos leyendo sobre papel, entonces parece que cuando no toca ese papel no es capaz de

¹⁵⁵ Jatorrizko berbak hauek dira: “A estas alturas, con la evidencia disponible, sabemos que leer texto en pantallas digitales permite absorber menos información que cuando se lee en papel”.

retener lo mismo—; lo traduzco a, el cerebro retiene menos leyendo en un formato digital intermediado aunque no haya notificaciones (por ejemplo en un libro digital) solo por el tacto, condicionan la capacidad de absorción del cerebro.

Bada beste alde oso garrantzitsu bat informazio gehiago edo gutxiago jasotzeaz gain; hots, motibazioaren arloa. Jakina da neska edo mutikoari irakasleak galdetzen dionean, askoz motibatuago dagoela, makinak galdetzean baino. Halandaze, gure alaba edo semea *IPad*-aren aurrean jartzea matematikako ariketak egiten, ez da beti gomendagarria Rayónen arabera.

La educación personalizada, de la que tanto se habla en muchos foros tecnológicos (esos algoritmos personalizando contenidos...), tampoco es buena idea: hay numerosas evidencias de cómo al aprendizaje social, la discusión colectiva, etc., mejora también el desarrollo de determinadas competencias.

Hirugarren hausnargai bat ere kontuan hartu beharrekoa da, hots, edukien aurkezpenean aukeraketak eta ordenak duten eragina. Ordena desegokian aurkezturiko materiale didaktikoek galarazi ere egin dezakete ikasketa. Edonola ere, irakasle batek aise konpontzen duen ataza da, baina makinak nekez antzemango du zein izan litekeen testuinguru jakin baterako ordenarik egokiena, historia edo kronologikoki aztertzen den gaia ez bada. Ondorioz, Rayónekin galde genezakeena da ea algoritmoen onura zenbaterainokoa den irakurketaz edo ikasketez dihardugunean:

¿Es un algoritmo el más adecuado para elegir el orden de unas lecturas y ejercicios cuando no tenemos claro cómo calibrar la capacidad de aprendizaje de cada niño o niña?

4.2.5.1 Irakurketa ikus-entzunezkoen gizaratean

Gure aldirian, ikus-entzunezkoen nagusigoa erabatekoa denean ere, testua, gako-hitzak, dira bideoa, edo argazkia identifikatzen dutenak.

“Esan izan da audiobisualen gizaratean bizi garela, eta egia da” dio Ramón Salaverriak, berehala erantzuteko —bideoak ikusten jarduteak, kasurako— muga jakinak dituela

ezagutzaren transmisiorako, erkatzen badugu beste forma batzuekin. Zentzu honetan — erantzungo du Salaverriak berak— irakurketa erreflexiboagoa, gogoetatsuagoa dela:

La lectura me parece que es mucho más reflexiva, mucho más creativa porque no es evidente, uno tiene que producir su propia interpretación visual, conceptual, a partir de lo que lee.

Bestalde diosku, testua dela oinarria, hau da, beste komunikazio-kode batzuk erabat egituratzen dituen elementua:

El texto tiene una virtualidad que no tienen otros códigos comunicativos y es que es un elemento absolutamente vertebrador de otros códigos comunicativos: del código gráfico, del código sonoro, del código audiovisual. Puedes poner siempre el texto como columna vertebral, como tronco de un árbol del que penden sonidos, fotografías, contenidos audiovisuales.

Gaur egun badira *app*-ak telefonoetarako, zeinekin baliatuz aurki daitezkeen zuk jartzen duzun doinuaren izenburua edo taldearen nortasuna. Bada webgune bat, *Umap*, 2017an abiatua, gehien erabili izan diren bideoak identifikatzeko; baita sistema bat ere, youtubek daukana, biolentziaren gaia umezarokoengana irits ez dadin identifikatzeko ezarria. Hala ere, norberak bideo bat jartzen badu, zeinetatik esekitzen den testua, hark ez du funtzionatzen; ezta argazkia ipintzen badugu ere, edo doinua. Horregatik dauka testuak funtzio bertebratzailea. Testua, gako-hitzak, dira bideoa, edo argazkia identifikatzeko tresnak.

4.2.5.2 Umeen eta gazteen irakurketa

Kontuan izanda gure asmoa denez hiritar kritikoak lor dezan gaitasuna baliabide digitalez jabetzeko nahiz inprimatuen balioak eskuratzeko, tesian irakurketa prozesu gisa landu dugu, haurtzarotik abiatuak pertsona bialfabetatua izatera hel dadin. Hori helburuori lortzeko, ordea, aztertu egin behar dugu adituen erantzunen bidez zein den eskola ibilbidean jarri genuen irakurketako helburua; ea adin horretako liburuak denbora-pasagarri hutsak ziren ala gaur egun ere testu digitalekin lehiatzeko probetxugarri gerta daitezkeen.

Interneten eta paperaren arteko alderaketaz jarraiturik, aro digitaleko pentsalarien ezkortasunetik baino Herrscher idazlearen baikortasunetik joko dugu abiatzerakoan. Baieztatzen duenez, produktu digitalekin batera, oraindik badira opari bezala liburuak espero dituzten umeak zein helduak ere:

Siento que en el siglo XXI, junto con los productos digitales, hubo otra revolución: la maravilla del enorme desarrollo y diálogo con las artes de los libros infantiles. Los niños de mi alrededor (mi hijo, mi hija, mis sobrinos, hijos de amigos) se pasan en Internet, pero también esperan libros de regalo y los atesoran y los manosean. Y hablan de sus argumentos y sus personajes. Creo o quiero creer que los niños de hoy quieren y necesitan tanto las buenas historias como los del pasado. Y como ellos, quieren padres y maestros que los ayuden a encontrarlas.

Gure inguruari dagokionean, baieztatzeke moduan gara haur askori halako liburu txukunak gozagarri zaizkiela gaur bertan ere. Horretarako, baina, Otorak gehitzen digunez, etxeke giroan dago gakoetako bat:

Las experiencias infanto juveniles, en esto como en todo, son decisivas. Perduran mucho, todos sabemos qué libros y personajes nos cautivaron en aquellos años. Son el humus para posteriores descubrimientos. El ejemplo en casa es fundamental.

Hori ere egia da, bertan behera lagaz gero, digitalak irentsi egiten baitu adingabearen irakurketarako sena. Iritzi beretsukoa da Bernardo Atxaga idazlea ere:

Nik uste irakurketa kontu honetan, eta gauza gehienetan giroak agintzen du. Esan nahi dut, gizarteak agintzen du, komunitateak agintzen du; komunitate horretan lehena familia da, edo eskolak agintzen du. Hau ez da Frantzia esate baterako, hemen giroa, komunitatea, gizartea, familia ez da liburuaren inguruan ibili. Bada, zergatik gal daiteke irakurketarako sena?

Iñaki Gaminde ikerlariak argituko digu:

Irakurtzea ez da fenomeno naturala izan egundo ere, beti exijitu du ahalegin berezia eta irakurtzearen plazera (hau eskoletan aldarrikatzen da baina ez dut uste gero betetzen denik) ahaleginaren ondorioa da denbora luzea emandakoan. Honetan ere, merkatuaren legeak agintzen du eta boterean dagoenaren iritzia; umetatik gidatzen gaituzte irakasleen iritziak ona dena irakur dezagun, gero itxurakeriak egin behar izaten ditugu ondo geratzeko eta esan oso gauza interesgarria irakurri dugula (modan dagoelako edo unean uneko intelektualek hala juzkatu dutelako) nahiz eta sakonean jasanezin iritzi (antzera gertatzen da

pelikulekin, musikarekin, eta gizarte talde menderatzaileek bultzatzen duten guztiarekin).

Behin irakurzaletasuna erdietsiz gero, besterik eta bestela da, zeren, Rayónek erantzun digunez, zaletuz gero, irakurketak soilik garatzen dituen gaitasunak geureganatzen ditugu: “Creo que leer te desarrolla unas competencias que solo la lectura te las desarrolla. Orduan, Herrscherrekin bat egingo genuke:

Creo, o tal vez quiero creer, que en la era digital seguirán teniendo muchos niños la misma hambre de historias y de relatos que den sentido a la vida. Lo que leemos nos moldea, nos hace ser quienes somos y cómo nos vemos y cómo nos comportamos ante los demás.

Nerabeek ezagutzen dituzten esperientziak liburuetan aurkitu ohi dituztenak baino biziagoak izan ohi dira aipatu izan du Teixidorrek ‘Irakurketan trebatzeko prozesua adinaren arabera’ deritzon atalean. Ana Urkiza ere bat dator pentsaera honekin:

Lehen jakintza liburuetan zegoen. Orain, segurutik, liburuetan jarraitzen du egoten, baina ez dauka mira bera. Gizarteak hori alde batera utzi du, bai liburua eta bai liburuetan dagoena eta nahiago du esperientziak izan. Saltzen zaiguna da: esperientziak izan, esperientziak izan... baina esperientziak ON eta online eduki nahi ditugu, hau da, unean eta mediatizatuta.

Innerarityk dio, Herrscherrena azaldurik, haurtzaroko liburuek beti eskainiko dituztela antzerako kezkak eta bizipenak. Hau da, arteak eta letrak emakume eta gizonon beti geure aurrean ditugun ardurak aipatzen dituztela, ez, behar bada konpontzeko, baina bai lantzeko. Honelako terminoetan mintzo da Innerarity:

Asuntos sobre los cuales los seres humanos no somos nunca plenamente competentes, una especie de repositorio de grandes cuestiones irresueltas, que nos muestran el abismo de nuestro desconocimiento: el sentido de la vida, el alcance de nuestra libertad, el misterio de la belleza, el valor de la justicia, la naturaleza del tiempo, nuestra condición mortal, los deberes de la ciudadanía, la posibilidad de algo que nos trascienda... Son temas que los humanos nos hemos planteado siempre y que nunca podemos dar por definitivamente solucionados, cuya supresión como asuntos sin importancia o superados nos arrojaría en esa ignorancia del orgullo que es la peor forma de estupidez.

Umezaroa, gaztaroa eta eskola gogoan harturik galdera luzatu diogunean, Atxagak hauxe ihardetsi digu:

Pentsatzen dut ezin dudala ezer esan, ze soluzioa nire ahalmenetik oso urrun dago. Askotan pentsatzen dut huntaz edo hartaz atariko haizeari hitzegitea dela, askotan han eta hemen hitzaldietan, artikuluetan, askotan eskatu dut, batez ere eskolako kontuei lotutako eginkizunetan, aldaketa bat eta abar. Baina konturatu naiz, berandu xamar, baina konturatu naiz askotan hemengo autoritateei esatea edo atariko haizeari esatea paretsu dela. Aukera atariko haizea gozoagoa da, atseginagoa da.

4.2.6 Liburua baliabide

Hiztegirik hiztegi eta Akademiarik akademia abiatuko bagina, liburuari buruzko definizio asko topatuko genuke. Guk atal honetan adibidetzat har daitezkeen hiru jarri ditugu: *Euskaltzaindiarena*, *RAE*koa eta *Collins*-ek eskaintzen duena: *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* dakarrena da hauxe: “Orri multzo aski handia, ertz batetik josia eta irakurtzeko prestatua: *J. Verne-ren liburuak*”. *RAE*-k dio, ordea: “Obra zientifikoa, litararioa edo beste edozein motatakoa, bolumena osatzeko adinako hedadura duena, inprimatuta edo beste euskarri batean ager daitekeena”. Bestalde, *Collins*-ek hauxe diosku: “Liburu bat paperezko orri sorta bat da —normalean inprimatutako hitzekin—, elkarri eusten diotenak eta paper edo kartoizko estalki gogorrago baten barruan finkatzen direnak”.

A book is a number of pieces of paper, usually with words printed on them, which are fastened together and fixed inside a cover of stronger paper or cardboard. Books contain information, stories, or poetry, for example. 'Robinson Crusoe' is one of the most famous books in the world.

4.2.6.1 Irakurketa eta idazketa: kazetariak eta literaturako konposizio-teknikak

Ikerketa lan honetan liburuari eskaini diogun garrantzia agerian geratu izan da. Horrexegatik jorratu dugu luze bezain zabal atal honetan. Alde batetik, liburuen irakurketa beti delako logikaren eta ordenaren esperientzia jasotzea; bestetik, ezagutzarako metodo sakon eta oinarrizkoa ere badelako.

Daniel Innerarityk liburua geldotasunarekin lotzen du berau definitzerakoan: “Liburua bitarteko geldoa da, arreta-denbora luzeetarako egokia; gero eta ezinegon handiagoa dagoen garai honetan balioa eman beharrekoa”¹⁵⁶

Guztiaz ere, sakoneko elkarrizketetan liburuak beste dimentsio bat ere irabazi du. Hobeto adierazirik, gure galderei erantzuteaz gainera, gaian adituen erantzunek *slow journalismen* esparruko oinarrien artean kokatu dute liburua.

Guk ‘creciente impaciencia’ Innerarityrenari oratuko diogu abiapuntuan, izan ere pazientziarik eza, hurrengo datorrenaren zain irrikitan bizitza gure zibilizazio-aldiko berezitasunetarikoa bat da. Iñaki Gaminderen erantzunetan, geure arrazoitze teorikoarekin bat datorren ideia azaltzen da: “Berehalakotasunaren menpe bizi garelako gertatzen da superfizialitatea”. Berez, elkarrizketetako partaide guztiak bat datoz esatean sistema kapitalistaren ondorio bat dela berehalakotasun hori. Erraz ikus dezakegula kontsumo ohituretan, baina baita informazioa, ezagutza, harremanak-eta kudeatzeko unean ere.

Denari atoa eman behar zaio erantzuna eta orduan erantzun hori azalekoa izan behar da denborak eraginda. Hau unibertitatean ikusten da, gehienetan ikerkuntza egin behar izan da argitaratzeko ahalik arinen, argitaratzen dena ez delako irakurtzen. Orduan nekez sor daitezke sakoneko oinarriak. Norberak ez badauka astirik hausnartzeko norberak eginekkoa, zelan hausnartuko du inork eginekkoa?

Hala izanik, azalergia arakatzean *slowra*, sakoneko irakurketara jotzen dugu. Herrscher irakasleak idazten digunez, *slowk* zentzu bikoitza du:

El periodismo cocinado a fuego lento, y eso tiene que ver con lo bien investigado, pensado, escrito y editado, y por otro lado, el darse el tiempo de la lectura. Leer al ritmo que nos permita entender es leer bien, para mí.

Liburuei bagagozkie, Innerarityren erantzunen arabera, liburuetan ez dugu topo egiten ideia isolatuekin, gauzen deskribapenekin edo gertaera sakabanatuekin soilik, baizik-eta, neurri bateko logikarekin edo koherentzia narratiboarekin. Horrek darama Flaubert-en aipamena hurreratzera: “l'ordre des idées, voilà le difficile¹⁵⁷”. Zeren, liburuen

¹⁵⁶ Egindako elkarrizketan, honela esan zuen: “El libro es un medio lento, apropiado para tiempos de atención largos, que debe hacerse valer en un tiempo de creciente impaciencia”.

¹⁵⁷ Ideien ordena, hori da zaila.

irakurketa beti baita logikaren eta ordenaren esperientzia jasotzea. Eta hori edozein delarik norberak irakur dezakeen egitura narratiboa.

Ana Urkiza idazle eta kazetariak *slow* beharrezkoa dela erantzuten du. Horretarako arrazoiak bilatzeko, mezuaren hartzailearen ikuspegitik so egiten du: “Badago titular hutsez gelditzen dena, badago albistean gelditzen dena, badago albiste horren sakoneran gelditzen dena, eta badago saioak irakurtzen dituen hori ere”. Urkizak arriskutsu deritzo mesedeko den *slow* hori gutiengoaren asmoen artean geratzeari: “Eta *slow* horretan seguru asko gelditzen ari da edo gelditu daiteke pribilegiatu kopuru bat, lehen liburuak erosten zituena, esate baterako”. Edonola ere, ‘Irakurle erreala, idazle klasikoak eta etorkizuneko irakurlea’ atalean esandakoa hona ere ekarririk, bat egiten dugu Ana Urkiza idazlearen baieztapenarekin. Han hauxe aipatzen genuen Gabriel García Márquez-en idazkeraz: ”Kazetari narratiboak maiz elikatzen dira literaturako konposizio-teknikez eta estilistikoez”.

Hemen, pentsamolde berberari eutsiz, Urkizak dio —literatura izugarri gustatzen zitzaiola segurtatu ondoren—: “Nire ustez batera doaz, ondo idatzi nahi duenak —idazleak, kazetariak— arnasa luzeko kazetaritza eta idazkuntza beharko du”.

4.2.6.2 Liburuak bigarren irakurketa eskaintzen du

Elkarrizketa sakoneko galdetegiko itaun honetan jakin gura izan dugu, ea zein ekarpen egin diezagukeen liburuak eskaintzen duen bigarren irakurketak, hain zuzen ere, ia inoiz egiten ez dugunak galaxia digitalean.

Azaleko irakurketaren testuinguruari erantzunik, liburuak bere tasunean duen astuntasunari erraztasuna ematera dator bigarren irakurketa. Innerarityk bigarren irakurketako askatasuna deitzen dio.

Lo digo con Nietzsche, cuando defendía el arte de leer despacio, él que se definió a sí mismo como amigo del lento: leer bien, es decir, despacio, profundamente, mirando hacia atrás y hacia delante, con reservas mentales, con las puertas abiertas, con dedos y ojos delicados.

Beti da posible berriro irakurtzea, kritikoki irakurtzea, irakurritakoa berrikustea. Era horretara, gainditu egiten da lehen irakurketan jasotako iritzia, galaxia digitalean gertatzen ez dena, ezen galaxia horretan nekez irakurtzen da berriz testu bera.

Ramón Salaverriak liburuaz esango digu: “Ezagutza-modu oso sakona da niretzat”¹⁵⁸. Horretan bat dator Innerarityrekin, beronek *Nietzsche* aipatuz, goragoko paragrafoan liburuaz dioenean: “Ondo irakurri, hau da, poliki, sakon”¹⁵⁹. Salaverriak, horrez gain, liburuetan irakurri ohi duen saioaz, historiaz nahiz filosofiaz, aitortzen du autoezagutzarako bide eta ebasiorako nahiz olerkiaren erreinuak dastatzeko direla, eta ezinbesteko bereizketa deskribatzen digu hizkuntza audiobisualaren eta liburuaren irakurketaren artean.

A mí me resulta una forma muy profunda de conocimiento, es mi percepción frente al lenguaje audiovisual, por ejemplo. Ahora tenemos narrativas audiovisuales, algunas al menos, excepcionales con un nivel de densidad magnífica y una sugerencia, una profundidad magnífica pero yo sinceramente ninguno de esos elementos lo puedo poner al mismo nivel de lo que puede aportar una lectura porque ahí eres también tú el que tiene que poner de su parte. Mientras que en la narrativa audiovisual todo te viene dado.

Dena den, Ramón Salaverriak garbiro adierazten du harropuzkeria litzatekeela jakituria erabat liburuari atxikitzea, zeren nekazariak nahiz arrantzaleek anitz gaitan baitute zer irakatsi. Hala ere, aditz errepikatuen bitartez amaitzen du: “Ikasleei errepikatu ohi diet: irakurri, irakurri eta irakurri!”

4.2.6.3 Orain beste era batera irakurtzen da (*Facebook*)

Ezin ukatu dugu, orokorrean, herritarren irakurzaletasuna; irakurketa hori, baina, asko dela esan arren, azaletik egina da. Horren arrazoia izan liteke kontsumorako hamaika aukera izatean, gain-gainetik egitea.

¹⁵⁸ Halaxe esan zuen elkarrizketan: “A mí me resulta una forma muy profunda de conocimiento”.

¹⁵⁹ Jatorrizko hitzetan: “Leer bien, es decir, despacio, profundamente”.

Liburuaren esparrua modu oinarrituan finkatu gura bada, nahitaezkoa da liburua, irakurtze-modua eta superfizialitatearen arteko lotura aztertzea. XXI. mendeko lehen laurdenean, irakurgaien, informazio-iturrien eskaintza hain handia da, ezen, gure interesen ikuspuntua ere itzel ugaritzen den. Orduan, gure arretak ere askotariko begiradaz jardun behar du. Bestela, gure aditasunaren maila, atentzioa, jatsi egiten da, eta jendeak asko bai, ordea azaletik irakurtzen du. Alex Rayón adituak diosku *Y* belaunaldiak edo *millenialen* portzentaia altuak irakurtzen dituela *Facebooken kutxa beltzak* gure ordeaz aukeratzen dituen albisteak:

El 60% de los millenials lee las noticias en *Facebook*. Una caja negra que selecciona las noticias por nosotros. Noticias que os envuelven para que sigáis luego mirando fotos, comentando, reaccionando a mensajes de las marcas, etc. *Facebook* supera ya a la televisión y otros medios tradicionales. *Linkedin* y *Google* no siguen estrategias muy diferentes a éstas.

Bestalde, mezuetan, albisteetan topatzen ditugun ikuspuntuaren heterogeneotasuna hain handia izanik, zaila da denen arteko lotura eta argudioen batasuna erdiestea. Hortaz, Rayón irakaslearen hitzetatik abiatuz adieraz genezake, jendea ohitu egin dela badakiena —eduki kulturalak globalizatu egin direla kontuan izanik— era askoz laburragoan azaltzen:

Los nuevos formatos de expresión del conocimiento —vídeos, mensajería instantánea, redes sociales de micro mensaje como *Twitter*— han traído un patrón de publicación ágil, superficial, corto, una expresividad muy diferente.

Azken batean, hala teknologia digitaletik, nola beraietako edukiek beste irakurketa-modu bat ekarri dute jendartera.

Bat datoz Rayón irakaslea eta Innerarty filosofoa baieztean, beste era batera irakurtzen dela gure egunotan. Ez, ordea, katastrofe-iragarleek dioten eran, alegia, Gutenberg galaxiaren bukaera izateko neurrian. Innerarityk erantzuten digunez, gutxiago irakurtzen da eta, gainera, beste era batera:

Muchos análisis afirman que vivimos en una transformación completa de los medios: el ordenador e Internet, dicen las hipótesis, modifican las prácticas de la lectura —esa vieja técnica cultural para la distribución de saber e información— de un modo mucho más dramático que todos los medios de la modernidad. No solamente se lee menos; también se lee de otra manera.

Baieztatuak baieztaturik, ordea, nola gauzatzen da egungo irakurketa? Tankera arinean; etenez betean; labur; pazientzia gabean; hausnarketa giroan baino bidaiariaren ikuspegiz. Aro predigitalako irakurleak liburuaren autoritateari jarraikiz, eta giro kulturalak ere hala bultzaturik, liburuazken ertzeraino irakurtzen zuen. Osera, gaur egun, —dio azkenik Daniel Innerarityk— hipertextuak noraeza dakar:

Cada *clik* sobre un *link* pone al lector en el riesgo de alejarle cada vez más del punto de partida y de su contexto. Mientras que el texto impreso consagra por excelencia el triunfo de la idea fija y la coherencia, el hipertexto es una puerta abierta a la deriva, a la asociación salvaje.

4.2.6.4 Irakurketa sakona

Aipatu dugun teknologia berrien eragina antzemateko irakurketara begiraturik, galdetu diegu adituei, ea teknologia berri horien hedatzeak ez ote duen ekarri ohiturazkoa zen irakurketa sakona gaur egun zail eta astun bihurtzea

Abiapuntutik beretik esan liteke Atxaga idazlearekin, ondo pentsatuz gero ondo irakurtzen dela.

Beraz, zenbat eta jakintza gehiago, aukera gehiago testu bat ondo ulertzeko. Nahiz eta, hau ere esan beharra dagoen, askotan jakintza bat ez dela berme. Gerta liteke pertsona batek asko jakitea, baina jakintza horrek ez asko laguntzea, oso fenomeno konplexuak direlako. Normalean irakurketa ona, eta irakurle onak dira kultura bat jaso dutenak eta bigarren, kultura horrekin pentsatzeko era pertsonala garatu dutenak. Hori da, irakurri bai baina hobeto pentsatzeko. Eta ondo pentsatuz gero, normalean, ondo irakurtzen da.

Guk, irakurketa sakonaren ildoari jarraiturik, adierazten dihardugu aro digitalean ere ondo irakur dadin gura dugula, baina, garaia aintzat harturik, beste era batera irakurtzen dela. Ondorioz, nahitaez galdetu beharrekoa da irakurketa sakonari eta liburuari ea leku berezia dagokien. Tesiko ‘Irakurketa eta hausnarketa sakona: liburuaren autoritatea’ atalean bildu dugu bertan lerroak gorago idatzi dugun Nicholas Carr-en perpausa hori¹⁶⁰. Kontua da ‘Beste era batera irakurtzen da’ esaldia idatzi ostean, argitu egin behar dela sakoneko testuak irakurtzeko trebetasuna galtzearen zergatia. Hizkera

¹⁶⁰ “The deep reading that used to come naturally has become a struggle” (Carr, 2008: 2)

gordinez aitortzen digu Carr-ek behinola berez-berezkoa zuen irakurketa sakonean aritzea, gaur egun burruka bilakatu zaiola. Ondorik, Wolf ikerlaria ere ados agertzen da Carr-en hausnarketaz, zeren argiro ohartu baitzen ikerketako esperientziaz nola eskaintzen diogun irakurketa geldoari gero eta denbora laburragoa. Joera horren aurrean erabaki zuen Wolf andereak ikertzea, ea benetan ari garen galtzen sakonean irakurtzeko trebetasuna teknologia berrien eraginez. Eta haren konponbidea ematen dugu ‘Irakurle erreala, idazle klasikoak eta etorkizuneko irakurlea’ atalean.

Herrscher-ek lehen irakurketa sakona fenomeno naturala zela itauntzean, hauxe dio “oso galdera ona da”¹⁶¹ erantzun ostean, bere ikasle garaiko oroitzapenez mintzatuz, hain zuzen ere, aro digitalaren aurrekoez, 1980 eta 1990ekoez. Jadanik orduan, nekea suposatzen ziola —eta ikaskideei ere gertatzen zitzaizela—, zama astuna zela testu handi eta zailtan murgiltzea. Izendatu egiten ditu zail gertatzen zitzaizkien idazleak. Marx, Weber, Dostoievski, Proust, Joyce, Lezama Lima, Cortázar, Levy-Strauss, Foucault, Bourdieu, besteak beste. Hala ere, berak irakurri egin zituela fakultatean. Jarraian gehiketa hau egiten du, esanez gero eta zailago gertatzen zaigula kontzentratzea:

Pero cada vez nos cuesta más concentrarnos y desenchufarnos y atender a la lectura con todos los sentidos. Y esto sí se ha hecho más fuerte con la permanente tentación de lo digital, lo virtual. A cada generación le cuesta más, al menos es lo que percibo como profesor. Pero siempre precisó ese esfuerzo.

Ramón Salaverría Herrscherr-i lagun egitera datorkio beronek idazten duena iruzkinduz “baina gero eta gehiago kostatzen zaigu kontzentratzea, desentxufatzea eta irakurketari zentzu guztiekin erantzutea”.

Salaverríak antzeratsu erantzuten du “egungo gizartearen zailtasunetako bat deskonektatzea” dela esanez¹⁶². Zergatik deskonektatu? Bada, mugikor edo gailu horiek daudelako pentsatuta eta antolaturik zure arreta dei dezaten, eta etengabe egiten dute. Salaverríaren hitzetan digitalean irakurtzen dugunean atentzioa deitzeko elementuak ageri dira, eta horrek zaildu egiten du kontzentratuta egotea:

La lectura en plataformas digitales o en dispositivos digitales lo que hace es colocarte en el mismo dispositivo elementos que están llamándote la atención. Eso es objetivamente algo que interrumpe y dificulta la lectura concentrada.

¹⁶¹ Sakoneko ekarriketan egindako galdera hurrengoa da: ¿Coincides con la opinión de que la lectura en profundidad/profunda se daba como un fenómeno natural con anterioridad a la influencia de las nuevas tecnologías y hoy día esa misma lectura precisa de un gran esfuerzo?

¹⁶² Jatorrizko hitzak hauek dira: “Una de las dificultades de la sociedad actual es desconectar”.

Ondorioa da, Salaverriaren ustez, dispersioari ihes egiteko —gaur egun bederen— ahaleginera jo beharra dagoela, lehengo aldietan errazago gertatzen zelako:

Pero es muy difícil abstraerse y en esa situación de constante dispersión, concentrarse es algo enormemente complicado, mucho más complicado de lo que era antes. De eso no tengo ninguna duda, antes uno podía aislarse del mundo, podía concentrarse en este tipo de tareas mucho más fácilmente.

Herrscherrek, bere aldetik, ondo deritzon galderari Aurelia Arkotxak ez dio balio berezirik aitortzen. Artean Iñaki Gamindek adierazi bezala, irakurketa ez da fenomeno naturalizat hartzekoa. Ondorioz, Arkotxa andereak ez ditu antipodetan jartzen teknologia berriak eta irakurketa:

Nik ez ditut kontra ezartzen alde batetik teknologia berriak eta bestaldetik “irakurketa fenomeno natural gisa” esperimentatzen ziren iragan mitifikatuak... Irakurtzea ez da nehoiz fenomeno “naturala” izan...Nik, beste askok bezala, biak bizi ditut egunero. Egunero asko irakurtzen dut Interneten teknologia berriei esker eta egunero XV. mendea geroztik aro modernoak eskaintzen digun liburu inprimatu bat irakurtzen dut. Bien lotura ezin hobea da. Ez naiz batere ados kontra jartze horrekin. Nik ez dut paradoxa hori bizi. Ez dut ezagutzen.

4.2.7 Irakurketa sakona. Arnasa luzeko kazetaritza. *Berria* egunkaria

Hasiera-hasieratik argitu beharko genuke zein den irakurketaren helburu nagusia eta, horretarako, Bernardo Atxagaren testuaz baliatu gara:

Helburua ez da irakurtzea edo pintura kontenplatzea edo musika entzutea, hori ez da helburua. Horren bidez pentsatzea, errealitatea ulertzea da helburua. Ze errealitatea ulertzean, jakina, geure burua ulertu eta gure gizartea ere ulertzen dugu, ez dauka amaierarik lan horrek. Dena den, hori da helburu nagusi bakarra.

Idazkera pausatuaren bitartez, kazetaritzan berehala eta laster jarduteari erantzunez, *slow journalism*, arnasa luzeko kazetaritza, sortu dela azaldu dugu tesian, kazetaritzako praktikan abiadurak dakartzan ondorioen aurrean hartzen den jarrera kritiko bezala. Edonola ere, ez genuke lotu gura erabat kazetaritza narratiboa postmodernitatearekin; Barranqueroren pasartea hartuz, krisi mediatikoa gora behera, badira aurrera egin duten kazetaritza narratiboko ekimen handi batzuk:

Me parece mucho más interesante verlo desde una perspectiva histórica. En su día me gustó mucho cuando leí el fragmento de Robert Boynton, *The new new journalism*, cuando él decía que históricamente las dos tendencias, la del periodismo rápido y la del periodismo lento habían existido y creo que van a seguir existiendo. Frente a la crisis mediática y frente a la caída de periódicos absoluta por culpa de la publicidad, etc, hay grandes iniciativas de periodismo narrativo que se han mantenido: *The Atavist*, *The New Yorker*.

Arnasa luzeko kazetaritzaz ekarpen aberatsa egiten du Barranquerok, arteko pasartekoaz gainera, iragarritz *slow journalism*-ek ideia onen eskola suposatzen duela. Hain zuzen ere, beste kazetaritza mota batzuk —iritzia, entretenigarriak-eta nahasten dituen—, erreforma ditzakeena:

El periodismo narrativo no es un periodismo mayoritario, es un periodismo no anecdótico tampoco. Creo que es un periodismo histórico que ya acumula muchísimos años; no es una manifestación periodística de tipo coyuntural, es estructural. Ha existido hace muchísimo tiempo, existe y existirá. Es una cosa de ayer, de hoy y de siempre. Esa es la visión que tengo más allá de los golpes que reciba durante la crisis. Con la crisis del 2008 parece que este periodismo apareció fortalecido más allá de la crisis económica absoluta que estaban viviendo los medios se estaba haciendo buen periodismo narrativo. Entonces, ¿función periodística? Fundamental. Yo creo que es una escuela de buenas ideas para reformar el otro periodismo, el periodismo que menos nos convence, de consumo rápido, con malas prácticas y donde se mezcla la información, la opinión, el entretenimiento y todo. Creo que lo *slow* es un antídoto para reformar el periodismo, para reconectarlo con sus valores fundamentales que tienen que ver con el rigor, con incorporar las necesidades de la ciudadanía, etc.

Barranquerok deskribatzen duen betiko kazetaritzaren ildoan kokatzen du *slow journalism* deritzona. Eta Salaverriak, bere aldetik, indartu baizik ez du egiten, independentzia, egia eta oreka lako kontzeptuak erantsiz:

Empiezo a percibir algunos movimientos que apuntan a que el paradigma del periodismo está recuperando algunos de sus valores clásicos, los valores clásicos del periodismo la independencia, la verdad, el equilibrio informativo. (...) Y es lo que el periodismo siempre ha sido, el periodismo de calidad.

Kazetaritzaren balioak, beraz, iraunkorrek dira, aldaezinak. Era berean, kazetaritzaren paradigmak berreskuratu dituen balio klasikoekin loturik ikusten du Ameriketako Estatu Batuetako zenbait komunikabideren jokabidea.

Ha habido algunos medios que, particularmente en Estados Unidos han adoptado una visión un poco distinta y es: en lugar de perseguir a la audiencia, vamos a tratar de atraerla con la calidad de nuestros contenidos, en lugar de perseguir los *trendig topics* que ha deslumbrado a los medios.

Era horretara, ez gara eroriko —dio Salaverriak— plataformen dinamikapean, bai, ordea, kazetaritzako dinamikan. Hain zuzen ere, bigarren hamarkadan, 2010etik 2020rakoan, *like* kopuruak, biraltasunak, eragindako ikuspegi lausoa gaituz.

Atal honetan, irakurketa sakonaz ari garelarik, *slow journalism* eta *Berria* egunkaria aintzat hartu ditugu, Martxelo Otamendi zuzendariaren erantzunen harira:

Igandekoa, esate baterako ez dago zertan egunean bertan irakurri, horrelako gauzak astean zehar irakur daitezke, edo gordeta pilatu. Beste gauza *slow* bat ere badaukagu, edo hau baino *slow*-agoa: *Aleka* bilduma; kazetaritza luze eta landua da. Hiru lanketa dauzkagu beraz; Egunerokoa, Igandekoa eta luzea, *Alekan* eskaintzen dena.

Albadalek adierazi digu eguneroko erritmoa dela medio irakurri ezin ditugun artikulua gordetzeko modua eskaintzen diguten aparailuak dauzkagula: “Mugikorrak eta tabletak dauzkagu, haiekin estropezu egitean irakurri ezin ditugun artikulua gordetzen laguntzen duten gailuak”¹⁶³. Helburu hori betetzen du, adibiderako igandetako *Berriak*; ustez, izango dugula gogoia eta astia sakoneko irakurketetarako.

Alex Rayónen erantzunen artean ere denbora eta astia hartzen dira kontuan irakurketa sakonaz diharduenean:

La gestión del tiempo —que no sea la instantaneidad—, la paciencia, la comunicación escrita, la lectura lo fomenta; porque tú lees mucho a mucha gente e influye en tu patrón de escritura hasta lograr tu propio patrón. Creo que leer te desarrolla unas competencias que solo la lectura te las desarrolla.

Rayónek aipatzen duen pazientzia dela eta, Atxagak zabaldu egiten du kontzeptua:

Nire ustez hala ere, ezin da esan errepresentazio guztiak maila berekoak direnik. Nire iritzirako errepresentazio mota batzuk, esate baterako, liburuetan daudenak eta kasu honetan ari naiz ez zientziari buruzkoei (zientzia edo *physis*, ez errealtate objektiboaz). Zientzia beharrezkoa da, ezagutu beharrezkoa da baina ez —paradoxa ematen du baina— beste errealtate subjektiboak bezain konplexua. Eta beraz, hortaz ari garela, ez direla errepresentazio guztiak maila berekoak.

¹⁶³ Egindako elkarrizketan honela zioen: “Contamos con móviles y tabletas que ayudan a almacenar los artículos que no podemos leer sobre la marcha cuando tropezamos con ellos”.

Liburuetan dauden testuak, pintura bera,... horiek mantso egiten direnez, irakurri mantso egiten da, testua mantso doa, zinea ez, pelikulak ez, arinago doaz. Abiadura arazo horrek, hobeto esateko, abiadura hautsi horrek ondorio batzuk baditu. Egia baldin bada Lichtenbergekek bere aforismoan esaten zuena konparatuz, pentsamendua, inteligentzia konparatuz suarekin eta esanez suak piztu ahal izateko hutsunea behar duela. Hutsunerik gabe ez dago garrik, ez dago surik eta hutsunerik gabe ez dago inteligentzia onik, ez dago ulermen onik, ez dago errepresentazioaren helburu onik. Eta kasu honetan, irakurketaz ari garela, hutsunea da azkar esanda, denbora. Denbora besterik gabe. Eta testu baten aurrean lasai eta poliki egoteko aukera behar dira. Nire ustez horrek ematen dio halako kategoria bat testuei eta irakurketari.

Aurelia Arkotxak testu baten aurrean irakurlea —Atxagak idatzi duenez— lasai eta poliki egoteari erabateko garrantzia ematen dio, are handiagoa klasikoetan jakitun izanez beraien testuak errepikatzeari baino:

Kritikalariak zubiak izan daitezke edo batere ez... Dударik ez kritikalariak berak oztupo izan daitezkeela. Irakurleak berak beharko luke esperimentatu. Liburu baten irakurketa ez daiteke kritikalarien esku utz irakurleak badu hor bere bide propioa egiteko. Roland Barthes-ek aipatzen duen “irakurtzeko plazerra”, *le plaisir du texte*, da bide bakarra. Eta hori irakurlearen eta liburuaren arteko harreman isilean sortzen da.

Irakurketan ahaleginik egiten ez duenak, orduan, zein gaitasun ez du garatzen, edo zer galtzen du itauntzean, erantzun hau eman du Bernardo Atxagak:

Irakurtzen ez duen hori, alegia, gogorik, zaletasunik, kezkarik ez daukalako horri buruz, irakurtzen ez duen horri nik ezin diot ezer esan. Nork bere bizitza nahi duen bezala antolatzen du edo ahal duen bezala. Nik uste irakurketa kontu honetan eta gauza gehienetan giroak agintzen du. Esan nahi du, gizarteak agintzen du, komunitateak agintzen du; komunitate horretan lehena familia da, edo eskolak agintzen du. Hau ez da Frantzia esate baterako, hemen giroa, komunitatea, gizartea, familia ez da liburuaren inguruan ibili. Seguru asko, hor 40 urte joan zirelako ia alperrik alde horretatik. Ez bakarrik diktadura politikoagatik, baita ere, agian batez ere, diktadura horren muin ideologikoa izan zen erlijio trentotar delakoagatik.

Igandeetako *Berriaren* ildora bihurturik, Otamendik era guztietako arrazoiak eta gaitasunak lantzen ditu, beti ere irakurketa pausatuz: “Gure igandeetako eredu ulertzeko, onar dezagun ez daukagula aldizkaria (*El País Semanal*-en tankerakoa) egiteko dirurik”. Kinka hartan aurrera nola jo aztertu zutela kontatzen du, eta filosofia honetara iritsi zirela: “Egin dezagun zerbait”. Horrezaz gain, arterik zutela beste ataza bat: “Igandeetakoa ari zitzaigula sortzen larunbata aspergarri eta mugimendurik gabeko

larunbaten hurrengo eguneko periodikoa”. Orduan, “Erabaki genuen igandeetako alea geure astekari bihurtzea. Aurreko zortzi orrialdeak aldizkaria dira eta bestea da astean zeharreko diagrama. Guk etxean sortutako eredia da, ez dago horrelakorik inguruetan”. Une batez, hitzetik hortzera dihardu Otamendik, iragarriz, mantxeta ere aldatzea erabaki zutela, asko kostata bada ere. Bestalde, *Berriaren* marka galtzeko beldurra ere bazutela, noski. Denarekin ere: “Uste dut arrakasta izan duen eredia dela sortu duguna. Azalak lan handia dauka atzean; kafe katiluekin egin genuena erosi ere egin ziguten (Espainiako mapa katiluekin —*café para todos*— Suárezena gogoan). Kataluniako aldizkari batek erosi zigun”.

Figure 5. *Berria* egunkariaren azala



Iturria: *Berria*, 2017

Martxelo Otamendik aipatu berri duen dirurik eza eta *slow journalism* aintzat hartuta, Barranquerorengana joko dugu, zeren argitasuna baitakar kazetaritza narratibo honek jasaten duen egoera ekonomikoaz. Hau da, oraindik ere negozio eredu argirik egon ez arren, egon badagoela kazetarien belaunaldi berri bikaina:

Una nueva generación de nativos digitales que apuestan por redacciones más pequeñas o directamente por no tener redacciones y basar más su modelo de organización en el teletrabajo, en modelos más cooperativos, en la propia ausencia de estos espacios físicos. Creo que estos medios son a veces un semillero del que coger ideas más allá de que a muchos de ellos les cueste consolidar su modelo de negocio. Creo que desde los nuevos medios digitales se está haciendo un periodismo más arriesgado, a veces más comprometido con los derechos humanos, con formatos interesantes —caso *La Marea*— como el que tú investigas que es la crónica, el reportaje, etc. Están haciendo grandísimo

periodismo de investigación que podría ser calificado como periodismo narrativo o *slow journalism* y que más allá de que algunos están mejor pagados, algunos menos, hay nombres interesantísimos de una nueva generación de periodistas que están haciendo un maravilloso periodismo.

Arlo ekonomikoaz tesian idatzirik dugu bat datorren Fernando Molinaren iritzia, *slow journalismeko* informatzaileen artean maiz aipatzen dena, alegia, beraien lanbideari dagokionean, jasotzen duten ordainketa osagarri ekonomikoa baizik ez dela¹⁶⁴.

Beraz, Iñaki Gamindek esan duen kazetarien lanbideko sinesgarritasun ezaz gainera, bada negozio ereduaren krisia ere. Hau da, soldata krisia, kazetari autonomo gehiegizko prekaritatea, ordainketa baxua, eta abar.

4.2.8 Irakurlea. Liburuak. Kronika

Digitalizazio aroko kazetaritzak modernismoko ideologia eta errelato handiak alde batera laga dituzenez, historia eta errelato txikiei begiratzen die. Beraz, guk sakoneko elkarrizketetan jaso nahiko genukeen erantzuna da ea postmodernitateko istorio horiek ez ote diren egongo kontraesanekin edo *longform* testuekin.

Liburuaren eta kroniken arteko loturari so egiteko, paragrafo bete-betea igorri digu Barranquero kazetariak erantzunetan. Dioskunez, kazetaritza narratiboak, hain zuzen ere, liburuaren antzeko zerbait duelako irauten du bizirik, baita gero eta gehiago modan dauden formatu serialekiko antzekotasunengatik ere.

El *slow journalism* aporta todo al periodismo. Calidad, consumo lento, recursos audiovisuales, rigor y sobre todo historia. El ser humano necesita de mitos. La necesidad del mito que decía Rollo May, los grandes relatos, mitos en los que vernos identificados, en mitos que nos ayudan a entender el mundo, a dar significado, que nos aportan contexto. Incluso, el periodismo narrativo sobrevive precisamente porque tiene algo parecido al libro o incluso a los formatos seriales que están cada vez más de moda. Cuando seguimos una serie, una novela que tenemos que interrumpir a veces, al igual que muchas veces interrumpimos los relatos periodísticos de largo alcance, las narraciones juegan con ese mecanismo del suspense y sobre todo con la capacidad autónoma que tiene el propio lector de completar las historias a su manera, con su imaginación. Ese es el poder de

¹⁶⁴ “¿Cómo es posible pagar las facturas si cobras 250 dólares por un artículo que te ha llevado un mes y medio en la India?” In *Periodismo Slow*, op., cit., 160.

las grandes historias. Por eso la crónica es tan importante en nuestros tiempos. En realidad, lo que hace es recuperar un formato que se lleva haciendo desde tiempos inmemoriales, te diría que desde la propia edad moderna si nos fijamos en el significado de crónica que dan los historiadores.

Barranquerok era diafanoan azaldu digu kronikak historikoki egin duen ekarpena, baita gure egunotan dugun kronikaren premia ere. Ekarpen hori osatzera dator Ramón Salaverriak kronikaz adierazten diguna, kronika *slow journalismen* esparruan kokatuz; kazetaria bera subjektu eta ardatz bihurtzen duena; kronikalariaren ikuspuntuari balio erantsia eskainiz, alegia, *slow journalismeko* lurraldea kronikarena dela segurtatuz.

Me parece que el *slow journalism* es el territorio de la crónica, el territorio donde la visión personal del periodista tiene un papel enormemente relevante; no es una mirada puramente neutra, puramente desapegada de la realidad, sino que, en ocasiones, tiene un punto de compromiso.

Behin kronika arnasa luzeko kazetaritzaren esparrura ekarriz gero, bai kronikaren, baita *slow journalismen* jatorri historikoa ere marko ezagunean koka daitezke. Horretarako Salaverriaren ideia-aleak oso lagungarriak dira: “Siempre ha existido el *slow journalism*”. Ez da, beraz, mugatzen digitalizazio aldiko azken 25 urteetara, gibelera jotzen du, XX. mendera lehenik, XIX. eraino iristeko:

Si uno analiza el periodismo del siglo XIX, había periodismo de viajes, había la larga crónica, había personas que te contaban una información con un peso importante. En el siglo XX el periodismo interpretativo, posteriormente el nuevo periodismo norteamericano con Capote, con Wolfe... con sus derivas un poco estilísticas un poco excesivas, pero también tratan de profundizar en la información.

Kazetariaren ikuspuntua erabat testuinguraturik geratzen dela esango du Salaverriak, baldin idazlanak dokumentaturik erredaktatzen badira. Helburu hori bete dadin, aldamenen jartzen dira beste jakintza-eremu batzuk ere, dela literatura, dela historia edo dela filosofía, era horretara narrazio doituak lor daitezten:

Es una mirada enormemente contextualizada donde los trabajos se documentan, donde ya no solamente sirven los datos, sino que hay otros territorios como la literatura, como la historia, como la propia filosofía que sirven para construir relatos detallados.

Ramón Salaverriaren paragrafoan —aipatu berri dugunean— jaso dugu nola kazetariaren ikuspuntua testuinguraturik geratzen den, idazlanak dokumentaturik

erredaktatzen badira, eta hortxe kokatzen du historia edo filosofiarekin literatura ere. Artean idatzi izan dugu ‘Irakurketa eta hausnarketa sakona: liburuaren autoritatea’ azpiatalean, nola irakurketa garapenerako baliabiderik emankorrena den *slow journalismen* paradigman, eta helburu horretarako, literaturako idazlanik eredugarrienak norberarenganatzea beste ezer baino bitarteko egokiagoa gerta daitekeen.

Beraz, literatura irakurketaren paradigmako markoan jartzen denean, aukera ematen digu gainerako medioekin parekatzeko. Erkatzean, ordea, esplizituki onartzen dugu literatura ez dela ametsak, fantasia, ilusioa sortzeko medio bakarra. Zeren gazteek esperientzia edo emozio horiek telebista, bideo-joko edo sareen bidez ere bizikiro berengana baititzakete. Orduan, gaur egun egon badaude beste baliabide batzuk — musika tarteko— barne sentimenduak-eta sentiarazteko. Ondorioz, onartzekoa da literatura ez dela kanal edo modu bakarra emozio horietara iristeko. Azken finean, Urkizak ozenki azalduko du nola irakurketak ezin lor ditzakeen gainerako kanalek baino sentsazio bortitzagoak, alabaina literatura gainerakoetatik erabat bereziturik nortasun itzeleko mediotzat kalifikatuz:

Era berean, telebista, bideo joko eta sareek emozio horiek sortarazten dituzte baina eginda ematen dizkigute. Hori da literaturatik bereizten duena. Literatura idatzita dago baina amestu, zuk amesten duzu, pertsonaia zuk egiten duzu eta pertsonaiari elkarriketa zeuk egiten diozu. Beraz, literaturarekin sortzen zaigun mundua beste medioekin ez da sortzen. Gainera, irakurtzen gaudenean aktibo gaude, deskubritzen eta beste medioetan pasibo.

Edonola ere, geldotasuna, sormen uneko astirotasuna produkzio tarteari egokitzen zaio, ez nonbait, informazioa bera irakurtzen eskain dakioken denborari. Ramón Salaverriaren jakintza-ekarpenen artean sartu gura dugu ‘kazetaritza gelditua’ deritzona, arretazkoa. Hein handian bat dator arnasa luzeko kazetaritzarekin, baina ez osoan, zeren *slowek* astiro zentzua bereganatzen baitu, eta Salaverriak arretan egiten du indar; denboratasunean baino sakontasunean:

El *slow* se traduce como periodismo lento. A mí me gusta más otro término: periodismo detenido, con detenimiento. Yo creo que la clave está ahí, en no pensar tanto en términos temporales como en términos de profundidad informativa.

Orduan, geuretzat ere, horixe da sakonean, informazioan sakondurik jardutea.

Ataleko izenburua liburuak eta kronikaz gain irakurketa ere bada. Jabe gaitzen irakurle izatearen garrantziaz, Iñaki Gamindek barne-adierazpen deigarria idatzi du: “Aurten ijitoekin eta Afrikako etorkinekin ibili naiz klaseak ematen ahal izan den artean eta irakurtzen dakigunok zer dugun ez dakigu ondo”.

Tesian defendatzen dugu —Piñero idazleari jarraituz— testua ez dela autonomoa: “La idea de que el texto (un documento antiguo, por ejemplo) es totalmente autónomo y no depende de lo que pretendió el autor que lo escribió es un mito. El texto no es autónomo” (*Religión Digital*, 2018-07-04). Hau da, testua idatzi duenaren autoreari galdetuz gero holako erantzuna-edo emango luke; nik neuk autore izanik, gura dudana da irakurleak idatzi dudana ulertzea, eta testutik atera dezala neuk komunikarazi nahi dudana, ez irakurleak nahi duena.

Idazlearen eta irakurlearen harremanaz Bernardo Atxagari galdeturik, batez ere, ea bere testuetara zerk erakartzen dituen irakurleak, hurrengo hau erantzun digu:

Idazle mota batek, azkar esateko, genero baten barruan ibiltzen danak, nobela beltza edo polizia nobela edo historikoa edo dana dala, holako generoetan mugitzen den idazleak ezagutzen du bere irakurlea. Hala nola, autopista zabal batetik doanak normalean zein hiritara doan badaki. Idazle mota horrek oro har jendea entretenitzeko idazten du. Beste era bateko idazleok ez dugu halako autopistarik hartzen, errepide txikiago eta bihurriagoetatik ibiltzen gara. Asko zailagoa da gure irakurlegoa zein den jakitea. Jakina, zuk ideia bat daukazu buruan; pertsona bat sentzibilitateduna, ondo pentsatzen duena, irekia dena, baina hori ideia bat da. Hor utopiaren esparruan ari gara. Beraz, ez dut oso ondo ezagutzen nire irakurlea. Badakit euskaraz irakurtzen duela, batzuk gazteleraz, frantsesez. Baina haren erretratu errebota egiteko ez naiz gauza.

Autorearen eta irakurlearen arteko eragina, Innerarityk honela ikusten du esatean, irakurketaren bidez, autorearen eta irakurlearen arteko komunitate mota bat eskuratzen dela, ahozko kulturaren baino distantzia kritiko handiagoarekin:

El libro nos libera de los maestros, decía Victor Hugo. Por medio de la lectura se adquiere un tipo de comunidad entre el autor y el lector con mayor distancia crítica que en la cultura oral. Goethe tenía a la vista esta figura del espectador moderno como lector crítico cuando en el *Preludio en el teatro* de su Fausto I pone en boca del preocupado director teatral estas palabras referidas al público: “Han leído tanto que me asustan”.

Bernardo Atxaga idazleak, bere aldetik, dio ehun pertsona jakini liburua emanez gero nork bere modura irakurriko lukeela:

Hizkuntza tartean dela, zein nahi dela ere hizkuntza hori, berdin dio euskara, gaztelania, ingelesa, japoniera ba oihartzun hitza oso motz gelditzen da. Alegia, hizkuntza jakin batean zerbait entzun edo zerbait irakurtzen dugunean horrek gugan duen eragina esan bezala, ez da kabitzen oihartzun delako hitz horretan. Esango nuke, ez da konnotazio eta holako hitzetan ere ez. Emaiezu liburu bera 100 pertsona jakini eta gero galdetu zer ulertu, sentitu, nola jaso duten irakurritakoa eta seguru ez dela bertsio bat ere beste bertsio baten berdina izango. Nork bere modura irakurriko du liburu hori. Bere modura esan nahi dut, bere mundutik, bere esperientziatik, bere kulturatik edo kultura ezetik, dakienaren edo ez dakienaren arabera. Beraz, oso zaila litzateke, agian beharko halako telefono gida bat irakurketa soil batean sortzen diren edo ondorioz datozen eragin eta lotura guztiak zerrendatzeko. Badut nik esperientzia bat *Bi Anairekin: Bi Anai* nola jaso izan zen Ingalaterran, hori da kultura oinarria protestantismoarekin eta lotutakoa den herri, nazio horretan. Eta nola, esate baterako, obra bera Italian, oinarri/sustratu katolikoa duen nazio batean. Bada, oso modu desberdinean. Alegia, hizkuntzaren beraren materialak ze eragin duen...ba, azpimarratu daiteke hori baina beste azpimarra asko egin behar dira. Tartean, irakurlearen ideologia, ze erlijio, ze heziketa, ze interes.

4.2.9 Liburu onak. Klasikoak. Grezia

Adituen esanetan, ez dirudi aro digitalean bizi garen arren, Greziatik aldendu garenik. Hori horrela, ez ote genituzke kontuan hartu behar Platon edo Sokrates kronika edo biografia idazterakoan? Ordea, filosofo horiek kontuan hartzeko, zein izan liteke bidea irakurketarako zaletasunik ez denean? Hau da, batez ere, paperezko liburua bazterrean lagaz gero?

Mendebaldekoak ohitu egin gara mendeetako tradizioaren eraginez Greziako kultura gure jaioterriko kulturatzat hartzen. Hala ere, globalizazioak homogeneotasuna ekarri duen arren, ez genuke ahantzi behar beste berezitasun batzuen artean ekialdeko kultura eta mendebaldekoa zentzu askotan ez datozela bat. Horretarako, nahiko izango genuke gure klasikoak eta Japoniakoak erkatzea.

Gure klasikoen abiapuntua finkatzeko Herrscherren paragrafoan oinarritutako gara. Esaten digu Sokratesenik ezer idatzita ez dagoenez ezin dugula erreferentziatu baina, hala ere, Grezia zaharreko idazle eta abarrak klasikoak direla.

No podemos citar a Sócrates, porque no dejó obra escrita, pero los filósofos, poetas y dramaturgos de la Grecia antigua son parte de los clásicos que son fuente de nuestra forma de ver el mundo.

Atxagak, aldiz, galdetuta ea zenbaterainoko garrantzia duten autore grekoek irakurketa sakonaz mintzo garenean, erantzuten du bereiziz guregan Greziak duen eragina euskal eta erdal kontzeptuak oinarrian direla:

Jakina, Grezia hemen dago, Grezia zaharra, baita Grezia aurreko herrialdeak, nazioak eta kulturak, Asirioak, egipziarrak. Noski, horiek gurekin daude ze guk erabiltzen ditugun hitz asko haiengandik datoz, guk tragedia esaten dugunean Grezia zaharrean Sofoklesekin eta tragediak idatzi zituztelako da. Eta han planteatutako gaiak eta moduak eta idazteko erak eta, hori dena guran dago nahita edo nahi gabe. Horrek kontzientziarekin edo gabe, hala da. Hori gertaera bat da, fact, hori halaxe da. Irakurri Julio Caro Barojak gure jaiei eta festei buruz idatzitakoak, gure inauteriak, Erroma eta Grezia garaiko festetatik datozela zuzen-zuzenean. Eta pentsatu pertsonaia, pentsatu Dioniso egon zela Grezian eta gero Baco Erroman eta gero Gargantua eta literaturan azaldu diren mozkor guztiak. Hori ez da guk asmatutakoa, hori aspalditik dator.

Japonian, aldiz, beraien literaturako klasikoak arakatzerakoan, ohartzen gara nola logika, gure artean ezinbestekotzat hartzen duguna, Mendebaldeko kategorien arabera edozein obra baliozkotzat har dezagun, japoniarren pentsamoldean ezereza den. Diogunean, ordea, japoniarrek ez darabiltela logika beraien irizpide literarioetan, ez dugu adierazi nahi ez direnik, guk legez, arrazoitzeko gai, ezpada ze, ez diotela garrantzirik ematen logika horri, *kimochiaren*¹⁶⁵ printzipio afektiboen arabera jarduten dute-eta. Hots: ‘gustatzen zait’, ‘ez zait’; ‘badut gogoa’, ‘ez dut gogorik’, eta abar. Azken batean, oholtza arrazionala nahitaezkoa da guretzat, ez, berriz, japoniarrentzat.

Aipatu berri duguna berreste aldera, Arruperen (2001: 265). *Este Japón Increíble* liburuko aipamena gogoratuko dugu. Argitzen digunez, mendebaldeko kulturen autore klasikotzat hartzen ditugunak han beste batzuk dira:

En la literatura japonesa me tropecé con una sorpresa muy instructiva. Fui buscando los clásicos y me encontré con que eran completamente distintos de los grecolatinos, Demóstenes, Cicerón, Sófocles... Más aún, vi que no había la menor correspondencia entre el concepto que nosotros y los japoneses tenemos

¹⁶⁵ 気持ち: sentimendua, aldartea, egoera mentala.

de la palabra. Kakinomoto, Okuro o Basho forman un mundo que no admite comparación con el de los occidentales citados porque la literatura de éstos y aquéllos encierra valores completamente heterogéneos. Y para la comparación nos hace falta cuando menos una homogeneidad relativa. En lugar de aquella elocuencia lógica, contundente, de un Demóstenes, o las peroraciones arrebatadoras y sonoras de Cicerón, o los personajes idealmente reales de Sófocles, nos encontramos con la objetividad de Kakino-Hitomaro, el misticismo de Yamabe, el pesimismo de Basho y el simbolismo del Nô, que los occidentales consideramos como teatro, pero que para los japoneses no lo es. En todos estos autores se revela el alma del artista japonés con rasgos muy sui géneris y difíciles de reducir a categorías clásicas occidentales. El mono no aware, sabi, namida... da a la literatura japonesa un sabor y una belleza sentimental grande, pero al mismo tiempo exento de toda vena lírica. Las formas preferidas que escogen los clásicos para elaborar sus obras son el Tanka, poesía de 31 sílabas; el Haiku, de 17 sílabas; el diario, y el Monogatari (narración). Y cuando llegan a la culminación del fondo y forma, escogen el ya indicado Nô, que es una especie de teatro simbólico.

Azken finean, alferrik abiatuko gara mendebaldeko logikaren eta arrazoimenaren bila, zeren Japoniako idazleak bihotzak gidatzen baititu, eta ez adimenak.

Denean dela, guri Herrscherren arestiko aipamenera bihurturik, Greziako kulturara begiratzea dagokigu. Innerarityk ere, kultura hausnarketa, interpretatze eta autoulermenerako gune dela azaldu ondoren, Greziako eta mendebaldeko kulturaren esparruan kokatzen ditu adibide nahiz giza-ereduak, unibertsitateko ikasketak burutu dituenarentzat oihartzuna badutenak, baita sakoneko irakurle denarentzat ere:

En las diversas expresiones culturales los seres humanos no hacemos otra cosa que proponer interpretaciones de lo que somos e ideamos futuros a los que temer o aspirar, en una dimensión que tiene que ver con el sentido que damos a cuanto nos pasa y no tanto con la constatación de hechos o la gestión de objetividades. Las leyes de divorcio no pueden modificar el destino de Agamenón, ni la psiquiatría es una respuesta al drama de Edipo; los problemas de Fausto no pueden ser arreglados por el Fondo Monetario Internacional, ni por una agencia de viajes los de Ulises o el holandés errante; sería una torpeza creer que el destino de Lear se resolvería estableciendo asilos de ancianos; el dilema que atormenta a Antígona y Creonte es tan profundo que no puede solucionarlo ninguna reforma de los ritos funerarios. En ninguno de estos relatos se contienen las recetas para solucionar los graves problemas que padecen sus personajes; pero no encontraremos una solución verdaderamente humana a esas penalidades si no las hemos comprendido bien, para lo cual no hay mejor exploración que las obras maestras de la literatura.

Otalora idazleak bere klasikoen gaineko erantzunean adierazten digu Italo Calvino-ren *Por qué leer a los clásicos* gida, fidagarria dela. Liburu horretan diosku, “kultura helenistikoaren goreneko lanen zentzuan klasikoak ez ezik, benetako arrastoa uzten duten lan unibertsalak ere aipatzen ditu”¹⁶⁶. Geuk ere, horrenbestez, Calvinoren ideiei jaramon eginik idazki unibertsalei ere egin diegu so. Zeren, klasikoen arteko obra asko literatura unibertsaleko arketipoak baitira, baita gizakion bizitzakoak ere. Rayón irakasleak ideia beretsuak azaltzen ditu bere erantzunetan. Azken batean, klasikoak beharrezkoak direla erreferentzia markoak eraiki ahal izateko:

Para mí leer clásicos es fundamental para establecer lo que en filosofía se denominan marcos de referencia. Construir un relato o construir un pensamiento crítico hoy en día de manera absoluta es difícil. Es bueno leer cuestiones que han sucedido en el pasado. Para la construcción es necesario tener pensamiento crítico —y yo soy informático pero leo mucho—. Los marcos de referencia del pasado me permiten extrapolar a redes o situaciones del día a día.

Arteko paragrafoan klasikotasuna zedarriturik, Rayón teknologian adituaren jarraiko katebegi legez uler genezake Ana Urkizaren iritzia; zeinean, klasikoen jakituriaz jabetzea, —ordukoa bezainbat gaur egunekoa uler dezagun—, behar-beharrezko bitartekaria baita.

Historia ezagutzeko irakurri behar dira obra klasikoak eta batez ere gizakia eta gizartea. Gaur egun bizi garela eta historia gainditu dugula jakitea ez da nahikoa. Baina, batez ere, da gizakia eta gizartea ulertzeko ze, oinarria bera da; orain 100, 200 eta 300 urte gizakiaren oinarria bera zen; ditugun beharrak berberak dira. Gainontzeko guztia aldatu da, noski. Baina kazetari batek hori ez badu ulertzen, nola egingo ditu galderak, nola interpretatuko du mundua aurrekoek egindako guztia ezagutzen ez badu, edo aurrekoek nola galdetu duten ez badaki. Hau da, gizarteko momentu bakoitza nola interpretatu den eta nolako erantzunak eman zaizkion ez badakigu, zelan interpretatuko dugu gaurko gizarteak behar duen modu horretara?

Idazlan klasikoen artean, hala kazetaritzarakoak nola literaturarakoak, grekoen ondoren Defoe aipatu dugu hiruzpalau bider. Bere *The Storm* dela-eta, ohiko kritikak idatzi du *The Storm* kazetaritza modernoaren aurrekaria dela. Bertan, zehatz kontatzen da

¹⁶⁶ “Él se refiere no solo a los clásicos en el sentido de las obras del apogeo de la cultura helenística, sino a las obras universales que dejan verdadera huella”

gertakari atmosferiko hilgarriaren eraso. Gainera, eleberrigintzan ingeleseko *Robinson Crusoe*, lehen eleberrri modernoa, idatzi zuen 1719an.

Italo Calvinok dio Defoeek helburu hori ez bazeukan ere, literatura unibertsaleko klasiko bihurtu direla bere obrak:

Nace, pues este fundador de la novela moderna muy lejos de la literatura culta. En 1724, el autor escribiría su última novela, Roxana, la amante afortunada. Y aunque, en realidad, Daniel Defoe no escribió ninguna de estas novelas con más intención que la de procurarse unas buenas ganancias, al final todas ellas se han convertido, a día de hoy, en unos clásicos absolutos de la literatura universal (Calvino, 2015: 109).

Irakurketa sakoneko gure erantzuleek, bestalde, gogokoen dituzten obrak edo baliozkoenak edo eraginik handienekoak aipatu dizkigute. Herrscher-ek interesgunea, batik bat, kazetaritzan ipinirik, aipatzen ditu Truman Capoteren *In Cold Blood* edo Gabriel García Márquezen *Relato de un naufrago* erreportaia nobelatua:

Hiroshima, A sangre fría, Primavera Silenciosa, Operación Masacre, Relato de un naufrago, Frank Sinatra está resfriado, las crónicas de Larra y de Roberto Arlt son grandes textos más allá de las revistas, los diarios y las editoriales donde se publicaron.

Innerarityk idazle klasikoez gain irakurle-ikuspegitik barne-muineko erantzuna eskaintzen digu, *Biblia* nahiz Nietzsche erreferentziatuz:

El mío incluye libros decisivos como *La Biblia* y *El Quijote*, pero mi periodo más intenso de lectura fue cuando viví en Alemania y me leí a casi todos los autores del romanticismo. Aprendí el alemán leyendo también a Nietzsche, un autor del que admiro más el estilo que el contenido. En general leo ensayo contemporáneo de filosofía política (Habermas, Luhmann, Beck, Pettit, Rosanvallon...).

Eta Otalora irakasle-kazetariak ausart jokaturik hamarreko osoa zerrendatzen du espazio eta denbora falta aldarrikatuz:

Me inclinaría por estos títulos sin que el orden indique la importancia, los diez lo son por su contenido; la pena es que no tengo espacio (ni tiempo) para explicar las razones. Sé que faltan algunos títulos, pero...

Ondokoak dira bere zerrenda osatzen dutenak: *La Odisea* de Homero; *El gatopardo* de J. T. Lampedusa.; *La Biblia*, sobre todo los *Evangelios* de Mateo, Marcos, Lucas y Juan; *La peste* de Camus; *El corazón de las tinieblas* de J. Conrad; *Diálogos* de Platón...

Sobre todo los primeros, que son los genuinamente socráticos; *El poder y la gloria* de Graham Greene; *Consuelo de la filosofía* (Boecio); *Cien años de soledad* de G. García Márquez y *Tragedias* de Shakespeare.

Edonola ere, ‘Liburu Onak. Klasikoak eta Grezia’ atal honen bukaerako iritzi legez, esan dezagun Italo Calvinoren ideietan oina harturik, edozein kazetarik ezinbestean irakurri beharko lituzkeela klasikoak. Eta orain Defoez ari garelarik, baliabide estilistiko-narratibo bikainen jabe dela; trebea oso lau perpausatan gaia marrazteko; deskribapenak era berean direlako biluziak eta zehatzak; Rousseau-rengandik hasirik Hemingway-renganainoko idazleek Defoe lehen irakasletzat har dezaketelako.

Finean eta buruan, Aurelia Arkotxak klasikoak eta, jakina, gure bidegileak direla baieztatu ondoren, pentsamendu propioaren jabe izatera iristea jartzen du helburutzat:

Lorito edo perroketek bezala oso konbentzionalak diren “idea handiak” errepikatu ordez, komeni da pentsamendu propioaren ukaten ikastea. Ez da erraza. Batek gaztetatik ikasi beharko luke azalckerietatik jalgitzen, bere “finitude”-aren esperimentatzen eta esperientzia frustante horrek Shakespearen, Lao Tseuren, Hannah Arendten ala beste edozein autoreren obraren ezagutzara bultzatzen badu, hobe. Aurretik eraikia den erantzunik ez da, batek berak du behar esperimentatu bere bidea, bere barnean beldurrik gabe ibiltzen ikasiz.

Aurelia Arkotxari galdeturik ea gerta litekeen kazetariak behar besteko prestakuntzarik eza izatea irakurketarako dedikazio nahikorik ez duelako, erantzun du ezin daitekeela eman iritzi negatiborik orokorrean, azaleko kazetariez gain izpiritu kritikokoak ere beti hor direla-eta:

Beti izan dira profesional serioak alde batetik, eta bestetik, azalekoak, gauza guztietan bezala. Demagun azaleko profesionalak “besteen iritzieta eseriko” direla poltronetan bezala (“menpe” badira nahi dutelako da, inerziaz edo konbentzionalismoz). Ordea, profesional serioak bere bide propioak bilatuko ditu izpiritu kritikoa zainduz. Euskal Herrian kazetari oso onak badira eta aski da prentsa digitala nahiz paperezkoa irakurtzea hori ikusteko.

4.2.10 Arrakala teknologikoa. Balio zibikoetan alfabetatzea

Kazetaritzan adituak diren profesionalei galderak zuzentzean, bestalde, aipatu beharrean gara, ea euforia tekno-zientifikoak dakarkigun baikortasunak eta lilurak hainbesteko indarra hartu duenean, kazetaritzaren deontologiaren arabera aritzeko, ez ote den premiazkoa izango balio zibikoetan ere alfabetatzea.

Teknologiaz dihardugarik, ezer baino lehen argitu beharko dugu zein besteko eragina duen aro digitalaren berezitasunetan. Barranquerok hasieratik beretik azpimarratzen du saihestu egin behar dela tekno-determinismoa:

Señalar que las tecnologías son la causa directa de algo es caer en el tecno determinismo de Innis, de MacLuhan..., o el determinismo que nos lleva a pensar que las redes sociales eran los principales detonantes de las revoluciones árabes, del 15M...esto es un error. Yo creo que las plataformas digitales son directamente el contexto. Pero en cualquier caso Internet ha sido un instrumento interesantísimo para aumentar la pluralidad de medios, de voces para hacer un periodismo ciudadano que a veces ha estado ahí, in situ, cuando se han producido catástrofes, emergencias, etcétera y un periodismo ciudadano que a veces ha dado cuenta de lo que estaba pasando en lugares en los que ni siquiera había periodistas desplazados, precisamente por la crisis de los grandes medios que ya no mandan corresponsales. Las plataformas digitales son interesantísimas por la capacidad que tienen de interconexión, de periodistas a nivel global, de formular proyectos periodísticos de investigación, como lo ya clásico o lo ya paradigmático, el ‘Cablegate’ hace unos años, los papeles de Panamá (...) Creo que lo digital es más el contexto de estos cambios pero sí que por unas entrevistas que hacía durante el coronavirus para examinar el periodismo con enfoque de derechos humanos en España, ahí lo que me decían es que —me pareció muy interesante— tenía que ver con el hecho de que la aparición de medios que renuevan el periodismo o el panorama periodístico, las formas tradicionales de hacer periodismo la aparición de nuevos medios fuerza muchas veces la aparición de otros medios.

Barranquerok, beraz, ezinbestekotzat jotzen du kazetaritza humanoa deritzoguna. Finean eta burua, berau gabe ez zirelako etorriko gaur egun ezagutzen ditugun hainbat argitalpen:

Es decir, probablemente si no hubiese existido periodismo humano con el tiempo no habría aparecido una edición digital de *Público* o no habría existido *eldiario.es* y los modelos de gestión cooperativa que tiene *eldiario.es*, más allá

de que no es una cooperativa. Y sin que el diario.es no hubiese sacado *Desalambre* que es una sección maravillosa de derechos humanos probablemente *El País* no habría apostado jamás por lanzar *Planeta Futuro* y a posteriori no habría emergido 5W... Esta es una tesis en la que también vengo trabajando para otro trabajo que estoy haciendo para otra temática. Yo creo que sí, que los medios son el contexto y las plataformas digitales son el contexto de muchos de estos cambios precisamente porque han permitido hacer el buen periodismo internacional, ha permitido sumar voces a veces sin desplazarse al relato periodístico —con los peligros que también esto conlleva—.

inoiz ez' irakurtzen dutenen kopurua altua da eta astean bi hiru aldiz irakurtzen dutenak herena baino gutxiago dira. Berriz, egunero eta astean bi hirutan %65ak irakurtzen du. Batazbeste egunero orduerdiz irakurtzen dute, informatuta egotea izanik helburua. Komunikazio ikasleen kasuan gizonaekoek emakumezkoek baino gehiago irakurtzen dute. Hala ere, eta datuak datu, irakurtzea gozagarri zaiela dio %87ak.

4.4.2 Irakurketa motak eta euskarriak

Irakurketa motak eta euskarriak sailean, irakurtzeko ohiturei buruzko informazio zehatzagoa eman nahi dugu, zein hizkuntzatan irakurtzen duten eta zein euskarritan egiten duten irakurketa hori, besteak beste. Beste era batera esanda, irakurri bai, baina arrazoa jakin nahi da, zergatik eta nola. Kontsumo azkarreko informazioa paradigma nagusi bilakatu den honetan, komunikazio arloko ikasleek dituzten ohitura eta joerak aztertu nahi dira, *fast* paradigmaman murgildurik dauden edo ez jakiteko eta, era berean, aztertzeko zein neurritan inferi dezakeen horrek tesian proposatzen den *slow* paradigmaren proposamenean.

Bigarren sail hau hamabi galderek osatzen dute. Besteak beste, zer irakurtzen duten, irakurketen aukeraketarako kriterioa zein den, papera edo digitala hobesten duten, albisteen kontsumoari dagokionez, maiztasuna eta euskarria zeintzuk diren edota zein hizkuntzatan egiten duten irakurketa itauntzen zaie.


Zer irakurtzen duten galdetuta, lagineko ikasleen %44,04k dio albisteak irakurtzen dituela; narratibarako joera dutenen kopurua, hau da literatura irakurtzen dutenena, berriz, %25,7a da; aisialdiko irakurketak egiten dituztenen kopurua %20,27koa da; irakurgai espezializatuak %6,91k kontsumitzen ditu eta, amaitzeko, gai akademikoak, berriz, %2,29k soilik. Azpimarratzeko modukoa da literatura eta albisteak irakurtzen dituztenak, batez ere, emakumezkoak izatea, %78,37 eta %69,64, hurrenez hurren.

Komunikazio ikasleei egindako azken irakurketak zeren gainekoak izan diren galdetuta, erantzunek bat egiten dute aurreko itaunarekin, hau da, albisteak (%47,55) eta literatura (%18,18) irakurtzen dituzte gehien. Azkenaldian gutxien irakurri dutena irakurgai

espezializatuak dira, %9,79k baino ez. Gai akademikoen eta aisialdiaren baloreak dira, %13,28 lehenengorako eta %11,18 bigarrenerako.

Albisteekin jarraituz, nolako berriak kontsumitzen dituzten itauntzen zaie. Gehienek *albiste orokorrak* irakurtzen dituzte —%54,47k— eta %25,37k, berriz, *hurbileko edo lekuan-lekukoak*. Gainontzekoek *entretenigarriak eta ostantzekoak* kontsumitzen dituzte. Horrez gainera, euskarriari dagokionez —aukera bat lehenesteko eskatu zaie—, datuok erakusten digutena da, %51,04k albiste eta informazio horiek prentsa digitalean irakurtzen dituztela. Horrek esan nahi duena da, gehiengoak jotzen duela digitalera.

Graph 7. Albisteak kontsumitzeko euskarriak



Iturria: autoreak egina, 2020


Grafikoak adierazten duena da, sare sozialak ere asko erabiltzen direla, %33,56koa da datua; baita ikus-entzunezkoak ere (%12,58). Prentsa idatzia ikasle gutxik baliatzen dute albisteak irakurtzeko, %2,79k baino ez.

Honen harira, Espainiako Editoreen Gremioen Federazioaren barometroaren markatzaileek diotena da, irakurtzeko ohitura jaitsi egiten dela 15 eta 18 urte bitartean. Adin horretako nesken eta mutilen %44,7k soilik irakurtzen du ohikotasunez. 10 eta 14 urte bitarteko irakurleen ehunekoa %70,8koa da¹⁸⁴.

¹⁸⁴ “La adolescencia siempre fue una etapa complicada para formar lectores”, Daniel Cassany (*elperiodico.com*, 2019, martxoa)

Hurrengo grafikoan euskarria eta hizkuntzaren arteko lotura ikus daiteke. Ikasleek irakurketarako gaztelaniaren aldeko hautua egiten dute. Euskarri bietan, gainera, gaztelania hautatzen dute bai papereko eta baita digitaleko hizkuntza bezala ere.

Graph 8. Borondatezko irakurketa zein hizkuntza eta euskarritan



Iturria: autoreak egina, 2020

Ikus daitekeenez, datuok argigarriak dira; euskaraz euskarri digitalean irakurtzen dutenen kopurua %32,81koa da eta gaztelaniaz euskarri digitalean irakurtzen dutenena %62,50koa. Berriz, paperean euskaraz %20k irakurtzen du eta gaztelaniaz %72,85ak. Datu adierazgarriak dira ezen euskarri digitalean euskaraz gehiago irakurtzen baitute paperean baino. Honez gainera, eta hizkuntzari loturik, *Berria* egunkariaz duten jarrera orokorraz ere galdetzen zaie.

Bestetik, Gazteen Euskal Behatokiaren Euskadiko Gazteen Egoeraren diagnostikoak¹⁸⁵ (2019) azterketa honetan ageri zaizkigun emaitzekin bat egiten du. Diagnostikoak jasotzen duenez, 15 eta 29 urte bitarteko gazte euskaldunen artean euskararen erabilerak behera egin du. Daturik positiboak Gipuzkoakoak dira, hamarretik seik erabiltzen baitute gehienetan euskara lagun artean. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) batez bestekotik bi puntu gorago dago Gipuzkoako datua¹⁸⁶. Beste datu esanguratsu bat ere

¹⁸⁵ Informazio osoa www.gazteukera.euskadi.eu atarian kontsulta daiteke.


¹⁸⁶ Adierazle horretan sartzen dira dena edo ia dena euskaraz egiten dutela diotenak, euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenak eta bi hizkuntzak berdinean erabiltzen dituztenak.

jasotzen du Behatokiaren azterketak, hau da, EAEko gazteek geroz eta gehiago irakurtzen dutela, baina euskaraz geroz eta gutxiago. Azken hamar urteetan puntu bat igo da irakurtzeko zaletasuna, baina euskarazko liburuak irakurtzeko ohitura %15 jaitsi da. Ikasleek irakurtzen dituzte euskarazko libururik gehienak, baina ikasketak amaitzean ohitura alboratzeko joera ikusi dute diagnostikoaren egileek.

Atal honetan bada itaun bat zeinetan *Berria Igandean* itauntzen zaien. Ikergaiaren mamia, besteak beste, kazetaritza narratiboari loturik egonik eta edizio honek beronen ezaugarri jakin batzuk badituela ebatzirik txertatu zen itauna. Jasotako emaitzek adierazten dute *Berria Igandea* %40k baino ez duela ezagutzen. Hau da, %60k ez daki zer den ere.

Zein hizkuntzatan irakurri ohi duten galdetuta gehienek, %69,23k, gaztelaniaz egiten dutela adierazi dute. Euskaraz irakurtzen dutenen kopurua %25,17koa da. Ingeleseztan irakurtzen duten inkestatutako pertsonen kopurua, berriz, %5,59koa da. Frantsesez irakurtzen duenik ez du inor erantzun, bada, hizkuntza horretan ez du inork irakurtzen.

Graph 9. Ikasleek irakurketarako darabilten hizkuntza



Iturria: autoreak egina, 2020

Kasu honetan ere datuok bat datoz aurretik aipatutako Elkar-Siadeko¹⁸⁷ azterketarekin, esaten dutenean, hedabideen kontsumoari dagokionez, zein bi hedabide kontsumitzen

¹⁸⁷ Elkar/Siadecok ondorioztatzen dute euskarazko idatzizko ekoizpenaren inguruan dagoen merkatua 150.000 lagun ingurukoa dela. Merkatu oso mugatua da euskal liburugintzarentzat; euskaraz ez irakurtzeko arrazoi nagusia euskaraz irakurtzeko erraztasunik eza da. Inkestak gaineratzen du agerian

dituzten; euskal herritarren %5,8k dio euskarazko egunkariak gehien irakurritako bi hedabideen artean dauzkatela. Herritar euskaldunak soilik hartuta, hau da joera: %20,6k euskarazko prentsa irakurtzen du. %19,3k adierazi du ez duela prentsarik batere kontsumitzen. Erdarazko komunikabideen kontsumoa oso gaintetik dago, beraz (%58,8). Gazteagoen artean, handiagoa da euskarazko komunikabideen kontsumoa —ezagutza ere handiagoa da—: 16-31 urte bitartekoen artean %8k kontsumitzen ditu euskarazko komunikabideak; 32-54 urterekin, %5,6k; eta 55 edo gehiagorekin, %4,3k. Herritar erdaldunen artean handiagoa da batere komunikabiderik irakurtzen ez dutenen ehunekoa: %24,1.

Bestalde, komunikazio ikasleei irakurketak zein kriterioren arabera aukeratzen dituzten galdetuta gehiengoak ez du irizpide argirik adierazten; esan nahi da, batzuek zoriz aukeratzen dituztela irakurketak (%30,06) eta beste horrenbestek ez duela inolako arrazoirik ematen. Gainerako ikasleek albistegarritasunari ematen diote garrantzia (%23,77k); publizitateari jaramon egiten diotenak %11,88 dira eta zer irakurri aukeratzen dutenak liburu dendetako erakusleihatik ikusten dutenaren arabera gutxiengoa dira (%4,19a.)

Emaitza hauek, Editoreen Gremioen Federazioak jasotakoekin lerrokatzen dira. Horren arabera, 14 urtetik gorakoek %30,3k formatu digitalean irakurtzen ditu liburuak, (gutxienez hiruhileko bakoitzeko bat). E-reader eta ordenagailua dira gehien erabiltzen diren gailuak, baina %6,2k liburuak irakurtzen ditu mugikorrean. E-readerra erabiltzen du %12,6k, ordenagailua %12,5ek, tableta 10, 1ek eta, esan bezala, mugikorra %6,2k. Era berean, Euskal Herrian Elkar-Siadekok burututako azterketan, irakurtzeko formatuari dagokionez, liburu digitalaren eta paperekoaren kontsumoa alderatu da, aisialdiko irakurketa kontuan hartuta, euskaraz, aisialdian euskaldunen %33k irakurri du azken urtean gutxienez liburu bat paperean; digitalean, %5ek¹⁸⁸.

geratzen dela euskaldun askoren hizkuntza maila mugatua dela, eta hori oztopo handia da euskararen erabilera handitzen joan dadin.


¹⁸⁸ Inkestak hizkuntzaren araberrako aldea dagoela ere baieztatzen du: erdarazkoetan, aisialdian %60k irakurri du azken urtean gutxienez liburu bat papereko formatuan, eta digitalean, %20k. Hirutik bateko erlazioa, haatik. Euskaraz, berriz, aisialdian euskaldunen %33k irakurri dute azken urtean gutxienez liburu bat paperean; digitalean, %5ek.

Adinari jarraiki, 45-54 urte bitarteko herritarrek irakurtzen dituzte aisialdian libururik gehien, euskarri bitzuetan, bai paper formatuan eta baita digitalean ere; euskarazko liburuen irakurle direnen herritar euskaldunen ehunekoa ere, adin tarte horretan da altuena. Formatu digitaleko liburuen erabilera areagotu egingo dutela adierazi dute herritarren %15,8k, eta %3,2k, gutxiago erabiliko dituztela.

Albisteak zein euskarriren bidez kontsumitzen dituzten itauntzeaz gain, egunkarien inguruko galdera espezifikoak ere egin zaizkie komunikazio ikasleei. Hau da, ea egunkaririk irakurtzen duten eta zein euskarritan. Haatik, egunkariei bagagozkie, ea irakurtzen duten itaunduta, baiezkoa diote ikasleen %42,65ek eta ezezkoa, berriz, %18,18k. *Batzuetan* irakurtzen dutenek %39,16a osatzen dute.

Lehenago esandakoaren haritik, egunkariak irakurtzeko maiztasuna orokorrean astean 2-3 egunekoa da. Horrek adierazten duena da oso ikasle gutxik irakurtzen duela prentsa egunero. Argigarri zaigu adieraztea, eskala batean jarririk, ‘inoiz ez’ eta ‘egunero’ baloreak berdintsuak direla. Egunkaria irakurtzeko darabilten bidea edo euskarria Internet da nagusiki eta datu esanguratsuekin gainera, %69koa baita portzentajea. Bada modu hibridoaren aldeko hautua egiten duenik; Interneten eta paperean, bietan, %20k irakurtzen du. Eta, paperean baino irakurtzen ez dutenen kopurua %11,94koa da.

Graph 10. Egunkariak eta euskarria



Iturria: autoreak egina, 2020

Interneten irakurtzen duten inkestatuek egunkarien web orria darabilte batez ere; gainerakoek sare sozialetan irakurtzeko joera daukatela erakutsi dute.

Beraz, Internet baliatzen dutenen artean gehien erabiltzen dituzten bideez edo euskarriez ere itaundu zaie ikasleei. %52,2k, hau da, gehiengoak egunkarien web orriak kontsultatzen ditu. Gainerakoek sare sozialak nahiz beste bide batzuk dituzte gurago; %29,9k sare sozialak baliatzen ditu eta %3,7a beste bide batzuen erabileraz baliatzen da.

Posta elektronikoaren bidez banatzen den argitalpen digitalak, *newslettterrak*, irakurtzen dituztenak %0,7 baino ez dira. Aipatutako guztiez (web orriak, sare sozialak, news lettterrak eta beste bide batzuk) baliatzen den ikasle kopurua %13,4koa da. Beraz, oro har, egunkaria irakurtzeko Internet da ikasleek darabilten bidea, baina egunkariaren beraren web orrira jotzen dute gehienek.

Atal honetako emaitzek adierazten digutenez, Komunikazio ikasketak egiten diharduten ikasle gehienek albiste orokorrak irakurtzen dituzte. Bai albisteak eta bai literatura irakurtzen dutenak emakumezkoak dira, batez ere. Euskarriari dagokionez, prentsa digitala eta sare sozialak dira erabilienak. Hizkuntzari dagokionez, ikasleek aitortzen dute, batez ere, gaztelaniaz irakurtzen dutela, bai paperean eta baita digitalean ere. Hala ere, digitalean paperean baino gehiago irakurtzen da euskaraz. Eta amaitzeko, gehiengoak ez du irizpide argirik erakutsi irakurketak aukeratzekoan.

4.4.3 Irakurmenaren erakarmena aisialdian

Irakurketa eta aisialdia ardatz dituen atala hiru itaunez hornituta dago. Sail honetan jakin nahi dena da, ea aisialdian irakurtzen duten; telebistari irakurketari baino denbora gehiago edo gutxiago eskaintzen dioten, edo irakurketari eskaintzen dioten denbora sare sozialen gaintetik edo azpitik dagoen. Zehatzago esanda, zenbat denbora ematen duten irakurketan, zenbat denbora eskaintzen dioten telebista ikusteari eta, amaitzeko, sare sozialetan ematen duten denboraz ere itauntzen zaie. Irakurketari eta pantailei dagokienez, etorkizuneko komunikatzaileen errealitatea zein den jakitea da helburua.

Aisialdia eta irakurketa atalean hiru galdera hauek ageri dira: zure aisialdian zein leku hartzen du irakurketak?; Irakurketari eskaintzen dizkiozun orduak telebista ikusteari

eskaintzen dizkiozunekin alderatuta, zein da proportzioa?; Irakurketari eskaintzen dizkiozun orduak sare sozialei eskaintzen dizkiozunekin alderatuta, zein da proportzioa?

Azken batean, sail honen bidez jakingo duguna da irakurketa-telebista-sare sozialak zenbat denbora hartzen duten ikaslearen egunean, zein den garrantzikoena beraien aburuz. Atal honek lotura zuzena dauka atarian azaldutako kontsumo azkarreko irakurketarekin. Hain zuzen ere, eta erreferentziatutako inkestek balioztatzen dutenez, adin tarte honetako ikasleek barneratuta daukate-eta pantaila arteko bizimodua.


Irakurketa aisialdiarekin lotuz gero, argiro ondoriozta daitekeena da ez dutela askorik irakurtzen beraien gozameneko denbora librean edo aisialdian. Gehientsuenek, kasu honetan ere, astean bizpahiru egunetan irakurtzen dutela diote. Hala ere, jaso dena da, aisialdian nahiko irakurtzen dutela uste dutela ikasleek; izan ere, irakurketan emandako denboraren kalkulu autoestimatuari dagokionez, eskala batean, gutxi (1) eta asko (5) artean, 3tik gora kokatu dute beren burua. Haatik, aisialdian irakurketak hartzen duen denboraz galdetuta, gehiengoak “nahikotxo” hartzen duela dio; ‘gutxi’ %11,2ak, ‘apur bat’ %27,6ak, ‘nahikotxo’, ‘hainbat’ eta ‘asko’ %61,2ak.

Editoreen Gremioen Federazioak jasotako datuek diotenez, 2020an irakurle-kopuruaren hazkundera orokorra izan da autonomia-erkidego guztietan; denbora libreko liburuak irakurtzen dituztenen batez besteko datua %64koa da. Bigarrenik, Madrilen atzetik (%73,8), Euskal Autonomia Erkidegoa dago %66,9ko datuarekin. Nafarroako datua %66,5ekoa da. Kataluniak jarraitzen dio, % 65,9rekin. Bestalde, 15 urtetik aurrera nabarmen murrizten da denbora librean liburuak maiz irakurtzen dituztenen proportzioa. 10-14 urtekoen taldean, %79,8a da ohiko irakurlea; 15-18 urtekoen taldean, %50,3; eta 18 urtetik gorako taldean, %52,7. Azken adin-tarte horretan, deigarria da noizbehinkako irakurlea %10,9 izatea eta ez-irakurlea %36,4. Horietatik, gehienek, %64k, aisialdian irakurtzen dituzte liburuak. Gainera, aisialdiko liburuen irakurketa, denbora librekoa, etengabe hazi da azken urteetan, eta azken hamarkadan %12,3ko hazkundera izan du. Bereziki adierazgarria izan da azken urte honetako hazkundera, 2017an datua %57koa zen eta 2020an berriz, %64koa da. Ostantzekoa da lanarekin zein ikasketekin zerikusia duten liburuen irakurketarekin gertatu dena, 2020an nabarmen egin baitzuen behera (2019: %27,5; 2020: %23,1).

Irakurketa pantailekin alderatzean, artean aipaturiko inkestek jasotzen duten joerarekin bat egiten dute ikasleen emaitzek. Beraz, beren-beregi irakurketari eskaintako denbora baino nabarmen haundiagoa da pantaila aurrean egiten dutena.

Telebistaz eta irakurketaz ere itaundu zaie ikasleei. Emaitzak argiak dira. %59,44k telebistari denbora gehiago eskaintzen dio irakurketari baino. Irakurketan telebistan baino denbora gehiago egiten dutenak %25,87a baino ez dira. Eta irakurtzen zein telebista ikusten denbora berdintsua egiten dutenak %14,68a dira¹⁸⁹.

Graph 11. Irakurketari eta telebistari eskaintzen zaizkion orduak




Iturria: autoreak egin, 2020

Elkarrek egindako itaunketaren arabera ere, orokorra da sare sozialen erabilera. Hala ere, aipatutako inkestak adin tartea ere hartzen du aintzat esatean, sare sozialen erabilera asko aldatzen dela adinaren arabera; 45etik gorakoetan, oraindik, gehiago dira sare sozialak erabiltzeko ohiturarik ez dutenak; 16tik 25era artekoetan berriz, sare sozialen erabilera orokortua dago, 10 gaztetatik 9k erabiltzen baitituzte.

¹⁸⁹ Editoreen barometroak jasotzen duenez, irakurtzen ez dutenek adierazi dute irakurtzea baino nahiago dutela kirol-jarduerak egitea (%31,3), telebista ikustea (%24,8) edo paseatzea (%24,3).

Irakurketarako denbora eta sare sozialetan ematen duten denboraz ere itaundu zaie komunikazio ikasleei, esan nahi da, sare sozialen erabilera guztiz zabaldua dagoela hartutako laginaren adin tartetean. Bada, behin datuak aztertuta eta 12. grafikoan ageri denez, ondorieztatzen dugu sare sozialei askoz denbora gehiago eskaintzen dietela irakurketarekin alderatuz. Sare sozialei %83,91, hain zuzen ere. Sare sozialen gainetik euskarri tradizionalako irakurketa jartzen dutenak %6,29 baino ez dira. Irakurketari eta sare sozialei antzeko edo pareko denbora eskaintzen dietenen kopurua %10 ingurukoa da.

Graph 12. Irakurketari eta sare sozialei eskaintzen zaizkion orduak



Iturria: autoreak egina, 2020

Ondorioztatzen dena da aisialdi denboran ere telebistari irakurketari baino denbora gehiago ematen diotela ikasleek. %25,87k irakurketari telebistari baino denbora gehiago ematen dio. Horrez gainera, aisialdian sare sozialak erabiltzen dira gehien; datu nabarmenarekin gainera, ia %84ak egiten baitu hauen aldeko hautua.

Amaitzeko, euskaraz zein gaztelaniaz irakurritako liburuez itauntzen zaie komunikazioko ikasleei. Euskaraz irakurritako liburuen arteko bost aipatzeko eskatzen zaie, *gustagarriak, sakonak eta balio unibertsaleko* direnak; izenburuak, autoreak edo pertsonaia nagusia zein argumentua aipatuz; beste hainbeste, gaztelaniaz irakurritako liburuez. Euskarazkoen zerrendan autorerik irakurriena Bernardo Atxaga da. Ostean datoz Truman Capote, Stevlana Aleksievich, Joseba Sarrionandia, Karmele Jaio, Eider

Rodriguez, Irati Jimenez eta Mikel Ayestaran. Ikasleek diotenez, hauek dira titulurik aipatuena: *Obabakoak*, *Soinujolearen semea*, *Odol Hotzean*, *Gerrak ez du emakume aurpegirik*, *Lagun izoztua*, *Amaren eskuak*, *Bihotz handiegia*, *Nora ez dakizun hori*, *Ekialde Hurbila: muinak eta ertzak*. Amaitzeko, aipagarria da ikasle batzuek diotena, ez daukatela euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez bada ikasketekin lotua.

Gaztelaniazko liburuen artean euskarazkoak baino gehiago aipatzen dituzte; autore eta titulu gehiago. Hala izanik, ezagutza handiagoa daukate hizkuntza horretan argitaratuta dagoenaz. Gehien aipatzen dituzten autoreak Gabriel García Márquez, Pío Baroja, J. R. R. Tolkien zein George Orwell dira. Berriz, gehien irakurritako tituluak hurrengoak dira: *Esclavas del poder*, *Fariña*, *Cien años de soledad*, *La casa de Bernarda Alba*, *1984*, *El árbol de la ciencia*, *El diario de Anna Frank*, *La Guerra no tiene rostro de mujer*, *El señor de los anillos* eta *Juego de tronos*. Kopuru txikiagoan, baina badira errepikatzen diren beste titulu batzuk ere: *50 sombras de Grey*, *Medio sol amarillo*, *El alquimista*, *El Director*, *El Libro Rojo de la Publicidad*, *El mundo amarillo*, *El Niño con el Pijama de Rayas* eta *El corredor de la muerte*.

4.4.4 Kazetaritza generoak

Kazetaritzari buruzko atala kazetaritza-generoei buruzko lau galderaz osatuta dago, generoak ezagutu eta bereizten dituzten jakiteko eta irizpideari buruz gogoeta egiteko. Generoei dagokienez, erreportajea, kronika, analisisa eta iritzia dira galdetegirako aukeratutakoak.

Inkestaren azken zati honetan kazetaritza generoari lotutako galdera osagarri batzuk jasotzen dira. Behin emaitzak aztertuta, alderik esanguratsuenak jaso atal honetan. Galderen zergatiari begiratuz gero, adieraziko genuke irakurketa historian zehar behin eta berriz aztertua eta arakaturia izan den ikergaia dela. Ordea, postmodernitatean digitalizazioak erabat aldatu du betikotzat jotzen dugun irakurketaren fenomenoak, ahaztu gabe paradigma berri baten bizi dela komunikazio arloko ikaslea.

Hauek dira atalean jasotako gakoak: iritzizko generoen artean, kritika da kazetaritzako generorik zaharrena. Hori horrela, kritiko onak jarraian dauden aukeren artean, zer da

egin edo eduki behar ez duena?; Kultura-kronikak erreportajetik hartzen du; zertan bereizten dira interpretazio esplizittoa eta implizittoa?; eta azkenengoan fikzioa, plagioa eta zutabea txertatu dira.

Hurrengo taulan (4) ikus daitekeenez, kritiko on batek izan behar ez dituen ezaugarrien artean, gehiengoak erantzuten du kritiko onak ez duela anbiguotasunean edo kontraesanean erori behar.

4. taula. Kritiko onak izan behar ez dituen ezaugarriak

Anbiguotasunean eta kontraesanetan erori	% 32,8
Bat ere ez	% 29,1
Aurreiritziak eta topikoak	% 22,4
Neurritz gaineko interesa berriagatik	% 5,2
Hizkera kriptikoa	% 4,5
Iritzi ezkorrak eman txarto ez geratzeko	% 3,7
Hartzailea ez ezagutzea	% 2,2
Euskarri tekniko ahula	% 0

Iturria: autoreak egina, 2020

Auriritzi eta topikoak ere baztertu beharko lituzkeela uste du %22,4k. Gutxi dira kritiko onak berriagatik neurritz kanpoko interesa izan behar duela uste dutenak, baita hizkera kriptikoa izan behar duela uste dutenak ere. Iritzi ezkorrak ematea eta hartzailea ez ezagutzea ere aipatzen dituzte ikasleek, neurri txikiagoan bada ere. Dauden aukeren arteko batere ez dela zuzena uste dutenak %29,1a dira.

Hurrengo galderan kultura-kronikak erreportajetik zer hartzen duen itauntzen zaie aukeran ematen diren hiru baieztapenen bidez. Gehiengoak uste du giroen deskribapena eta aktualitatea birsortzeko asmoa dela kultura-kronikak erreportajetik hartzen duena, %58,2k, hain zuzen ere. %29,1ek figura erretorikoen erabilera eta estilo informatiboaren aldeko hautua egiten du eta 'lehen pertsonaren erabilera eta subjektibotasuna' %12,7ak jo du erantzun zuzentzat.

Interpretazio esplizitoa eta implizitoa bereizteko eskatzen zaienean hauxe jasotzen dute erantzunek: gehiengoak implizitoak figura erretorikoekin gorde ohi duela erlazioa uste du, %37,3k; %32,1k uste du esplizitoa hurbilago dagoela iritzitik implizitoa baino; eta, implizitoa, berez, egitura konplexuko erreportaje luzeei dagokiela %30,6ak erantzuten du.

Ondorengo, eta azken, itaunean hiru baieztapen egiten dira zuzena aukeratzeko eskatuz. Kazetaritzako testuetan fikzioa galarazita dago, zutabeetan izan ezik (%44,8); autobiografia ez den guttia plagioa da (%7,5); egunkarietako zutabea laburra izan ohi da, 2.000 hitz ingurukoa (%47,8).

UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Gradukoetako ikasleei egindako inkestan, irakurketa da ikergai, irakurketa euskarri digitalean eta irakurketa paperezko euskarrian; batetik, alde kuantitatiboan; eta bestetik, alde kualitatiboa ezagutzeko noraino jabetu diren kazetaritza generoen ezaugarriez eta zein literatura mota zaien ohikoena.

Hipotesietan *fast journalism* paradigmaman bizi den kazetarigaiari narrazio-kazetaritzaren gorakadan bide-lagun izango duen informazio girotik heltzen zaio. Ikertu nahi izan dena da, ea *fast* kazetaritza-ereduak irakurketako ohiturak baldintzatzen dituen, eta laster *slow journalism* paradigmaman arituko direnez gero, dagokien prestakuntzaren jabe diren komunikatzaile profesionalak izateko; era berean, ea aro digitaleko zibilizazio honetan, sakoneko irakurketan, klasikoen testuetan, jardunik iritzi kritikoaren jabe izatera heldu diren.

Emaitzen araketa doituaren barruan deigarri gertatzen da %36k ez duela inoiz edo ia inoiz libururik irakurtzen jakitea, oharturik kazetari bihurtuko direla. Inkestok bat egiten dute gainerako inkestek jasotzen dituzten emaitzekin. Bestalde, zein hizkuntzatan irakurtzen duten galderak *de facto* monolinguismoa alde batera uzten da. Elebitasunaren bitartez irtenbidea eta konponbidea aurkitzen zaio testu digitalen eta testu inprimatuen arteko lehiari, maiz gatazka izatera heltzen denari, ezen ikasleak dira elebitasunaren froga, eta guk elebitasuneko trebetasunaz baliatu nahi dugu digitala eta inprimatua bateragarri gerta daitezen.

Interpretazio esplizitoa eta implizitoa bereizteko eskatu zaienean, ez dira jabetzen informazio-testuetan kazetariak interpretatu eta birformulatu egiten dituela albisteak, eta

sarritan modu implizitoan. Hots, nahiz eta kazetariak datuz eta dataz beterik osatzen duen albistea, beti duela barruan interpretazioa eta balioespena. Kazetaritza hori txertaturik aurkitzen da postmodernitateko egia objektiboa ukatzearekin; egia absolutuak bazterturik mikrorrelatoak baizik ez baliokotzat hartzearekin, hau da, subjektibotasunarekin.

5 Bosgarren atala.

Ondorioak eta eztabaidarako gaiak

La continuité implique nécessairement l'altération

Ferdinand de Saussure

5.1 Ondorioak eta eztabaidarako gaiak

Euforia tekno-zientifikoak ekarritako baikortasunak ezustean egin du talka Covid-19ko pandemiarekin.

XXI. mendeko hirugarren hamarkadan digitalizazioaren paradigma da hegemonikoa. Orain hiru hamarraldi teknologia arloan abian jarritako ikerlanek erabateko eragina dute gizartean. Hainbestearinokoa non kazetaritzarako ere ezinbesteko bihurtu diren.

Bestalde, euforia tekno-zientifikoak ekarritako baikortasunak ezustean egin du talka Covid-19ko pandemiarekin; ez zientziari eta teknikari galga jartzeko; bai, gizateriaren norabideaz pentsarazteko.

Postmodernitateari informazioko teknologien aroa ere dei geniezaioke, zeren elkarrizketatutako pentsalari askoren iritzia baita postmodernitatea Internet dela. Internet horrek gainezka egitean, albisteen subjektu den kazetariak, azkar eta berehalako jokabideari, irtenbide eta konponbideak bilatuz dihardu. Eta geuk ere hala egin dugu ondorioetan ikus daitekeenez.

Kazetaritzaren helburua informazioa da. Hau da, ezagutza bilakatzen den informazioa.

Lehenengo helburuari erantzunez, sakoneko elkarrizketetatik ondorioztatu zein arrazoitu dugu kazetaritza guztia interpretaziozkoa dela, eta kazetaritzaren helburua informazioa dela, ezagutza bilakatzen den informazioa. Horrexegatik da informazioa kazetaritzaren lehen gaia ezagutza lortzeko.

Argudiatu dugu, baita ere, gero eta informazio uholde handiagoak inguratuta bizitzetik ez datorrela, berez, ezagutza, jakintza, baizik eta interpretazio eta ulermen kritikotik, ahaztu gabe informazio horrek behar izaten duen birsortzea, denboraren, espazioaren eta kultura jakin baten araberakoa.

Errealitatea gordina da, neurriak hartzen ez direnean, digitalizazioak gainezka egiten digu. Edonola ere, ikasleen inkesten arabera, errealitatea gordina dela baieztatu dugu, alegia, mundu digitalak gainezka egiten diola gizarteari.

Tesian zehar argudiatu izan dugu interpretazio eta ulermen kritikoaren arabera jokatzeari dagokiela postmodernitateko komunikabideei gizartea kontzientziatzeko helburua lor dadin. Zeregin horixe betetzen du interpretazio-kazetaritzak, kazetaritza sakonak. Hala ere, sakoneko elkarrizketako adituek adierazi digutenez, ezagutzaren gizartea lortzetik urrun aurkitzen gara; alegia, ezagutza gizartearen aurrerakuntza eta garapenerako bitarteko izatetik. Zeren ezagutza hori ez baita neurri gabeko, etengabeko informazioaren emaitza zuzena, berezkoa.

Kazetaritzako ikasleen inkestetan jaso dugu nola gaitasun kritikorik ezak konpainia boteretsuen idearioa poliki-poliki gizartean txertatzea ekartzen duela, hiritarra berrikuntza tekno-ekonomikoen eskuetan lagata. Horretarako arrazoia da unibertsitateko aktualitateko albiste laburrak, berehalakoak irakurtzen dituztela *Twitteren*, *Facebooken* edo sare sozialetan, hots, teknologia-konpainia handien interespeko eta kontrolpekoetan.

Kazetaritzako pentsalariak ados ikusten ditugu erantzuten dutenean medioen kopurua biderkatzea guztiz onuragarria gertatu dela gizarte demokratikorako. Hala ere, ikuspuntu honetan bada arazo bat, eta da, sare sozialek pentsarazten dutela demokrazia erabakitzaileko partaide garelako uste izatea; edozein herritarren ahotsak beste edozeinen besteko indarra duela. Eta ez da horrela, sare sozialen erabilera handiak, edozein hiritarrarenak, konpainia boteretsuen ahotsak besteko botererik ez dauka-eta. Denbora asko behar izan dugu konturatzeko sare sozialak benetan demokratizatzen urrun geratu direla.

Azken batean, sare sozialek betetzen duten helburua gizarteak kontsumi dezan lortzea izanik ere, IKT-ek —Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek— gizartean jokatzen duten rola garrantzi handikoa da, zeren zerbitzu asko eskaintzen baitute: posta elektronikoa, informazio bilaketa, *online* banka, musika eta zinea deskargatzea, merkataritza elektronikoa, eta abar. Edonola ere, beti azpimarratu beharrekoa da zerbitzuak eskaintzetik demokratizatzeke aukerak eskaintzera alde nabarmena dagoela.

Delphi inkestan kazetaritzako iraultza zertan oinarritzen duten galdeturik, kazetari-pentsalariak hiru indargune azpimarratuz erantzuten dute Autore batzuek Interneten sorrera nabarmendu dute; bigarren talde batek sare sozialen sorrerari ematen dio

indarra; hirugarren taldekoek irakurleen ahalduntzean aurkitu dute kazetaritzako iraultza.

Erantzun duten adituen artean, lehen taldekoen ustez, *world wide web*-a da abiapuntua —gai hau jadanik aipatua den arren, testuinguru honetara berriz ekarri beharra dugu azalpena kokatzeko—, zeren lortu baitzuen jendaldea internetez baliatu ahal izatea. 1996an, *world wide web* garatzeaz batera finkatu zen sarera konektatzea —egunkariak webgunea paperaren alternatibatzat hartu zutenean—. Ondorioz, XXI. mendeko hastapenetan, sendotutzat eman behar da internet. Hala ere, denen gailurrean, 1998a jarri beharra dago, zeren data horretan sortzen baita *Google* interneteko bilatzailea. Harrezkero, historialari askoren ustez, historia zati bitan bana daiteke, bata, *Google*-era artekoa, bestea, *Google*-en ostekoa. Horrez gainera, ondorioztatzen dugu, zer nahi duen kontsumitzaileak hura eskaintzeko aukera ematen duela egungo egunkariak; inprimaturiko egunkarien muga espazialak nahiz irrati-telebisten denbora-mugak desagertu egin direla Interneten. Egunkari, irrati eta telebistak lekuan lekuko zirenak, aldi berean direla lekuan-lekukoak eta globalak. Adituok idatzi dutenez, sareekin harreraren iraultza, audientziena eta kazetaritza zabaltzeko moduarena agertu zen. Euren iritzia da sare sozialak azpimultzoa direla; erabilera partikularretarako aplikazioak; kazetaritza hedatzeko baliabideak.

Bigarren pentsalari taldeak sare sozialetan jartzen du ikuspuntua. Badakite *Youtube* bezalako webguneek edo *Facebook*en erako sare sozial guneek testuan oinarritutako komunikazioaz gain, irudiak, bideoak edo beste komunikazio mota batzuk ematea ahalbidetzen dutela. Oraingo aldaketak kualitatiboak eta definiziozkoak dira: kazetaritzak eta audientziak elkarri eraginez dihardute, denbora errealean gertatzen denari erantzunez. Azken batean, sare sozialek aldatu egin dute albisteen dinamika: albiste-erakundeak plataformen eta erabiltzaileen menpekoago dira. Beraz, komunikazioa deritzanari dagokion paradigma aldaketak —digitalizazioari esker gertatuak— zilegitu egiten du erabiltzaileek edukiak sortzeaz gain, albisteak elkarrekin trukatzeko. Horregatik, gaur egun, ez gara mintzo masa-komunikabideez, baizik-eta medio sozialez (*social media*).

Inkestaturiko hirugarren taldeko kideek, interaktibitatea Interneten ezaugarri bereizgarria dela onarturik, eta sare sozialek bideragarri egin dutela erabiltzailearen ahalduntzea kontuan harturik, adierazten dute benetako iraultza irakurleen ahalduntzea

izan dela, irakurlearengan jartzen dute arreta, bai kazetaritzari erantzuteko, baita berehala kritikatzeko edo ospatzeko ere.

Hala ere, ondorioetara ekarri dugun ikerketa da irakurleatariko askok alde aurretiko ikuspuntuak baieztatzen dituen informazioa baino ez duela bilatzen, eta ez dituela kontuan hartzen bere aurreiritziak zalantzan jartzen dituzten datuak. Jarrera horrek aintzat hartu beharreko gaia da irakurleek prest egon beharko luketela iritzia aldatzeko, baldin eta jasotzen dituen datuak iritzia aldarazteko adinakoak badira. Horren arrazoia postmodernitatean finkatzen da, zeren sakoneko elkarrizketetako adituek argitu baitigute irakurleak hartzen duen testua ez dela autonomoa —erabat subjektiboa—, alegia, testugileak idazterakoan zuen asmo hartatik guztiz askea. Horrek ez du ukatzen irakurketa aktiboa, irakurlea testuan inplikaturik garatzen dena. Zentzu honetan, ikasleen inkestetako emaitzetan ageriko oztopoa topatu dugu erakusten duten irakurmenerako zailtasunean.

Horiez gainera, sakoneko elkarrizketetako kazetari pentsalariek adierazi dute sare sozialen jardunean, bideo eta irudien ingurugiroan bertan ere, testuari zor diogula zentralitatea; Internet multimedia den arren, leku harrigarria dagokiola testu idatziari, ezen, irudiek eta soinuek ere testua behar dute erabiltzaileek identifikatu eta erlazionatu ahal izan dezaten. Bestalde, berez, sare sozialtzat hartu beharko lirateke hiritarren interesak irabazte ekonomikoen aurretik jartzen dituztenak.

Delphi inkestako kazetari jakitunen iritzia era batekoa nahiz bestekoa izan, finean eta buruan, euforia tekno-zientifikoaren baikortasuneko multzoko dira ia denak. Ez dira falta, ordea, kritika sakon eta arrazoituak garaturik, euforia tekno-zientifikoaren aldamenen balio zibikoen analfabetismoa azpimarratzen dutenak; gizarte deskonpentsatuan bizi garela ulertarazten digutenak. Hortaz, zientzia eta humanitateak uztartu beharra dugula adierazten digutenak.

Gizartea eta norbanakoa, dena den, loturik doaz neurri handi batean. Gaur eguneko zibilizazioan, zeinetan produzitzen ez duen guztiak ez duen baliorik, humanitateak deitzen ditugunek ez dute baliorik. Postmodernitateko gizarteari balio humanoak, balio handiak arrotz zaizkiola dioskute sakoneko elkarrizketetako kazetari pentsalariek. Areago, gizaki postmodernoak jokabide indibidualistakoa dela, hedonista, azalekoa.

Postmodernitatea teknikaren garapeneko aroa dela ondorioztatu dugu edo, gura bada, informazioko teknologien aroa. Baina, humanitateen errealitatea aintzat hartzen duena ere bada, intuizio interpretatibo sakona praktikatzen duena, dimentsio intuitibo handikoa.

Gizarte modernoaren eta postmodernoren arteko talka kazetaritzari dagokion ikuspuntutik begiratuz gero, lehenbailehen esan behar dena da, eztabaida hor dagoenez, aztertzerakoan, interpretazioko kazetaritzara jo behar dela, kazetaritza sakonera; informazioa testu inguruan eskainiz, albistearen kausak nahiz ondorioak jorratuz; zergatien arrazoa eskainiz. Hitz laburretan azalduz, printzipio material soilen aurrean, ezinbesteko dela printzipio etikoak ezartzea kontrapisu legez.

Postmodernitatea Interneti dagokiola ukatu barik, baieztatu daiteke postmodernitatean XX. lehen mende erdiko borroka kolektiboak-eta alboratu egin direla, arrazoi sektorialetan eta norbanakoarenetan begia jarritz: askatasun sexualean eta etnikoan, ingurugiroan nahiz musikan edo modan. Hala ere, postmodernitatean ez dela narrazio handirik esatea muturreko baieztapena gerta liteke, ezen feminismoa eta ekologismoa, esaterako, narrazio handien sailean sartzekoak dira. Baieztapen honetan bat datoz sakoneko elkarrizketetan eta *Delphi* inkestan parte hartu duten adituak.

Kazetaritzaren deontologiaren arabera aritzeko, premiazkoa da balio zibikoetan alfabetatzea, zientzietakoen hegemoniari erantzuna eman ahal izateko, postmodernitatean humanismoaren rola garatzeko. Helburu horretarako, oster, filosofiari nahiz ikasketa klasikoei kokalekua aurkitu behar zaie hezkuntzako ibilbidean. Eta unibertsitatean titulua jaso duenak, zientziako adar soil bateko jakitun izan gura ez badu, eta gauzen erroetara, hondora jo nahi badu, ezinbesteko izango du grekoen pentsamoldeetara jotzea.

Berez, ingurumen teknologikoa ez da zertan garrantzitsuagoa izan kazetaritzako arloan, zeren gainontzeko industrian ere eragin zuzena baitauka. Hala ere, kazetaritzari jartzen zaizkion eskakizun etiko nahiz deontologikoak hain zorrotzak izatean, erantzukizunak ere maila handikoak dira, hain zuzen ere, kazetaritzako lehengaia aktualitateaz gain, funtzio soziala betetzea baita, demokrazia sostengatzea, ezen iritzi publikoa moldatzeko erantzukizuna bizkarreratzen zaio. Beti ere, jakitun izanik sakoneko elkarrizketetan errepikatzen den bezala, teknikoki posible den guztia ez dela humanoki zuzena eta etikoki egokia. Baita ere, kazetaritzari jartzen zaizkion eskakizun etiko nahiz deontologikoak

modernitateko ez den izaera dutela postmodernitatean, zeinetan arrazoiaren balio gutxitzeak norbanakoa baino ez duen uzten indarrean.

Arestian aipatua sakondurik, zehaztu beharra dugu nola kazetari-pentsalariak ez datozen bat kontakizun edo errelato handien gaineko balorazioan. Batzuen ustez, postmodernitateak errelato handiak, hots, modernismoko ideologia handiak, bazter lagata kontakizun txikiak baino ez ditu aintzat hartzen. Beste batzuen iritziz jendeak kontakizun handien premia du.

Historikoki izan den bezala, *slow journalism* da kronikaren lurraldea.

Kontakizun handietatik kronikarako jauzia eginik, frogatu izan dugu gaur egun badela kronikaren beharrezana, historikoki izan den bezala, eta *slow journalism* dela kronikaren lurraldea. Era horretara, kronika *slow journalismen* esparruan kokatzen da; kazetaria bera subjektu eta ardatz delarik.

Sakoneko elkarrizketetatik ekarri dugu ondorioetara arretazko kazetaritza ere. Hein handian bat dator arnasa luzeko kazetaritzarekin, baina ez osoan, zeren *slow* astiro zentzua bereganatzen baitu, eta hemen arretan egiten da indar; denboratasunean baino sakontasunean.

***Slow journalism* ikerketako paradigma berri legez sortzen da, berehalakotasunaren eta primiziazko joera nagusiaren erreakzio gisa.**

Hirugarren helburuari erantzunez baieztatzen dugu kazetaritzak ere *slow* mugimendura jo duela abaro bila, ezen pausazko pausoak eta hausnarketa kritikoa beharrezko ditu, ezen *slow journalism* da berehalakotasunerako eta primiziarako joera nagusiaren erreakzio gisa sortzen dena, eta informazio zorrotza, sortzailea eta kalitatezkoa ekoizteko eta kontsumitzeko behar diren denborak birpentsatzera bultzatzen duena:abiadurak dakartzan ondorioen aurrean hartzen den jarrera kritiko

Slow journalism orientabide kritiko legez sortzen da, hots, kazetaritzako praktikan bezala; ikerketako paradigma berri legez. Paradigma horretan irakurketa garapenerako baliabiderik emankorra dela ondorioztatu dugu. Zeren ikus-entzunezko narrazioan den-dena baitator emana

Arnasa luzeko kazetaritzak betiko balioen artean gordetzen du idazkera zaindua, unibertsitatean zeharkako gaitasun komunikatiboetara lotua.

Laugarren helburuko seigarren galderari erantzunez, *slow*-ren barruko kazetaritza, pausatua eta sakona dela esateaz gain, oso idazkera zaindukoa ere badela adierazi digute sakoneko elkarrizketetako jakitunek. Horretarako, idazkera zaindua kazetaritzako balio klasikoekin lotzen dute, kalitateko kazetaritzaren betiko balioekin.

Slow Journalism orientabide kritiko legez sortzen da, hots, kazetaritzako praktikan abiadurak dakartzen ondorioen aurrean hartzen den jarrera kritiko moduan. Adituak bat datoz baieztatzean, esate baterako, prentsa-oharren bidezko berriek kalitate gutxiago informazioa gizarteratzen dutela, eta joera horren aurrean proposatzen dutena da — berehalakotasunetik ihes eginik— kalitate handiagoko kazetaritza indartzea. Diotenez, azken batean, *slow* praktika zahar bati erantsi zaion etiketa da.

Unibertsitateko komunikazio ikasleak urrun daude informaziotik ezagutzara doan bidea burutzeko, *slow* paradigman jokatzeko.

Unibertsitateko komunikazio ikasleen erantzunetatik ondorioztatzen duguna da urrun aurkitzen direla informaziotik ezagutzara doan bidea burutzeko; iritzi kritikoz jantzi eta sakoneko irakurketan murgiltzeko; hitz laburretan *slow journalismen* paradigman jokatzeko. Ondorio horietara garamatza testuak, liburuak, zoriz aukeratzeak edo inkestetan erantzun hau hutsik uzteak.

Zentzu berean, aipatzekoa da hainbeste ikasle unibertsitariok irakurketa gustuko dutela aitortu arren, ohiturez itauntzean, kontrakoa adieraztea, hau da, ez dutela asko irakurtzen. Deigarria da datua, zeren unibertsitateak finkatuta dauzkan zeharkako gaitasunen artean, gaitasun komunikatiboa garrantzitsutzat jotzen baita. Irakurketaren langa koska bat gorago jar dakieke kazetaritzakoei. Ez da arrazoirik humanitateak maila apalean irakasteko, hain zuzen ere, kazetariari gizartean hain zeregin garrantzitsua esleitzen zaionean.

Kazetari gaiek ez dute liburuetarako joerarik erakusten, dakitelarik albistegintzan jardungo dutela lanbidez.

Hirugarren ondorioa deigarria da —kazetari bihurtuko direla jakinik— ikasleentatik %36k ez duela ‘inoiz’ edo ‘ia inoiz’ libururik irakurtzen. Honetan iruzkin okerra egingo

genuke kontsumo azkarreko gailuen eragina bakarrik bilatuko bagenu, zeren inguru kulturalak aspaldi mugarriturik baitaude irakurtzeko ohiturak.

Bestalde, zein hizkuntzatan irakurtzen duten galderako erantzunek, elebakartasuna gainditzeaz gain, elebitasuna jarraibide orri normalizatutzat hartzen dute, beti ere, elebitasunaren desorekaren barruan berbeta hegemonikoa gorago dela.

Postmodernitatean liburuko orri inprimatuari pare-parean jarri zaio orri digitala, bai irakurketarako, baita idazketarako ere.

Bigarren helburuari lotuta interpretazio esplizitua eta implizitua bereizteko eskatu zaienean, ordea, ez dira jabetu nola informazio-testuetan kazetariak interpretatu eta birformulatu egiten dituen albisteak, eta sarritan modu implizituan. Hots, nahiz eta kazetariak datuz eta dataz beterik osatzen duen albistea, beti duela barruan interpretazioa eta balioespena.

Profesioz kazetari izango direla dakigularik, aipagarria eta etorkizun-iragarlea da jarraiko ondorioa ere, ezen erantzuten dute egunkaria irakurtzeko darabilten bidea edo euskarria Internet dela nagusi eta izan ere ehuneko esanguratsuetan, %69koa baita. Halako ihardespenez laguntzen digute ulertzen, esaterako, *Berria Igandea* %40ak baino ez ezagutzea —ezagutzea, ez irakurtzea— edo etorkizuna marrazten.

Ondorioetan irakurketara iristerakoan, aise ohartzen gara paradigma aldatu egin dela. Jadanik ezin genezake esan maiz errepikatu ohi dena, alegia, irakurketaz esatekoa esanda dagoela, ezen postmodernitatean liburuko orri inprimatuari pare-parean jarri zaio orri digitala, bai irakurketarako, baita idazketarako ere.

Kazetaria irakurle nahiz idazle dela jakinik, adituen artean adostasuna irabazia duen perpausa dakargu hona: Ondo irakurtzea dela ondo idazteko lehen urratsa. Hau da, lehenengo irakurtzen ikasten dugula eta ostean ikasteko irakurtzen.

Ondorioetan, Nicholas Carr-en kezka erantzuten diogu, esanez etorkizunean zibernauten adimena gertatuta aurkituko dela sakoneko irakurketan eta pentsamenduan jarduteko, kontzentrazio ahalmena berreskuratuz, Internetek galarazi gabe. Liburuek, sarean aurkitzen dugun informazio multzo handia berregiten lagunduko digute, ze,

liburuen irakurketa beti da ordenaren eta logikaren esperientzia bizitzea. Horrexegatik da bitartekoa egokia bezain gomendagarria.

Teknologia ez da teknika soilik, baizik eta hizkerak ere bai; ez da forma kontua bakarrik, ezen fondoa ere baita.

Laugarren helburuaren harira, iritzi onargarria da teknologiek moldatu egiten dituztela irakurketa-praktikak, ez da kontua, soilik, gutxiago edo gehiago irakurtzen dela, baizik-eta beste era batera irakurtzen dela ere bai, labur, tarteka, urduri; *whatsapp*-ekin idazkera molde laburragoak eta ahozkoagoak lantzen dihardugu. Helburuetan proposatzen genuena frogatuzat uzten dugu, alegia, *Twitter*-ek eta *Facebook*-ek eduki daukatela eragina kazetaritzako prosan. Beraz, teknologia ez dela teknika soilik, baizik eta hizkerak ere bai. Horrexegatik sortu dira narrazio forma berriak kazetaritza digitalean. Dena den, argiturik geratu da ez dela forma kontua bakarrik, ezen fondoa ere baita.

Testuinguru horretan ulertu behar da irakurketaren ezinbestekotasuna *slow journalism*ek bereganatu dituen berezitasunak bururaino eraman ahal izateko: sakontasuna, benetakotasuna, eta sinesgarritasuna. Hori, ordea, ez da eragozpen baieztatzeko liburua medio pausatua eta egokia den bezala arreta luzeko uneetarako, formatu digitala, ez dela oztopo luze eta zabal irakurtzeko

Pentsaera malguko narrazioekin gizarte-aniztasunera iristen gara, komunikazioa orokortzeari esker lekuan lekuko kulturak eta dialektoak indartuz.

Pentsaera malguko narrazioekin gizarte-aniztasun interkonektatura iristen gara, dogmatismotik ihes eginik mundu plural batera irekiz. Guk, seigarren helburua gogoan eta euskal mundura jauzi eginda, *Berria* egunkaria nahiz herri-aldizkariak ulerkera honen humusean kokatzen ditugu, baita kazetaritza horretako historia nahiz istorioak ere. Komunikazioa orokortzeari esker, interpretazio desberdintasunarekin batera, lekuan lekuko kulturak eta dialektoak —hizkuntzak— indartu egiten dira. Erabat deigarria da onartzea globalizazioak printzipio eztabaida ezina dirudien garaiotan, lekuan lekuko kazetaritza gertatzea polarizazio politikoa murrizteko gai den aldizkaria edo medioa.

Kazeta lokala babesteko, eta irakurle kritiko sakona trebatzeko, Kazetaritzako Fakultatera nahiz hiritarren heziketa prozesu osora begirada luzatzea ezinbestekoa da,

ezen biztanleek kazetaritza hiritarreen edo gizarteko kazetaritza parte-hartzailean albiste sortaile nahiz zabaltzaile bihurtzen dira, ikuspegi hegemonikotik bereziz. Euskal Herriko jokabideetara bagatoz, kazetaritza parte-hartzaileko adibide ugari aurkituko dugu. Izatez, tokiko komunikabideak dira, tradizio luzea dutenak, hedabide komunitario, alternatibo edo eta oinarri sozial zabalekoak. Hala ere, online plataformak eta sare sozialak gero eta gehiago diren arren, gutxi batzuen esku dirau oraindik informazioaren gaineko botereak eta eraginak. Horrez gainera, GAFA —*Google, Amazon, Facebook* eta *Apple*— lau teknologia-konpainia handiak eragile ekonomiko eta finantzario izateaz gain, agente ideologikoak ere badira era digitalean. Era berean, lau taldeontzat helburuen artean sartzen da kontsumismoa, indibidualismoa.

